AUTONOMI ESTATUTUAREN ITZULPENAK

udako euskal unibertsitatea

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

IRUÑEA 1980

AUTONOMI ESTATUTUAREN ITZULPENAK

Hizkuntzazko eztabaidarako materialak

Edukinak:

. Jatorrizko idazlana eta haren itzulpenak

. Itzulpen horien azterketa-lana (Fernando Mendizabal)

I

II

Hemen aurkezten dugun lan hau aspaldi batean Zuzenbide-eremurako egin azterketa batzuren fruitu bat besterik ez da.

Hain zuzen, Zuzenbidearen hiztegigintzan ari direnen helburua da, Zuzenbide munduko hiztegia eta hizkera, ahal den neurrian, finkatzea eta normalizatzea. Gai berari buruz arlo honetan ageri diren bi joera desberdinen mostra bat eskaintzen dugu hemen, Autonomi Estatutuaren bi itzulpenak, Euskerazaintzarena eta ofizialarena, aurkeztean.

Euskarak hartu behar duen bidea erabakitzen laguntzeko aztergai besterik ez dira hauek. Ez dugu parterik hartzen ez battaren ez bestearen alde, bilatzen duguna da kritika positibo bat eta eztabaida argigarri bat.

Charra:

Textua Euskerazaintzakoarena bakarrik dago osoro aztertu rik. Arrazoi sinple bategatik: bera agertu zenean lehenengoa eta bakarra zelako, eta estatutuaren azterketa honi buruz egin zelako. Gure asmoa honekin bete zen eta lana luzea zenez gero bigarrenari, ofizialari alegia, zati baten azterketa besterik ez zitzaion egin.

Título preliminar

Artículo 1

El Pueblo Vasco o Euskal-Herria, como expresión de su nacionalidad y para acceder a su autogobierno, se constituye en Comunidad Autónoma dentro del Estado español bajo la denominación de Euskadi o País Vasco, de acuerdo con la Constitución y con el presente Estatuto que es su norma institucional básica.

Artículo 2

1. Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, así como Navarra, tienen derecho a formar parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. El territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco quedará integrado por los Territorios Históricos que coinciden con las provincias, en sus actuales límites, de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, así como la de Navarra, en el supuesto de que esta última decida su incorporación de acuerdo con el procedimiento establecido en la Disposición Transitoria 4ª de la Constitución.

Artículo 3

Cada uno de los Territorios Históricos que integran el País Vasco podrán, en el seno del mismo, conservar, o, en su caso, restablecer y actualizar su organización e instituciones privativas de autogobierno.

Artículo 4

La designación de la sede de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco se hará mediante Ley del Parlamento Vasco y dentro del territorio de la Comunidad Autónoma.

Artículo 5

1. La bandera del País Vasco es la bicrucífera, compuesta de aspa verde, cruz blanca superpuesta y fondo rojo.

2. Asimismo se reconocen las banderas y enseñas propias de los Territorios Históricos que integran la Comunidad Autónoma.

Atariko burua

1. artikulua

Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazgarri, eta bere burujabetasuna iristeko, espainol Estatuaren barruan Komunitate Autonomo gisa eratzen da. Beronen izena Euskadi zein Euskal Herria izango da; eta Konstituzio eta Estatuto honetan adierazten direnak izango ditu oinarrizko instituzio-arautzat.

2. artikulua

1. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak eta era berean Nafarroak ere, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren partaide izateko eskubidea dute.

2. Euskal Herriaren Komunitate Autonomoaren lurraldea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Herrialde Historikoez osatuko da, bai Nafarroakoarenaz ere, hauek egungo probintzien mugetan hartzen direlarik; eta baldin eta azkeneko horrek Konstituzioaren 4. agindu iragankorrean erabakitzen den prozeduraren arabera partaide izatea erabakitzen badu.

3. artikulua

Euskal Herria osatzen duen Herrialde Historikoetako bakoitzak, beti ere berorren baitan, autogobernuko bere antolakera eta instituzio propioak gorde ditzake edota, bestela, berrezar eta egunera.

4. artikulua

Euskal Biltzarreak emango duen legearen bitartez eta Komunitate Autonomoaren lurraldearen barruan egingo da Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren Erakunde komunen egoitzaren hautaketa.

5. artikulua

1. Euskal Herriko ezaugarria ikurriñ bigurutzeduna da: aspa berde bat, gurutze zuri bat gainean eta hondo gorriaz osatua.

2. Orobat onartzen dira Komunitate Autonomoaren barruko Herrialde Historikoetako banderak eta ezaugarriak.

Estatuko izenburua

1'CO ATALA

Euskalerria, bere erritasuna adierazteko a bere buruagintea lortu aal izateko Autonomi-lurralde biurtu da, España'ko Estadu barruan, Konstituzioaren eta Araudi onen arabera. Araudi au izango da bere erakundearen oiñarri-legea, eta Euzkadi edo Euskalerria izango du lurralde onek izena.

2'GN ATALA

1. Araba'k, Bizkaia'k eta Gipuzkoa'k, eta bai Naparroa'k, eskubide dute Euzkadi Autonomi-Lurraldea osotzeko.
2. Euskalerriari dagokion lurraldea, Kondaira-Lurraldeek osotuko dute, Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa erkiek edo probintziek gaur dituzten mugen barruan. Bai Naparroa'k ere, noizbait Konstituzioaren 4'gn Erabaki Iragankorrean aginduta dagon eran elkartzea erabaki ezkero.

3'GN ATALA

Euzkadi osotzen duten Euskalerriko Kondaira-Lurralde bakoitzak, aren barruan, bere aginte-bide eta erakundeei eutsi aal izango die, eta bear izan ezkero, birreraiki eta gaurkotu ere bai.

4'GN ATALA

Euskalerriko Parlamentu edo Legegintza-Biltzarraren Legez erabakiko da Autonomi-Lurralde guztirako diran erakunden egoitza non izango dan Autonomi-Lurraldearen mugabarruan.

5'GN ATA

1. Euzkadi'ko ikurriña, gurutzebikoa da: gorri gorria, gurutze orlegia zuzarka, eta gurutze zuria gaiñean.
2. Autonomi-Lurraldea osotzen duten Kondaira-Lurraldeetako ikur eta ezaugarri bereziak ere ontzat ematen dira.

Artículo 6

1. El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas.

2. Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta la diversidad socio-lingüística del País Vasco, garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento.

3. Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua.

4. La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia es institución consultiva oficial en lo referente al euskera.

5. Por ser el euskera patrimonio de otros territorios vascos y comunidades, además de los vínculos y correspondencia que mantengan las instituciones académicas y culturales, la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá solicitar del Gobierno español que celebre y presente, en su caso, a las Cortes Generales para su autorización los tratados o convenios que permitan el establecimiento de relaciones culturales con los Estados donde se integran o residan aquellos territorios y comunidades, a fin de salvaguardar y fomentar el euskera.

Artículo 7

1. A los efectos del presente Estatuto tendrán la condición política de vascos quienes tengan la vecindad administrativa de acuerdo con las Leyes generales del Estado, en cualquiera de los municipios integrados en el territorio de la Comunidad Autónoma.

2. Los residentes en el extranjero, así como sus descendientes, si así lo solicitasen, gozarán de idénticos derechos políticos que los residentes en el País Vasco, si hubieran tenido su última vecindad administrativa en Euskadi, siempre que conserven la nacionalidad española.

6. artikulua

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

2. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.

3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.

4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.

5. Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala –edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko–, horretara euskara zaindu eta bultza dadin.

7. artikulua

1. Estatuto honetaz balia ahal izateko, ondoko hauek izango dute euskaldunen kondizio politikoa: Estatuko lege orokorren arauera, Komunitate Autonomoaren lurraldeko edozein udaletan egoitza administratiboa duten guztiek.

2. Atzerrian bizi direnek eta gauza bera beroien ondokoek hala eskatzen baldin badute, Euskal Herrian bizi diren egoiliarrek dituzten eskubide berberak izango dituzte, baldin eta horien azken egoitza administratiboa Euskal Herrian izan bada, eta españatar naziotasunari eutsi badiote.

6'GN ATALA

1. Euskera, Euskalerriak jatorrizko duen izkuntza, ofiziala izango da Euzkadi'n —bai gaztelera ere—. Bertan bizi diran guztiek biak jakiteko ta erabiltzeko eskubidea dute.

2. Autonomi-Lurralde guztirako diran erakundeek, Euskalerriko gizarte ta izkuntza-maillako ezberdintasunak gogoan arturik, izkuntza biak erabiltzeko eskubidea zainduko dute, ofizialtasun arauak ezarri, eta biak jakitea lortzeko bear diran bideak eratu ta auei arauak ezarri.

3. Iñor ez da izkuntzagatik berezi bear.

4. Euskaltzaindia —"La Real Academia de la Lengua Vasca"— aolku-erakunde ofizialetakoa da euskerari dagozkionetan.

5. Euskera, beste euskal lurralde ta giza-talde batzuen ondasun ere dan ezkero, akademi ta kultura-erakundeek elkarrekin dituzten lotura ta arremanetaz gain, Euskalerriak euskeraren biziari eusteko ta indar emateko, España'ko Gobernuari ondorengo au eskatu aal izango dio: beste lurralde ta giza-talde oiek daudeneko estaduekin kulturazko arremanak sortzeko bear diran itun edo itzarpenak Gobernuak eratzea, eta bear izan ezkero, "Cortes Generales" diralakoeri onartu ditzaten aurkeztea.

7'GN ATALA

1. Araudi onen ondorioetarako, legez auek izango dira euskaldun: legezko bizilekua, Estaduko Lege orokorren arabera, Autonomi-Lurraldeko edozein uritan daukatenak.

2. Atzerrian bizi diranak eta beren ondorengoak, auek ala eskatu ezkero, españar iritartasuna daukaten bitartean, eta legezko bizilekua azkenengoz Euzkadi'n izan badute, Euskalerrian bizi diranen politika-eskubide ber-berak izango dituzte.

Artículo 8

Podrán agregarse a la Comunidad Autónoma del País Vasco otros territorios o municipios que estuvieran enclavados en su totalidad dentro del territorio de la misma, mediante el cumplimiento de los requisitos siguientes:

a) Que soliciten la incorporación el Ayuntamiento o la mayoría de los Ayuntamientos interesados, y que se oiga a la Comunidad o provincia a la que pertenezcan los Territorios o Municipios a agregar.

b) Que lo acuerden los habitantes de dicho Municipio o Territorio mediante referéndum expresamente convocado, previa la autorización competente al efecto y aprobado por mayoría de los votos válidos emitidos.

c) Que lo aprueben el Parlamento del País Vasco y posteriormente las Cortes Generales, del Estado, mediante Ley Orgánica.

Artículo 9

1. Los derechos y deberes fundamentales de los ciudadanos del País Vasco son los establecidos en la Constitución.

2. Los poderes públicos vascos, en el ámbito de su competencia:

a) Velarán y garantizarán el adecuado ejercicio de los derechos y deberes fundamentales de los ciudadanos.

b) Impulsarán particularmente una política tendente a la mejora de las condiciones de vida y trabajo.

c) Adoptarán aquellas medidas que tiendan a fomentar el incremento del empleo y la estabilidad económica.

d) Adoptarán aquellas medidas dirigidas a promover las condiciones y a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean efectivas y reales.

e) Facilitarán la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social del País Vasco.

8. artikulua

Euskal Herriko Komunitate Autonomoari, beronen lurraldean osorik kokaturik dauden eskualdeak edo udalbarrutiak erants dakizkioke, baldintza hauek betez gero:

a) Erasketa-eskabide hori Udalaren edo Udalen arteko gehiengoak egitea eta bide batez sartu nahi duten eskualdea edo udal barrutiak dauden Komunitate edo Probintziaren iritzia biltzea.

b) Delako udalbarruti edo lurralde horietako bizilagunek berek hala erabakitzea, horretarako bereziki antolatuko den referendumaren bidez, eta aldez aurretik baimen guztiak bildurik eta bozkatu diren boto baliodunen gehiengoa haintzakotzat harturik.

c) Euskal Herriko Biltzarreak lehenik eta Estatuko Gorte Nagusiek gero, Lege Organikoaren bidez, haintzakotzat hartzea.

9. artikulua

1. Euskal Herriko hiritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Konstituzioan finkaturik dauden berberak dira.

2. Euskal botere publikoek, beroiei dagozkien alorretan:

a) Hiritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilpen egokia zaindu eta bermatuko dute.

b) Bizitzeko eta lan egiteko kondizioen hobekuntza ekar dezakeen politika bultzatuko dute bereziki.

c) Enpleguaren gehikuntza eta ekonomiaren egonkortasuna sustatzen lagun dezaketen neurriak hartuko dituzte.

d) Gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan daitezen, diratekeen oztopoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartuko dituzte.

e) Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan hiritar guztien partehartzea erraztuko dute.

8'GN ATALA

Beste lurralde naiz uri batzuk ere, sar daitezke Euskalerriko Autonomi-Lurraldean, oso-osorik onen lurralde barrutian aurkitzen badira, eta onako baldintza auen bidez:

a) Sartzekotan dan lur-zatiko Udalak, edo-ta Udalik geienek, sartzea eskatu bear dute; eta dagozkien lurralde naiz probintziaren iritzia jaso ere bai.

b) Uri naiz lur-zati oietako biztanleek, bearrezko dan baimenez erri-galdeketa berezi bat egiñik, balio duten autarki edo boto geienen bidez, sartzea baietsi egin bear dute.

c) Euskalerriko Legegintza-Biltzar edo Parlamentuak ere ontzat eman bear du, eta bai azkenik Estaduk "Cortes Generales" diralakoek ere, Lege Nagusi bidez.

9'GN ATALA

1. Legezko euskaldunen oiñarrizko eskubide ta eginbearrak, Konstituzioan daudenak dira.

2. Euskalerriko erri-agintariek, dagozkien gaietan, eginkizun auek dituzte:

a) Bertako iritarrek oiñarrizko eskubide ta eginbearrak burutzeko, bear duten egokiera zaintzea ta babestea.

b) Bizimodua ta lanbideak obetzeko, ekintza-bideak indar bereziz bultzatzea.

c) Lan-aukerak ugaritzeko ta ekonomia sendotzeko, egiñaalak egitea.

d) Norberaren eta giza-taldeen askatasuna ta lege-berdintasuna egiazko ta benetakoak izan daitezen, bideak jartzea ta oztopoak kentzea.

e) Euskalerriko politika, ekonomia, kultura ta gizarte-bizitzan erritar guztiek esku artu dezaten, bideak jartzea.

Título I
(De las competencias del País Vasco)

Artículo 10

La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en las siguientes materias:

1. Demarcaciones territoriales municipales, sin perjuicio de las facultades correspondientes a los Territorios Históricos de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37 de este Estatuto.

2. Organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno dentro de las normas del presente Estatuto.

3. Legislación electoral interior que afecte al Parlamento Vasco, Juntas Generales y Diputaciones Forales, en los términos previstos por el presente Estatuto y sin perjuicio de las facultades correspondientes a los Territorios Históricos, de acuerdo con lo dispuesto, en el artículo 37 del mismo.

4. Régimen Local y Estatuto de los Funcionarios del País Vasco y de su Administración Local, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 149.1.18ª de la Constitución.

5. Conservación, modificación y desarrollo del Derecho Civil Foral y especial, escrito o consuetudinario propio de los Territorios Históricos que integran el País Vasco y la fijación del ámbito territorial de su vigencia.

6. Normas procesales y de procedimientos administrativos y económico-administrativo que se deriven de las especialidades del derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco.

Lenengo izenburua

I. Burua
(Euskal Herriari dagozkion konpetentziak)

Euskalerriari dagokion aginpide-sorta

10. artikulua

Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiei dagokienean konpetentzia exklusiboa du:

1. Udal barrutien mugaketak, Estatuto honen 37. artikuluan erabakitzen denaren arauera, herrialde Historikoei dagozkien ahalmenei kalterik egiteke.

2. Autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua, beti ere Estatuto honen arauen barruan.

3. Euskal Biltzarrea, Junta Nagusiak eta Diputazio Foralekin zerikusirik duten hauteskundeetarako barne-legegintza, Estatuto honetan seinalatzen denari jarraituz eta 37. artikuluan erabakitzen denaren arauera, Herrialde Historikoei dagozkien ahalmenei kalte egiteke.

4. Erregimen lokala eta Euskadiko eta bertako Administrazio Lokaleko funtzionarien Estatutoa, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan jartzen denari kalterik egiteke.

5. Euskal Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta berezi –idatzia nahiz ohizkoaren– kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere.

6. Euskal Herriko Zuzenbide sustantiboaren berezitasunetik eta beronen antolamendutik datozen arau prozesalak eta prozedura administratibo eta ekonomiko administratiboak.

10'GN ATALA

Euskalerriak berak bakarrik aginpide duan arazoak auek dira:

1. Uri-lurraldeen mugaketak, Araudi onen 37'gn atalean Kondaira-Lurraldeei dagozkien aginpideen kaltetan izan ezik.
2. Araudi onen barruan buruagin-teari dagozkion erakundeak antolatzea, auen arauak ezartzea eta ekinbidea zaintzea.
3. Euskalerriko Legegintza-Biltzar Nagusi, Batzar Nagusi ta Foru-Aldundiak autatzeko legegintza, Araudi onek agintzen duan eran, eta beraren 37'gn atalean, Kondaira-Lurraldeei dagozkien eskubideen kaltetan izan ezik.
4. Iritar, Udal eta Aldundi arteko arazoen legegintza, eta Gobernu, Aldundi eta Udaletako kargudun edo Erri-Langilleen Araudia eratzea, Konstituzioaren 149.1.18 atalean erabakita dagonaren kaltetan izan ezik.
5. Euskalerriko Kondaira-Lurraldeetako Iritar Foru-Legeen Bilduma eta lege bereziak, idatzitakoak naiz oiturazkoak, zaindu, aldatu ta eguneratzea, eta bakoitzaren agintepeko eremua mugatzea.
6. Euskalerriko aginte-molde ta jatorrizko legediaren iturri berezitik sortuak diran arau bidez, epaiketa-bideak, aginte-maillen arteko eta auen eta iritarren arteko arremanak zuzentzea, eta era berean, bai ekonomi-alorrekoak ere.

7. Bienes de dominio público y patrimoniales cuya titularidad corresponda a la Comunidad Autónoma, así como las servidumbres públicas en materias de sus competencias.

8. Montes, aprovechamientos y servicios forestales, vías pecuarias y pastos, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.23º de la Constitución.

9. Agricultura y Ganadería de acuerdo con la ordenación general de la economía.

10. Pesca en aguas interiores, marisqueo y agricultura, caza y pesca fluvial y lacustre.

11. Aprovechamientos hidráulicos, canales y regadíos cuando las aguas discurran íntegramente dentro del País Vasco; instalaciones de producción, distribución y transporte de energía, cuando este transporte no salga de su territorio y su aprovechamiento no afecte a otra provincia o Comunidad Autónoma; aguas minerales, termales y subterráneas. Todo ello sin perjuicio de lo establecido en el artículo 149.1.25º de la Constitución.

12. Asistencia social.

13. Fundaciones y Asociaciones de carácter docente, cultural artístico, benéfico, asistencial y similares, en tanto desarrollen principalmente sus funciones en el País Vasco.

14. Organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones y establecimientos de protección y tutela de menores, penitenciarios y de reinserción social, conforme a la legislación general en materia civil, penal y penitenciaria.

15. Ordenación farmacéutica de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 149.1.16º de la Constitución, e higiene, teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 18 de este Estatuto.

16. Investigación científica y técnica en coordinación con el Estado.

17. Cultura, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.2 de la Constitución.

18. Instituciones relacionadas con el fomento y enseñanza de las Bellas Artes. Artesanía.

7. Ondasun publikoak eta ondarezkoak, berauen titulartasuna Komunitate Autonomoari dagokionean, bai eta beraren konpetentzigaien zerbitzalgo publikoak ere.

8. Mendi-basoak, oihanen erabilera eta zerbitzuak, abelbideak eta bazka-larreak, Konstituzioaren 149.1.23. artikuluari kalterik egiteke.

9. Nekazaritza eta abelazkuntza ekonomiaren antolaketa orokorraren arauera.

10. Barne-uretako arrantza, itsaski-bilketa eta arrain hazkuntza, ehiza eta hibai-aintziretako arrantza.

11. Ur erabilerak, kanale eta ureztaketak, urak osoki Euskadin kurri daitezenean, energi produkzioa, banaketa eta garraiatzeko instalakuntzak, garraioa euskal lurraldetik kanpora irteten ez denean eta beraien erabilera beste probintzia edo Komunitate Autonomori kalterik egiten ez dionean: metalurak, urberoak eta lurpekoak. Hori guztiori Konstituzioaren 149.1.25 artikuluari kalte egiteke.

12. Laguntza soziala.

13. Irakaskuntzari, kulturari, arte, ongintza, ardura sozialari eta antzekoei laguntzeko diren Fundazio eta Elkarteak berauek beren funtzioak ia erabat Euskal Herrian betetzen dituztenean.

14. Adinera heldugabeen babes eta tutoregorako, gartzelatzeko eta gizartean berrintegratzeko erakunde eta etxeen antolaketa, erregimena eta funtzionamendua, gai zibil, gaztigu eta gartzelazkoez legegintza orokorrak dioenaren arauera.

15. Farmazi antolaketa Konstituzioaren 149.1.16. artikuluaren erabakiaren arauera, bai eta higienea ere, Estatuto honen 18. artikuluan jarria kontutan harturik.

16. Zientzien eta tekniken ikerpena, Estatuarekin koordinatuki.

17. Kultura, Konstituzioaren 149.2. artikuluan erabakiari kalterik egiteke.

18. Arte Ederrak irakasteko eta berauek bultzatzeko daudekeen Erakundeak. Eskulangintza.

7. Euskalerriak bereak dituan erriondasunak eta ondarezkoak; eta erriaren lur-eskubideak, Euskalerriari dagokion neurrian.
8. Mendiak, basoetako etekiñak eta serbitzuak, abere-bideak eta larreak, Konstituzioaren 149.1.23 atalean erabakita dagonaren kaltetan izan ezik.
9. Nekazaritza ta abelazkuntza, Estaduaren ekonomi-arau orokorren arabera.
10. Itsas-muga barruko arrantzua, maskulu-langintza, uretakoen azkuntza, eiza, eta ibai ta zingiretako arrantzua.
11. Uren erabilpenak, urbide ta ureztaketak, urak bete-betean Euskalerri barruan doazenean; tximistindarra sortu, banatu ta Euskalerri-barruko beste tokietara eramatea, beste probintzi naiz Autonomi-Lurralderen bati kalterik egin ezean; metal-urak, ur beroak eta lurpeko urak. Guzti ori, Konstituzioaren 149.1.25 atalean erabakita dagonaren kaltetan izan ezik.
12. Gizarte-laguntza.
13. Egitekoa geienik Euskalerrian burutzen duten irakaste, kultura, erti-lan, ongintza, gizarte-laguntza ta antzeko elburuetarako Emaitza-Zaingo eta Elkarteak.
14. Lege-adiñez beerakoak zaindu ta babesteko etxe ta Erakundeak antolatzea, auei arauak ezartzea, ta ekinbideak zaintzea; era berean, espetxeak eta ostera gizarteratzen laguntzeko erakundeak ere, legedi orokorrak espetxe, zigor eta iritar-arazoetan agintzen duanaren esanera.
15. Sendagai-legeak, Konstituzioak 149.1.16 atalean dionaren arabera; eta osasun-legeak, Araudi onen 18'gn atalean agindutakoa oiñarritzat arturik.
16. Jakintza ta teknika-ikerketak, Estaduarekin arremanetan.
17. Kultura, Konstituzioak 149.2 atalean erabakitakoaren kaltetan izan ezik.
18. Erti-lanak edo Eder-Ertiak irakatsi ta indartzeko Erakundeak. Banakako langintza.

19. Patrimonio histórico, artístico, monumental, arqueológico y científico, asumiendo la Comunidad Autónoma el cumplimiento de las normas y obligaciones que establezca el Estado para la defensa de dicho patrimonio contra la exportación y la expoliación.

20. Archivos, Bibliotecas y Museos que no sean de titularidad estatal.

21. Cámaras Agrarias, de la Propiedad, Cofradías de Pescadores, Cámaras de Comercio, Industria y Navegación, sin perjuicio de la competencia del Estado en materia de comercio exterior.

22. Colegios Profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución. Nombramiento de Notarios de acuerdo con las Leves del Estado.

23. Cooperativas, Mutualidades no integradas en la Seguridad Social y Pósitos, conforme a la legislación general en materia mercantil.

24. Sector público propio del País Vasco en cuanto no esté afectado por otras normas de este Estatuto.

25. Promoción, desarrollo económico y planificación de la actividad económica en el País Vasco de acuerdo con la ordenación general de la economía.

26. Instituciones de crédito corporativo, público y territorial y Cajas de Ahorro en el marco de las bases que sobre ordenación del crédito y la banca dicte el Estado y de la política monetaria general.

27. Comercio interior, sin perjuicio de la política general de precios, la libre circulación de bienes en el territorio del Estado y de la legislación sobre defensa de la competencia. Ferias y mercados interiores. Denominaciones de origen y publicidad en colaboración con el Estado.

28. Defensa del consumidor y del usuario en los términos del apartado anterior.

29. Establecimiento y regulación de Bolsas de Comercio y demás centros de contratación de mercancías y de valores conforme a la legislación mercantil.

19. Kultur, histori, arte, monumentu, arkeologi eta zientzi ondareak, exportazio eta expoliazioaren kontra, esandako ondare horien alde Estatuak ezarriko dituen arauak eta beharkiak Komunitate Autonomoak bere gain hartuko dituelarik.

20. Artxiboak, Bibliotekak eta Museoak, Estatuak berorien titulartasunik ez duenean.

21. Nekazal eta Jabeko Ganbarak, Arrantzaleen Kofradiak, Merkatalgo, Industri eta Nabigazio Ganbarak, atzerriarekiko merkatalgoan Estatuaren konpetentziari kalterik egiteke.

22. Kolegio Profesionalak eta profesio tituludunen beteraztea, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan erabakiari kalterik egiteke. Estatuaren legeen arauera notariak izendatzea.

23. Kooperatibak, Seguru Sozialean sartu gabe dauden Mutualitate eta Posituak, beti ere merkatal legegintza orokorrak dioenaren arauera.

24. Euskadiko sektore publiko propioa, Estatuto honetako beste arau batzuk hura ukitzen ez duten neurrian.

25. Ekonomiaren bultzapen eta aurrerabidea eta Euskal Herriko ekintza ekonomikoaren plangintza, ekonomiaren antolaketa orokorraren arauera.

26. Kredito gorporatibo, publiko eta lurraldezkorako Erakundeak, eta Aurrezki Kutxak, Estatuak kredito eta bankaren ordenamenduaz ezarriko dituen oinarriak eta monetar politika orokorraren barrutia errespetatuz.

27. Barne merkatalgoa, prezioen politika orokorraren, Estatu barruan ondasunen joanetorri librearen eta konkurrentziaren aldeko legegintzari kalterik egiteke. Feriak eta barneko merkatuak. Jatorrizko izena eta iragarbidea Estatuarekin koordinatuki.

28. Kontsumatzaile eta erabiltzailearen defentsa goiko apartatuan mugatzen den bezala.

29. Merkatalgo Burtsa eta gainerantzeko merkantziak eta baloreak kontratatzeko zentroak antolatu eta erregulatzea, merkatal legeen arauera.

19. Kondaira, erti, monumentu, arkeologi ta jakite-alorretako ondarea; ondare ori zaintzeko Estaduak jartzen dituan arau ta eginbearrak Euskalerriak bere gain artuko ditu, lapurretarik eta atzerrira eramaterik gerta ez dadin.

20. Estaduarenak éz diran Idazkitegi, Liburutegi ta Museoak.

21. Nekazari-Batzak, Etxedunen Batzak, Arrantzale-Elkarteak; Industri - Itsasbide - Saleroste-Batzak. Estaduak atzerri-saleroskeian dituan eskubideen kaltetan izan ezik.

22. Profesiodunen Elkarteak eta tituludun profesioen erabilkizunak, Konstituzioan 36 eta 139'gn ataletan erabakitakoen kaltetan izan ezik. Notarioak izendatzea, Estadu-legeen arabera.

23. Lankide-baltzuak, Gizarte-Segurantzan ez dauden Laguntza-elkarteak, nekazarien Segurantza-Elkarteak, Estaduaren merkataritzako lege orokorren arabera.

24. Euskalerriari dagozkion erri-serbitzuak, Araudi onlako beste arauen kaltetan izan ezik.

25. Euskalerriko ekonomi-ekinbidea suspertzea, aberastea ta aren plangintza, Estaduaren ekonomi-lege orokorren arabera.

26. Erri-erakunde, uri ta lurralde-elkarteentzako kreditu-baltzuak, eta Aurrezki-Kutxak, Estaduak kredituari eta bankuei buruz ezarriko dituan arauen esanetara, eta aren diru-politika orokorraren giroan.

27. Euskalerri-barruko saleroskeia; baiña salneurri-politika orokorraren kaltetan, naiz Estaduko muga-barruko ondasun-erabilketa librearen kaltetan eta merkatu-askatasunezko legearen kaltetan izan ezik. Euskalerriko periak eta azokak. Jatorri-deiturak eta beroien zabalkundea, Estaduarekin elkar-lanean.

28. Erosle ta erabiltzallleen interesak zaintzea, aurreko zenbakian erabakirik dagon eran.

29. Balio-agirien Merkatu Nagusiak edo Boltsak, eta beste baliozko tai ta salgaiak salerosteko azokak sortu, ta auen arauak ezartzea, Estaduaren merkataritza-legeen arabera.

30. Industria, con exclusión de la instalación, ampliación y traslado de industrias sujetas a normas especiales por razones de seguridad, interés militar y sanitario y aquellas que precisen de legislación específica para estas funciones, y las que requieran de contratos previos de transferencia de tecnología extranjera. En la reestructuración de sectores industriales, corresponde al País Vasco el desarrollo y ejecución de los planes establecidos por el Estado.

31. Ordenación del territorio y del litoral, urbanismo y vivienda.

32. Ferrocarriles, transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable, puertos, helipuertos, aeropuertos y servicio meteorológico del País Vasco, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.20° y 21° de la Constitución. Centros de contratación y terminales de carga en materia de transportes.

33. Obras Públicas que no tengan la calificación legal de interés general o cuya realización no afecte a otros territorios.

34. En materia de carreteras y caminos, además de las competencias contenidas en el apartado 5, número 1 del artículo 148 de la Constitución, las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos, conservarán íntegramente el régimen jurídico y competencias que ostenten o que, en su caso hayan de recobrar a tenor del artículo 3 de este Estatuto.

35. Casinos, juegos y apuestas, con excepción de las Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas.

36. Turismo y Deporte. Ocio y esparcimiento.

37. Estadística del País Vasco para sus propios fines y competencias.

38. Espectáculos.

39. Desarrollo comunitario. Condición femenina. Política infantil, juvenil y de la tercera edad.

30. Industria, segurtasun, garrantzi militar eta osasun arrazoiengatik eta lege berezipean diratekeen industrien ezarkuntza, zabalpen eta lekualdatzea izan ezik, ez eta funtzio hauetarako legegintza espezifik behar duten guztiak ere, eta atzerritar teknologiaren transferentzia egiteko aldez aurretiko kontratoak behar dituztenak ere ez. Industri sektoreen berrestrukturaketan Estatuak ezarriko dituen planak aurrera eraman eta betetzea Euskal Herriari dagokio.

31. Lurralde, kosta, hirigintza eta etxebizitzen antolaketa.

32. Trenbideak, lehor, itsaso, hibai eta kablezko garraioak, portuak, heliportuak, aireportuak eta Euskal Herriko Meteorologi Zerbitzua, Konstituzioaren 149.1.20 eta 21. artikuluaren erabakiari kalterik egiteke. Kontratatzeko zentroak eta garraio arazoei dagokienez kargarako bukalekuak ere bai.

33. Interes orokorraren legezko kalifikapenik ez duten Lan Publikoak, edo eta berauen betetzeak beste lurralderik ukituko ez dutenak.

34. Kamio-bideei dagozkienetan, Konstituzioaren 148. artikuluaren 1 zenbakiaren 5. apartatuan bildurik dauden konpetentziez gainera, Herrialde Historikoetako Diputazio Foralek osorik gordeko dituzte beren baitan dituzten erregimen juridiko eta konpetentziak, edo eta, hala nahi izanez gero, Estatutuaren 3. artikuluaren arauera berrartuko dituztenak.

35. Kasino, joko eta apustuak **Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas** deritzenak izan ezik.

36. Turismo eta Kirolak. Aisia eta Atsedena.

37. Euskal Herriko Estatistika, beraren helburu eta konpetentzietarako.

38. Ikusgarriak.

39. Komunitatearen aurrerabidea. Emakume kondizioaren arazoa. Haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika.

30. Industria; baiña segurantzi-arrazoiengatik, gud.-elburuengatik edo erri-osasunagatik arau berezien menpean dauden industri-eraikitze, aunditze ta aldaketak izan ezik; era berean, eginkizun ofetarako legedi berezia bear dutenak, eta atzerriko teknologia ekartzeko aurre-itunak bear dituztenak izan ezik. Industri-alorrak birregituratzean, Euskalerriari dagokio Estaduak erabakitako planak edo egitasmoak bultzatzea ta betetzea.

31. Itsasaldearen eta lurraldearen antolabidea, urigintza ta etxe-bizitzak.

32. Trenbideak, eta lurrez, itsasoz, ibaiez eta kablez egiten diran eraman-ekarriak; itsasportuak, eliportuak eta aideportuak, eta Euskalerriko Eguraldi-adierazketa; Konstituzioaren 149.1.20 ta 21'gn zenbakietan agindutakoaren kaltetan izan ezik. Saleroskетarako tratu-lekuak, eta karraioen burutze-tokiak.

33. Erri-lanak, baiña Estadu-legez "guztientzat onurakor" izendatuak izan ezik, eta burutzeko an beste lurralde entzat kalteгarri izan ezik.

34. Bide ta bidezabalen arazoetan, Konstituzioaren 148.1.5 atalean sartzen diran eskubideetaz gaiñera, Kondaira-Lurraldeetako Foru-Aldundiek leendik dituzten lege-antolaketa ta eskubideei oso-osorik eutsiko diete, eta bear izan ezkero, Araudi ontako 3'gn atalaren arabera birreskuratuko dituzte.

35. Kasinoak, jokoak eta apostuak, baiña "Apuestas Mutuas Deportivo Benéficas" diralakoak izan ezik.

36. Turismoa ta kirolak. Atseden-bideak.

37. Euskalerriko Estadistika, Euskalerriaren elburu ta aginpideak betetzeko.

38. Ikusgaiak.

39. Elkartasun-sena errian pizkortzea. Emakumeen egoera obetzea. Aurtzaro, gaztaro ta zartzaroari dagokien eginpidea.

Artículo 11

1. Es de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio, de la legislación básica del Estado en las siguientes materias:

a) Medio ambiente y ecología.

b) Expropiación forzosa, contratos y concesiones administrativas, en el ámbito de sus competencias y sistema de responsabilidad de la Administración del País Vasco.

c) Ordenación del sector pesquero del País Vasco.

2. Es también de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio, de las bases, en los términos que las mismas señalen, en las siguientes materias:

a) Ordenación del crédito, banca y seguros.

b) Reserva al sector público de recursos o servicios esenciales, especialmente en caso de monopolio, e intervención de empresas cuando lo exija el interés general.

c) Régimen minero y energético. Recursos geotérmicos.

11. artikulua

1. Euskadiko Komunitate Autonomoaren konpetentziapekoa da, beraren barrutian, Estatuaren oinarrizko legegintzaren aurrerabide legislatiboa eta beronen beteraztea, ondoko gaiotan:

a) Ingurugiroa eta ekologia.

b) Ezinbesteko desjabetzea, kontratu eta kontzesio administratiboak, guztiok berari dagozkion konpetentzietan, eta Euskal Herriko Administrazioaren erantzunkizun-sistema.

c) Euskal Herriko arrantza-sektorearen antolaketa.

2. Euskadiko Komunitate Autonomoaren konpetentziapean dago, halaber, beraren barrutian, ondoko gaion oinarrien aurrerabide legislatiboa eta beronen beteraztea, beti ere beroiek seinalatzen dituzten mugen arauera:

a) Kredito, banka eta aseguroen antolaketa.

b) Oinarrizko baliabideak edo beharrenezko zerbitzuak sektore publikoari erreserbatzea, monopoliozkoak direnean bereziki, bai eta gehiengoaren interesak hala eskatzen duenean enpresetan eskua izatea ere.

c) Meatze eta energiarekiko erregimena. Baliabide geotermikoak.

11'GN ATALA

1. Euskalerriari dagokio Estaduak ondorengo gai auetan duan legedia euskal-legez osotzea ta bere lurraldean bete araztea:

a) Inguru-giroa ta ekologia edo izadi-zaingoa.

b) Legez kanpoko ondasunen inmatrikulazioa, [illegible] dalo lanpidetza-baimenak, eta agintaritza ekin egindako itunak. Euskalerriak dituen agintepide muga-barruan eta agintaritzaren eranzupidean.

c) Euskalerriko arrantzu-sailaren antolabidea.

2. Euskalerriari dagokio ondorengo arau auek, beroiek agintzen dituen eran, euskal-legez osotzea ta bere lurraldean bete araztea:

a) Kreditu, banku ta aseguru-baltzuen arauak.

b) Ondasun eta bear-beharrezko serbitzuei erri-alorrean eustea erabalitzen duten arauak, baez ere monopoliorik izan ezkero, edo-ta Estaduko biztanleen onura edo interesak, baltzuetan eskuratzea eskatzen duanean.

c) Meatzen eta indar-iturrien araubidea. Lurpeko beroaren araubidea.

Artículo 12

Corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la ejecución de la legislación del Estado en las materias siguientes:

1. Legislación penitenciaria.

2. Legislación laboral, asumiendo las facultades y competencias que en este terreno ostenta actualmente el Estado respecto a las relaciones laborales; también la facultad de organizar, dirigir y tutelar, con la alta inspección del Estado, los servicios de éste para la ejecución de la legislación laboral, procurando que las condiciones de trabajo se adecuen al nivel del desarrollo y progreso social, promoviendo la cualificación de los trabajadores y su formación integral.

3. Nombramiento de Registradores de la Propiedad, Agentes de Cambio y Bolsa y Corredores de Comercio. Intervención en la Fijación de las demarcaciones correspondientes en su caso.

4. Propiedad intelectual e industrial.

5. Pesas y medidas; contraste de metales.

6. Ferias internacionales celebradas en el País Vasco.

7. Sector público estatal en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, la que tendrá participación en los casos y actividades que proceda.

8. Puertos y aeropuertos con calificación del interés general, cuando el Estado no se reserve su gestión directa.

9. Ordenación del transporte de mercancías y viajeros que tengan su origen y destino dentro del territorio de la Comunidad Autónoma, aunque discurran sobre las infraestructuras de titularidad estatal a que hace referencia el número 21 del apartado 1 del artículo 149 de la Constitución, sin perjuicio de la ejecución directa que se reserve el Estado.

10. Salvamento marítimo y vertidos industriales y contaminantes en las aguas territoriales del Estado correspondientes al litoral vasco.

12. artikulua

Euskal Herriko Komunitate Autonomoari ondoko gaietan Estatuaren legegintzaren beteraztea dagokio:

1. Gartzelei buruzko legegintza.

2. Lanari buruzko legegintza, lan harremanei dagozkienetan Estatuak gaur egun dituen ahalmen eta konpetentziak bere gain hartuz, bai eta, Estatuaren goi inspekzioarekin batera, lanari buruzko legeak betetzeko haren zerbitzuak eratu, zuzendu eta babesteko ahalmena ere, langileen kualifikazioa eta hezkuntza osoa bultza daitezen lan-baldintzak gizartearen aurrerabide eta aitzinamenduari egokitzen saiatuz.

3. Jabegoaren Erregistratzaileen, Ganbio eta Burtsako Agenteen eta Merkatal Korredoreen izendapena. Eta hala behar balitz, berauei dagozkien mugen finkaketan esku izatea.

4. Jabego intelektual eta industriazkoa.

5. Pisuak eta neurriak; metalen kontrastea.

6. Euskal Herrian egingo diren nazioarteko feriak.

7. Komunitate Autonomoaren lurralde barrutiko Estatuaren sektore publikoa, hark, egoki zaizkion kasu eta egitekoetan eskuhartzaile izanik.

8. Gehiengoaren interesekotzat jotako portu eta aireportuak, Estatuak berorien zuzenkako gestioa beretzat erreserbatzen ez duenean.

9. Merkantzia eta bidaztien garraioaren ordenamendua, hasiera eta amaia Komunitate Autonomoaren lurralde barrutian denean, garraio hori Konstituzioaren 149. artikularen 1. apartatuaren 21. zenbakiak dioenez, titulartasun estatalaren azpiegituraren bidezkoa izan arren, Estatuak bere gain hartuko duen zuzenkako beterazteari kalterik egiteke.

10. Itsas salbamendua eta Euskal kostari dagozkion Estatuaren uretan industri isuri eta gai kutsakorren arazoa.

12'GN ATALA

Euskalerriari dagokio. Estaduak ondorengo gai auetan duan legedia betetzea eta bete araztea:

1. Espetxe-legeak.

2. Lan-arazoetako legeak, laneko artuemanei buruz oraingoz Estaduak dituan aginpideak bere gain arturik; era berean, lan-legedia betetzeko ta bete araztek Estaduak dituan serbitzuak. Estadu beraren begiratupean, arazolatu, zuzendu ta zaintzeko aginpidea ere, gizarte-aziera ta aurrerapenari lan-giroa egokitzen saiatuz, eta langileen gertuerari ta beren osoko ezierari eragiñez.

3. Jabetasun-liburuen Arduradunak, Diru ta Balio-Agirien Artekariak eta Salerosketa-Egiztalariak izendatzea. Oietako bakoitzari dagozkion lur-mugak ezartea.

4. Burulanen eta industri-lanen jabetasuna.

5. Neurketa-zaingoa: metal-sillutzea.

6. Euskalerrian egin oi diran erresuma-arteko azokak.

7. Estaduak Euskalerrian dituen erri-serbitzuak. Beroietan, Euskalerriak izango du esku egoki letorkenean.

8. "Guztienzat onurakor" izendatuak diran itsas-portu ta aireportuak. Estaduak bere eskutik uzten ez dituanean.

9. Euskalerritik irten gabe egiten dan salgai eta bidaztien karraioaraubidea, Konstituzioaren 149.1.21 atalean aipatzen diran Estaduaren bideetan egiten danean ere; Estaduak ber-berak egiteko duan eskubidea ukatu gabe.

10. Itsasoko salba-bideak, industriondakin eta kutsagarriak, euskal itsasaldeari dagozkion Estadupeko uretan.

Artículo 13

1. En relación con la Administración de Justicia, exceptuada la jurisdicción militar, la Comunidad Autónoma del País Vasco ejercerá, en su territorio las facultades que las Leyes Orgánicas del Poder Judicial y del Consejo General del Poder Judicial reconozcan, reserven o atribuyan al Gobierno.

2. Corresponde íntegramente al Estado, de conformidad con las Leyes generales, el derecho de gracia y la organización y el funcionamiento del Ministerio Fiscal.

Artículo 14

1. La competencia de los órganos jusrisdiccionales en el País Vasco se extiende:

a) En el orden civil, a todas las instancias y grados, incluidos los recursos de casación y de revisión en las materias del Derecho Civil Foral propio del País Vasco.

b) En el orden penal y social, a todas las instancias y grados, con excepción de los recursos de casación y de revisión.

c) En el orden contencioso-administrativo, a todas las instancias y grados cuando se trate de actos dictados por la Administración del País Vasco, en las materias cuya legislación exclusiva corresponde a la Comunidad Autónoma, y, en primera instancia, cuando se trate de actos dictados por la Administración del Estado.

d) A las cuestiones de competencia entre órganos judiciales del País Vasco.

e) A los recursos sobre calificación de documentos referentes al Derecho privativo vasco que deban tener acceso a los Registros de la Propiedad.

2. En las restantes materias se podrán interponer ante el Tribunal Supremo los recursos que, según las leyes, procedan. El Tribunal Supremo resolverá también los conflictos de competencia y de jurisdicción entre los órganos judiciales del País Vasco y los demás del Estado.

13. artikulua

1. Justizi Administrazioari dagokionez, justizia militarra alde batera utzirik, Euskadiko Komunitate Autonomoaren esku egongo dira, bere barrutian, Justizi Boterearen eta Justizi Boterearen Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoek Gobernuari ezagutu, erreserbatu edo gainjartzen dizkioten ahalmenak.

2. Lege orokorren arauera, Estatuari ez besteri dagokio, osorik, barkatzeko eskubidea eta Ministraritza Fiskalaren antolaketa eta funtzionamendua.

14. artikulua

1. Euskal Herriko jurisdikzio organoen konpetentzia ondoko hauetara hedatzen da:

a) Zibil mailan instantzia eta gradu guztietara, Euskadiko Zuzenbide Zibil Foralaren gaietan kasazio eta berrikusketazko errekurtsoak barne direlarik.

b) Gaztigatzeko eta sozial mailan, instantzia eta gradu guztietara, kasazio eta berrikusketazko errekurtsoak izan ezik.

c) Kontentzioso-administratibo mailan eta Komunitate Autonomoak legegintza exklusiboa dueneko gaietan instantzia eta gradu guztietara, beraiek Euskal Herriko Administrazioak diktaturikoak izanez gero, eta lehen instantzian, aldiz, Estatuko Administrazioak diktaturikoak baldin badira.

d) Euskal Herriko organo judizialen arteko konpetentzi arazoetara.

e) Jabegoaren Erregistroetan sarrera eduki behar duten Euskal Zuzenbide bereziaren dokumentuen kalifikapenari buruzko errekurtsoetara

2. Beste gainerantzeko gaietan, Hauzitegi Gorenean legeen araueerako errekurtsoak sar daitezke. Hauzitegi Gorenak, gainera, Euskadiko organo judizialen eta Estatuko besteen arteko arazoak ere erabakiko ditu.

13'GN ATALA

1. Epaigintza-eraketari buruz, Euskalerriari dagozkio bere lurraldean —militar auzi-aginpidea izan ezik— Auzi-Agintaritzari eta Auzi-Agintaritzaren Goi-Batzari buruzko Lege Nagusiek Gobernuari aitortzen, bereizten eta egozten dizkioten aalmenak.

2. Estaduari dagozkio oso-osorik, lege orokorren arabera, epai-zigorra barkatzeko eskubidea, eta Salaketa-Kargudunen Erri-Erakundeari arauak ezartzea eta aginpidea zaintzea.

14'GN ATALA

1. Euskalerriko Epaigintzari dagozkion gaiak onako auek dira:

a) Iritar-Lege saillean: auzi-aldi ta mailla guztiak. Auziak ezeztatzea, eta birrepaitzeko gora jotzea ere bai, Euskalerriko Iritar Foru-Legeen barruan.

b) Zigor-Lege ta Gizarte-Lege saillean: auzi-aldi ta mailla guztiak, auziak ezeztatu ta birrepaitzeko gora jotzea izan ezik.

c) Edozein agintaritza-maillaren aurkako auzien saillean: auzi-aldi ta mailla guztiak, Euskalerriak berak bakarrik araupetu ditzakean gaietan, Euskalerriko edozein agintaritza-maillen erabakietatik sortutako auzi-gaia danean; eta Estaduko Agintaritzaren erabakietatik sortutakoetan, lenengo auzi-aldia bakarrik.

d) Euskalerriko auzi-erakundeen arteko eskubide arazoak.

e) Jabetasun-liburuetan sartu bear diran euskal-legedi berezipean egindako agirien balioa erabakitzeko gora jotzeak.

2. Beste arazoetan, Estaduko Auzitegi Gorenera jo daiteke, legeak onartzen duan eran. Auzitegi Gorenak garbituko ditu, Euskalerriko ta Estaduko auzi-erakundeen artean sor daitezkean aalmen eta barruti-eztabaidak.

Artículo 15

Corresponde al País Vasco la creación y organización mediante ley de su Parlamento y con respecto a la institución establecida por el artículo 54 de la Constitución, de un órgano similar que en coordinación con aquélla ejerza las funciones a las que se refiere el mencionado artículo y cualesquiera otras que el Parlamento Vasco pueda encomendarle.

Artículo 16

En aplicación de lo dispuesto en la Disposición Adicional primera de la Constitución, es de la competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, sin perjuicio del artículo 27 de la Constitución y Leyes Orgánicas que lo desarrollen, de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30ª de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía.

Artículo 17

1. Mediante el proceso de actualización del régimen foral previsto en la Disposición Adicional primera de la Constitución, corresponderá a las instituciones del País Vasco, en la forma que se determina en este Estatuto, el régimen de la Policía Autónoma para la protección de las personas y bienes y el mantenimiento del orden público dentro del territorio autónomo, quedando reservados en todo caso a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado los servicios policiales de carácter extracomunitario y supracomunitario, como la vigilancia de puertos, aeropuertos, costas y fronteras, aduanas, control de entrada y salida en territorio nacional de españoles y extranjeros, régimen general de extranjería, extradición y expulsión, e inmigración, pasaportes y documento nacional de identidad, armas y explosivos, resguardo fiscal del Estado, contrabando y fraude fiscal al Estado.

15. artikulua

Euskal Herriari dagokio, Parlamentuak emandako legeaz, eta Konstituzioaren 54. artikuluan ezartzen den erakundeari dagokionez, antzeko organo bat sortu eta eratzea, berorren bidez harekin koordinatuz aipaturiko artikuluan diren funtzioak eta Euskal Biltzarreak gomenda diezazkiokeen beste edonolakoak ere bete ditzan.

15'GN ATALA

Euskalerriko Legegintza-Biltzarrari dagokio Konstituzioak 54'gn atalean dionaren antzeko erakunde bat legebidez sortzea eta ari arauak ezartzea, Konstituzioak atal ortan aipatzen dituan eginkizunak eta Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak ezarri lezaizkiokenak bete ditzan; Estaduak duan erakundearekin arremanetan, eta ari zor zaion begirunez.

16. artikulua

Konstituzioaren lehen Erabaki Gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluaren eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 140.1.30. artikuluak Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egiteke.

16'GN ATALA

Konstituzioaren Geigarrizko lenengo Erabakian aginduta dagonez, Euskalerriari dagokio irakaskintza bere zabalera osoan, irakaste-mailla, mota ta gai guztietan; baiña Konstituzioaren 27'gn atalaren eta ori osotuko duten Lege Nagusien kalterik ezean, eta Konstituzioaren 149.1.30 atalak Estaduari ematen dizkion aalmenen kalterik ezean, eta oiek bete arazi ta ziurtatzeko bear dan gain-begiratuaren kalterik ezean.

17. artikulua

1. Konstituzioaren lehen Erabaki Gehigarrian aurrikusten denez, erregimen forala gaurkotzeko prozesuaren bitartez, Euskadiko Erakundeei, Estatutu honetan zehazten den moduan, zera dagokie, pertsonak eta ondasunak babesteko eta lurralde autonomoaren barruan Ordenu Publikoa gordetzeko Polizia Autonomoaren erregimena, Estatuaren Segurtasun-Indarren eta Gorputzen eskuetan, komunitatez kanpotik edo gainetik gertatuko diren polizi zerbitzuak geratzen direlarik, hala nola portuak, aireportuak, kostak, mugak eta aduanak zaintzea, lurralde nazionalean sar-irteten diren espainol zein atzerritarren kontrola, herbestetasun, extradizio eta expultsioaren erregimen orokorra, emigrazio eta inmigrazio, pasaporteak, nortasun-dokumentu nazionala, harma eta lehergailuak, Estatuaren agiri fiskala, kontrabandoa eta Estatuari egindako iruzur fiskala.

17'GN ATALA

1. Konstituzioaren Geigarrizko lenengo Erabakiak dion Foru-Legea eguneratzeak, Araudi ontan esaten dan eran, pertsonak eta ondasunak zaintzeko, eta Autonomi-Lurralde barruan Erriaren pakeari eusteko serbitzua Euskalerriko Erri-Erakundeen eskuetan ezartzen du.

   Estaduko Segurantzi-Indar eta Erakundeen esku gelditzen dira Lurrandez kanpoko ta Lurraldez gaiñeko polizi-serbitzu auek: itsasportu, aideportu, itsasertz, muga ta aduanak zaintzea; españar eta atzerritarren Estadu-mugako sarrera-irteeren kontrola, atzerritarren bizi-baimenak, arrotzak atzerrira botatzea ta erbeste ko auzipetuak erriratu araztea, atzerriratzea ta erriratzea, pasaporteak eta D.N.I. edo nor-agiria, izkilluak eta leeergaiak, Estaduaren dirubide-gaiak, kontrabandoa ta Estaduarekiko zerga-atzipenak.

2. El mando supremo de la Policía Autónoma Vasca corresponde al Gobierno del País Vasco, sin perjuicio de las competencias que pueden tener las Diputaciones Forales y Corporaciones Locales.

3. La Policía Judical y Cuerpos que actúen en estas funciones se organizarán al servicio y bajo la vigilancia de la Administración de Justicia en los términos que dispongan las leyes procesales.

4. Para la coordinación entre la Policía Autónoma y los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado existirá una Junta de Seguridad formada en número igual por representantes del Estado y de la Comunidad Autónoma.

5. Inicialmente las Policías Autónomas del País Vasco estarán constituidas por:

a) El Cuerpo de Miñones de la Diputación Foral de Alava, existente en la actualidad.

b) Los Cuerpos de Miñones y Miqueletes dependientes de las Diputaciones de Vizcaya y Guipúzcoa que se restablecen mediante este precepto.

Posteriormente las instituciones del País Vasco podrán acordar refundir en un solo Cuerpo los mencionados en los apartados anteriores, o proceder a la reorganización precisa para el cumplimiento de las competencias asumidas.

Todo ello sin perjuicio de la subsistencia, a los efectos de representación y tradicionales, de los Cuerpos de Miñones y Miqueletes.

2. Euskal Polizia Autonomoaren Aginte Gorena Euskadiko Gobernuari dagokio, Diputazio Foralek eta Gorporazio Lokalek izan ditzaketen eskubideei kalterik egiteke.

3. Polizia Judiziala eta funtzio hauek beteko dituzten gorputzak, Justizi Administrazioaren zerbitzurako eta beronen begipean eratuko dira, beti ere lege prozesaletan datozen neurrien arauera.

4. Polizia Autonomo eta Estatuaren Gorputz eta Segurtasun-Indarren koordinaketarako, Segurtasunerako Batzarrea eratuko da, Estatuaren eta Komunitate Autonomoaren ordezkari kopuru berdinez osatua.

5. Hasteko, Euskal Herriko Polizia Autonomoak ondokoek osatuko dituzte:

a) Arabako Diputazio Foraleko Miñoien Gorputzak, oraindik dirauenak.

b) Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioen menpean egongo diren Miñoien eta Mikeleteen Gorputzek, prezeptu honen bidez berriro eraikitzen direnak.

Geroago, Euskal Herriko erakundeek goiko apartatu horietan aipatu direnak bateratzea erabaki dezakete, edo eta, hartu dituzten konpetentziak zuzen betetzeko eraketa berria egitea.

Guztiori, ordezkaritza eta ohizko eginbideei dagozkienetan, Miñoi eta Mikeleteen iraupenari kalterik egiteke.

2. Euskalerriko Autonomi-Ertzaingoaren aginte gorena Euzko Gobernuari dagokio, Foru-Aldundiek eta Udalek izan ditzaketen eskubideen kalterik ezean.

3. Epaiketa-Ertzaingoa eta epaiketa-eginpideetan diarduten Erakundeak, Epaiketa-Erakundearen serbitzuan eta bere menpean antolatuko dira, Epaiketa-Legeen arabera.

4. Autonomi-Ertzaingoa, eta Estaduko Segurantzi-Indar eta Erakundeak elkar-lanean lotzeko. Segurantzi-Batzorde bat izango da. Batzorde ontakoak Estaduak eta Euskalerriak erdi-bana izendatuko dituzte.

5. Asieran, Euskalerriko Autonomi-Ertzaingoa onela osotua izango da:

a) Gaur bizirik dan Araba'ko Foru-Aldundiaren Miñoi-Erakunde bera.

b) Arau onen aginduz birreraikitzen diran Bizkai'ko Miñoi ta Gipuzkoa'ko Mikelete-Erakundeak, bakoitza bere Foru-Aldundiaren agindupean.

Gerora, Euskalerriko Agintaritzek goian aipatutako Erakundeak batu eta Ertzaingo bakarra egitea erabaki dezakete; bai arturik dituzten aginpideak betetzeko bidezkoa litzaken birrantolaketa egitea ere.

Ala ere, ospezko eginbearretan oitura zaarrei jarraitzeko, Miñoi ta Mikelete-Erakundeek bizirik iraun aal izango dute.

6. No obstante lo dispuesto en los números anteriores, los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado podrán intervenir en el mantenimiento del orden público en la Comunidad Autónoma en los siguientes casos:

a) A requerimiento del Gobierno del País Vasco, cesando la intervención a instancias del mismo.

b) Por propia iniciativa, cuando estimen que el interés general del Estado esté gravemente comprometido, siendo necesaria la aprobación de la Junta de seguridad a que hace referencia el número 4 de este artículo. En supuestos de especial urgencia y para cumplir las funciones que directamente les encomienda la Constitución, los cuerpos y fuerzas de seguridad del Estado podrán intervenir bajo la responsabilidad exclusiva del Gobierno, dando éste cuenta a las Cortes Generales. Las Cortes Generales a través de los procedimientos constitucionales podrán ejercitar las competencias que les correspondan.

7. En los casos de declaración del estado de alarma, excepción o sitio, todas las fuerzas policiales del País Vasco quedarán a las órdenes directas de la autoridad civil o militar que en su caso corresponda, de acuerdo con la legislación que regule estas materias.

6. Goiko zenbakietan jarri direnak erabaki arren, Komunitate Autonomoan ordenu publikoa gordetzeko, Estatuaren Segurtasunerako Gorputz eta Indarrek hurrengo kasuotan esku izan dezakete:

a) Euskadiko Gobernuak horrela eska diezaienean, haien esku hartzea haren eskabidez berriro utziz.

b) Beren kabuz, Estatuaren interes orokorra larriki konprometaturik aurkitzen dela iruditzen zaienean, artikulu honetako 4. zenbakian aipatzen den Segurtasunerako Batzarrearen onarpena beharrezkoa izango delarik. Parte hartzeko behar gorria balitz eta Konstituzioak zuzenik gomendatzen dizkien funtzio eta egitekoak betetzeko, Estatuaren Segurtasun-Gorputz eta Indarrek esku har lezakete, horren erantzule bakarra Gobernua izanik, beti ere Gorte Jeneralei guzti horren berri emanez. Gorte Jeneralak, prozedura konstituzionalaren bidez, berei dagozkien konpetentziez baliatu ahalko dira.

7. Alarma, salbuespen eta setio egoera aldarrika balitez, Euskal Herriko polizi indar guztiak agintari zibil edo militar egokiaren zuzenkako agindupean jarriko lirateke, gaiok erregelatzen dituen legegintzaren arauera.

6. Aurreko zenbakietan besterik esaten dan arren, Estaduaren Segurantzi-Erakunde eta Indarrek Euskalerrian esku ar dezakete erri-pakea zaintzeko, ondorengo auetan:

a) Euskalerriko Gobernuak eskatzen dienean; eta beroien esku-artzea, arek eskatzean amaituko da.

b) Beren kabuz, Estaduaren interes orokorra arrisku larrian ikusten dutenean; baiña onelakoetan atal onen 4'gn zenbakian izendaturik dagon Segurantzi-Batzordearen oniritzia bearrezkoa izango da. Estualdi bereziak diralakoetan. eta Konstituzioak zuzenean ematen dizkien eginkizunak betetzeko, Estaduko Segurantzi-Erakunde eta Indarrek esku artu dezakete gobernuaren oso-osoko erantzukizunez, gero Gobernuak "Cortes Generales" diralakoei kontu ematekotan. "Cortes Generales" beroiek, Konstituzioaren esanetara jokatuz, dagozkien aginpideetaz baliatu daitezke.

7. Erne-deia, iritarren eskubide-murriztea naiz gerra-legea ezartzea erabakitzen danetan, Euskalerriko polizi-indar guztiak, bakoitzari dagokion erri-agintariaren naiz gudalburuaren menpean geldituko dira, arazo auek erabakitzen dituan legediaren arabera.

Artículo 18

1. Corresponde al País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución de la legislación básica del Estado en materia de Sanidad Interior.

2. En materia de Seguridad Social, corresponderá al País Vasco:

a) El desarrollo legislativo y la ejecución de la legislación básica del Estado salvo las normas que configuran el régimen económico de la misma.

b) La gestión del régimen económico de la Seguridad Social.

3. Corresponderá también al País Vasco la ejecución de la legislación del Estado sobre productos farmacéuticos.

4. La comunidad autónoma podrá organizar y administrar a tales fines y dentro de su territorio, todos los servicios relacionados con las materias antes expresadas y ejercerá la tutela de las instituciones, entidades y fundaciones en materia de Sanidad y de Seguridad Social, reservándose el Estado la alta inspección conducente al cumplimiento de las funciones y competencias contenidas en este artículo.

5. Los poderes públicos vascos ajustarán el ejercicio de las competencias que asuman en materia de Sanidad y de Seguridad Social a criterios de participación democrática de todos los interesados, así como de los sindicatos de trabajadores y asociaciones empresariales en los términos que la ley establezca.

18. artikulua

1. Barneko Osasuna dela eta Euskal Herriari dagokio Estatuko oinarrizko legea lege berriz aurrera eramatea eta betetzea.

2. Seguru Soziala dela eta, Euskal Herriari dagokio:

a) Estatuko oinarrizko legea lege berriz aurrera eramatea eta betetzea, berorren erregimen ekonomikoa itxuratzen duten arauak salbu.

b) Seguru Sozialaren erregimen ekonomikoaren gestioa.

3. Berebat dagokio Euskal Herriari farmazi produktoez Estatuaren legeak bete eraztea.

4. Xede horiek lortzeko, bere barrutian, Komunitate Autonomoak organizatu eta administratu ahalko ditu goian aipaturikoez zerikusirik duketen zerbitzu guztiak, Osasun eta Seguru Sozialari dagozkienetan instituzio, erakunde eta fundazioei bere babesa emango dielarik, artikulu honetan harrotzen diren funtzioak eta konpetentziak betetzen diren ala ez jakiteko goren-gorengo inspekzioa Estatuaren eskutan egongo delarik.

5. Osasun eta Seguru Sozial gaietan hartuko dituzten konpetentziak erabiltzean, Euskal Botere Publikoak interesatu guztien partizipaketa demokratikora bilduko dira, eta baita langileen sindikatoenetara eta enpresarien asoziazioenetara ere, Legeak zertuko duenaren arauera.

18'GN ATALA

1. Euskalerriari dagokio bertako osasun-arazoetan Estaduak duan legedia osotu ta betetzea.

2. Gizarte-Segurantzaren alorrean, Euskalerriari dagozkionak, auek dira:

   a) Estaduak duan legedia osotu ta betetzea, ekonomi-antolabidea mugatzen duten arauak izan ezik.

   b) Gizarte-Segurantzaren ekonomi arauak betetzea ta bete araztea.

3. Euskalerriari dagokio sendagaiei buruz Estaduak duan legedia betetzea ta bete araztea.

4. Leen aipaturiko arazoei dagozkien serbitzu guztiak Euskalerriak antolatu ta zaindu ditzake bere lurraldean; bai Erri-Osasun eta Gizarte-Segurantza alorrean diarduten erakunde, elkarte eta Emaitza-zaingoak zaindu ere; baiña atal ontan esandako aginpide eta egin-kizunetarako gain-begiratua ez du Estaduak bere eskutik uzten.

5. Euskalerriko Agintaritzek Erri-Osasun eta Gizarte-Segurantza arazoetan beren esku artutako aginpideak betetzean, ortan dabiltzan guztientzat, demokraziak eskatzen duan bezela, esku artzeko bideak sortuko dituzte; era berean, Langille-Elkarte edo Sindikatoentzat eta Ugazaba-Elkarteentzat ere, Legeak dion eran.

Artículo 19

1. Corresponde al País Vasco el desarrollo legislativo de las normas básicas del Estado en materia de medios de comunicación social, respetando en todo caso lo que dispone el artículo 20 de la Constitución.

2. La ejecución en las materias a que se refiere el párrafo anterior se coordinará con la del Estado, con respecto a la reglamentación específica aplicable a los medios de titularidad estatal.

3. De acuerdo con lo dispuesto en el párrafo primero de este artículo el País Vasco podrá regular, crear y mantener su propia televisión, radio y prensa y en general todos los medios de comunicación social para el cumplimiento de sus fines.

Artículo 20

1. El País Vasco tendrá competencias legislativas y de ejecución en las demás materias que por ley orgánica le transfiere o delegue el Estado según la Constitución, a petición del Parlamento Vasco.

2. La comunidad autónoma del País Vasco podrá dictar la correspondiente legislación en los términos del artículo 150.1 de la Constitución, cuando las Cortes generales aprueben las leyes marco a que se refiere dicho precepto.

3. El País Vasco ejecutará los tratados y convenios en todo lo que afecte a las materias atribuídas a su competencia en este Estatuto. Ningún tratado o convenio podrá afectar a las atribuciones y competencias del País Vasco, si no es mediante el procedimiento del artículo 152. 2 de la Constitución, salvo en lo previsto en el artículo 93 de la misma.

19. artikulua

1. Euskal Herriari dagokio giza komunikabideei dagozkienetan Estatuko oinarrizko arauen legeria aurrera eramatea, Konstituzioaren 20. artikuluan agintzen dena beti ere errespetatuko delarik.

2. Titulartasun estatala duten komunikabideei aplikatu behar zaien arautegi bereziari dagokionez, goiko parrafoan aipatu diren gaien bururapena Estatutoarenakin koordinatuko da.

3. Artikulu honetako lehen parrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak.

20. artikulua

1. Euskal Biltzarreak eskaturik, Estatuak Konstituzioari jarraiki Lege Organikoz haren eskutan utziko edo ordezkatuko dituen beste puntu guztietan Euskal Herriak legegintzazko eta exekuziozko konpetentziak izango ditu.

2. Euskal Herriko Komunitate Autonomoak Konstituzioko 150.1 artikuluaren arauera delegatzen zaion legeria egokia diktatzeko ahalmena izango du, delako agindu horretan seinalatzen den lege barrutia Gorte Nagusiek onar dezatenean.

3. Estatutoaren bidez bere esku utzi diren gaiak ukitzen dituzten tratu eta komenioak burutuko ditu Euskal Herriak. Ezin dezake inolako akordio edo komeniok uki Euskal Herriaren atribuipen eta konpetentziarik, Konstituzioko 152.2 artikuluan seinalatzen den prozeduraz egiten ez bada behintzat, berorren 93. artikuluan aipatzen diren tratatuak salbu.

19'GN ATALA

1. Euskalerriari dagokio gizarte-mezubideei buruz Estaduak duan legedia osotzea, Konstituzioak 20'gn atalean erabakirik duana aintzat artuz.

2. Aurreko zenbakian esandako arauak betetzerakoan, Estaduarekin artuemanetan egingo da, Estaduak bere esku dituan mezubideei dagokien araubidea kontuan izanik.

3. Atal onen lenengo zenbakian erabakirik dagonaren arabera, Euskalerriak bere ikusirrati, entzunirrati, prentsa, ta bere elburuak betetzeko bear dituan gaiñontzeko gizarte-mezubide guztiak sortu, beroien arauak ezarri, ta zaindu ditzake.

20'GN ATALA

1. Euskalerriak legegintzarako ta legeak betetzeko eta bete arazteko aginpideak ere izango ditu, Konstituzioaren esanera Estaduaren Lege-Nagusi bidez, eta Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak aurrez eskaturik, aren esku ezartzen, naiz uzten dizkion beste arazoetan.

2. Euskalerriak berari dagokion legegintza burutu dezake, Konstituzioaren 150.1 atalaren arabera, arau orrek dion era lege mugagarriak "Cortes Generales" diralakoetan onartzen dituztenean.

3. Estaduak beste erresumekin egindako itun eta itzarpenak, Euskalerriak beteko eta bete araziko ditu, Araudi onek aren esku uzten dituan arazoetan. Ez da itunik, ez itzarpenik, Euskalerriaren aalmen eta aginpideak gutxitu ditzakeanik, Konstituzioaren 152.2 atalak dion eran ez bada, 93'gn atalean diona izan ezik.

4. Las funciones de ejecución que este Estatuto atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco en aquellas materias que no sean de su competencia exclusiva comprende la potestad de administración, así como, en su caso, la de dictar reglamentos internos de organización de los servicios correspondientes.

5. El Gobierno Vasco será informado en la elaboración de los tratados y convenios así como de los proyectos de legislación aduanera en cuanto afecten a materias de específico interés para el País Vasco.

6. Salvo disposición expresa en contrario, todas las competencias mencionadas en los artículos anteriores y otros del presente Estatuto se entienden referidas al ámbito territorial del País Vasco.

Artículo 21

El derecho emanado del País Vasco en las materias de su competencia exclusiva es el aplicable con preferencia a cualquier otro, y sólo en su defecto será de aplicación supletoria el derecho del Estado.

Artículo 22

1. La comunidad autónoma podrá celebrar convenios con otras Comunidades Autónomas para la gestión y prestación de servicios propios de la exclusiva competencia de las mismas. La celebración de los citados convenios, antes de su entrada en vigor, deberá ser comunicada a las Cortes Generales. Si las Cortes Generales o alguna de las Cámaras manifestaran reparos en el plazo de 30 días a partir de la recepción de la comunicación, el convenio deberá seguir el trámite previsto en el párrafo tercero de este artículo. Si transcurrido dicho plazo no se hubiesen manifestado reparos, el convenio entrará en vigor.

2. La comunidad Autónoma podrá celebrar convenios con otros Territorios Históricos forales para la gestión y prestación de servicios propios correspondientes a las materias de su competencia, siendo necesaria su comunicación a las Cortes Generales. A los 20 días de haberse efectuado esta comunicación, los convenios entrarán en vigor.

3. La Comunidad Autónoma podrá establecer también acuerdos de cooperación con otras Comunidades Autónomas previa autorización de las Cortes Generales.

4. Bere konpetentzia soil ez diren gaietan, Estatuak Euskal Herriko Komunitate Autonomoari ematen dizkion exekuzio funtzioetan sartzen da administratzeko eskubidea halaber, zerbitzuei dagozkien antolaketaren barne arautegiak diktatzekoa ere.

5. Akordioak eta komenioak, berebat aduanetako lege projektoak elaboratzeko garaian, Euskal Herriarentzat interes berezia badute, Euskal Gobernuari guztiorren berri emango zaio.

6. Baldin eta bestela ezertxo ere esaten ez bada, aurreko artikuluetako konpetentzia guztiak eta Estatuto honetako beste zenbait, Euskal Herriko lurralde hesparruari dagozkio.

21. artikulua

Bere konpetentzia exklusiboetako gaietan Euskal Herriak duen eskubideak lehentasun osoa izango du beste edozeinen ondoan eta honen ezean bakarrik aplikatuko da Estatuaren eskubidea.

22. artikulua

1. Komunitate Autonomoak komenioak zertu ditzake beste Komunitate Autonomoekin beroien konpetentzia soil diren zerbitzuen gestioa egiteko eta elkarri laguntzeko. Indarrean sartu baino lehen, komenio horien berri Gorte Jeneralei eman behar zaie. Gorte Jeneralek edo eta Ganbaratakoren batek komenioaren berri jakin eta 30 egun barru erreparorik jartzen badute, artikulu honen hirugarren parrafoan aurrikusten den tramitea segitu beharko da. Epe horren barruan erreparorik jartzen ez bada, komenioa indarrean sartuko da.

2. Komunitate Autonomoak komenioak zertu ditzake beste Herrialde Historiko foralekin beroien konpetentzigai diren zerbitzuen gestioa egiteko eta elkarri laguntzeko, horien berri Gorte Jeneralei ematea beharrezkoa delarik. Berri eman eta handik 20 egunetara komenioak indarrean sartuko dira.

3. Komunitate Autonomoak zertu ditzake kooperazio akordioak Beste Komunitate Autonomo batzurekin ere Gorte Jeneralen baimena aldez aurretik izango delarik.

4. Araudi onek Euskalerriaren esku bakarretan ipintzen ez dituan arazoetarako, Euskalerriari ematen dion aginpidea, zainketa aalmenak dira, eta bearrik danean, bai serbitzu bakoitzaren barne-araudia antolatzekoak ere.

5. Itunak eta itzarpenak egiterakoan, eta aduana-legeak eratzerakoan, bereziki Euskalerrian gertatzen diran aldakuntzetan, Euzko Gobernuari jakin arazi bearko zaio.

6. Aurreko ataletan eta Araudi onetako besteren batzutan aipatu diran aginpide guztiek, Euskalerriko lurralde osoan balio izango dute, kontrako erabaki zeazik izan ezean.

21'GN ATALA

Oso-osorik Euskalerriaren esku dauden arazoetan, Euskalerrian egindako legeak beste lege guztien gaiñetik daude, eta oietan utsenerik agertu ezkero bakarrik, eta oien ordez, erabilliko da Estaduaren legea.

22'GN ATALA

1.- Euskalerriak beste Autonomi-Lurraldeekin itunak egin ditzake, oso-osorik beren esku dauden arazoetan, batak besteari serbitzuak egiteko. Beroiek indar izaten asi aurretik, "Cortes Generales" diralakoei itun auen berri eman bear die. "Cortes Generales" oietako Biltzar biek, naiz bietatik batek, gaztigua jaso ta ogeitamar egunen barruan oztoporen bat jarri ezkero, atal onen irugarren zenbakian adierabakitako bidetik jarraitu bearko luke itunak. Esandako epe ori igaro ta oztoporik izan ezik, indar izaten asiko da ituna.

2. Euskalerriak beste Forudun Kondaira-Lurraldeekin itunak egin ditzake, aren esku dauden arazoetan batak besteari serbitzuak egiteko, baiña "Cortes Generales" diralakoei aditzera ematea bearrezkoa da. Gaztigua bidali ta ogei egunen buruan asiko dira itunak indar izaten.

3. Euskalerriak, "Cortes Generales" diralakoek aurrez baimen emanik, beste Autonomi-Lurraldeekin elkar-laguntzako itunak ere egin ditzake.

Artículo 23

1. La Administración Civil del Estado en el territorio vasco se adecuará al ámbito geográfico de la Comunidad Autónoma.

2. De conformidad con el artículo 154 de la Constitución, un delegado nombrado por el Gobierno la dirigirá y la coordinará, cuando proceda, con la Administración propia de la Comunidad Autónoma.

Título II

(De los poderes del País Vasco)

Capítulo preliminar

Artículo 24

1. Los poderes del País Vasco se ejercerán a través del Parlamento, del Gobierno y de su Presidente o Lendakari.

2. Los Territorios Históricos conservarán y organizarán sus instituciones forales de conformidad a lo dispuesto en el artículo tercero del presente Estatuto.

Capítulo I

(Parlamento Vasco)

Artículo 25

1. El Parlamento Vasco ejerce la potestad legislativa, aprueba sus presupuestos e impulsa y controla la acción del Gobierno Vasco, todo ello sin perjuicio de las competencias de las instituciones a que se refiere el artículo 37 del presente Estatuto.

2. El Parlamento Vasco es inviolable.

23. artikulua

1. Euskal Lurraldean Estatuko Administrazio zibila Komunitate Autonomoaren hesparru geografikoari egokituko zaio.

2. Konstituzioko 154. artikuluak dioen bezala, administrazio hori Gobernuak izendaturiko Ordezkari batek zuzendu eta koordinatuko du, hala behar izanez gero, Komunitate Autonomoaren Administrazio propioarekin.

II Burua

(Euskal Herriko botereez)

Atariko Kapitulua

24. artikulua

1. Euskal Herriaren botereak Biltzarre, Gobernu eta bere Lehendakariaren bidez mamituko dira.

2. Herrialde Historikoek beren erakunde foralak kontserbatu eta antolatu egingo dituzte Estatuto honen 3. artikuluan erabakitzen denaren arauera.

Lehen Kapitulua

(Euskal Biltzarreaz)

25. artikulua

1. Euskal Biltzarreak ahalmen legislatiboa izango du, bere presupostuak onartuko ditu eta Euskal Gobernuaren ekintza bultzatu eta kontrolatuko. Guztiori Estatuto honen 37. artikuluan aipatzen diren erakundeen konpetentziei kalterik egiteke.

2. Biltzarrea ukiezina da.

1. Estaduak Euskalerrian duan Iritar-Lege Agintaritza. Autonomi-Lurralderen mugetara egokituko da.

2. Iritar-Lege Agintaritza orren buru, Gobernuak izendatutako Ordezkari bat izango da, Konstituzioak 154'gn atalean dion eran, eta bere aginpidea Euskalerriko Agintaritzarekin elkartuko du bearrik izatean.

Bigarren izenburua

Euskalerriaren aginteak

Sarrerako atalburua

24'GN ATALA

1. Euskalerriaren Agintea Legegintza-Biltzarrak, Euzko Gobernuak, eta onen Lendakariak arteztuko dute.

2. Kondaira-Lurralde bakoitza , Araudi onen 3'gn Atalak dion eran, Foru-Erakundeei eutsi ta antolabidea emango die.

I ATALBURUA

Euskalerriko legegintza-biltzarra

25'GN ATALA

1. Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak dagokio bere diru-erabilketak ber-berak onartzea, eta Euzko Gobernuaren ekintzari eragin eta kontuak eskatzea, Araudi onen 37'gn atalean izendatu diran erakundeek dituzten aginpideen kaltean izan ezik.

2. Euskalerriko Legegintza-Biltzarra ukieziña da.

Artículo 26

1. El Parlamento Vasco estará integrado por un número igual de representantes de cada Territorio Histórico elegidos por sufragio universal, libre, directo y secreto.

2. La circunscripción electoral es el Territorio Histórico.

3. La elección se verificará en cada Territorio Histórico atendiendo a criterios de representación proporcional.

4. El Parlamento Vasco será elegido por un período de cuatro años.

5. Una Ley Electoral del Parlamento Vasco regulará la elección de sus miembros y fijará las causas de su inelegibilidad e incompatibilidad que afecten a los puestos o cargos que se desempeñen en su ámbito territorial.

6. Los miembros del Parlamento Vasco serán inviolables por los votos y opiniones que emitan en el ejercicio de su cargo.

Durante su mandado, por los actos delictivos cometidos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, no podrán ser detenidos ni retenidos sino en caso de flagrante delito, correspondiendo decidir, en todo caso, sobre su inculpación, prisión, procesamiento y juicio al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Fuera del ámbito territorial del País Vasco la responsabilidad penal será exigible en los mismos términos ante la Sala de lo Penal del Tribunal Supremo.

26. artikulua

1. Euskal Biltzarrea osatuko duten ordezkariak zenbaki berdinez hautatuak izango dira Herrialde Historiko bakoitzetik, hauteskunde orokor, lokabe, zuzen eta sekretoaren bidez.

2. Hauteskunde barrutia Herrialde Historikoari berari dagokiona da.

3. Herrialde Historiko bakoitzean hauteskundeak egiteko erabiliko den irizpidea errepresentazio proportzionalarena izango da.

4. Euskal Biltzarrea lau urtez behin hautatuko da.

5. Euskal Herriko Hauteskunde Lege batek erregulatuko du bere kideen hautapena eta bere barrutian halako postu eta kargurako postuan edo karguan egoteko norbait ez-hautagarri eta ez-konpatible izateko arrazoiak seinalatuko du.

6. Euskal Biltzarreko kideak ukiezinak izango dira beren karguginтzan azalduko dituzten boza eta iritziak medio.

Horien aginpideak dirauen bitartean, Komunitate Autonomoaren hesparruan egin delitoengatik, ezingo da beroiek atxilotzerik nahiz gordetzerik izango, delito nabarien kasuan ez bada, hobenduri diren, preso hartu, hauzitan sartu eta juzkatu behar diren ala ez erabakitzea Euskal Herriko Hauzitegi Gorenari dagokiolarik. Euskal Herriko hesparrutik kanpora, beroiek izan dezaketen erantzukizun penala Hauzitegi Goreneko Penal Aretoan eska daiteke.

26'GN ATALA

1. Euskalerriko Legegintza-Biltzarra, Kondaira-Lurralde bakoitzeko ordezkari-Kopuru berdiñez osotua izango da, guztiak auteskunde orokor, aske, zuzeneko ta ixilkakoz autatuak diralarik.

2. Kondaira-Lurraldea bera da auteskunde-barrutia.

3. Kondaira-Lurralde bakoitzean ordezkari-aulkiak boto-kopuruen arauz banatuko dira.

4. Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak lau urteko agintea izango du.

5. Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak egingo duan Auteskunde-Legez autatuak izango dira aren biltzarkideak. Lege onek berak erabakiko du lurralde-barruko zein kargu ta zein eginkizun diran biltzarkide izatearekin elkargaitzak, eta autagai ezin izateko dauden arrazoiak.

6. Euskalerriko Legegintza-biltzarkideak ukieziñak izango dira, beren eginkizunean ematen dituzten boto ta iritziak diranak dirala. Biltzarkide diran bitartean, ezin preso artu ta ezin giltzapetuko dituzte Euskalerriko muga-barruan egindakoengatik, lege-austen arrapatuak izan ezik, baiña orduan ere, Euskalerriko Epaigintza Nagusiari dagokio salaketa, espetxeratzea, auzipetzea, ta epaiketa erabakitzea. Euskalerriko mugaz kanpo, Estaduko Epaigintza Gorengoaren Zigorarazoetako Gelari dagokio, neurri berean, zigor-erantzukizuna erabakitzea.

Artículo 27

1. El Parlamento elegirá de entre sus miembros un Presidente, una Mesa y una Diputación Permanente funcionará en Pleno y Comisiones.

El Parlamento fijará su Reglamento interno que deberá ser aprobado por la mayoría absoluta de sus miembros.

El Parlamento aprobará su presupuesto y el Estatuto de su personal.

2. Los períodos ordinarios de sesiones durarán como mínimo ocho meses al año.

3. La Cámara podrá reunirse en sesión extraordinaria a petición del Gobierno, de la Diputación Permanente o de la tercera parte de sus miembros. Las sesiones extraordinarias deberán convocarse con un orden del día determinado y serán clausuradas una vez que éste haya sido agotado.

4. La iniciativa legislativa corresponde a los miembros del Parlamento, al Gobierno y a las Instituciones representativas a que se refiere el artículo 37 de este Estatuto, en los términos establecidos por la ley. Los miembros del Parlamento podrán, tanto en Pleno como en Comisiones, formular ruegos, preguntas, interpelaciones y mociones en los términos que reglamentariamente se establezcan. La iniciativa popular para la presentación de proposiciones de ley, que hayan de ser tramitadas por el Parlamento Vasco, se regulará por éste mediante ley, de acuerdo con lo que establezca la Ley Orgánica prevista en el artículo 83 de la Constitución.

5. Las Leyes del Parlamento serán promulgadas por el Presidente del Gobierno Vasco, el cual ordenará la publicación de las mismas en el «Boletín Oficial del País Vasco» en el plazo de quince días de su aprobación y en el «Boletín Oficial del Estado». A efectos de su vigencia regirá la fecha de publicación en el «Boletín Oficial del País Vasco».

27. artikulua

1. Biltzarreak, bere bazkideen artetik, Lehendakaria, Mahaia aukeratuko ditu, eta Diputazio iraunkor batek Plenoan eta Batzordeetan ihardungo du.

Biltzarreak bere barne araudia zehaztu eta finkatuko du, bazkideen gehiengo absolutuz onartu beharko delarik.

Biltzarreak bere aintzin-kontua onartuko du eta bere pertsonalaren Estatutoa.

2. Bilerak egiteko denboraldi arruntak urtean gutxienez zortzi hilabete iraungo du.

3. Ganbarak bilera bereziak egin ditzake, baldin eta Gobernuak, Diputazio Iraunkorrak nahiz bazkideen herenak hala eskatzen badute. Bilera berezietara deitzeko, eguneko gai zerrenda eman beharko da eta hura agortu ondoren, bukatutzat emango dira.

4. Legegintzaren iniziatiba honako hauei dagokie: Biltzarreko bazkideei, Gobernuari eta Estatuto honetako 37. artikuluan aipatzen diren erakunde errepresentatiboei, legeak agintzen duen gisan. Biltzarreko bazkideek eskubidea izango dute, bai Plenoan bai Batzordeetan, galderak, eskariak, interpelazioak eta mozioak egiteko, arautegian erabakiko denaren arauera. Lege proposamendua egiteko herri iniziatiba, Euskal Biltzarreak tramitatu beharko duenean, honek berak erregulatuko du lege bidez, Konstituzioko 83. artikuluan aurrikusten den Lege Organikoan finkatuko denaren arauera.

5. Euskal Gobernuko lehendakariak aldarrikatuko ditu Biltzarrearen legeak eta berorrek aginduko du beroien argitalpena «Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean» legeak onartu eta hamabost egun barru, bai «Boletín Oficial del Estado»-n ere. Indarrean noiz sartuko diren jakiteko, «Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean» argitara eman zeneko eguna izango da kontutan.

27'GN ATALA

1. Legegintza-Biltzarrak bere biltzarkideen artetik aukeratuko ditu Biltzar-Lendakaria Biltzar-Maia eta Bitarte-Ordezkaritza. Biltzarrak bere lana Biltzar Oso eta Batzorde bidez egingo du. Legegintza-Biltzarrak berak erabakiko du bere barne-araudia, biltzarkideen geiengo osoak baieztuta. Legegintza-Biltzarrak berak onartuko ditu bere diru-erabilkerak eta bere Erri-Langilleen Arauclia.

2. Batzarraldi arruntak urtean gutxienez zortzi illabetekoak izango dira.

3. Biltzarrak batzarraldi bereziak egin ditzake, Gobernuak, Bitarte-Ordezkaritzak, naiz biltzarkideen irutatik batek eskatuta. Batzarraldi berezi oietarako deia egitean, egitarau alda-eziña jakin araziko da, eta egitaraua osorik aztertu ondoren, batzarraldia amaitutzat joko da.

4. Legegaiak aurkeztea biltzarkideei, Euzko Gobernuari, eta Araudiontako 37'gn atalak aipatzen dituan Erri-Erakundeei dagokie, Legeak agintzen duan eran. Biltzarkideek eskaerak, galderak, eta kontu-eskatzeak egiteko eta erabakigaiak aurkezteko eskubidea dute, bai Batzar Osoan eta bai Batzordeetan ere, barne-araudiak esaten duan eran.

5. Legegintza-Biltzarrak egindako Legeak ezagutaraztea, Euzko Gobernuko Lendakariak egingo du. Beronek aginduko du erabakiak izan ziranetik amabost eguneko epe-barruan Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan argitaratzea. Gainera, Estaduko "Boletín Oficial" delakoan ere argitarazi bear ditu. lege auen indarra Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan argitaratze-egunean asiko da.

Artículo 28

Corresponde, además, al Parlamento Vasco:

a) Designar los Senadores que han de representar al País Vasco, según lo previsto en el artículo 69.5 de la Constitución, mediante el procedimiento que al efecto se señale en una Ley del propio Parlamento Vasco, que asegurará la adecuada representación proporcional.

b) Solicitar del Gobierno del Estado la adopción de un proyecto de ley o remitir a la Mesa del Congreso una proposición de ley, delegando ante dicha Cámara a los miembros del Parlamento Vasco encargados de su defensa.

c) Interponer el recurso de inconstitucionalidad.

Capítulo II

(Del Gobierno Vasco y del Presidente o Lendakari)

Artículo 29

El Gobierno Vasco es el órgano colegiado que ostenta las funciones ejecutivas y administrativas del País Vasco.

Artículo 30

Las atribuciones del Gobierno y su organización, basada en un Presidente y Consejeros, así como el Estatuto de sus miembros, serán regulados por el Parlamento.

28. artikulua

Gainera, Euskal Biltzarreari dagokio:

a) Euskal Herriko ordezkari izango diren senadoreak izendatzea, Konstituzioaren 69.5 artikuluak dioenez, horretarako Euskal Biltzarreak berak emango duen lege batez seinalatuko duen prozeduraren arauera.

b) Estatuko Gobernuari legegai bat eskatzea edota Kongresoko mahaiari lege proposamen bat bidaltzea Euskal Biltzarreko bazkideak Ganbara horren aurrean delegatuz proposamena defenda dezaten.

c) Inkonstituzionalitatearen errekurtsoa jartzea.

Bigarren Kapitulua

(Euskal Gobernua eta Lehendakaria)

29. artikulua

Euskal Herriko funtzio exekutibo eta administratiboak bere eskutan dituen organo kolegiatua Euskal Gobernua da.

30. artikulua

Gobernuaren atribuzioak eta bere organizazioa, Lehendakari batengan eta Kontseilariengan oinarriturik, halaber beronen bazkideen Estatutoa, Biltzarreak erregulatuko ditu.

28'GN ATALA

a) Konstituzioaren 69.5 atalaren arabera, Euskalerriko ordezkari izango diran Senadoreak izendatzea, Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak berak ortarako egindako Legeak aginduko duan eran egingo da, eta Lege orretan esango dan eran, Senadore aulkiak boto-kopuruen arauz banatuko dira.

b) Estaduko Gobernuari legegaiak aurkeztu ditzala eskatzea, edo-ta Estaduko Legegintza-Biltzarreko Maiari legegaiak aurkeztea, auen alde mintzatuko diran Euskalerriko Legegintza-Biltzarkideak izendatuz.

c) Konstituzioak dionaren kontra artutako erabakietan gora jotzea.

II ATALBURUA

Eusko gobernua ta lendakaria

29'GN ATALA

Euzko Gobernua, Euzkadi'ko Erri-Agintea ta Eginpidetza bere esku dituan gizataldea da.

30'GN ATALA

Gobernua, Lendakariak eta Kontseillariek osotuko dute. Aren aginpideak eta Erakunde-Legeak eta Gobernukoen eskubide-arauak, Legegintza-Biltzarrak erabakiko ditu.

Artículo 31

1. El Gobierno Vasco cesa tras la celebración de elecciones del Parlamento, en el caso de pérdida de la confianza parlamentaria o por dimisión o fallecimiento de su Presidente.

2. El Gobierno cesante continuará en funciones hasta la toma de posesión del nuevo Gobierno.

Artículo 32

1. El Gobierno responde políticamente de sus actos, de forma solidaria, ante el Parlamento Vasco, sin perjuicio de la responsabilidad directa de cada miembro por su gestión respectiva.

2. El Presidente del Gobierno y sus miembros, durante su mandato y por los actos delictivos cometidos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, no podrán ser detenidos ni retenidos sino en caso de flagrante delito, correspondiendo decidir, en todo caso, sobre su inculpación, prisión, procesamiento y juicio al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Fuera del ámbito territorial del País Vasco, la responsabilidad penal será exigible en los mismos términos ante la Sala de lo Penal del Tribunal Supremo.

31. artikulua

1. Euskal Gobernua bertan behera geratzen da Biltzarre nagusirako hauteskundeak egin ondoren, Biltzarreak bere konfidantza kentzen dionean, edota Lehendakaria hiltzen denean.

2. Uzten duen Gobernua funtziotan jarraituko da harik eta Gobernu berriak kargu berria hartu arte.

32. artikulua

1. Gobernuak gorputz bakar emango du bere egintzen erantzun politikoa Euskal Biltzarrearen aurrean, horretaz aparte bazkide bakoitzak bere gestioaren erantzukizun zuzena duelarik.

2. Gobernuko Lehendakaria eta bazkideak, aginpidean dirauen bitartean, Komunitate Autonomoan egin delitoengatik, ezingo dira atxilotzerik eta gordetzerik izango, delito nabarien kasuan ez bada, hobenduri diren, preso hartu, hauzitan sartu eta juzkatu behar diren ala ez erabakitzea Euskal Herriko Justizi Hauzitegi Gorenari dagokiolarik. Euskal Herriko barrutitik kanpora, beroiek izan dezaketen erantzukizun penala eskatu ahalko da Hauzitegi Goreneko Penal Aretoan.

31'GN ATALA

1. Euzko Gobernuaren aginte-aldia, Euskalerriko Legegintza-Biltzarrerako auteskundeak egin orduko bukatzen da. Onako auetan ere bai: Legegintza-Biltzarrean geiengoaren uste ona galtzen duanean; Lendakariak, garaiz leen, kargua uzten duanean; eta bera iltzen danean.

2. Aginte-aldia bukatu zaion Gobernuak bere eginkizunetan jarraitu egingo du, Gobernu berria sortu arte.

32'GN ATALA

1. Gobernuak bere osoan du Euskalerriko Legegintza-Biltzarraren aurrean bere egintzen erriarekiko erantzukizuna, baiña ortaz gaiñera, gobernukide bakoitzari dagokio nork bere egintzen zuzeneko erantzukizuna.

2. Gobernuko Lendakaria eta gobernukideak, agintzen dauden bitartean, ezin preso artu ta ezin giltzapetuko dituzte Euskalerriko muga-barruan egindakoengatik, lege-austen arrapatuak izan ezik; baiña orduan ere Euskalerriko Epaigintza Nagusiari dagokio salaketa, espetxeratxea, auzipetxea ta epaiketa erabakitzea. Euskalerriko mugaz kanpora, Estaduaren Auzitegi Gorengoaren Zigor-Arazoetako Gelari dagokio, neurri berean, zigor-erantzukizuna erabakitzea.

Artículo 33

1. El Presidente del Gobierno será designado de entre sus miembros por el Parlamento Vasco y nombrado por el Rey.

2. El Presidente designa y separa los consejeros del Gobierno, dirige su acción, ostentando a la vez la más alta representación del País Vasco y la ordinaria del Estado en este territorio.

3. El Parlamento Vasco determinará por ley la forma de elección, del Presidente, y sus atribuciones, así como las relaciones del Gobierno con el Parlamento.

Capítulo III

(De la Administración de Justicia en el País Vasco)

Artículo 34

1. La organización de la Administración de Justicia en el País Vasco, que culminará en un Tribunal Superior con competencia en todo el territorio de la Comunidad Autónoma y ante el que se agotarán las sucesivas instancias procesales, se estructurará de acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica del Poder Judicial.

La Comunidad Autónoma, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 152 de la Constitución, participará en la organización de las demarcaciones judiciales de ámbito inferior a la provincia y en la localización de su capitalidad, fijando, en todo caso, su delimitación.

2. El Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco será nombrado por el Rey.

3. En la Comunidad Autónoma se facilitará el ejercicio de la acción popular y la participación en la Administración de Justicia mediante la institución del Jurado, en la forma y con respecto a aquellos procesos penales que la ley procesal determine.

33. artikulua

1. Gobernuko Lehendakaria Euskal Biltzarreak hautatuko du bere bazkideen artetik, Erregeak izendatuko duelarik.

2. Lehendakariak hautatu eta bereziko ditu Gobernuko bazkideak, berauen ihardunbidea zuzenduz. Halaber berak du Euskal Herriko ordezkaritza gorena eta Estatuaren ordezkaritza arrunta lurralde honetan.

3. Euskal Biltzarrearen lege batez erabakiko da lehendakaria hautatzeko modua, beraren atribuzioak, baita Gobernuaren eta Biltzarrearen arteko harremanak ere.

Hirugarren Kapitulua
(Justizi Administrazioa Euskal Herrian)
34. artikulua

1. Euskal Herriko Justizi Administrazioaren antolaketa, zeinak gailurrean Hauzitegi Nagusi bat izango baitu Komunitate Autonomo osoan konpetentzia izango duena, berorren aurrean agortuko direlarik bata bestearen ondoko prozeso eskabideak. Botere Judizialaren Lege Organikoan datorrenaren arauera egituratuko da.

Konstituzioko 152. artikuluan erabakitzen denari jarraiki Komunitate Autonomoak probintziak baino ingurune txikiagoa duten barruti judizialak eratzen parte hartuko du, bai beroien hiriburua seinalatzen ere, dena-den horren muga finkatuz.

2. Euskal Herriko Justizi Hauzitegi Goreneko Presidentea Erregeak izendatuko du.

3. Komunitate Autonomoaren barrutian ekintza herritarren ihardunaldiei erraztasunak emango zaizkie bai Justizi Administrazioan parte hartzen utzi ere Epaimahaia eraikiz, prozeso legeak erabakitzen duen prozeso penalen erara eta arauera.

33'GN ATALA

1. Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak, bere batzarkideen artetik aukeratuko du Gobernuko Lendakaria, eta Erregek izendatuko du.

2. Lendakariak jarri eta kenduko ditu Gobernuko Kontseillariak; berak zainduko du auen ekintza; ortaz gainera, bera da Euskalerriko Erri-Aginte Gorengoa bere esku duana ta lurralde ontan Estaduaren ordezkaritza duana.

3. Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak ezarriko ditu legè-bidez, batetik Lendakaria aukeratzeko era ta onen aginpideak, eta bestetik Gobernu eta Legegintza-Biltzar arteko arremanak.

III ATALBURUA
Euskalerriko epaigintza

34'GN ATALA

1. Euskalerriko Epaigintza-Erakundeak, Epaigintza Nagusia izango du buru. Euskalerri osoan izango du aginpidea. Epaiketa-bideak aipatzen dituzten auzi-aldi guztiek beregan izango dute amaia, eta Epaiketa Agintaritzari dagokion Lege Nagusiak dion eran eratuko da.

Euskalerriak, Konstituzioaren 152'gn atalaren arabera, erki edo probintzi bakoitzeko auzi-barrutiak antolatzen eta epaiketarako uriburuak aukeratzen esku artuko du, eta bakoitzari mugak ezarriko dizkio.

2. Euskalerriko Epaigintza Nagusiko Lendakaria, Erregek izendatuko du.

3. Euskalerrian, Ziñegotzi-Erakundearen bidez, ersiak epaigintzan esku artzeko aukera izango du, Epaiketa-bide Legeak dion era eta onek orreja eskatzen duan zigorauzietan.

Artículo 35

1. El nombramiento de los Magistrados, Jueces y Secretarios se efectuará en la forma prevista en las Leyes Orgánicas del Poder Judicial y del Consejo General del Poder Judicial, siendo mérito preferente el conocimiento del Derecho Foral Vasco y el del euskera, sin que pueda establecerse excepción alguna por razón de naturaleza o de vecindad.

2. A instancias de la Comunidad Autónoma, el órgano competente deberá convocar los concursos y oposiciones para cubrir las plazas vacantes de Magistrados, Jueces y Secretarios del País Vasco, de acuerdo con lo que disponga la Ley Orgánica del Poder Judicial. Las plazas que quedasen vacantes en tales concursos y oposiciones, serán cubiertas por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, aplicando las normas que para este supuesto se contengan en la Ley Orgánica del Poder Judicial.

3. Corresponderá a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la provisión del personal al servicio de la Administración de Justicia y de los medios materiales y económicos necesarios para su funcionamiento, en los mismos términos en que se reserve tal facultad al Gobierno en la Ley Orgánica del Poder Judicial, valorándose preferentemente, en los sistemas de provisión del personal, el conocimiento, del Derecho Foral Vasco y del euskera.

4. La Comunidad Autónoma y el Ministerio de Justicia mantendrán la colaboración precisa para la ordenada gestión de la competencia asumida por el País Vasco.

35. artikulua

1. Magistratu, Epaikari eta Idazkarien izendapena Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lege Organikoetan aurrikusten den bezalaxe, egingo da, Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehentasuna emanez, izatasuna eta auzotasuna dela eta, salbuespenik egin gabe.

2.Komunitate Autonomoaren eskakizunei jarraiki, organo konpetenteak deia zabalduko du lehiaketa eta oposizioetara Euskal Herriko Magistratu, Epaikari eta Idazkarien postu hutsak betetzeko, Botere Judizialaren Lege Organikoak agintzen duen bezala. Lehiaketa eta oposizio horietan hutsik geratuko liratekeen postu hutsak Euskal Herriko Justizi Hauzitegi Gorenak beteko lituzke, honelako kasuetarako Botere Judizialaren Lege Organikoan aipatzen diren arauak aplikatuz.

3. Bere eremuan Komunitate Autonomoari dagokio Justizi Administrazio zerbitzuko pertsonala eta bere funtzionamendurako behar diren medio materialak eta ekonomikoak hornitzea, Botere Judizialaren Lege Organikoak eskubide hori Gobernuaren eskutan uzten duen hitz beretan, pertsonala hornitzeko sistemetan Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehentasuna emango zaielarik.

4. Komunitate Autonomo eta Justizi Ministeritzaren artean behar besteko kolaborazioa izango da Euskal Herriak hartu duen konpetentzia guztiz gestio egokiz betetzeko.

35'GN ATALA

1. Goi-Epaikari, Epaikari eta Idazkariak, Auzi-Agintaritzari eta Auzi-Agintaritzaren Goi-Batzarrari buruzko Lege Nagusietan esaten dan eran izendatuak izango dira, eta ortarako Euskalerriko Foru-Legedia ezagutzea, eta euskeraz jakitea, baliapide bereziak izango dira, baiña ez da bereizterik izango sorleku eta bizi-lekuagatik.

2. Euskalerriak eskaturik, dagokion erakundeak eratu bear ditu, Auzi-Agintaritzari buruzko Lege Nagusiak agintzen duan eran. Leiaketa ta azterkizun oien ondoren utsik dirauten karguak Euskalerriko Epaigintza Nagusiak beteko ditu, Epaiketa Agintaritzaren Lege Nagusiak orrelakoetarako agintzen duan eran.

3. Euskalerriari dagokio bere lurralde-barruan, Epaigintza serbitzurako bear diran langilleak artzea, eta bere eginkizuna betetzeko bear dituan ornigarriak eta dirutza antolatzea, aalmen ori Auzi-Agintaritza Lege Nagusian Gobernuaren esku gelditzen dan bezela; izendapenak egiterakoan, Euskalerriko Foru-Lagedia ezagutzea ta euskeraz jakitea, baliapide bereziak izango dira.

4. Euskalerriak eta Estaduko Epaigintza Zaingoak, Euskalerriak bere gain artutako aginpidea egoki burutu dezan, elkar-lana egingo dute.

Artículo 36

La Policía Autónoma Vasca, en cuanto actúe como Policía Judicial, estará al servicio y bajo la dependencia de la Administración de Justicia en los términos que dispongan las leyes procesales.

Capítulo IV

(De las Instituciones de los Territorios Históricos)

Artículo 37

1. Los órganos forales de los Territorios Históricos se regirán por el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos.

2. Lo dispuesto en el presente Estatuto no supondrá alteración de la naturaleza del régimen foral específico o de las competencias de los regímenes privativos de cada Territorio Histórico.

3. En todo caso tendrán competencias exclusivas, dentro de sus respectivos territorios, en las siguientes materias:

a) Organización, régimen y funcionamiento de sus propias Instituciones.

b) Elaboración y aprobación de sus presupuestos.

c) Demarcaciones territoriales de ámbito supramunicipal para que no excedan los límites provinciales.

d) Régimen de los bienes provinciales y municipales, tanto de dominio público como patrimoniales o de propios y comunales.

e) Régimen electoral municipal.

f) Todas aquellas que se especifiquen en el presente Estatuto o que le sean transferidas.

4. Les corresponderá, asimismo, el desarrollo normativo y la ejecución, dentro de su territorio, en las materias que el Parlamento Vasco señale.

Euskarazko textua bakarrik irakurriz gero, badirudi nahiko poliki dagoela eta herrikoi gainera. Baina erdarazkoarekin konparatzen baldin ba da, orduan agertzen eta ulertzen da nola lortu den itxurazko erraztasun - hori. Hain zuzen ere, esaldia torpetzen, moteltzen eta zailtzen duten hitzak, intzisoak eta bestelako frase-puntak, eta frase osoak ere, bazterre ra utziaz eta, okerrago dena, textua bera bihurrituaz ere. Ikus segidako puntuok:

1) Gaiaren aldetik, utzi ezin daitezkeen hainbat hitz, deitura, titulu, intziso eta esaldi ez dira itzuli. E.B.:

6.5) *La Comunidad autónoma del País Vasco = Euskalerri* bakarrik itzuli da. *Comunidad Autónoma* titulua ez da ia sekula itzuli.

7.2.a) *La mayoría de los Ayuntamientos interesados: interesados* ez da itzuli.

7.2.b) *Votos válidos emitidos: emitidos* ez da itzuli.

11.1) *Cuando este transporte no salga de su territorio* ez da itzuli.

16.) *En aplicación* ez da itzuli.

17.1,) *El régimen de policía Autónoma* ez da itzuli.

17.1,) *En todo caso* ez da itzuli.

27.4,) *La iniciativa popular para la presentación de proposiciones de Ley, que hayan de ser tramitadas por el Parlamento Vasco, se - regulará por éste mediante ley, de acuerdo con lo que establez ca la Ley Orgánica prevista en el artículo 83 de la Constitución*: dena itzultzeke dago.

28.b) *Delegando ante dicha Cámara:* ez da itzuli.

33.2,) *A la vez* ez da itzuli.

33.2,) *Representación ordinaria: ordinaria* ez da itzuli.

34.2,) *El ejercicio de la acción popular* ez da itzuli..

37.4,) *Les corresponderá* ez da itzuli.

42.c,) *Otras asignaciones* ez da itzuli.

I.Erabaki irangakorrean.) *En un plazo máximo: máximo* ez da itzuli.

V.) *Que para una ordenada gestión* ez da itzuli.

etab.,etab....

2) Gaztelerazko textuak ez dakartzan zenbait gauza jarri egiten da, beharrik gabe. E.b.:

6.2,) *el uso de ambas lenguas = izkuntza biak erabiltzeko eskubidea. Eskubidea* sobra dago.

10.33,) *Calificación legal = Estadu-legez ... izendatuak. Estaturik* ez da textuan aipatzen.

20.3,) *El País Vasco ejecutará los tratados y convenios* = *Estaduak beste erresumekin egindako ... itun eta itzarpenak.* Nundik atera dira hor *Estadu* eta *erresumekin?*

21.1,) *Si las Cortes Generales o alguna de las Cámaras* = "*Cortes Generales" oietako Biltzar biek, naiz bietatik batek.* Textuan ez da ageri ez *Biltzar biek* ez *bietatik batek.* Konpara behar lukeen itzulpena: *Korte Generalek edo Ganbaretatik batek.*

37.2,) *No supondrá alteración* = *ez du inola ... aldatuko. Inola* sobra dago, gehiegi esaten du.

41.2,1) *Podrán mantener, establecer y regular ... el régimen tributario* = *zerga-itunbenekin jarrai dezakete, eta galdu baditzute, bereraiki ta berauen arauak ezarri ere bai.* Itzulpena gaizki egotea gainera, *eta galdu baditzute* ez da ageri erdarazkoan.

II. Erabaki iragankorrean.) *Serán respetados todos los derechos* = *eskubide guztiei oso-osoan eutsiko zaie. Oso-osoan* ez-dakar-textuak eta gainera gaizki dago hor.

3) Benetan gaizki itzulitako textuak erruz dira. E.b.:

1.) *Comunidad* = *lurralde* (=territorio).

6.5.,) *Comunidad* = *giza-talde* (= grupo humano).

7 .1,) *Municipio* = *uri* (= ciudad).

9.1,) *Ciudadano del País Vasco* = *legezko euskaldun* (= vasco de ley, vasco auténtico).

9.2,b) *Condiciones de trabajo* = *lanbide* (= trabajo, profesión, método de trabajo...).

9.2.d) *Individuo = norbera* (= uno mismo).

14.1,c) *En el orden contencioso-administrativo = Edozein agintaritza-mai llaren aurkako auzien saillean* (= en la sección de pleitos contra cualquier grado de autoridad).

20.5,) *En cuanto afecten a materias de específico interés para el País Vasco = bereziki Euskalerrian gertatzen diran aldakuntzetan* (= especialmente en los cambios que ocurren en el País Vasco).

27.1,) *Diputación Permanente = Bitarte-Ordezkaritza* (= delegación interina?).

27.3,) *Los períodos ordinarios de sesiones durarán como mínimo ocho meses al año = Batzarraldi arruntak urtean gutxienaz zortzi illabetekoak izango dira* (= las sesiones ordinarias serán por lo menos de ocho meses al año !!!).

29.) *Órgano Colegiado = giza-taldea* (= géntío, grupo de hombres).

30.) *Organización = Erakunde-legeak* (= leyes institucionales).

32.1,) *Responde políticamente = erriarekiko erantzukizuna* (= responsabilidad para con el pueblo).

32.2,) *Actos delictivos = egindakoak* (= las cosas realizadas).

37.2,) *Lo dispuesto en el presente Estatuto = Araudi au betetzeak* (= el cumplimiento de esta Normativa).

37.5,) *Organos representrativos = erri-ordezkari Erakundeak* (= instituciones de representantes populares).

38.3,) *Jurisdicción Contencioso-Administrativa = Estaduak ortarako duan Agintaritza-Aurkako Epaigintza* (= sentenciamiento contra Jefatura, Autoridad, que el Gobierno tiene para eso???).

39.) *Instituciones de la Comunidad Autónoma = Euskalerri osorako erakundeak* (= instituciones para todo el País Vasco).

42.) *Ingresos de la Hacienda General = Ogasunak* (= bienes).

42.b,) *Financiación = diru-sortzea* (= sacar dinero).

42.c) *Transferencias = Jasotakoak* (= lo recibido)

45.2) *En coordinación con el Estado = Estaduarekin arremanetan* (= en relaciones con el Estado).

VI. Erabaki Iragankorrean.) *Canal de Televisión = Ikusirrati-erakunde* (= institución de radio para ver???). Etab., etab. asko...

4) Batzutan originalean ematen diren ideien ordena aldatzen da beharrik gabe. E.B.:

17.1,) *Extradicción (1) y expulsión (2) = arrotzak atzerrira botatzea (2) ta erbesteko auzipetuak erriratu araztea (1)* (= a los extraños echarlos al extranjero (2) y a los extranjeros bajo pleito hacerlos volver al pueblo (1) ???).

19.3,) *Regular (1), crear (2) y mantener (3) = sortu (2), beroien arauak ezarri (1) eta zaindu (3)*. Etab...

5) Erdaraz esanahi zehatza duten hitz asko, idea bera oso nolabait ematen duten hitzekin itzultzen da euskaraz, doitasunaren kaltetan. E.B.:

6.2,) *Garantizar = zaindu* (= cuidar).

6.2,) *Regular = arauak ezarri* (= aplicar normas).

10.10,) *Acuicultura = uretako azkuntza* (= crianza de lo de las aguas).

10.15,) *Ordenación farmacéutica = sendagai-legeak* (= leyes de medicinas).

10.15,) *Higiene = osasun-legeak* (= leyes sobre la salud).

13.1,) *Administración de justicia = epaigintza-eraketa* (= formación de la realización de sentencia ?).

17.1,) *Orden público = erriaren pakea* (= la paz del pueblo).

17.1,) *Emigración e inmigración = atzerriratzea eta erriratzea* (= ir al extranjero e ir al pueblo).

17.2,) *Policia = ertzain* (= policia municipal, cuidador del pueblo).

18.4,) *Administrar = zaindu* (= cuidar).

Eta beste etab. asko... Ikusi hurrengo numeroa ere.

6) Hitzak ez dira beti esanahi berdinez erabiltzen eta Zuzenbidean hitz teknikoko ezberdin direnak termino bat beraz itzultzen dira euskaraz. E.B.:

Erakunde = institucion (6.4,); organización (34.1,); administración (17.3,) órgano (14.d); cuerpo (de seguridad) (17.1); canal de televisión (VI. Erabaki Iragankorrean); *organismo (43.1,)*...

Legegintza-Biltzar = Parlamento (10.3,); el Congreso (28.b); Cámara (I.Erabaki Iragankorrean); Asamblea Legislativa da hori hitzez hitz, eta kontzeptu hau ere behar da.

Cámara = Legegintza-biltzar (I. Erabaki Iragankorrean); *Biltzar (27.3,); Batza (10.21,).*

Agintaritza = institución (17.5,b); administración (11.1,b); Poder (Judicial) (35.1,); Poderes Públicos (18.5,); Comunidad Autónoma - (III.2, Erabaki Iragankorrean).

Organización = erakunde (34.1,); aginte-bide (3.); araupide (47.1,); arauak ezartzea (13.2,); antolatzea (37.3,a).

Comunidad Autónoma = Autonomi-Lurralde (1.); Euskalerri (10.); Euskalerriko Agintaritza (III.2, Erabaki Iragankorrean). Beste askotan ez da euskaratzen.

Arau = norma (10.24,); ley (1.); ordenación (11.2,a).

Baltzu = institución (10.26,); cooperativa (10.23,); empresa (11.2,b).

Institución = erakunde (6.4,); agintaritza (17.5,b); baltzu (10.26,).

Eta beste asko...

7) Bitxikeriak: E.b.: *"Congreso" eta "Senado" diralakoak (47.3,); "Cortes Generales" diralakoak (47.1,b); DNI (17.1); "Fuerzas Armadas" diralakoak* (IV. Erabaki Iragankorrean). Horiek denak gazteleraz utzi dira, itzuli gabe.

8) Hizkera-mailari eta estiloari dagokionez ere askotan behartzen da jatorrizko textua, maila arruntago batean emanaz. E.b.:

9.1,) ... *son los establecidos en la Constitución = Konstituzioan daudenak dira* (= son los que están en la Constitución),(*Konstituzioan zehaztutakoak, finkatutakoak, dira* esan ordez).

9.2,c) *Adoptarán aquellas medidas que tiendan a fomentar el incremento del empleo = Lan-aukerak ugaritzeko egiñaalak egitea* (= hacer los posibles para multiplicar las oportunidades de trabajo), - *enplegua gehitzera doazen neurribideak hartuko dituzte* edo *Enplegguaren gehitzea sustatzea -suspertzea, indartzea- bilatzen duten neurribideak hartuko dituzte* edo esan ordez).

10.39,) *Política de la tercera edad = Zartzaroari dagokion eginpidea* - (*Hirugarren adinari dagokion politika* edo esan ordez).

15.) *Y con respeto a la institución establecida por el artículo 54 de la Constitución = Konstituzioak 54.gn atalean diona* (= lo que dice la Constitución en la parte 54),(*Konstituzioaren 54. artikuluak ezarritako erakundea errespetatuz* esan beharrean).

17.6,b) *A través de procedimientos constitucionales = Konstituzioaren esanetara jokatuz* (= actuando según lo dicho por la Constitución), (*Konstituziozko prozeduren bidez* edo esan ordez).

18.4,) *La alta inspección conducente al cumplimiento de las funciones = Eginkizunetarako gain-begiratua* (= mirada superficial, edo supervisión para los quehaceres), (*Gain-begiratua, betebeharrak bete daitezen* edo esan ordez).

21.) *Es el (Derecho) aplicable con preferencia a cualquier otro = Beste (lege) guztien gainetik daude* (= está por encima de todas las demás (leyes)), (*Eta (Zuzenbide) hori da beste guztien aurretik aplikatu behar dena* edo esan beharrean).

34.2,) *El Presidente ... será nombrado por el Rey = Lendakaria Erregek izendatuko du* (= al Presidente lo nombrará el Rey), (*Lehendakaria Erregek izendatua izango da* esan ordez).

28.a) *Mediante el procedimiento que se señale en una ley = Legeak agindu duko duan eran* (= como lo mande la Ley), *(Lege batean adierazi-ko, zehaztuko, den prozedura bati jarraituz* edo esan beharrean).

Etab...

9) Batzutan erdarazkoa hitz edo esaldi tekniko batez eman beharrean, berorren explikazioa, edo explikazio bat, ematen da. E.b.:

10.29,) *La Bolsa = Balio-agirien Merkatu Nagusia* (= el mercado mayor de documentos de valor).

17.1,) *Orden Público = Erriaren pakea* (= la paz del pueblo).

14.1,c) *En el orden contencioso-administrativo = Edozein agintaritza-mai laren aurkako auzien saillean* (= en la sección de pleitos contra cualquier grado de autoridad), (*Estabaida- eta administrazio-sai lean* edo esan ordez).

28.c) *Recurso de inconstitucionalidad = Konstituzioak dionaren kontra artutako erabakietan gora jotzea* (= el recurrir en las decisiones tomadas contra lo que dice la Constitución), *{Ez-konstituzio nal izateagatik gora-jotzea* edo *inkonstituzionalitateagatik gora-jotzea* edo esan ordez).

31.1,) *Por dimisión = Garaiz leen kargua uzten duanean* (= cuando deja el cargo antes de tiempo), *{Dimisioz* esan beharrean).

Etab...

10) Gramatika aldetik ere akats dezente dago. E.b.:

10.29,) *Regulación = auen arauak ezartzea {hauei arauak ezartzea* esan ordez).

31.1,) *Antes de tiempo = garaiz leen (garaia baino lehen* esan ordez).

37.3,f) *Bere eskuetan ipintzen zaizkienak (bere-N ... zaizki-E-nak* ala bestela *bere ... zaizki-O-nak* behar du izan).

41.1,) *Entre el Estado y el País Vasco = Estadu eta Euskalerri arteko* (= entre Estados y Países Vascos), (*Estaduaren eta Euskal Herriaren arteko* esan beharrean).

I.Erabaki Iragankorrean.) *En un plazo máximo de sesenta días (=60) = Irurogei egun baino leen (=60-1=59), (gehienik hirurogei egun barru* esan beharrean).

LABURTUZ

Laburtuz, bat dago argi eta garbi: itzulpen honek ez duela ofizial edo ofizalkide izateko balio. Eta nere saminik haundiena hortxe dago, ez - dela erdarazkoaren berdina eta berriz ere gaztelerazkoa beharko dela aipatu Estatutuaren textu zihurrik aurkeztu nahi denean.

Zuzenbide-hiztegiaren edo hizkeraren aldetik sortzen den problema teknikorik ez du bat bakartxorik ere erabakitzen, gu ari garen mailan - behintzat. Beraz, guk eskuartean dugun lanarentzat ez digu ezer, baina ez ta ezertxo ere ordea, ematen.

Hau ez diot inoren kontrako haserretan eta bai guztion penatan. Horrenbeste lan egin ondoren, eta latza da gero hau lana!, euskararen aurrerapenerako ezeren probetxurik ez ateratzea! Nola liteke ordea hori! Nik ez dut ulertzen, baina holaxe da. Ez naiz exageratzen ari. Besterik ez. Hor - daude oharrak eta ikus.

KONTUAN EDUKITZEKO ZERBAIT

Zenbait argitasun eman nahi nituzke erabili dudan lan egiteko moduari dagokionez. Sarritan gaztelerazko itzulpena eman diot euskarazko textuari, originalarekin konpara ahal izan dadin eta bien arteko aldea ikusi. Ondoren alternatibazko euskarapen berri bat eman dut, nere ustez, jatorrizko textuarekin adosago dagoena.

Euskarazko itzulpenaren erdaratzeari dagokionez, zera esan nahi nuke. Norbaitek esan dezake, eta esango du, erdaratzekoan nik neuk aldrebestu dudala euskarazko textuaren esanahia, gero nere alternatiba zuzenago dela ikuserazteko. Eta jakina, horrela ezin gatozkeela inoiz bat. Puntu hau argitzeko esan dezadan:

1) Nik eman dudan itzulpena ez dela ahalgarri den bakarra.

2) Baina euskarazko textuak esanahi bat baino gehiago dituenean, nik eman dudana ere hantxe dagoela textuaren barruan. Hain zuzen, berriz, esanahi aniztasun hauxe da nik euskarapen honetan kritikatzen dudan puntuetako bat. Erdarazkoak ez bait du esanahi bat besterik.

3) Nik bilatu dudan esanahia izan da, hitzak edo esanak lehenengo kolpean, lehenengo entzutean, guri burura ematen diguna adieraztea. Bestela esanaz: euskarazko textuak dituen hainbat esanahietatik gure belarrira lehenengo datorrena zein den, huraxe jasotzen saiatu naizela ni.

4) Sistema zorrotza eraman dut nik hitzei beren esanahia ematekoan, eta erdarazko textua itzuli dutenek ez. E.B., neretzat desberdin dira: *Hauzi* =

pleito, judizio = juicio, prozesu = proceso, epai = sentencia, justizia/zuzentasuna = justicia. Eta Herriarentzat ere bai hitz horiek hertsiki - hartzen dituenean; zabal hartzen dituenean elkarrekin nahasten baldin ba ditu ere. Nik erreferentzi puntutzat esanahi hertsi hartu dut, hiztegi - teknikogintzan bide bakarra hori dela uste bait dut. Eta erdarek ere ho- laxe egiten dute. Ondorioz, nik ez diot inoiz *Hauziri epai* esanahirik - eman, ez *prozesu* ez *judizio*renik. Beste horrenbeste esan beste lauekiko ere. Gero deribatuetan ere zorrotz gorde dut, noski, arau bera. Eta ho- rra ondorioak: *Epaigintza = epai egitea, sententzi* egitea izango da eta ez *Tribunal de Justicia* (= justizi hauzitegia) (26.6,); ezta *Administración de Justicia* (= justizigintza edo justizi egitea) (34.1,) ere. *Auzialdi = hauzisaio bat, eztabaidaldi bat* izango da, baina ez *instancia* (= instantzia, jurisdikzio-maila) (34.1,). *Ley procesal* = behin *Epaiketa-bide Lege* itzültzen da (34.3,), behin *Auziketa-Lege* (36.). Nik *prozesu-lege* edo *Lege prozesala* itzuliko nuke. Baina *prozesu* beti *prozesu*...

Alternatibatan nik eskaini dudan textu originalaren itzulpenari - buruz garbi utzi nahi nuke: alegia, nere itzulpena ahalgarrietako bat beste- rik ez dela, eta ni ez naizela apodiktikoki arazoa erabakitzeko asmotan ari- tu. Ahal nuentxoa egin dut, besterik ez. Nere lana ez zen Estatutua euskara- tzea, euskarapentzat eman dena kritikatzea baino. Esan dezadan hala ere, er- darazko hitz teknikoek ezartzen dituzten problema guztiak ez ditudala orain- dik erabakita ikusten, eta holakotan nik ez dudala erreparorik erdarazko hi- tza bera erabiltzeko, euskarazko ordain egokirik aurkitzen ez dudan bitar- tean. Ni honetan zorrotza naiz; zenbaitentzat zorrotzegia apika. Uste bait dut, hobe dela hertsitasunari sendo eutsiz euskal hiztegi teknikoa egitea, erabakitzen dena behin betiko erabakita utzirik, hertsitasun hori piska bat laxotuz eta gero lasatuz, hitzak prakalas eta galtzaundi ezertarako, hots - ezer gutxitarako, balio dutela uztea baino. Bide honi jarraituz orain arte-

ko nahasmendia izanen dugu sekulorun sekulatan. Zorrotz jokatuz alabaina poliki joango gara, baina beti aurrera eta beti zihur, korapiloak behin betiko askatuz.

Dauden bezala ulertzeko nahaspiderik ematen ez duten beste gauza eta koskorkeria asko (*euzko* eta ez *euskal, legedi* eta ez *legeria, Lendakaria* eta ez *Leendakari, dala* eta ez *dela*, etab...) ez dut hemen ukitu. Nik - aztertu dudana izan da beti, Estatutu-itzulpenaren doitasuna, dela gaiaren dela Zuzenbide-hizkeraren ikuspegitik, ukitzen duen edozer. Hortarako erabili den euskara-moduari eta beronen ereduari ez diot nik ez on- ez gaitzespenik eman. Hori beste arlo bateko lana da. Gure ohitura zaharrari jarraituz: gaizki esanak barkatu eta ondo esanak ondo hartu.

Fernando Merndizabalek

ITZULPEN EZOFIZIALAREN AZTERKETA

1. ARTIKULUA

Artículo ez da *atala* (=parte) eta bai *artikulu*. Eguneroko euskaran *parte* esateko erabiltzen da *atala*. Kodigo batean berriz gauza asko izaten dira berezi beharrekoak. Zuzenbide Kanonikuaren Kodigoan e.b.: Libros, Partes, Secciones, Títulos, Capítulos, Artículos, Parágrafos, Números, etb... Hoietan denetan zeinentzat hartu behar da *atal* hitza? Eta *artikulo* esateko erabiltzen badugu, zer erabili behar dugu *parte* esateko?

Norma ez da *lege* eta bai *arau* (Azkue). *Lege* ezer baldin bada *ley* da Euskal Herri guztian. Gainera *Lege* eta *arau* bi kategoria desberdinetako hitzak dira. Legeak denak dira arau, baina arauak ez dira denak *lege*. Arauak ez dauka *legearen* indarrik.

Estatuto ez da *araudi* (=normativa) eta bai *Estatutu*. Estatutoa, nahi bada, *normatiba* edo *araudi* espezial bat da; hain espeziala ere, eze izen berezi eta nagusitzat hartzen bait da. Estatutua esaten dugunean, gauza jakin eta bakarra adierazi nahi dugu denok, politikan behintzat. Araudiak era guztietakoak eta maila ta eremu guztietakoak dira: e.b., lantoki bateko *araudia*, sindikatoen *araudia*, elkartasun gastronomiko baten *araudia*... A.I.Larrakotxeak *Eleizearen Araudia* izenez euskaratu zuen *Zuzenbide Kanonikoa* eta hura ez da *Estatutu*.

Comunidad ez da *lurralde* eta bai *komunitate*. *Lurralde* lurrari lotua dago, *komunitate* pertsonei, jendeari zuzendua. *Comunidad Judía* esaten denean, ez da adierazten Israelen bizi den jendea bakarrik. Gainera haiek ere ez dira denak judutar, eta Israeldik kanpo ere bada judutarrik ugari. Beraz *Comunidad Autónoma* ez da *Autonomi-Lurralde* (=territorio autónomo) eta bai *Komunitate Autonomo*.

Artículo 2

1. Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, así como Navarra, tienen derecho a formar parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. El territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco quedará integrado por los Territorios Históricos que coinciden con las provincias, en sus actuales límites, de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, así como la de Navarra, en el supuesto de que esta última decida su incorporación de acuerdo con el procedimiento establecido en la Disposición Transitoria 4ª de la Constitución.

Artículo 3

Cada uno de los Territorios Históricos que integran el País Vasco podrán, en el seno del mismo, conservar, o, en su caso, restablecer y actualizar su organización e instituciones privativas de autogobierno.

2. ARTIKULUA

2.2. PASARTEA

Agindu = mandar. *Aginduta dagon eran* gogorregia da *de acuerdo con lo que está establecido* itzultzeko. Hor ez da ezer agintzen; prozedura zehaztu, konkretatu besterik ez da egiten. Beraz hobe *zehazten, esaten, aipatzen, erakusten den eran.*

Que coinciden con las provincias en sus actuales límites dioen lekuan *que coinciden* ez da euskaratu, eta behar litzateke.

En el supuesto de que... decida ez da *noizpait erabaki ezkero* (=si alguna vez lo decide) eta bai *baldin hola erabakiko balu.*

3. ARTIKULUA

Conservar su organización ez da *bere aginte-bideari eutsi* (=aguantar, sostener a los medios de mando). Batetik gogorregia da kasu hontan *eutsi 'Conservar'* esateko. Hori ondo legoke burrukaren bat adieraziko balitz horren kontra, orduan *gorde ahal izateko 'eutsi'* dago egin beharra. Baina textuinguru hontan ez dago holako girorik. Beraz aski da *gorde.*

Organización ez da *aginte-bide* (=medio, forma de mando) eta bai *organizazio* edo *antolakuntza, antolabide* edo holako zerbait.

Artículo 5

1. La bandera del País Vasco es la bicrucífera, compuesta de aspa verde, cruz blanca superpuesta y fondo rojo.

2. Asimismo se reconocen las banderas y enseñas propias de los Territorios Históricos que integran la Comunidad Autónoma.

Artículo 6

1. El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas.

2. Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta la diversidad socio-lingüística del País Vasco, garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento.

3. Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua.

4. La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia es institución consultiva oficial en lo referente al euskera.

5. Por ser el euskera patrimonio de otros territorios vascos y comunidades, además de los vínculos y correspondencia que mantengan las instituciones académicas y culturales, la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá solicitar del Gobierno español que celebre y presente, en su caso, a las Cortes Generales para su autorización los tratados o convenios que permitan el establecimiento de relaciones culturales con los Estados donde se integran o residan aquellos territorios y comunidades, a fin de salvaguardar y fomentar el euskera.

(Instituciones) privativas de autogobierno ez da euskaratu.

5. ARTIKULUA

5.1. PASARTEA

Aspa verde ez da *gurutze orlegia zeharka* (=una cruz verde de través) eta bai *aspa orlegia*. Zer esan nahi du hor zeharka horrek?

Fondo rojo ez da *oial gorria* (=paño rojo) eta bai *hondo gorria*. Bestela zer gertatuko litzateke paperezko edo lorazko edo bestelako ikurrinekin, hoiek ez bait lukete *oialik* izango?

6. ARTIKULUA

6.1. PASARTEA

Lengua propia ez da *jatorrizko izkuntza* (=lengua originaria) eta bai *berea duen hizkuntza* edo *hizkuntza propioa*.

Euskara ofiziala izango da Euzkadin, bai gaztelera ere. Behar bada hauxe zen euskaldunek nahi zuketena, baina ez horratio Madrileko Gobernuak! Textuak dio: *El euskera tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial*. Konparapuntua hor kastellanoa da ez euskara; ofiziala kastellanoa da, euskara horren mailara igoko da, gehienez ere; baina hura da *patroia*, ez euskara. Euskarazko textuak euskara jartzen du

konparapuntutzat eta kastellanoa gero euskararen ofizialtasun-mailan. Hamaika gauza entzutekoak jaioak gara benetan! Itzulpena beraz: *euskara, gaztelera bezala, ofiziala izango da Euskadin.* Suarezek eta euskararik balekite, jakin! Matematikatan (1=1) *bat berdin bat* irakurtzen dena, politikan *bat baino bat berdinago* irakurtzen bait da.

6.2. PASARTEA

Uso ez da *erabiltzeko eskubidea* (=el derecho de usar) eta bai *erabiltzea, erabilera, usarioa.*

Garantizar ez da *zaindu* (=cuidar), hau baino gehiago da *garantizatu, segurantzia zaindu* edo holakoren bat. Hiztegi teknikorako ez du balio.

Regulando su carácter oficial ez da *ofizialtasun arauak ezarri* (=aplicando las normas de oficialidad, eta hau zer da?) eta bai *bere ofizialtasuna erregulatuz.*

Y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento euskaratzeko *eta (izkuntzaren) jakitea lortzeko behar diran bideak eratu eta auei arauak ezarri* ematen da (=formar, disponer los medios necesarios para conocer la lengua y aplicar normas a ellos). *Medidas y medios* ez dira berdin eta ez daitezke biak *bidez* itzuli. *Medidas* da: lege, arau edo ordenamenduren bidez neurri(bideak) jartzea, bideak bilatzea eta antolatzea: nolanahi ere legegintza aldetiko zerbait da. *Medios*, berriz, helpideak, laguntza materiala, diru-laguntza edo da areago.

Arauak ezarri ez da *regular,* eta bai *aplicar normas. Regular erregulatu* erabiltzen da alde guztietan eta esan nahi du: *aldez aurretik jarri den arau edo eman den erabaki baten arauera zerbait ibileraztea.*

6. ARTIKULUA

6.3. PASARTEA

Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua ez da *inor ez da izkuntzagatik berezi bear* (=nadie debe ser distinguido por la lengua). Itzulpena oso motela da. Gainera *diskriminatu* eta *berezi* ez dira kategoria berdineko hitzak. Oso ondo esan daiteke *hizkuntzagatik bereizten da bat ez bestea den,* (Goiherrikoa den ala Beterrikoa, Bizkaitarra ala Gipuzkoarra, etab...) baina *diskriminatu* ez dago egiterik. *Diskriminatu* beti da negatibo, *berezi* ez. Europako hizkuntza guztietan erabiltzen den hitza da eta gauza jakin eta bakarra adierazteko erabiltzen dena hain zuzen: alegia, *gizonen eskubideberdintasuna hizkuntza, arraza, erligio eta abarrengatik haustea.* Hitz horren ordainik ez dago oraindik euskaraz.

6.4. PASARTEA

Euskaltzaindia es institución consultiva oficial ez da *Euskaltzaindia aolku-erakunde ofizialetakoa da* (=Euskaltzaindia pertenece a (es de) las instituciones consultivas).Textu-bihurritze haunditxoa da hori. Textuak ez du aitortzen, hor suposatzen den bezala, beste erakunde ofizialik badenik; ez du hori ukatzen noski, baina espreski baieztu ere ez du egiten. Horren itzulpen neutroa hau da: *Euskaltzaindia aholku-erakunde ofiział(a)da.* Hor ez da ukatzen besterik izan ez daitekeenik, ez du esaten badenik; aitortzen duen bakarra da *Euskaltzaïndia behintzat badela,* erderazkoak dioena bera. Bestela litzateke esatea: *Euskaltzaindia da aholku-erakunde ofiziala. La Institución* izango litzateke hor, besterentzat lekurik uzten ez duena, estatutugileen artean hain eztabaidatua izan zen artikuluska hura. *Da* aditzaren aurretik zein hitz jartzen denak badu euskaraz zerikusirik, eta hortxe bat galanta.

Artículo 7

1. A los efectos del presente Estatuto tendrán la condición política de vascos quienes tengan la vecindad administrativa de acuerdo con las Leyes generales del Estado, en cualquiera de los municipios integrados en el territorio de la Comunidad Autónoma.

2. Los residentes en el extranjero, así como sus descendientes, si así lo solicitasen, gozarán de idénticos derechos políticos que los residentes en el País Vasco, si hubieran tenido su última vecindad administrativa en Euskadi, siempre que conserven la nacionalidad española.

6.5. PASARTEA

Comunidad ez da *giza-talde* eta bai *komunitate*. *Gizatalde* zerbait amorfoa da *jende-mordo* bezalatsu. Gorago *lurralde* hitzaz itzuli da.

Que mantengan ez da *elkarrekin dituzten* (=que mantienen) eta bai *elkarrekin izan ditzaketen* edo *izango dituzten* edo *izan ditzaten*.

7. ARTIKULUA

7.1. PASARTEA

Tendrán la condición política de vascos ez da *euskaldun izango dira* (=serán vascos) eta bai *euskaldun-izaera politikoa izango dute* edo *politikoki euskaldun izango dira*. ~~*Condición política* hitzek zehaztapen haundia ema~~ ten diote textu horri. Textu horri jarraituz, iparraldeko euskaldunek ez lukete *euskaldun-izaera politikorik*, ez bait dira *Komunitate Autonomikoaren* barruan bizi. Herrian baditugu, horratio!, beste kategoria batzuk nor den euskaldun eta nor ez den erabakitzeko!

Municipio ez da *uri* (=ciudad) eta bai *udal*. Ez dira berdin. Guk Paris esaten dugunean *uri* bat adierazi nahi dugu, baina han *udal* asko dira, oker ez banago.

7.2. PASARTEA

Nacionalidad: *iritasun* itzultzen da, eta nola itzuliko litzateke *ciuda-*

dania? Gainera gorago (art.1) *erritasuna* itzultzen da. *Nacionalidad española* itzultzekoan kontuan euki behar genuke, euskaldunok *nazionalitatez* euskaldun garela eta *estatuz* espainiar. Lehengo egun batean esaten zidan J.A. Obieta, EUTG-ko Erretore Jaunak, egoki litzatekeela euskaldunok ere Alemanek egiten duten bereizkuntza bat egitea. Alegia, haiek *Staatsangehörigkeit* erabiltzen dute bat zein Estatutakoa den adierazteko, gure kasuan espainiarra, eta *estatutasuna, estatukidetza, estatukidetasuna* proposatzen zuen hori euskaratzeko. Bestea *Nationalität*, bat zein nazio edo etniatakoa den adierazteko erabiltzen dute, gure kasuan *euskalduna*. Beraz guk *espainiar estatutasuna edo estatukidetza* izango genuke, baina *euskal naziotasuna (edo herritasuna?) edo nazionalitatea.*

Enclavado ez da *barrutian egon* (=estar en la jurisdicción, en el término jurisdiccional). *Barruti = jurisdicción* esateko espezializatzen ari da gaur gure artean eta tamala litzateke orain atzera-martxa egiten hastea. Hor hobe *barruan, mugabarruan, dauden lurraldeak.*

Mediante el cumplimiento ez da *bidez; cumplimiento* falta da: *beteaz.*

a) *La mayoría de los ayuntamientos interesados* ez da *udalik gehienek* (=La mayoría de los ayuntamientos), *interesados* falta da. Beraz, *udal interesaturik gehienek.*

b) *Lur-zati: territorio* esateko erabiltzen da bi aldiz, ia jarraituan. Hitz kaskarra da hori eta *parcela* edo itzultzeko hobeto dago *enklabeko lurraldea* adierazteko baino.

Votos válidos emitidos ez da *balio duten botoak, emitidos* falta da: *emandako boto baliozkoak.*

Artículo 9

1. Los derechos y deberes fundamentales de los ciudadanos del País Vasco son los establecidos en la Constitución.

2. Los poderes públicos vascos, en el ámbito de su competencia:

a) Velarán y garantizarán el adecuado ejercicio de los derechos y deberes fundamentales de los ciudadanos.

b) Impulsarán particularmente una política tendente a la mejora de las condiciones de vida y trabajo.

c) Adoptarán aquellas medidas que tiendan a fomentar el incremento del empleo y la estabilidad económica.

d) Adoptarán aquellas medidas dirigidas a promover las condiciones y a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean efectivas y reales.

e) Facilitarán la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social del País Vasco.

c) *Ley Orgánica* ez da *Lege Nagusi* (=ley mayor, principal) eta bai *Lege Organikoa*. Hola ez da itzultzen dokumentu ofizialik.

9. ARTIKULUA

9.1. PASARTEA

Ciudadano del País Vasco ez da *legezko euskaldun* (=vasco de ley, vasco auténtico) eta bai *Euskal Herriko iritarra*. Kontuz ibili beharra dago esan hoiekin.

Son los establecidos en la Constitución ez da *Konstituzioan daudenak dira* (=son los que están en la ley) eta bai *Konstituzioan zehazturik edo finkaturik daudenak dira*. *Establecer* eta *egon* ez dira berdin. Doitasuna bilatzeaz gainera, terminologia teknikoa sortzera ere jo beharra dago, euskara aberasteko eta jakintzarako gaitzeko.

a) *El adecuado ejercicio de los deberes* ez da *eginbeharrak betetzeko behar duten egokiera* (=la oportunidad que necesitan para cumplir los deberes) eta bai *eginbeharrak egoki betetzeko modua edo era*. *Egokiera = era ona, aukera, mugona*.

b) Ez gaia itzultzen da ondo, eta ez bereziki Estatutuak duen hitzegiteko estiloari, legegintzan oso ohia denari, egiten zaio jaramonik eta kasorik. 9.Artikulu hontan ageri da hau guztiz nabarmen. Konpara euskarazkoa eta erdarazkoa:
Impulsarán particularmente una política tendente a la mejora de las condiciones de vida y de trabajo. Eta euskaraz:

Bizimodua ta lanbideak obetzeko, ekintza-bideak indar bereziz bultzatzea (=impulsar con fuerza especial las actividades para mejorar el trabajo y la forma de vida).

Condiciones de trabajo: lanbidea. Condiciones ez da euskaratzen. *Lanbide* berriz, oso galtzaundia da eta edozar itzuli dezake: *oficio, profesión, método de trabajo, rompecabezas o trabajo difícil* eta... *(Lanbide ederra daukat nik orain hau dena konpontzen (hauek denak biltzen)* edo *lanbide ederra jarri diozu oraintxe, hori dena (puzzle bat) asmatzerako aste guztia joango zaio* (B.G.-goiherri).

Impulsarán particularmente una política tendente a ez da *ekintza-bideak indar bereziz bultzatzea* (=impulsar con fuerza especial los medios de acción, las actividades). Hor ez da ez mamirik ez estilorik errespetatzen. Gainera zer da horko *ekintza bide* hori? Nere ustez, doi doi eta estilorik galdu gabe, eta erraz ulertzeko eran gainera, honela edo itzuli daiteke goian eman dudan textu osoa: *Bizimodua eta laneko kondizioak (baldintzak) hobetzera doan politika bati eragingo diote bereziki* edo *bizimodua eta laneko kondizioak hobetzen ahaleginduko den politika bat sustatuko eta indartuko dute bereziki.*

c) *Adoptarán aquellas medidas que tiendan* ez da *eginalak egitea* (=hacer lo posible) eta bai *-tzera doazen neurribideak hartuko dituzte.* Gazteleraz koak adierazten duena legegintzakoa eta administratiboa da osoro, *Eginahalak* gainera *indar guztiak bertan jartzea* edo adierazten du. *Adoptarán las medidas* hotz hotza da, hor ez da intentsitaterik adierazten.

Empleo ez da *lan-aukera* (=oportunidad de trabajo, elección de trabajo) eta bai *enplegua.* Ekonomi-hiztegia egiten aritu direnek ondo

bereizten dituzte *lana* eta *enplegua*. Gaurregun jende asko dago fabriketan enplegaturik eta hala ere lanik gabe. Bi dira hoiek. Honela edo itzuli daiteke textu hori: *Enpleguaren gehitzea eta egonkortasuna sustatuko (lagunduko) duten neurribideak hartuko dituzte,* eta hitzez-hitzago ...*sustatzera (laguntzera) doazen neurribideak hartuko dituzte.*

a) *Individuo* ez da *norbera* (=cada uno, uno mismo). Hor dabil aspaldion *gizabanako = individuo* esateko. Ez da nere gusto gustokoa, zeren ez bait du balio animalia, landare eta gauzentzat, eta hoientzat ere behin baino gehiagotan behar dira *indibiduo, indibidualki, indibidualitatez, indibidualdu...* eta antzeko hitzak. Nik neuk *indibiduo* hartuko nuke Europako hizkuntza guztiek egiten duten bezala. Edozeinetara ere *norbera* beintzat ez, hori *indibiduo* berezi berezia da ta.

(Grupos) en que se integra = gizatalde besterik ez da itzultzen, eta bestea? Betiko iheskeria! ...*En que se integran* ere itzuli beharrekoa da. *Osatzen dituen taldeak* edo zerbait, baina itzuli behintzat.

Adoptarán aquellas medidas dirigidas a promover las condiciones o a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean verdaderamente efectivas y reales. Egia da erdarazko textu hori ez dela guztiz klasikoa eta gutxiagorik ere, baina euskarapenak oraindik hori moteldua eta estiloz aldatua ematen du. *Norberaren eta giza-taldeen askatasuna ta lege-berdintasuna egiazkoak eta benetakoak izan daitezen bideak jartzea ta oztopoak kentzea* (=quitar los obstáculos y poner los medios para que la libertad y la igualdad legal de cada uno y de los grupos humanos sean de verdad y sinceras). Tartean diren intzisoak kendu ondoren erraza gelditzen da frase hori; baina ez da erdarazkoaren itzulpen leiala. Honela beharko luke: *Xedetzat kondizioak sustatzea (hobetzea, indartzea) eta oztopo-*

ak kentzea duten neurribideak hartuko dituzte, indibiduoaren eta honek osatu taldeen libertatea eta berdintasuna benetakoak eta errealak izan daitezen.

Adoptarán aquellas medidas dirigidas a promover las condiciones ez da *bideak jartzea* (=poner los medios). Batetik hitz egiteko modu bat dago hor, eta gainera xehapen asko ere bai itzuli ez direnak. Hola be har luke: *Kondizioak sustatzera doazen neurribideak hartuko dira* edo *xedetzat kondizioak hobetzea duten neurribideak hartuko dira.*

e) *Facilitarán la participación* ez da *esku artu dezaten bideak jartzea* (=poner los medios para que tomen parte), eta bai *eskuhartzea erraztuko dute. Erraztu* da *facilitar* eta ez *bideak jarri*. Zailtasunak sortuz ere *jarri daitezke bideak* baina orduan ez da *erraztu* eta bai *zaildu*. Burokrazikeria ere *bideak jartzea* da baina *bideak errazteko* jarrita dagoenik ez nuke esango.

Título I

(De las competencias del País Vasco)

Artículo 10

La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en las siguientes materias:

1. Demarcaciones territoriales municipales, sin perjuicio de las facultades correspondientes a los Territorios Históricos de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37 de este Estatuto.

2. Organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno dentro de las normas del presente Estatuto.

3. Legislación electoral interior que afecte al Parlamento Vasco, Juntas Generales y Diputaciones Forales, en los términos previstos por el presente Estatuto y sin perjuicio de las facultades correspondientes a los Territorios Históricos, de acuerdo con lo dispuesto, en el artículo 37 del mismo.

4. Régimen Local y Estatuto de los Funcionarios del País Vasco y de su Administración Local, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 149.1.18ª de la Constitución.

5. Conservación, modificación y desarrollo del Derecho Civil Foral y especial, escrito o consuetudinario propio de los Territorios Históricos que integran el País Vasco y la fijación del ámbito territorial de su vigencia.

6. Normas procesales y de procedimientos administrativos y económico-administrativo que se deriven de las especialidades del derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco.

7. Bienes de dominio público y patrimoniales cuya titularidad corresponda a la Comunidad Autónoma, así como las servidumbres públicas en materias de sus competencias.

8. Montes, aprovechamientos y servicios forestales, vías pecuarias y pastos, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.23ª de la Constitución.

9. Agricultura y Ganadería de acuerdo con la ordenación general de la economía.

10. Pesca en aguas interiores, marisqueo y agricultura, caza y pesca fluvial y lacustre.

11. Aprovechamientos hidráulicos, canales y regadíos cuando las aguas discurran íntegramente dentro del País Vasco; instalaciones de producción, distribución y transporte de energía, cuando este transporte no salga de su territorio y su aprovechamiento no afecte a otra provincia o Comunidad Autónoma; aguas minerales, termales y subterráneas. Todo ello sin perjuicio de lo establecido en el artículo 149.1.25ª de la Constitución.

12. Asistencia social.

13. Fundaciones y Asociaciones de carácter docente, cultural artístico, benéfico, asistencial y similares, en tanto desarrollen principalmente sus funciones en el País Vasco.

14. Organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones y establecimientos de protección y tutela de menores, penitenciarios y de reinserción social, conforme a la legislación general en materia civil, penal y penitenciaria.

15. Ordenación farmacéutica de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 149.1.16ª de la Constitución, e higiene, teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 18 de este Estatuto.

16. Investigación científica y técnica en coordinación con el Estado.

17. Cultura, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.2 de la Constitución.

18. Instituciones relacionadas con el fomento y enseñanza de las Bellas Artes. Artesanía.

19. Patrimonio histórico, artístico, monumental, arqueológico y científico, asumiendo la Comunidad Autónoma el cumplimiento de las normas y obligaciones que establezca el Estado para la defensa de dicho patrimonio contra la exportación y la expoliación.

20. Archivos, Bibliotecas y Museos que no sean de titularidad estatal.

21. Cámaras Agrarias, de la Propiedad, Cofradías de Pescadores, Cámaras de Comercio, Industria y Navegación, sin perjuicio de la competencia del Estado en materia de comercio exterior.

22. Colegios Profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución. Nombramiento de Notarios de acuerdo con las Leyes del Estado.

23. Cooperativas, Mutualidades no integradas en la Seguridad Social y Pósitos, conforme a la legislación general en materia mercantil.

24. Sector público propio del País Vasco en cuanto no esté afectado por otras normas de este Estatuto.

25. Promoción, desarrollo económico y planificación de la actividad económica en el País Vasco de acuerdo con la ordenación general de la economía.

26. Instituciones de crédito corporativo, público y territorial y Cajas de Ahorro en el marco de las bases que sobre ordenación del crédito y la banca dicte el Estado y de la política monetaria general.

27. Comercio interior, sin perjuicio de la política general de precios, la libre circulación de bienes en el territorio del Estado y de la legislación sobre defensa de la competencia. Ferias y mercados interiores. Denominaciones de origen y publicidad en colaboración con el Estado.

28. Defensa del consumidor y del usuario en los términos del apartado anterior.

29. Establecimiento y regulación de Bolsas de Comercio y demás centros de contratación de mercancías y de valores conforme a la legislación mercantil.

30. Industria, con exclusión de la instalación, ampliación y traslado de industrias sujetas a normas especiales por razones de seguridad, interés militar y sanitario y aquellas que precisen de legislación específic para estas funciones, y las que requieran de contratos previos de transferencia de tecnología extranjera. En la reestructuración de sectores industriales, corresponde al País Vasco el desarrollo y ejecución de los planes establecidos por el Estado.

31. Ordenación del territorio y del litoral, urbanismo y vivienda.

32. Ferrocarriles, transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable, puertos, helipuertos, aeropuertos y servicio meteorológico del País Vasco, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.20ª y 21ª de la Constitución. Centros de contratación y terminales de carga en materia de transportes.

33. Obras Públicas que no tengan la calificación legal de interés general o cuya realización no afecte a otros territorios.

34. En materia de carreteras y caminos, además de las competencias contenidas en el apartado 5, número 1 del artículo 148 de la Constitución, las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos, conservarán íntegramente el régimen jurídico y competencias que ostenten o que, en su caso hayan de recobrar a tenor del artículo 3 de este Estatuto.

35. Casinos, juegos y apuestas, con excepción de las Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas.

36. Turismo y Deporte. Ocio y esparcimiento.

37. Estadística del País Vasco para sus propios fines y competencias.

38. Espectáculos.

39. Desarrollo comunitario. Condición femenina. Política infantil, juvenil y de la tercera edad.

*Aginpide-sorta: *competencia* esateko. Eta zer itzultzeko dago hor *sorta*?

10. ARTIKULUA

10.1. PASARTEA

La Comunidad Autónoma del País Vasco = Euskalerria. Zergatik ez da itzultzen *la Comunidad Autónoma* titulua? Dokumentu ofizial batean ematen diren tituluak errespetatu beharrekoak dira eta itzuli beharrekoak!

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37: 37.atalean besterik gabe itzultzen da, bai hemen eta bai beste leku batzutan ere. *De acuerdo con lo dispuesto en* hitz egiteko modu bat da batetik, eta bestetik *dispuesto* horrek karga espezifiko bat ematen dio esanari, nolanahi itzultzerik ez dagoena. *37.Artikuluan ezarritakoaren (edo erabaki, esan, zehaztutakoaren) arauera* legoke hori itzuli beharra, eta ez da zaila ez itzultzeko, ez ulertzeko.

10.2. PASARTEA

Dentro de las normas del presente Estatuto: Araudi honen barruan (=dentro de la presente normativa) itzultzen da. Hori ez da Zuzenbideak bere dokumentuetan erabiltzen duen hizkera modua, areago bestę hau: *Estatuto honen arauen barruan* (edo *...arau hauei jarraituz)!*

Ekinbidea: funcionamiento omen da. *Makina bat funtzionamentuan edo martxan jartzen denean* ez da *ekinbidean jartzen; ekinbide bat hartu edo euki = tomar edo tener una iniciativa* esateko ederki legoke, baina *funcionamiento* esateko ez.

Régimen... de sus instituciones = *hauen arauak ezartzea* (=aplicación de sus normas) itzultzen da. Badirudi erdarazkoaren ihesi dabilela eta azkenean ez du ezer esaten, ba zer da hor *arauak ezarri* ? Erdaraz dio: *Organización, Régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno,* eta hori euskaratu beharko litzateke nere ustez: *Autogobernuko bere erakundeen organizazioa (antolakuntza), erregimena (eraendura?) eta funtzionamendua.* Hoiek dira hitz egitekoan erabiltzen ditugun hitzak eta ez dago zertan lotsatu, besterik ez dagoen bitartean. Baina itzuli behar dena nahaspiderik gabe itzuli.

10.3. PASARTEA

Legislación electoral interior : hor gelditu da *interior* itzuli gabe.

Legislación electoral interior que afecte al Parlamento Vasco...:euskaraz *Euskalerriko Legegintza-Biltzarra autatzeko legegintza* . Gorago esan dugu *Legegintza-Biltzarra* ez dela *Parlamento, Asamblea legislativa* baino; *que afecte* ez da itzultzen, edo gaizki. *Euskal Parlamentuari dagokiona* edo *Euskal Parlamentuarekin zerikusi duena* edo beste antzeko zerbait behar litzateke hor. Kasu honetan gauza berdintsua dela esango du norbaitek. Baliteke *berdintsua* izatea, baina berdintsua ez da berdina Gaiaz gainera hizkera-modu bat ere badago eta errespetatu egin behar da hori ere dokumentu ofizial batean. Euskarazko itzulpenak erdarazkoak hainako ofizialtasunik euki behar badu, xehetasun guztiok dauzka gogoan euki beharrak. Bestela esango digute berriz ere euskara ez dela gauza gai hoietarako. Eta lan honekin arrazoi emango diegu. *En los términos previstos por el presente Estatuto*: euskaraz *araudi onek agintzen duan eran.* Baina *previsto* ez bait da *agindu.Estatutu honek aurrikusten (aurrez ikusten, zehatzen) dituen bezala* behar luke izan.

10.4. PASARTEA

Régimen Local y Estatuto de los Funcionarios del País Vasco y de su Administración Local dioen lekuan honela euskaratzen da: *Iritar, Udal eta Aldundi arteko arazoen legegintza, eta Gobernu, Aldundi eta Udaletako kargudun edo Erri-langileen Araudia eratzea.* (=legislación de los asuntos entre ciudadanos, municipios y Diputaciones y la realización de la normativa de los responsables (que tienen cargo)y trabajadores populares). Nik ez dakit zer itzuli nahi duen textu horrek. Nere ustez hau litzateke jarri beharrekoa: *Erregimen Lokala eta Euskalerriko eta bere Administrazio Lokalaren funtzionarien Estatutua.* Hitz hoietatik ez dago batetxo ere kentzerik euskaratik; Politikako Hiztegian eta Ekonomiakoan ere denak agertzen dira, eta ez hoien ordainik bilatu ez zelako, baina bai ordain jatorrik, egokirik aurkitu ez zelako. Beraz ez dago zertan hoien ihesi ibili.

10.5. PASARTEA

Iritar Foru-Legeen Bilduma: ez da *Derecho Civil Foral* eta bai *Colección de Leyes Forales Civiles. Lege-Bilduma'k lehendik diren legeak bildu eta pilatu besterik ez du egiten; Deretxo edo Zuzenbideak* aldiz, lege berriak sortu, zaharrak indargabetu, ilunak argitu, legeak beterazi etab...; beti indarrean eta bizirik dirauen zerbait da. Bilduma gauza hila da, fosildua, berez agintzeko indarrik ez duena.

Desarrollo del Derecho: Legeen Bilduma eta legeak eguneratzea itzultzen da. Egia da kasu hortan *legeak eguneratzea* desarroilatzearen pareko dela zati batean, baina hala ere ez dira berdin biak. *Eguneratu = Actualizar* da eta ez *desarrollar*. Dokumentu ofizial bat itzultzekoan ez dago nahaste hoiek egiterik.

10.6. PASARTEA

Normas procesales: ezin daiteke *epaiketa-bide* itzuli. Batetik *bide* ez da *norma; medio, camino* baino; bestetik *'epaiketa' prozesu*aren une bat, azkenekoa, besterik ez da, *sentencia* alegia. Beraz *epaiketa-bide = medios judiciales* edo holakoren bat besteriz ez da, baina ez *prozezu-arauak.*

(Normas) de procedimientos administrativos: ez da *aginte-mailen arteko eta auen eta iritarren arteko arremanak zuzentzea.* Itzulpena urrutitxo joan del uste dut oraingoan, *administrazio-prozedurazko arauak* esanda nahikoa zen hori. Hurrena dio:

y (Normas de procedimientos) económico-administrativos: euskaraz *eta era bere an, bai ekonomi-alorrekoak ere. (Era berean* eta *bai... ere* ez dira gazteleraz agertzen; *administrativos* jan egin da).

(Normas)... que se deriven de las especialidades del Derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco: honela ematen da euskaraz: *Euskalerriko aginte-molde (organización* ote da?*) ta jatorrizko legediaren iturri berezitik (de las especialidades del derecho sustantivo) sortuak diren arau bidez.* Azkeneko *arau bidez* hau ez dut ulertzen; behar bada hutsegite bat da *arau bidea*ren ordez. *Derecho sustantivo* suntsiturik geldítzen da. Nolanahi ere ikusi besterik ez dago euskarazko eta gatelerazko textuen artean dagoen aldea.

Bienes... cuya titularidad corresponda a la Comunidad Autónoma: euskaraz, *Euskalerriak bereak dituen ondasunak.* Badirudi *Comunidad Autónoma* eta *Euskal erria* gauza berdina direla, eta ez da egia. Ipar Euskalerria ere *Euskal Herria* da, baina ez kasu hontan *Comunidad Autónoma.* Hori bat.

Gainera gaztelerazko textuak deitura batez gain, titulu bat ematen dio Euskalerriko zati honi eta Zuzenbidezko Hizkeran tituluak beti dira gorde beharreko. Beraz, ez doitasunaren aldetik ez zuzenbidezko hizkeraren aldetik da itzulpen hori ona. *Titularidad* ere hor gelditu da, kastellanoa delako noski. Eta nola itzuliko genituzke besteok: *título negociable, título de bolsa, título de la deuda pública, título de propiedad...*, ba hoiek ere euskaratu beharra egongo da noizbait, *Ekonomiako Hiztegia* egiten aritu direnek egin behar izan duten bezala. Ez-ikusi egiteak edo begiak ixteak ez dio *existentziarik* kentzen deabruari, ez gaitzari, ez etsaiari.

Las servidumbres públicas en materias de sus competencias: euskaraz *erriaren lur-eskubideak, Euskalerriari dagokion neurrian. Erriaren* ez da *público; servidumbre* ez da *lur-eskubide* , lur batekiko ingurukoek edo beste lur batzuk dituzten *zorrak, gordebeharrak, betebeharrak edo obligazioak* baizik. Azkenik *dagokion* horrek hor ez du garbi adierazten zer esan nahi duen: *esku egon, komeni, norena den* ala zer. *Konpetentzia* berriz hor legoke doi doi.

10.8. PASARTEA

Sin perjuicio de: -ren kaltetan izan ezik itzultzen da beti. Ez dut uste ondo dagoenik. A. Ipolito Larrakotxeak *-ren kalterik gabe* itzultzen du, eta askoz hobeto. (*kalterik izan ezik = kalterik ez bada* hainaxe da, eta beraz kondizionala. Hor berriz ez da kondiziorik jartzen, seko eta zorrotz esaten da *sin perjuicio = kalterik gabe*, kalterik ez dadila izan: ia, ia, agindu egiten da.

10.10. PASARTEA

Pesca en aguas interiores : ez da *arrantzua* (arrantzale-ofizioa, edo *edozein arrain-mota* (Azkuek dakarrenez) eta bai *arrainak harrapatzea = arrantza* Euskal Herri osoan esaten bezala.

Maskulu-langintza ez dakit ze ofizio izan daitekeen *oficio de marisco* litzateke ezer izatez geroz. Gazteleraz dioena da *marisqueo = maskulu-harrapatzea, maskulu-arrantza* edo *maskulu-hazkuntza.*

Acuicultura: uretakoen azkuntza itzultzen da; baina, *animalia, landare eta mineralezko gaiak lantzea ere kultibatzea* da *acuikultura.* Euskarāpen horre kin ez da aski. Eta zergatik ez jarri *akuikultura* bera? Erdaraz ere oso gutxik ezagutzen duten hitza da hori. Ondo euskaratzerik ez badago, hobe grekolatinekoa berehortan utzi.

10.11 PASARTEA

Uren erabilpenak: da *usos, utilizaciones hidráulicas* gehienaz ere, baina ez *aprovechamientos hidráulicos* gazteleraz jartzen duen bezala. Hobe *uren probetxamendua, hustiapena* edo,*pro(be)txu* guztiok erabiltzen dugun hitza bait da.

Tximistindarra: energía esateko. Oso bitxia dirudi. Ba unitate lexikal bezala herriak ez bait du erabiltzen, hitzelkartutzat jo beharra dago eta orduan indarmodu berezi bat besterik ez da *eguzki-indarra, atomo-indarra, olatu-indarra, aize-indarra...* bezalakoxea. Eta hain zuzen hortxe dabiltza zientifikoak tximistaren indarra nola menperatu

eta bilduko. Beraz *tximistindarra* horixe besterik ez da eta utzi hortarako. Ez eman horri *elektrizitate* hitzaren baliorik eta gutxi ago *energia* hitzarenik, bestela ez dugu euskara kulturazko nini-za pietatik aurrera sekula aterako.

Instalaciones de producción: instalaciones ez da euskaratu. Euskaraz esaten dena da *tximistindarra sortzea* utzi dela Euskalerriaren eskuetan. Baina utzi dena gehiago da *sortzea* eta *instalazioak* edo *sortegiak* berak ere bai. Aldetxoa dago horratio! Eta beste hainbeste esan *banatze eta garraiatzearekin*, banatzeko *instalazioak* eta garraiatzekoak ere ematen zaizkio.

Cuando este transporte no salga de su territorio: ez da euskaratzen edo gaizki. Hona euskaraz: eskua dauka Euskalerriak *tximistindarra... Euskalerri-barruko beste tokietara eramateko*. Eskubide horri jartzen zaion muga ez da besterik *beste Probintzi naiz Autonomi-Lurralde bati kalterik egin ezean*. Horrek esan nahi du *kalterik egiten ez badie hoiei ez lukeela eragozpenik kanpora bidaltzeko ere*. Eta hain zuzen horixe ukatzen dio gaztelerazkoak: *cuando ese transporte no salga de su territorio*, beraz, *garraio hori bere lur-mugetatik irten ez dadin bitartean*.

10.13. PASARTEA

Fundaciones: Emaitza-zaingo itzultzen da! Hor ez da ezer adierazten *fundazioak* berekin duen *eraikitze* ideaz. *Fundazioa* da *obra onegile, erligioso, kulturazko edo bestelako bat eraiki, eta aurrera jarrai dezan kapital bat jartzea. Emaitza* berriz *donación* besterik ez da eta *zaingo = zaintzea*.

10.15. PASARTEA

Ordenación farmacéutica: sendagai-legeak itzultzen da. Batetik zerbait falta da hor *legeak* eman, jarri, kendu edo; baina ez *legeak* bakarrik. Gainera *ordenación* (ordenatze, ordenamendu) eta *legea* elkarren berdin egiteak adierazten du edo ez dela bien arteko bereizkuntzarik ikusten, edo euskarak ez duela balio xehapen hoiek emateko, edo eta azkenik beste aurreritziren batek eraginda dabiltzala textu honen euskaratzaileak, e.b., erdara usaiezko hitzen bildurrez edo. Erdaratiko hitzik ez erabiltzearren edozer hitz erabiltzen da. Baina hortik ez dago ez hiztegi teknikorik, eta ez etorkizunik euskararentzat!

Higiene: osasun-legeak berriz ere. *Legeak* ematea bakarrik ez da *higienea*, helpideak ere jarri beharra dago hortarako: pertsonak, instalazioak, etab. eta jendeari jokabide egoki bat ikaserazteko bideak. Gainera *osasuna* eta *higiene* ere ez dira berdin. Batek euki dezake *osasun haundia* eta *higiene gutxi* edo alderantziz. Osasunari, indartu eta loratu dadin, eragozpenak kendu eta giro eta kondizio egokiak sortzea da *higienearen* egitekoa, hala nola, garbitasuna sustatzea, janarietan, lantokian, elkarrekiko tratuan, gorputzaren edo izpirituaren atsedena eta oreka hautsi edo hoiei kalte egin diezaieketen zaratak, inguruneko monotonia etab. baztertzea.
Dispuesto: eta *agindu* ez direla berdin esan dut gorago.

10.16. PASARTEA

En coordinación con el Estado: ez da *Estaduarekin arremanetan. Koordenatuz* nahi ez bada, jarri bedi *Estatuak egiten duenarekin batera ibiliz* edo; baina ez *Estaduarekin arremanean*. Ze *harremanetan* Frantzia, Ingalaterra eta beste Estatu askorekin egon beharko bait du gure Gobernu Autonomoak, baina bere lanak ez ditu Estatu hoienarekin *koordinatuko*.

10.17. PASARTEA

Dispuesto: hemen *erabaki* itzultzen da eta (10.15) *agindu*, gauza bera, eta esanahi berdin berdina dutelarik. Zuzenbidezko dokumentuetan hitzak ondo ere ondo neurtuta egoten dira. Gainera hiztegi tekniko bat egiteko, edo dokumentuak teknikoki itzultzeko hitzak finkatu beharrak daude.

10.18. PASARTEA

Instituciones relacionadas con el fomento y la enseñanza de las Bellas Artes: ez da *irakatsi ta indartzeko Erakundeak*. Erdarazkoak ez du esaten erakune hoiek *hortarako* direnik; esaten du, gai hoiekin *zerikusirik* duten Erakundeak. Askoz ere zabalagoa da *relacionadas con* euskaraz eman den *tzeko* hori baino.

Erti-lanak: Ez da *Artesanía, obra de arte* baino. *Eskulangintza?* edo *artisautza* doiago dira *artesanía* itzultzeko. Mikelangeloren *Moisesa, ertilan* deitu daitekeela uste dut, nahiz ez den *artisau-lan* hutsa.

Eder-Ertiak: Bellas artes izan nahi du. Baina hori ez da ezer. Ezer izatez gerotan *Erti Ederrak* behar luke izan, euskaraz adjektibua *eder* izenaren aurretik ez baina ondoren jartzen da eta. *Neska ederra* esaten da eta ez *eder neska*.

Banakako langintza ez dakit zer den. Beharba, gorago jarri dudan *ertilanak* ez zen *artesanía* eta bai *Bellas Artes* bakarrik. Eta oraingo *banakako langintza = langintza indibiduala* besterik ez da. Ala *banaka egiten den* edozein lan da *artisau-lan?*

10.19. PASARTEA

El cumplimiento (de las normas...): *el cumplimiento* ez da itzuli. *Arau eta eginbeharren betetzea Euskal Herriak bere gain hartuko ditu* esan beharko lu

Establecer = hemen *jarri*, gorago *erabaki*, eta gorago oraindik *agindu*. Nun da hizketa teknikoa?

10.20 PASARTEA.

Idazkitegi: Ezin daiteke *archivo* izan, *idazki* edozein idazlan den bitartean. *Agiritegi* legoke askoz hobeto, artxiboetako idazkiak *agiri* edo *dokumentu* izaten bait dira beti.

10.21. PASARTEA

Nekazari-Batza: *Cámara Agraria* ez baina *unión de agricultores* litzateke. *Nekazari-Ganbara* ez da hitz ederra?

Etxedunen Batzak: ez da *Cámaras de la propiedad* eta bai *unión de propietarios de casas*. Ala etxeak dira propietate bakarrak? Ondo egoki litzateke ba hori esateko *Jabetzaren Ganbarak* edo *Jabego-Ganbarak*.

Cofradía itzultzeko *elkarte* erabiltzen baldin bada, nola jakin genezake *elkarte* hitzari ondoko zerrenda hontaz gainera (asociación, compañía, unión, alianza, liga, confederación, consorcio, sociedad, hermandad, fraternidad...) beste zer ez dagokion? Herrian betidanik erabili den *kofradiaren* ordez *anaidi*, *anaitegi* erabili i-

zan balitz ere, tira! Honela egindako lanik ez dezake ez Garaiko etxeak ez Suarezek baliozko dokumentu ofizialtzat hartu.

Itsasbide-Batza: ez *itsasbide* da *navegación (ruta marina* baino) eta ez *batza* da *cámara (unión* baino). *Cámara de Navegación* esan behar bada, esan *Nabigazio-Ganbara* eta jakinen dugu zertan garen.

10.22. PASARTEA

Colegio esateko ere *elkarte*, eta ez dago gaizki gainera. Esan nahi du dana da, alegia, *elkartze* hitzak lehen jarri dizkiodan esanahiekin ez zuela asko eta hau ere behar zuela. Baina gero nola esan: *Señor Colegiado de medicina, de abogacía, etab... Profesiones colegiadas. Es médico, pero aún no puede recetar porque aún no está colegiado. Etab., etab...* Alegia *colegio elkarte* berezi eta ofizialdu bat dela; eta beraz edozein *elkarte* ez dela *kolegio*.

Tituludun profesioen erabilkizunak: ez da *ejercicio de las profesiones tituladas. Erabilkizunak* ez da *erabiltzea edo erabilera, erabiltzen den edo erabili behar den gauza bat* baino. E.b.: *ikuskizun bat ikustean poz hartzen da. Ikusmenak ikusten du, eta ikusten duena, ikuskizuna, ikusteko dagoena* da. Beraz *profesioen erabilkizunak = erabilgaiak* bezalatsu da. *Tituludun profesioen erabilera* behar du horrek esan. Gainera ni harritzen nauena da, nola sartzen den hemen *titulu* hitza eta nola *título de propiedad = jabetza-titulu* esateko hitz horrek berak balio ez duen!

10.23. PASARTEA

Cooperativa esateko jende guztiak erabiltzen duen hitza *kooperatiba* da.

Gainera nahiko hitz teknikoa da, elkartemodu berezi berezi bat a dierazten duena. Horregatik esaten da berdin beste hizkuntzetan ere. Gainera euskaratzekoan erabiltzen den *baltzu* hitzak Azkueren esatez *Sociedad de comercio, alianza* esan nahi du eta kooperatibak era askotakoak dira. Ez dut uste hitz horrek balio duenik hortarako. Gainera *lankide-(baltzu)* esaten da. Ez dakit zer adierazi nahi duen *lankide* horrek hor. Ala *baltzu* hitzak bakarrik adierazi ezin duena osatzeko jarri da apika, *cooperar* idea emateko hain zuzen?

10.24. PASARTEA

Euskalerriari dagozkion (erri-serbitzuak) da *los servicios populares que le corresponden, tocan, atañen... al País Vasco*. Erdaraz dio: *Sector público propio del País Vasco*. Beraz ez *dagokio*, baizik *berea da*.

Sector público ez da derrigor *erri-serbitzuen* berdin, baina tira. Berriz ere *sektore* hitzari alde egin zaio, baina erabakirik eman gabe. *Público* okerrago gelditu da oraindik. Nola esan gero *poderes públicos, iniciativa pública, actividades públicas, esfera pública y privada de una persona* etab...?
Arau: norma bezala erabiltzen da hemen. Gorago *lege* itzuli da!

10.25. PASARTEA

Ekinbide: hemen *actividad*, gorago *funcionamiento* itzultzeko erabili da.

Desarrollo económico: aberastea. Aberastu *desarroilo ekonomikorik* gabe ere egiten dira batzuk, eta hain zuzen *desarroilo* horixe galeraziz ere bai. Beraz bi gauza zeharo desberdinak dira hoiek, nahiz eta *desarroilo ekonomikoak* aberastasuna ekarri.

Ordenación de la economía ez da *ekonomi-legeak.* Gauza bati ordena bat jartzea batzutan lege bidez egiten baldin bada ere, bi idea desberdin dira eta beraz bi hitzegiteko modu. E.b.: nola euskaratuko litzateke frase hau *la ordenación de la economía del País exige enérgicas medidas por parte del Gobierno?* Idea-maila berean dago goikoa ere.

10.26. PASARTEA

Instituciones orain arte *erakunde* itzuli da, orain *baltzu.* Gorago *lanki de-baltzu* = kooperatiba zen.

(Instituciones de crédito) corporativo, público y territorial hona nola euskaratzen den: *(kreditu-baltzuak...) erri-erakunde (corporativo) uri (público) ta lurralde-elkarteentzako (territorial). Erri-erakunde = institución popular* litzateke. María Moliner-ek dakarrenez *korporazioa* da: *Organismo oficial, con domicilio propio, formado por una reunión de personas que celebran sesiones para ocuparse de cuestiones científicas, económicas, etc., de interés general. Son corporaciones, p.e., las Reales Academias o las Cámaras de la Propiedad, de Comercio, etc. Se llaman también corporaciones las asambleas políticas, el senado, el congreso o el municipio; también la universidad, los cuerpos o conjuntos de personas de la misma profesión, cuando esta profesión es de carácter cultural: La corporación de catedráticos de universidad.* Ikusi hor ea *erri-erakunde* deitzerik dagoen guzti hori. *Uri-(elkarte)* izango dela uste dut. Baina ez batak eta ez besteak balio dute *público* esateko. *Uri* da *ciudad, urbano* edo horrelako bat, ez *público.*

Giroan: en el marco de. Oso poetikoa da itzulpen hori, baina ez dakit behar haina zehatz ote den. *En el marco de la política monetaria general = diru-politika orokorraren giroan (arauera).* Konpara *giroan* eta *arauera. Giroan* dela uste dut eta ez *gioran,* hutsegitez inundik ere, textuak dioen bezala.

10.27 PASARTEA

Ondasun-erabilketa librea ez da *libre circulación de bienes. Ondasun-erabilketa* da *utilización, manejo... de bienes.*

Legislación sobre defensa de la competencia dakar gaztelerazkoak, euskaraz dio *merkatu-askatasunezko legea = ley de mercado libre. Legislación = legegintza edo legeria; lege-multzoa* da, ez *legea; Competencia* ere ez da *merkatu librea,* nahiz eta mamiz berdintsu izan. *Konpetentziak* = burruka, lehiaketa adierazten du; *merkatu libreak = salerosteko libertatea, eragoz penik-eza,* burrukarik izango da, eta hortatixe sortuko da hain zuzen, baina zuzenean ez da aipatzen. Hitzak bereizteko dira!

Publicidad: beroien zabalkundea. Gaztelerak ez du esaten zeinen edo zeren *zabalkundea* denik. *Beroien* aurretik jarriaz askó mugatzen da *zabalkundearen* eremua, *jatorri-deiturena* bakarrik. Gazteleraz osoro dio, hoiek eta daitezkeen beste gauza guztiak. Ez dago eskubideak zertan mugaturik. Beraz *beroien* gabe askoz hobe.

Consumidor beti al da *erosle? Sociedad de consumo* esaten dugunean ere *erosle-gizarte* esanaz aski al genuke? Nik ezetz uste dut. Gutxienez ere bi hizketa-maila daude hor. Zergatik ez da esaten bestela erdaraz *comprador* eta bai *consumidor*? Ez dezagun ahaztu gaztelerazko textua dela hor autentikoa eta hori dela itzuli beharrekoa. Beraz eman dezagun euskarazkoa erdarazkoaren ahalik eta berdinen, nahiz eta erdarakada batzuk bertan sartu behar izan. Bestela euskarazkoa, denik eta jatorrena dela ere, ez da sekula ofiziala izango eta lan alferra besterik ez da.

Usuario dio erdarazkoak, ez *erabiltzalleen interesak = intereses del usuario*. Interpretazioak utzi beste leku baterako, hemen textua bera behar da.

10.29. PASARTEA

Balio-agirien Merkatu Nagusiak omen dira *Boltsak*. Dena dela holakorik ez da ageri Textuan eta sobra dago. Gainera euskarazkoak dioenez *Boltsak... salerosteko azokak sortu* behar du. Gaztelerazkoak dio *establecimiento de Bolsas de Comercio, y demás centros de contratación de mercancías y de valores* euskaraz *eta beste baliozko gai (valores?) ta salgaiak (mercancías? ordena aldaturik bait dago) salerosteko azokak (centros de contratación) sortu. Contrato, contratar* ez da *salerosi* zentzu zabal batean besterik. *Kontratu* bat egiten denean obligazio bat hartzen da hau edo bestea egiteko nahiz emateko, baina ez derrigor *saldu edo erosi* egiteko, eguneroko hizkeraz hitz horri ematen zaion esanahiean behintzat. *Azoka* berriz *merkatu-mota* berezi bat da eta ez dago hemen erabiltzerik nere ustez. Tolosan, porruak eta azak saltzeari *azoka* esaten zaio, baina ganadua saltzeari *feria*. Gainera *saltzea* bera baino ere gehiago, gauza hoiek *salerosten diren eguna edo lekua* da. Ez da esaten *porruak azokatu ditugu*, eta bai bihar *azoka dago, azoka-eguna* da; Tolosan bihar *azoka dago*. Hor behar den hitza *merkatu* da, goratxoago erabili den hitz bera: *Merkatal Boltsak* dago ederki, eta bestean *kontratazio-zentru*.

Auen arauak ezartzea dioen lekuan *hauei arauak ezarri* behar luke esan, zeren hoiek (boltsak eta merkatuok) bait dira erregulatu beharrekoak. Dena dela *arauak ezarri* baino doiago da *erregulatu*.

Interés militar ez da *guda-elburu*, soil soilik *guda-interesa* eta gehienez ere *guda-arrazoi* baizik, baina azken hau urrutitxo doa.

Erri-osasunagatik dioen lekuan *por interés sanitario* dio gaztelerakoak. Erdarazkoak ez dioena ez dauka euskarazkoak zertan esanik.

Industri-aldaketak = *transformación, modificación de la industria* bezala uler tzen dut nik. Erdarazkoak dio *traslado de industrias* = *industriak lekuz aldatze* da doia.

Desarrollo de los planes ez da *planak bultzatzea*. *Bultzatu* = *fomentar* edo da. *Desarrollar* askoz ere zabalagoa da, *desenvolver* edo hola.

10.31. PASARTEA

Antolabidea ez da doia *ordenación* esateko. *Antolamendua* lortzeko erabil- tzen diren helpideetakoren bat dela dirudi. Hobe *ordenamendu* euska- raz lehendik ere erabiltzen dena. Gaur *antolatu organizar* esateko erabiltzen da gehienbat. Indartzea komeni da joera hori.

10.32. PASARTEA

Transporte esateko ondo dago *eraman-ekarriak*, baina hitz asmatu berria da eta herriak ezagutzen ez duena. Bitartean hor dago zahar zahar eta jator askoa den *karriatu, garraiatu* bazter guztietan erabiltzen dena. Gainera laburrago da eta mania-errazago, ba hor ditu bere eratorkinak *garraio, karrio, garraiatzaile, karriatzaile, garraiabide, ka- rriabide*, etab...

Servicio Meteorológico dio gazteleraz ez *eguraldi-adierazketa* (=informa- ción meteorológica); beraz *Eguraldi-Serbitzu* da.

Centros de contratación: salerosketako tratu-leku, salerosketa sobra dago gorago esan dugunez.

Karraioen burutze-tokiak zer da? *Karraioak burutzen diren tokiak* ala *edozein garraio-mota hasten den lekuak*? Zer dira aireportuetako *terminalak*, garraioa hasten ala bukatzen den lekuak, ala garraioaren zati bat soilik? *Terminales de carga en materia de transportes* berriz badirudi *garraio berezi hori hasten den lekua* dela areago. Alemanek heurek ere *Terminal* idazten dute beren aireportuetan. Zerbaitegatik izango da.

10.33. PASARTEA

Calificación legal ez da *Estadu-legez... izendatuak. Estadu* sobra dago eta *legezko izendapena* jatorrago.

Interés general ez da *guztientzat onurakor, gehienentzat onurakor* baizik.

Afectar a otros Territorios ez da derrigor *beste lurraldeentzat kaltegarri izatea, beste lurraldeen arazoa, haiei dagokiena* ere izan daiteke.

10.34. PASARTEA

Carretera nun esaten da *bidezabal*? Nik dakidala alde guztietan *kaminoa* esaten da. *Pista* kalipotik edo harririk bota gabeko bide, kamioiak eta ibiltzeko gauza denari esaten zaio. Kaminoa bezin zabala izaten da, baina hala ere ez zaio *kamino* deitzen, *pista* baizik; izatez berriz bide zabala da.

Régimen jurídico diona *lege-antolaketa* euskaratzen da, honek berriz *organización legal* edo esan nahi du; harek *organización jurídica* edo holako zerbait. Hala ere ez nago guztiz seguru kasu hortan *régimen eta organización* guztiz sinonimo direnik. Nik *Erregimen juridiko* euskaratuko nuke.

10.36. PASARTEA

Atseden-bideak = *medios de descanso* da eta esan behar du *ocio y esparcimiento*. *Aisia* dakar Axularrek *ocio* esateko; *esparcimiento* berriz *laketasun* edo *jostaketa* esanaz hobeto legokeela uste dut, *atsedenez* itzulita baino. Ikus Azkue. *Atseden* = neke-kentzea edo -uztea da; *esparcimiento* berriz *zerbait pozartze, zerbait jostatze*.

10.39. PASARTEA

Elkartasun-sena errian pizkortzea ez da *desarrollo comunitario, desarrollo del sentido comunitario* baino. Hau berriz *desarrollo comunitario* baino askoz ere urriago da. Pizkortu eta desarroilatu behar dena ez da *sena* bakarrik, *komunitatea* bera baizik, bere ikuspegi gizakor, sozial, ekonomiko, kultural eta bestelako guztietan. Beraz *komunitatearen desarroilatzea*.

Emakumeen egoera obetzea: erdarazkoak *condición femenina* besterik ez dio, haṇ ez dago *obetzerik*. Hortarako izango al da noski, baina textuak ez dio. Hau ez da textua interpretatzeko lekua, textua birrematekoa baino.

Artículo 11

1. Es de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio, de la legislación básica del Estado en las siguientes materias:

a) Medio ambiente y ecología.

b) Expropiación forzosa, contratos y concesiones administrativas, en el ámbito de sus competencias y sistema de responsabilidad de la Administración del País Vasco.

c) Ordenación del sector pesquero del País Vasco.

2. Es también de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio, de las bases, en los términos que las mismas señalen, en las siguientes materias:

a) Ordenación del crédito, banca y seguros.

b) Reserva al sector público de recursos o servicios esenciales, especialmente en caso de monopolio, e intervención de empresas cuando lo exija el interés general.

c) Régimen minero y energético. Recursos geotérmicos.

Zartzaroari dagokion eginpidea: política de la tercera edad. Ez da berdin. *Eginpide* = obligazio, medios para realizar algo, proceder... eta holakoak, baina inola ere ez zer eta *politika*. Ez esanahiaren aldetik ez hitzen kategoria aldetik. Gainera gaztelerazkoak *tercera edad* dio (*hirugarren adina*) lehunago eta modernoago. Euskarazkoak *zartzaroa*. Gauza berdina bada ere deiturak desberdin dira eta horren erraxa den tokian ez dago, arropa berriak erosten diren bezala, hiztegia zertan berritu gabe utzi. Azkenik, *zar* dio eta ez *zaar* edo *zahar*; batasuna horren merke den lekuan ere ez dugu ba gutxieneko pausorik ere emango *zaar* bi *aaz*? Konprenditzekoa da *h*ren kontra egotea; baina *hz* beste gainerako letrak berdin ez idaztea, hori gehitxo da euskararen gaurko egoeran. Gainera, oker ez banago, Liturgiako Batzordekoek ere bide hontatik jotzen dute, alegia, *h*rik ez baina gainerako letrak *h*dunek bezala idatzi.

11. A R T I K U L U A

11.1. PASARTEA

Comunidad Autónoma Euskalerriari ematen zaion titulua ez da itzultzen.

Legislación básica ez da *legedia, básica* falta da.

Desarrollo legislativo ez da *euskal-legez osotzea. Euskal*ik ez da gaztelaraz aipatzen. *Desarrollo, osotzea* baino gehiago da: *legeria banatzea, garatzea, desarroilatzea* edo holatsu behar luke.

Traduttore ia beti da *tradittore*, baina horrenbeste gehiegi da.

a) *Medio ambiente inguru-giroa* baino gehiago da. *Giro* beti da zerbait gor putz gabeko, zerbait izpiritual edo airezko. *Medio ambientek* horrezaz gainera materiazko inguru astun, zikin, nazkagarria ere adierazten du. *Ingurune* erabiltzen da hortarako, e.b.: *ingurunea (el medio ambiente) kutsatzen denean giro txarra (mal ambiente) sortzen da gizartean.*

Ekologia ez da *izadi-zaingoa. Ekologia* jakintza-modu bat da eta ez ezer zaintzea. Ekologia da: *organismoek beren ingurunearekin eta beren artean dituzten harremanak aztertzea eta ikastea.* "Natur Zientziak" liburuan dauka artikulu luze bat Imanol Arluziagak gai hontaz idatzia. *Ekologia* berriz alde guztietan *ekologia* esaten da.

b) *Expropiación forzosa* ez da *legez beharturiko ondasunkentzea.* Erdarazkoak ez du inun adierazten legezkoa edo legez egina denik. Beraz *beharturiko ondasun-kentzea* aski litzateke, *bortxazko desjabetza* edo *desjabetza behartua* ere ondo leudeke.

Administración ez da *agintaritza* (=mando)

Contratos y concesiones ez dago arrazoirik hitz hoiek ordenaz aldatzeko. Gainera askotan egiten den gauza da hau eta ez dago zertan egin.

Contratos bakarrik da eta ez *contratos administrativos.* Euskaraz *agintaritzarekin egindako itunak* jartzen du. Interpretazio gehiegi dago hor. *Contratos = itunak edo kontratuak*, eta *contratos administrativos* balitz = *administrazio(zko) kontratuak.*

Concesiones administrativas ez da *agintaritzak emandako langintza-baimenak* eta bai *administrazio(zko) baimenak* soil soilik.

11.2. PASARTEA

Comunidad Autónoma titulua berriz ere janda.

a) *Ordenación* ez da *arauak* (=normas).

b) *Ondasun* (=bienes) eta *recursos* ez dira gauza bera.

Sector público ez da *erri-alorra; reserva al sector público* ez da *erri-alorrean eustea* eta bai *Sektore publikoarentzat uztea, erreserbatzea, -reri eskuuztea... Erri-alorrean eustea erabakitzen duten arauak* esaten da *reserva al sector público* euskaratzeko, (=normas que deciden que se retenga en el campo del pueblo??).

Baltzu gorago *kooperativa* zen, orain *empresa* esateko erabiltzen da. Gorago esan dut *sociedad de comercio* esan nahi duela.

Intervención de empresas cuando lo exija el interés general euskaratzeko zera esaten da: *estaduko biztanleen onurak edo interesak, baltzuetan esku-artzea eskatzen duanean. Estaduko* sobra, *general* falta. Euskaraz doi ago legoke *empresetan eskuhartzea interes generalak hala eskatzen duenean.*

Artículo 12

Corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la ejecución de la legislación del Estado en las materias siguientes:

1. Legislación penitenciaria.

2. Legislación laboral, asumiendo las facultades y competencias que en este terreno ostenta actualmente el Estado respecto a las relaciones laborales; también la facultad de organizar, dirigir y tutelar, con la alta inspección del Estado, los servicios de éste para la ejecución de la legislación laboral, procurando que las condiciones de trabajo se adecuen al nivel del desarrollo y progreso social, promoviendo la cualificación de los trabajadores y su formación integral.

3. Nombramiento de Registradores de la Propiedad, Agentes de Cambio y Bolsa y Corredores de Comercio. Intervención en la Fijación de las demarcaciones correspondientes en su caso.

4. Propiedad intelectual e industrial.

5. Pesas y medidas; contraste de metales.

6. Ferias internacionales celebradas en el País Vasco.

7. Sector público estatal en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, la que tendrá participación en los casos y actividades que proceda.

8. Puertos y aeropuertos con calificación del interés general, cuando el Estado no se reserve su gestión directa.

9. Ordenación del transporte de mercancías y viajeros que tengan su origen y destino dentro del territorio de la Comunidad Autónoma, aunque discurran sobre las infraestructuras de titularidad estatal a que hace referencia el número 21 del apartado 1 del artículo 149 de la Constitución, sin perjuicio de la ejecución directa que se reserve el Estado.

10. Salvamento marítimo y vertidos industriales y contaminantes en las aguas territoriales del Estado correspondientes al litoral vasco.

c) *Régimen* lehen *antolaketa* (10.34) zen, orain *araubide*, hobeto dagoela uste dut, baina ez dakit osoro ondo ote dagoen.

Energético: indar-iturrien itzultzen da. *Iturri* horrek mugatu egiten duela uste dut. Hori gabe erabaki behar da itzulpena.

Recursos geotérmicos ez da *lurpeko beroaren araubidea*. *Araubide* sobra dago. Lurrak gain-azalean duen beroa ere *geotermikoa* da, beraz *lurpeko beroa* (calor subterráneo) eta *geotermiko* ez dira berdin. Gainera *recursos* ez da itzultzen. Hor behar den itzulpena da *baliabide geotermikoak* eta akabo.

12. ARTIKULUA

Comunidad Autónoma titulua janda.

12.1. PASARTEA

Legislación: legedia baldin bada lehen zergatik jartzen da hemen *legeak*? Hizketa teknikoan hitzak beti berdin gorde behar dira. Beraz *espetxe-legeria*.

12.2. PASARTEA

Legislación: legeak berriz ere.

Legislación laboral ez da *lan-arazoetako legeak. Lan-arazo = problemas edo cuestiones laborales*, kasu hontan ez dator gaizki, baina hala ere hobe da teknikoki erabakitzea *lanarekiko* edo *lan-legegintza* esanaz.

Facultades y competencias: agintpide itzultzen da. Gorago esan dut *agintpide = mando, autoridad* dela, beraz ez da komeni beste hoiekin nahastea. Hobe *facultades = ahalmen, esku; competencias = konpetentziak.* Hitzen esanahiak banatzen eta mugatzen hasi beharra dago, bestela ez dugu hiztegi teknikorik, eta ondorioz jakintzarik, izango.

Con la alta inspección del Estado eta *Estaduaren begiratupean* (con la inspección del Estado) ez dira berdin. Bigarren honek askoz ere indar haundiagoa du, nahiz eta praktikan beharba gauza bera izan. *Goi edo gain-begiratupean* edo beharko litzateke hori itzuli. Eguneroko hizkeratik piska bat arroztu, urrundu nolabait ere.

Gizarte-aziera: crecimiento social da eta ez *desarrollo social* (=*desarroilo soziala* edo *gizartetarra*, edo *gizarte-desarroiloa*). Hamaika komeria badarabil jendeak *desarroilo* hitz honekintxe, eta ahaleginak egin arren ezin dute tajuz euskaratu. Nik berehortan utziko dut arik eta beste egokiagorik sor dadin bitartean. Eta dokumentu hau itzultzekoan areago oraindik.

Condiciones de trabajo gehiago da *lan-giroa* baino. (*Lan-giroa* (=ambiente de trabajo edo ambiente en el trabajo) *laneko kondizio edo baldintzen* zati bat besterik ez da).

Cambio eta *diru* ez dira berdinak banka-gaietan. Ekonomiako hiztegia egiten ihardun direnek ondo berezi dituzte: *cambio* = ganbio, truke. *Diru* = dinero, moneda.

12.3. PASARTEA

Artekari = *intermediario*, baina *agente de cambio y bolsa* deitura espezial bat da, ofizio jakin baten izena, teknikoegia horren merke euskaratzeko. Ekonomiako hiztegigileek *truke eta burtsako agente* izendatu dute. Eta ez dira batere mordoilozale jokatu beren hiztegian, ez halafede!

Balio-agiri: *bolsa* esateko??? Gorago esan dut.

Corredores de comercio ez dira *salerosketa-egiztalariak* (=verificadores de ventas). *Corredor* izena pelota-partiduetako apostuetan eta erabiltzen da herri-mailan eta denek *korredorea* esaten dutela uste dut. Hala ere Ekonomi Hiztegikoek *Merkatal artekari* izendatu dute.

Intervención en la fijación ez da *zeaztea* eta bai *zehazten eskuhartzea*.

12.4. PASARTEA

Propiedad intelectual esateko ondo samar dago *burulanen jabetasuna* baina *propiedad industrial* esateko oso gaizki *industri-lanen jabetasuna* (=propiedad del trabajo industrial), asmakari edo inbentuen patenteen jabetasuna adierazi nahi bait du horrek.

12.5. PASARTEA

Pesas y medidas ez da *neurketa-zaingoa* (=protección de mediciones) eta

bai soil soilki *pisuak eta neurriak.*

Contraste de metales ez da *metal-sillutzea* (=sellar metales) eta bai *metal-egiztatzea* (=egizkoak diren ala ez aztertzea).

12.6. PASARTEA

Internacional ez da *erresuma-arteko* (=interreino) eta bai askoz erabiliagoa *nazioarteko.*

Feria internacional esateko askoz egokiagoa da *nazioarteko peria, azoka* (=merkatu) baino. Gainera euskaraz ere erabiltzen den hitza da *peria,* beraz zertan hasi beste hitz bat hortarako erabiltzen. Azken buruan analogia bidez lan egiten du gure buruak, ezagunetik ez ezagunera, errazenetik zailagotara.

12.7. PASARTEA

Sector público ez da *erri-serbitzuak* (=servicios populares) eta bai *sektore publikua.*

Comunidad autónoma: Euskalerri baldin bada, *la Comunidad Autónoma de Catalunya* izango da *Katalunyako Euskalerri!!!*

Esku izan ez da *participar* eta bai *tener poder, facultad. Participar = parte hartu* da.

12.8. PASARTEA

Con calificación de interés general ez da *guztientzat onurakor izendatuak*. Ba tetik ez da esaten *kalifikazioa* izendapenez egiten den ala ez, be raz hobe da hor *izaera edo kalifikazio*. Gainera, *interés general* ia sekula ez da *guztien onura* eta bai *gehienen interesa*, beti ere beti izaten bait dira hortik mesede baino kalte gehiago izaten dutenak.

Cuando el Estado no se reserve su gestión directa, euskaraz itzultzen denaren guztiz kontrakoa da: *Estaduak bere eskutik uzten ez dituanean* jartzen du, eta esan behar du *beroien (aireportuen) gestio direktua Estatuak beretzat gordetzen ez duenean*. Osoro alderantziz.

12.9. PASARTEA

Ordenación ez da *araubide*, gorago esan dugunez.

(Mercancías y viajeros) que tengan su origen y destino dentro del territorio de la Comunidad Autónoma ez da *Euskalerritik irten gabe egiten dan (diren) salgai eta bidaztiak*. Honela behar luke: *beren jatorri eta helburuak Autonomi Komunitatearen lur-barruan dituzten salgai eta bidaztiak*. Ez bait da berdin. Ba euskarazko textuak eskubide ematen dio Komunitate Autonomoari kanpotik datozen edo Euskal Herritik kanpora doazen salgai eta bidaztiak kontrolatzeko, erderazko textuak berriz ukatu egiten dio eskubide hori.

12.10. PASARTEA

Salvamento marítimo euskaraz ematen den *itsasoko salbabideak* baino zabalagoa da; hobe *itsas salbamendua*.

Artículo 13

1. En relación con la Administración de Justicia, exceptuada la jurisdicción militar, la Comunidad Autónoma del País Vasco ejercerá, en su territorio las facultades que las Leyes Orgánicas del Poder Judicial y del Consejo General del Poder Judicial reconozcan, reserven o atribuyan al Gobierno.

2. Corresponde íntegramente al Estado, de conformidad con las Leyes generales, el derecho de gracia y la organización y el funcionamiento del Ministerio Fiscal.

Vertidos ez da *ondakin* (=residuos). Hobe *botakin edo isurkin.*

Aguas territoriales expresioa euskaratu gabe gelditu da, beste batek itzultzekotan noski. Politika-hiztegigileek *ur territorialak* itzuli dute. Beraz, *aguas territoriales del Estado* ez da *Estadupeko urak*, ba *territorial* ez den urik ere badu Estatuak. Hobe *Estatuaren ur territorialak* doitasun berdinarekin beste egokiagorik asmatzen ez den bitartean.

13. ARTIKULUA

13.1. PASARTEA

Epaigintza-eraketari buruz zer esan nahi du hor *eraketa* horrek? Alferrik dago hor. Gainera *administración de justicia*ko *justizia* hori *epaiarekin* berdintzea gehitxo dela uste dut. Nahiago nuke nik *justizigintza*; ala *justizia* hitza euskaratik erauztea pentsatzen du inork?

Auzi = pleito da, ez *judicial edo juicio.*

Agindu badirudi euskaraz ez dagoela beste hitzik *mando, mandar, poder, dominio, jurisdicción, competencia, autoridad...* esateko. Ba hor dabil *aginpide* zeraok esateko: *mando, gobierno, competencia, jurisdicción...*

Eta oraindik emango zaizkionak, zuek eta beste batzuek. Horren bidetik doa *agintaritza. Agintari = autoridad* eta orain *poder* eta etorriko direnak. Zertarako dauzkagu ba *botere, ahalmen, esku, eskumene, barruti, eskudun, eskuduntza,* etab.? Noiz hasi behar dugu gauzak

finkatzen? Euskarazko *botere* hitzari ezer esanerazi nahi bazaio *poder* esatea da. Beraz hori hortarako utzi eta bidali besteak beste adiera batzuren bila. Horrela egin dute *Politika-hiztegian* ari tu direnek eta horrela erabakiabartu dugu Zuzenbidean ari garenok ere. Gero argi dago *epai(tzeko) botere = poder judicial; legegintza botere* edo *botere legegile = poder legislativo*, etab...

Consejo general esateko hor dabil *Kontseilu generala* edo *Kontseilu Nagusi* bazterretan eta orain *goi-batza* (=unión superior)?

Leyes orgánicas ez da *lege nagusi* eta bai *lege organiko*, euskaratik *organo, organismo* eta hoien familiakoak ezabatzerik ez dagoen bitartean. Hizkuntza zergauza osoko bat bezala begiratu behar da, bere barnean zientzi mota guztiak dituena bezala. Orduan lelokeria ikusten da, e.b., biologian eta *organo, organismo, organiko, organizatu, etab...* derrigorrezkotzat onartzea eta beste disziplina batean, Zuzenbidean kasu, hitz hoiei sarrerarik eman nahi ez izatea. Hizkuntza guztietan gertatu da behin analogia bidez, behin irudi bidez, jakintza-mota desberdinetatik hitzak hizkuntzaren altxor arrunta aberastera pasatzea. Euskararentzat ez ote du ba bide honek balio?

Bereizi ez da *reservar*, edo nahiago bada bada *reservar*, baina beste mila gauza ere bai, hala nola, *separar, elegir, apartar, delimitar, determinar, hacer especial, exceptuar, particularizar, distinguir, diferenciar*, etab... Esan nahi dut, ez duela balio *reservar un poder al Gobierno* esateko.

13.2. PASARTEA

Ministerio Fiscal honela itzultzen da: *Salaketa-kargudunen Erri-Erakundea*

Artículo 14

1. La competencia de los órganos jusrisdiccionales en el País Vasco se extiende:

a) En el orden civil, a todas las instancias y grados, incluidos los recursos de casación y de revisión en las materias del Derecho Civil Foral propio del País Vasco.

b) En el orden penal y social, a todas las instancias y grados, con excepción de los recursos de casación y de revisión.

c) En el orden contencioso-administrativo, a todas las instancias y grados cuando se trate de actos dictados por la Administración del País Vasco, en las materias cuya legislación exclusiva corresponde a la Comunidad Autónoma, y, en primera instancia, cuando se trate de actos dictados por la Administración del Estado.

d) A las cuestiones de competencia entre órganos judiciales del País Vasco.

e) A los recursos sobre calificación de documentos referentes al Derecho privativo vasco que deban tener acceso a los Registros de la Propiedad.

2. En las restantes materias se podrán interponer ante el Tribunal Supremo los recursos que, según las leyes, procedan. El Tribunal Supremo resolverá también los conflictos de competencia y de jurisdicción entre los órganos judiciales del País Vasco y los demás del Estado.

(=institución popular de los encargados de acusar o denunciar). *Ministraritza Fiskala* askoz ere onargarriago dela uste dut.

Arauak ezartzea: *organización, organizar* da inundik ere. Gorago *regular* esateko erabili da; berez *aplicar las normas* da, edo *imponer normas* ere bai. Baina *organizar* beste gauza bat da, nahiz eta *arauak jartzea eta ezartzea* bide bat izan *organizatzeko.*

Aginpide orain *funcionamiento* esateko erabiltzen da. Lehen esanahi gutxi zituela eta orain bat gehiago.

14. ARTIKULUA

14.1. PASARTEA

Epaigintza ez da *Organos jurisdiccionales* eta bai *acción o ejercicio de sentenciar.* Beti ere ihes egin eta hor uzten da benetan itzuli behar dena: *Organo jurisdikzionalak* beharko noski. Norbaitek esango du, erdararen oso antzeko dela. Ikusten dut nik ere horrenbeste. Baina hor argi eta zehatz dago erdarazkoaren esanahia eta horren euskarapentzat eman den hortan berriz mamia bera dago itxuragabetu rik. Gainera ez dut ikusten *organo* euskaraz nola esan daitekeen. Ze Zuzenbidean noiz edo behin kentzerik egonda ere, biologiatik eta ez bait dago izkutarazterik. Beraz alfer-ahalegina litzateke alor hontatik kanpora bidali nahi izatea hitz hau, gero beste ate batetik sartuko bazaigu. Alemanek ere ez daukate arrazoirik gabe *Organ, organisch, Organisation, organisieren, Organigramm...*

a) *Orden Civil* ez da *iritar-lege saillean* (=sección de leyes ciudadanas). Nere aldetik esan behar dut, ez dudala legegizon askorik aurkitu euskaraz *Derecho civil* eta holako esanetan *civil* hori *iritar* hitzez euskaratzeko joera duenik. Hori bego ohar bezala. Nik neuk *ordena zibilean edo iritar ordenan* itzuliko nuke, esana bihurritu gabe eta batez ere interpretatu gabe *lege sailean* ek egiten duen bezala.

Auzi-aldi ez da *instancia* eta bai *una sesión de pleiteo.*

Recurso de casación euskaraz eman den *auziak ezeztatzea* baino gehiago da. *Recurso* ez da euskaratzen eta behar litzateke. *Casación* ez da *auziak ezeztatzea* (=anulación de pleitos). Indargabetzen direnak ez dira *auziak* eta bai *beste tribunal batzuren epaiak*. Gainera *kasazio* hitza oso teknikoa da Zuzenbidean hori ta horrenbestez hitztegitik kentzeko. Baina behintzat ondo euskaratu!

Revisión (de causa) ez da *birrepaitu* (=volver a sentenciar).

Recurso de casación hemen dago, baina joskera okerra dauka esaldi horrek: *auziak ezereztatzea gora jotzea*, honela behar luke *auziak ezereztatzeko gora jotzea*. Gorago ikusi horren komentarioa.

Euskalerriko ez da *propio del País Vasco, propio* jan da.

En materias del (Derecho Civil Foral) ez da *(Iritar Foru-legeen) barruan* (=dentro del Derecho civil foral). Gainera *Foru-lege* ez da *Derecho Foral* eta bai *ley foral.*

b) a) koan egin diren huts berdin berdinak egin dira.

c) *En el orden contencioso-administrativo* konpara euskarazko honekin *Edozein agintaritza-maillaren aurkako auzien saillean* (=en la sección de pleitos contra cualquier grado de autoridad). Beste komentariorik sobra! Hobe: *eztabaida eta administrazio-sailean* edo.

Actos dictados: erabakietatik sortutako auzi-gaia (=materia de litigio originada de las decisiones) euskaratzen da eta ez da berdin noski.

Administración del País Vasco ez da *Euskalerriko edozein agintaritza-maila* (=cualquier grado de mando del País Vasco).

Araupetu ez da *legislar* eta bai *legegin, legea egin, legea eman. Araupetu: poner bajo norma, dar una normativa* besterik ez da.

d) *Auzi-erakundeak: auzi = pleito* eta ez *juicio. Erakunde = institución* esateko erabili da itzulpen hontan bertan ere. Orain *órgano* esateko erabiltzen da. Baina ez bait dira biak berdin. *Erakundea = multzo organizatu bat* da eta *organoa = erakundearen barruan berekasa, autonomiaz, eginkizun bat bete dezakeen bide edo instrumentu bat.* Beraz ezin daitezke biok berdindu.

e) *Calificación de documentos* oso doitasun eskasez itzultzen da *agirien balioa*, ze hemen adierazi nahi dena *dokumentuen kategoria, dokumentuen hierarkia eta rangoa* da.

Artículo 15

Corresponde al País Vasco la creación y organización mediante ley de su Parlamento y con respecto a la institución establecida por el artículo 54 de la Constitución, de un órgano similar que en coordinación con aquélla ejerza las funciones a las que se refiere el mencionado artículo y cualesquiera otras que el Parlamento Vasco pueda encomendarle.

14.2. PASARTEA

Resolverá también, también jan da eta ez dago jaterik.

15. ARTIKULUA

Corresponde al país Vasco mediante ley de su Parlamento ez da beste honen berdina *Euskalerriko Parlamentuari dagokio lege-bidez...* Mamia berdintsua dutela erantzungo da, berdintsua bai baina berdina ez. Hemen itzulpena egin behar da, ez korrespondentziak bilatu.

Arauak ezartzea: regular izan da orain arte; orain *organizar* esateko itzultzen da. Berez *aplicar normas* besterik ez du esan nahi horrek.

Y con respeto a la institución establecida por el artículo 54 de la Constitución oso motz eta gaizki itzultzen da *Konstituzioak 54'gn. atalean diona; Konstituzioaren 54. artikuluak ezarritako erakundea errespetatuz* behar luke izan, aldea dago!

Que en coordinación con aquella (la institución) ez da *Estaduak duan erakundearekin arremanetan, eta ari zor zaion begirunez* eta bai *(erakunde) harekin koordinatuz.*

Artikulu hau oso nahasi itzulia dago eta zenbait gauza falta dira; azkenean batek ez daki zer zeri dagokion.

Artículo 16

En aplicación de lo dispuesto en la Disposición Adicional primera de la Constitución, es de la competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, sin perjuicio del artículo 27 de la Constitución y Leyes Orgánicas que lo desarrollen, de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30º de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía.

16. ARTIKULUA

Dispuesto en la Disposición ez da *Erabakian aginduta dago. Dispuestok* ez du hor *agindu*en indarrik. Aski da *Erabakian jartzen denez, esaten denez.*

Ez euskaraz agertzen dena sobra dago.

La enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades dioen dekuan euskaraz: *irakaskintza bere zabalera osoan, irakaste-maila (niveles), mota (grados), ta gai guztietan (modalidades y especialidades).* Askotxo dirudi dena batera irensteko. *Niveles y grados* ez dira berdinak gazteleraz. Ondo dago *niveles = maila* itzultzea, baina *grado de enseñanza* eta *irakaste-mota* (=clase de enseñanza) ez dira berdin. *Modalidades* badirudi areago *mota* dela, baina *especialidades* ez dut uste *gaiak* esanda lasai gelditu daitekeenik bat. Hain zuzen irakaskintzan dira *espezialitateak* gero *espezialistak* ematen dituztenak. Honela behar litzateke euskaratu: *irakaskintza bere hedadura osoan, bere maila, gradu, mota eta espezialitate guztietan.*

(Leyes Orgánicas) que lo desarrollen (artículo 27) ez da euskaraz jarri eta hori latza da. Ze ez bait da berdin *artikulu bat dagoen dagoenean errespetatzea* eta *artikulu horrek hartu dezakeen desarroiloa bera ere errespetatu behar izatea.*

Garantizar: ziurtatu itzuli da, hau berriz *asegurar* da areago. Dena dela, beste bi edo hiru txandatan ere etorri da eta desberdin itzuli da. Nun dago hizkera teknikoak behar duen sistema?

Artículo 17

1. Mediante el proceso de actualización del régimen foral previsto en la Disposición Adicional primera de la Constitución, corresponderá a las instituciones del País Vasco, en la forma que se determina en este Estatuto, el régimen de la Policía Autónoma para la protección de las personas y bienes y el mantenimiento del orden público dentro del territorio autónomo, quedando reservados en todo caso a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado los servicios policiales de carácter extracomunitario y supracomunitario, como la vigilancia de puertos, aeropuertos, costas y fronteras, aduanas, control de entrada y salida en territorio nacional de españoles y extranjeros, régimen general de extranjería, extradición y expulsión, e inmigración, pasaportes y documento nacional de identidad, armas y explosivos, resguardo fiscal del Estado, contrabando y fraude fiscal al Estado.

2. El mando supremo de la Policía Autónoma Vasca corresponde al Gobierno del País Vasco, sin perjuicio de las competencias que pueden tener las Diputaciones Forales y Corporaciones Locales.

3. La Policía Judical y Cuerpos que actúen en estas funciones se organizarán al servicio y bajo la vigilancia de la Administración de Justicia en los términos que dispongan las leyes procesales.

4. Para la coordinación entre la Policía Autónoma y los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado existirá una Junta de Seguridad formada en número igual por representantes del Estado y de la Comunidad Autónoma.

5. Inicialmente las Policías Autónomas del País Vasco estarán constituidas por:

a) El Cuerpo de Miñones de la Diputación Foral de Alava, existente en la actualidad.

b) Los Cuerpos de Miñones y Miqueletes dependientes de las Diputaciones de Vizcaya y Guipúzcoa que se restablecen mediante este precepto.

Posteriormente las instituciones del País Vasco podrán acordar refundir en un solo Cuerpo los mencionados en los apartados anteriores, o proceder a la reorganización precisa para el cumplimiento de las competencias asumidas.

Todo ello sin perjuicio de la subsistencia, a los efectos de representación y tradicionales, de los Cuerpos de Miñones y Miqueletes.

---

6. No obstante lo dispuesto en los números anteriores, los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado podrán intervenir en el mantenimiento del orden público en la Comunidad Autónoma en los siguientes casos:

a) A requerimiento del Gobierno del País Vasco, cesando la intervención a instancias del mismo.

b) Por propia iniciativa, cuando estimen que el interés general del Estado esté gravemente comprometido, siendo necesaria la aprobación de la Junta de seguridad a que hace referencia el número 4 de este artículo. En supuestos de especial urgencia y para cumplir las funciones que directamente les encomienda la Constitución, los cuerpos y fuerzas de seguridad del Estado podrán intervenir bajo la responsabilidad exclusiva del Gobierno, dando éste cuenta a las Cortes Generales. Las Cortes Generales a través de los procedimientos constitucionales podrán ejercitar las competencias que les correspondan.

7. En los casos de declaración del estado de alarma, excepción o sitio, todas las fuerzas policiales del País Vasco quedarán a las órdenes directas de la autoridad civil o militar que en su caso corresponda, de acuerdo con la legislación que regule estas materias.

17. ARTIKULUA

17.1. PASARTEA

Proceso de actualización: *eguneratzea* baino gehitxoago da eta nekerik gabe itzuli daiteke *eguneratze-prozesu* esanaz.

Preveer esateko *dion* jarri da. Hor dabil ba nahiko poliki *aurrikusi* edo *aurrez ikusi*, eta bestek asmatu dutenaz baliatzen hasteko garaia ere bada.

Corresponde (a las instituciones del País Vasco): forma neutroan dago *corresponde* hori eta ez aktiboan euskarapenak dioen bezala *(Euskalerriko Erri-Erakundeen) eskuetan ezartzen du*. Nork ezartzen du? Erdarazkoak ez dio holakorik. *Esku dago* hobe.

Instituciones dio eta ez *erri-erakunde, herri* sobra da.

El régimen de la policía Autónoma falta da textu hontan. Gozoa jarriko da jendea honekin! Esaten dena da *serbitzua*, baina ez da esaten *serbitzu* horren izena *polizia autonomoa* dela eta *(Euskal Herriko erakundeen esku dagoela) Polizia Autonomoaren erregimena* hori zen itzulpen jatorra. Inundik ere gaztelerazko hitzik agertzen den gehienetan holako bi txikeriak egiten dira izenekin. Nora goaz ordea jokabide horrekin!

Orden público ez da *erriaren pakea* eta bai *ordena publikoa*. Mamia berdin-

tsua badute ere bi deitura zeharo desberdinak dira. Eta izanaren adierazgarri daude izenak.

En todo caso ez da euskaratzen, eta ez dago hor alferrik gero! Ez bait da berdin *quedando reservado en todo caso*. Ala bai?

Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado; cuerpos hori *segurantzi-erakunde* itzultzen da. *Seguridadea* bera da *erakunde*; baina *cuerpos* hori erakunde baten zatiak dira. Gainera *erakunde* hitz horri edozer esanahi ematen ari gara: *institución, órgano, organización, cuerpo...* eta oraindik hartuko dituenak. Baina hori ez da bidea.

Lurraldez kanpoko: extracomunitario esaten da, *extraterritorial* etorriko balitz berdin esango litzateke. *Komunitatez kanpoko* da *extracomunitario* eta hori utzi *extraterritorial* esan behar denerako.

Lurraldez gaineko: ez da *supracomunitario* eta bai *supraterritorial*.

Control de entrada y salida en teritorio nacional de españoles y extranjeros... Hemen lerro parte bat galdu dela dirudi euskarazko textutik. Dakarrena hau da *españar eta atzerritarren Estadu-mugako sar-*...(sartu-irtenak kontrolatzea) falta da.

Régimën general de extranjería: zati bat galdu da hemen ere, hala ere da karrenetik antzematen da zer falta den *(atzerrita)rren bizi-baimenak*. Parentesi artekoa nik osatua da. Nolanahi ere *régimen general* ez da euskaratzen edo oso galtzaundiro *bizi-baimena*. Hori baino gehiago dela uste dut. Hor ez da adierazten *atzerritarren egoera, eskubideak, etab... ordenatzeko eskua* ematen denik, eta ez *lurraldean bizitzeko baimena* bakarrik.

Extradicción y expulsión: itzuli ez dira itzultzen, beroien explikazio bat ematen da areago. Zailtasuna erabaki gabe gelditzen da. Hurren goak ikusi dezala! Hona *expliktzulpena: arrotzak atzerrîra botatzea ta erbesteko auzipetuak erriratu araztea* . Gainera ordenaz aldatzen dira eta ez dago zergatik. Hobe *extradikzioa eta erauztea.*

Emigración e inmigración: atzerriratzea eta erriratzea itzultzen dira. Itzulpena oso eskasa da, ze baserritik hirietarako *emigrazioa, atzerriratzea* izango litzateke! *Inmigrazioa* oraindik bitxiago *herriratzea* bezala ematen da. E.b., soldautzan dauden mutilak *herriratzen* direnean *inmigratu* egingo lirateke; edo eta herbestean diren euskaldunak *herriratzen* direnean *inmigratu* egingo lirateke. Gainera *herri* hori ere ez dago argi zer den, *jaioterria* izan daiteke edo *aberria, lurraldea, Estatua*. Badirudi *herriratzen direnak* herritarrak ez baina kanpokoak egiten direla, hau berriz *atzerriratzea* da haientzat. Beraz, hitz hoiek ez dutela balio ez batak eta ez besteak *emigrazio edo inmigrazio* esateko. Itzulpen hontan benetako izua dago *erdal* hitzak erabiltzeko, baita euskarazko tajuzkorik eskuartean ez denean ere. Hortik ezin goazke urrutira.

Documento nacional de identidad: DNI . Honen itzulpen bitxirik ez dut ikusi oraino. Eta nola du izena *DNI* horrek? *Nor-agiria = carnet de identidad* besterik ez litzateke. *Identitatezko Dokumentu Nazionala* esan gutxienez.

17.2. PASARTEA

Policía Autónoma Vasca itzultzeko ez du balio *ertzaingo* ak. *Ertzaingo, alguacil, policía municipal* edo holako zerbait da, eta hori ere esan beharra dago. Baina *policía* arruntki adierazteko *polizia* beste hitzik ez dago.

Gobierno del País Vasco ez da *Euzko Gobernu* (=Gobierno vasco) eta bai *Euskal Herriko Gobernu*. Hitz desberdinak hortarakoxe daude: erabiliak izateko.

Competencia: orain *eskubide*, lehenago *aginpide, aginpide-sorta*. Noiz hasi behar dugu hitzak finkatzen

17.3. PASARTEA

Epaiketa-eginpidetan diarduten Erakundeak: Erakundeak = Cuerpos de policía esateko ondo ez dagoela gorago ere esan nuen. *Eginpide* horrek zer esan nahi duen ez da erraz asmatzen erdarazko texturik euki ezean: *obligacio, egiteko, funtzio, egiteko aukera* ala beste zerbait ere bai *egiteko eskubidea* Lopez Mendizabalen hiztegiak dakarrenez?

Epaiketa-Erakunde: badirudi *Institución judicial* behar duela izan. Baina, bai zera!, *Administración de Justicia* esateko erabiltzen da. Gauza askotxo esan nahi ditu benetan *erakunde* hitz horrek: *institución, cuerpo de un organismo público, administración...* Horrela ibili baino nahiago dut nik *justizi-administrazio* esan. Horrela bederen argi dago zer esan nahi den, eta lan egitea dago; bestearekin euskarazko hitzak edo hitzotsak erabiltzen dira, baina inork ez daki doi doi zer esan nahi duten. Hori hitz egitea baldin bada berriz...!

Epaiketa-lege: epai, epaitu, epaiketa... = sentencia, sentenciar, juicio edo sentencia... direlakoan negoen. Eta oraindik beste zerbait ere bai: *proceso*. Eta nola asma dezake batek zer den noiz eta noiz zer den? Herri-mailan nahasten dira esanok, baina Zuzenbidezko dokumentu batean ez. Gazteleraz ere berdin da, baina hemen ez dute nahaste

ko biderik utzi, ez dute esan *ley judicial* eta bai *ley procesal.* Eta horrela egiten da munduko beste hizkuntza guztietan ere.

Para la coordinación entre (la Policía Autónoma y los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado): ez da *(Autonomi-Ertzaingoa eta Estaduko Segurantzi-Indar eta Erakundeak) elkar-lanean lotzeko. Koordinatzea* ez da *elkar-lana egitea* (=colaborar litzateke hori gehienez ere), eta bai *batabestearen arauera lan egitea, batak besteak egiten duenari begiratuki lan egitea.*

17.5. PASARTEA

Las Policías Autónomas ez dago zertan euskaraz singularrean itzuli *Ertzaingoa*, hain zuzen ere *polizia-mota* desberdinak aipatzen bait dira. Joera haundia dago itzulpen hontan gauzak *secundum sensum* itzultzeko edo *irudi bidez*. Hori berriz, ez bata eta ez bestea dira egoki *dokumentu ofizial bat* itzultzeko.

b) *Las instituciones del País Vasco: Euskalerriko Agintaritzek* itzultzen da. Hori berriz *los mandos, las autoridades del País Vasco* da, baina ez *instituciones.*

A efectos de representación y tradicionales, betiko moduan haundiaurkinak bilduz bezala dago itzulia *ospezko eginbearretan oitura zaarrei jarraitzeko. Representación* ez dut uste *ospezko eginbeharra* denik; beti ere *norbaiten edo zerbaiten ordez egotea* edo adierazten du *errepresentazioak*, euskarazko *eginbeharrak* adierazten ez duena.

17.6. PASARTEA

b) *Responsabilidad exclusiva del Gobierno* ez da *Gobernuaren oso-osoko erantzukizunez* (=responsabilidad completa del Estado) baizik eta *Gobernuaren bakarraren erantzukizunpean* edo *Gobernuaren erantzukizun exklusiboaren pean*. Ba harritzekoa baldin badirudi ere *exclusivo, esclusivista, esclusivismo, esclusividad, esclusivamente...* nekez aurki daiteke euskaraz familia hau ondo itzulita. Noiz edo behin eman daiteke fraseren bat hitz hoietakoren baten esanahi-zatiren bat osoro adieraziko duena, baina gutxitan eta beti banaka.

Cortes Generales zergatik utzi behar da berehortan bere euskal kutsutxoa eman gabe? *Gorte Generalak* euskaraz entzungarriago da eta besteak bezain egoki ematen du bere mamia.

A través de los procedimientos constitucionales ez da *Konstituzioaren esanetara jokatuz* (=actuando según lo dicho en la Constitución) *Prozedura konstituzionalak* ez dira *Konstituzioaren esanak* eta bai *Konstituzioak kasu jakin batzutarako zehazten eta erakusten dituen jokabide eta prozedurak.*

17.7. PASARTEA

Estado de alarma: erne-deia itzuli da, baina *alarma* ren zati bat besterik ez du horrek euskaratzen. Gainera hor *egoera* (estado de) bat adierazten da, euskaraz jartzen ez dena. *Erne-dei-egoera* berriz ez da ezer. Beraz, *erne-deia jo* eta holakoak esan daitezke, baina ez dago esaterik *instalar una alarma en un banco, el aparato de alarma está averiado* etab... *Alarma* hitza gaurregun nekez ken dateke euskaratik. Alemanak berak ere holaxe dauka eta ez du ba harek guk bezalako hitz

Artículo 18

1. Corresponde al País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución de la legislación básica del Estado en materia de Sanidad Interior.

2. En materia de Seguridad Social, corresponderá al País Vasco:

a) El desarrollo legislativo y la ejecución de la legislación básica del Estado salvo las normas que configuran el régimen económico de la misma.

b) La gestión del régimen económico de la Seguridad Social.

3. Corresponderá también al País Vasco la ejecución de la legislación del Estado sobre productos farmacéuticos.

4. La comunidad autónoma podrá organizar y administrar a tales fines y dentro de su territorio, todos los servicios relacionados con las materias antes expresadas y ejercerá la tutela de las instituciones, entidades y fundaciones en materia de Sanidad y de Seguridad Social, reservándose el Estado la alta inspección conducente al cumplimiento de las funciones y competencias contenidas en este artículo.

5. Los poderes públicos vascos ajustarán el ejercicio de las competencias que asuman en materia de Sanidad y de Seguridad Social a criterios de participación democrática de todos los interesados, así como de los sindicatos de trabajadores y asociaciones empresariales en los términos que la ley establezca.

faltarik hizkuntzan! Hala ere *Alarm, Alarm-Anlage, Alarm-Apparat, alarmieren, Alarm-Ventil, Alarm-Zustand*, eta beste asko. *Not-Ruf* ere erabiltzen da *alarma* esateko, baina hor bukatzen da; hortik ez da erakarkinik edo deribaturik sortzen. Beraz *alarma-egoera* jarriko nuke nik *estado de alarma* euskaratzeko; ondoren familia osoa sor daiteke: *alarmatu, alarma-giro, alarmagailu, alarma-aparatu, alarma-balbula, alarma-egoera, alarma-garai, etab...* Hitzak erabiltzekoan edo asmatzekoan kate osoari begiratu behar zaio, ez hitz bakarrari.

Estado de excepción ez da *iritarren eskubide-murrizte*. Hori edozein diktadura da; horrezaz gainera *salbuespen-egoera* beste zerbait da eta ondo asko esana dago euskaraz. Azkenaldiko euskal literatura edo egunkaritza irakurtzen duenarentzat aski ezaguna behar luke izan.

18. ARTIKULUA

18.1? PASARTEA

Legislación básica: *legedia* bakarrik euskaratzen da, *básico* ez da itzultzen. Zergatik?
Legislación básica del Estado en Materia de sanidad interior: interior hori Estatu-mailakoa da eta ez Euskal Herri-mailakoa euskarazkoak dioen bezala *Euskalerriari dagokio bertako osasun-arazoetan Estaduak duan legedia osotu eta betetzea. Estatuak barneko osasun-arazoetan duen oinarrizko legeria desarroilatzea...!* behar luke.

Desarrollar, gorago esan dut ez dela *osotu*, hori baino gehiago dela baino.

18.2. PASARTEA

Seguridad, lehen *sugurantzi* orain *segurantza,???*

La gestión del régimen económico: *ekonomi arauak betetzea eta bete araztea* itzultzen da, baina erdaraz ez da inun *araurik* eta *arau betetzerik edo bete arazterik* aipatzen. Hor *gestión* esaten da, hori berriz *administrazioa* edo *ekonomi antolamendua, erregimena, burutzeko bideak egitea* edo da. Baina araurik aipatu gabe, *arauak betetzea* ezeze *arauak ematea* ere izango dela pentsatzen dut nik. Hau bezin nabarmen ez badaude ere, hau bezin hitz-jariotsu daude a)ko beste esan batzuk ere.

18.4. PASARTEA

Podrá organizar y administrar *a tales fines: antolatu ta zaindu ditzake* itzultzen da. *A tales fines* janda. *Administrar* oso triste gelditzen da *zaindu* esanaz. *Serbitzuak zaindu* nik dakidala *cuidar los servicios* da, baina sekula ez *administrar los servicios.*

Fundación: ez da *emaitza-zaingo* (=protección de donativos edo donaciones). *Asmo eta xede jakin baterako ematen den dirutza bat* da *fundazioa.*

La alta inspección conducente al cumplimiento de las funciones eta *eginkizuneta rako gain-begiratua* ez dira berdin. Honela behar luke: *...goi-begiratua, betebeharrak bete daitezen* edo ... *gainbegiratua, betebeharrak beterazteko (asmoz).*

18.5. PASARTEA

Los Poderes Públicos ez da *Agintaritzak*, eta bai *Botere Publikoak*.

Ajustarán el ejercicio (de las competencias)... a criterios de participación democrática (de los interesados): ez da ondo euskaratzen *(aginpideak) betetzean (=ejercicio), hortan dabiltzan guztientzat (=de los interesados), demokraziak eskatzen duan bezala (=criterios democráticos), esku artzeko bideak sortuko dituzte (=crearán medios de participación). Ajustarán (el ejercicio)* a beste gauza bat da. Ez du *sortuko dutenik* esaten, *partehartze demokratikoaren erizpidetara moldatuko direla* edo *partehartze demokratiakoak eskatzen duenaren arabera, horri jarraituz...* erabiliko dituztela beren konpetentziak baizik. Alde haundixkoa dago.

Langille-Elkarte (=asociación de trabajadores) batzutan bakarrik da *Sindikato*, baina ez beti, ezta gutxiagorik ere. Beste horrenbeste esan *Ugazaba-Elkarte* rentzat (=asociación de patronos) ere: hori ez da *Ugazaben Sindikatua*.

19. ARTIKULUA

19.1. PASARTEA

Desarrollo legislativo de las normas básicas: ez da *legedia osotzea*.

Normas básicas ere hortxe daude eta itzultzekoak dira.

Artículo 19

1. Corresponde al País Vasco el desarrollo legislativo de las normas básicas del Estado en materia de medios de comunicación social, respetando en todo caso lo que dispone el artículo 20 de la Constitución.

2. La ejecución en las materias a que se refiere el párrafo anterior se coordinará con la del Estado, con respecto a la reglamentación específica aplicable a los medios de titularidad estatal.

3. De acuerdo con lo dispuesto en el párrafo primero de este artículo el País Vasco podrá regular, crear y mantener su propia televisión, radio y prensa y en general todos los medios de comunicación social para el cumplimiento de sus fines.

Respetando en todo caso eta *respetando* bakarrik ez dira berdin. *En todo caso* ez da euskaratu: *beti ere*. *Respetando, aintzat hartu* baino gehiago da; ez *errespetatzeko* ere *aintzat hartzen* da.

19.2. PASARTEA

Se coordinará con el Estado ez da *Estaduarekin artuemanetan egingo da*. *Hartuemanak* izan daitezke *koordinaziorik* gabe ere.

Reglamentación específica: *específica* ez da euskaratu.

Con respeto: *kontuan hartuz* baino gehiago da. *Kontuan hartu* ezeze *gorde* edo *errespetatu* ere egin behar dira.

De titularidad estatal eta *Estaduak bere esku dituen* ez dira berdin. Batek izan dezake bere esku *berea ez duen* (=bere titularitatekoa ez duen) kotxe bat. Aldea zegok! *Estatuaren titularitatezko, Estatuak bereak ditu en* itzuli behar da.

19.3. PASARTEA

Párrafo primero ez da *leenengo zenbakia* (=primer número). Ihes egitea da hori. Nola esan behar da *párrafo* euskaraz? Hori da itzuli beharrekoa. Eta zenbakirik ez baleuka artikulu honek nola esango litzateke *párrafo*? Hori mordoilozaleek konpondu dezatela, ezta?

Televisión: ikusirrati? Oso hitz bitxia da hauxe, baina ez dut uste tek

nikan eta bestela ere onartua izango denik.

Entzunirrati : *radio* esateko *entzun* hori sobra dago, *irratia* esaten denean entzuteko den komunikabidea ulertzen bait dugu denok.

Regular, crear y mantener ez dakit zergatik aldatu behar diren ordenaz hitz hoiek euskaratzekoan. Eta askotan egiten dena da hau. Hemen ordea ez dut uste gauza berdina denik. Sortu haurretik dagoena ere *erregulatzeko* eskubidea ematen zaio Euskal Gobernuari. Horrezaz gainera bere aldetik berriak *sortzeko eta mantentzekoa*. Beraz ez da berdin. Eta dena dela itzulpena ez da egiten interpretazioak emanaz eta gauzak beren lekutik aldatuz, dauden daudenean utziz eta errespetatuz baizik.

Y, en general, todos los medios de comunicación: ..*en general* hori jan egin da eta ondorioz perpausak absolutuago dirudi. *En general* esaten denean ez da exkluditzen salbuespenen bat edo beste; hor kenduaz berriz salbuespenentzako lekurik ez da gelditzen. Ez da berdin: *jeneralean, euskaraz hitz egiten da baserri guztietan*, esan nahi da, *balitekeela banakaren batzuk aurkitzea bestela egiten dutenak ere;* baina *baserri guztietan euskaraz egiten da* esaten badugu, orduan ez dago lekurik salbuespenentzat.

Gainontzeko... guztiak dioen lekuan *todos* bakarrik dio erdarazkoak. Alde haundirik ere ez badago kasu hortan, sobra dagoena, sobra. Honekin adierazi nahi dut, askotan, bai gehiegitan, erdarazko textuak ez dakartzan hitzak eta xehapenak ematen dizkigula euskarazkoak, eta eman ere beharrik gabe edo eman behar ezta.

Artículo 20

1. El País Vasco tendrá competencias legislativas y de ejecución en las demás materias que por ley orgánica le transfiere o delegue el Estado según la Constitución, a petición del Parlamento Vasco.

2. La comunidad autónoma del País Vasco podrá dictar la correspondiente legislación en los términos del artículo 150.1 de la Constitución, cuando las Cortes generales aprueben las leyes marco a que se refiere dicho precepto.

3. El País Vasco ejecutará los tratados y convenios en todo lo que afecte a las materias atribuídas a su competencia en este Estatuto. Ningún tratado o convenio podrá afectar a las atribuciones y competencias del País Vasco, si no es mediante el procedimiento del artículo 152. 2 de la Constitución, salvo en lo previsto en el artículo 93 de la misma.

4. Las funciones de ejecución que este Estatuto atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco en aquellas materias que no sean de su competencia exclusiva comprende la potestad de administración, así como, en su caso, la de dictar reglamentos internos de organización de los servicios correspondientes.

5. El Gobierno Vasco será informado en la elaboración de los tratados y convenios así como de los proyectos de legislación aduanera en cuanto afecten a materias de específico interés para el País Vasco.

6. Salvo disposición expresa en contrario, todas las competencias mencionadas en los artículos anteriores y otros del presente Estatuto se entienden referidas al ámbito territorial del País Vasco.

20. ARTIKULUA

20.1. PASARTEA

El País Vasco tendrá competencias legislativas... a petición del Parlamento Vasco itzultzen da: *Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak aurrez eskaturik*. Batetik *Legegintza-Biltzarra* (=asamblea legislativa) ez da Parlamento. Frase hortan *konpetentziak izango dituena* ez da Euskal Parlamentua eta bai *el País Vasco* (Euskal Herria). Ez da ezer kostatzen itzultzea: *Euskal Herriak, Euskal Parlamentuak eskaturik, legegintzarako eta... konpetentziak izango ditu.*

20.2. PASARTEA

La Comunidad Autónoma titulua beti eta beti falta da.

(Podrá dictar) la correspondiente legislación ez da *Euskalerriari dagokion legegintza* eta bai *behar den legegintza.*

Dictar la legislación ez da *legegintza burutu* (=concluir la legislación) eta bai *legegintza eman edo diktatu.*

Leyes marco ez da *lege mugagarriak* (=leyes limitables) eta bai *muga-legeak, esparru-legeak* edo holako zerbait. Legeok esparru bat egiten dute, itxitura bat eraikitzen, eta esaten dute: muga hauetatik aurrerago ez dago joaterik. Beraz *marku-lege* dira.

20.3. PASARTEA

Estaduak beste erresumekin egindako (itun eta itzarpenak) nundik atera da horri? Erdarazkoak ez dio horrelakorik: *(El País Vasco ejecutará) los tratados y convenios.*

En todo lo que ez da itzultzen, *lo que* bakarrik euskaratzen da.

Atribuciones: aalmen itzultzen da. Oso merke. Nola litzateke *atribuir?*

No afectar a las atribuciones: ahalmenak gutxitu itzultzen da. Interpretazio bat egitea dela uste dut. Doiago eta neutralago dagoela uste dut *ukitu, erasan, nozitu, 'afectar'* itzultzeko. *Ez die eskugo edo atribuzioei ukituko, erasango, nozituko.*

Si no es mediante el procedimiento del artículo...: atalak dion eran ez bada (= si no es como lo dice la parte) . Nahiko errukarri.

Previsto: diona, ez da berdin. Nahiko bizitza du ba *aurrikusi*k gaurko literaturan.

20.4. PASARTEA

En aquellas materias que no sean de su competencia exclusiva, hor ez da inun esaten *gai* hoiek *araudiak* ala beste norbaitek ipintzen dituenik E.H.ren eskuetan. Hor esaten da *Euskalerriaren konpetentzi bakarreko*

ez diren gaietan. Bi esateko modu zeharo diferente dira hoiek.

Funciones de ejecución: ez da *aginpideak* (=competencias, etab... itzulpen hontan) eta bai *konpetentzia modu bat* alegia *exekutatzeko funtzioa edo egitekoa*. Beste konpetentien artean bat besterik ez da.

Zainketa ez da *administrar* eta bai *cuidar, custodiar*.

Dictar reglamentos ez da *araudiak antolatzea* (=preparar reglamentos).

Reglamentos internos de organización ez da *barne-araudiak, de organización* falta da.

20.5. PASARTEA

Proyectos de legislación aduanera: aduana-legeak eratzerakoan oso eskas emana dago. *Eratu = proyectar* baino gehiago da, *formar* ere bada. Gainera badirudi Zuzenbidean *proyecto de ley* legearen fase bat dela, ondo mugatzerik ez dagoena nun hasten eta nun bukatzen den, baina *legeasmoa* baina gehiago eta *lege burutua* baino gutxiago. *Legekizun edo legegai* bai apika. Legegizonek erabaki beharko lukete zenbateraino den hori *lege-projektuarekin* berdin. Bitartean *lege-projektu* da zihurrena. Beraz *aduana-Legegintzako projektuetan*.

En cuanto afecten a materias de específico interés para el País Vasco ez da inola ere *bereziki Euskalerrian gertatzen diran aldakuntzetan* (=especialmente en los cambios que ocurren en el País Vasco). Hori ez da ezer ere. Honela behar luke: *Euskal Herriarentzat interes espezifikoa (be*

Artículo 21

El derecho emanado del País Vasco en las materias de su competencia exclusiva es el aplicable con preferencia a cualquier otro, y sólo en su defecto será de aplicación supletoria el derecho del Estado.

rezia, apartekoa gutxiegi da hor*) duten gaiak ukitzen dituzten neurrian* edo.

20.6. PASARTEA

Disposición expresa ez da *erabaki zeatz* (=disposición precisa). *Hitzez hitz esana* da *expresua*, horren kontrakoa *isilka* esaten dena da. *Zehatz*aren kontrakoa *ilun, nahasi* da. Gaurregun *expresu* beste hitzik ez dago idea hori zehatz emateko.

21. A R T I K U L U A

El Derecho emanado del País Vasco ez da *Euskalerrian egindako legeak* (=las leyes hechas en el País Vasco). Esan behar du *Euskal Herriarengandik sortutako Zuzenbidea* edo *Euskal Herriak sortutako Zuzenbidea*. Hor argi geldítzen da, Euskal Herria dela Zuzenbidearen iturri. Bestean ez.

Es el aplicable con preferencia a cualquier otro ez da guztiz berdina euskaraz ematen denarekin: *beste (lege) guztien gainetik daude* (=están por encima de todas las demás leyes). Herriak ulertzeko moduan dago noski, baina bada hor zuzenbidezko estilo bat kontuan euki behar dena. Hona itzulpena: *Eta (Zuzenbide) hori da aplika behar dena beste edozeinen aurretik* edo *eta (Zuzenbide) hori da beste edozein baino lehen aplika beharrekoa.*

Artículo 22

1. La comunidad autónoma podrá celebrar convenios con otras Comunidades Autónomas para la gestión y prestación de servicios propios de la exclusiva competencia de las mismas. La celebración de los citados convenios, antes de su entrada en vigor, deberá ser comunicada a las Cortes Generales. Si las Cortes Generales o alguna de las Cámaras manifestaran reparos en el plazo de 30 días a partir de la recepción de la comunicación, el convenio deberá seguir el trámite previsto en el párrafo tercero de este artículo. Si transcurrido dicho plazo no se hubiesen manifestado reparos, el convenio entrará en vigor.

2. La comunidad Autónoma podrá celebrar convenios con otros Territorios Históricos forales para la gestión y prestación de servicios propios correspondientes a las materias de su competencia, siendo necesaria su comunicación a las Cortes Generales. A los 20 días de haberse efectuado esta comunicación, los convenios entrarán en vigor.

3. La Comunidad Autónoma podrá establecer también acuerdos de cooperación con otras Comunidades Autónomas previa autorización de las Cortes Generales.

22. ARTIKULUA

22.1. PASARTEA

Gestión y prestación de servicios ez da *serbitzuak egiteko* bakarrik. Nun dago *gestión*? Oso zaila da hori itzultzen, baina egin beharra dago.

Indar izaten asi: *indar izan* ala *indar euki*, ondo ez ulertzeko arriskua dagoela uste dut. Erabiliagoa da *indarrean sartu, indarrean jarri*.

"Cortes Generales" diralakoei itun auen berri eman bear die: itzulpen hortan ez dago argi nor den berri eman behar duena. Badirudi Euskal Herria dela, singularrean bait dago. Baina erdarazkoak ez du argi jartzen. Pertsonagabean uzten du, eta ondo egina, beste Komunitate Autonomikoak ere aipatzen bait dira eta guztiek dute berri eman beharra, edo hobeto esan guztien ordeko batek nahi bada, baina guztien izenean. Beraz itzulpena hobeto legoke honela: *Gorte Generalei itun hauen berri emango zaie.*

Si las Cortes Generales o alguna de las Cámaras: nundik ateratzen da euskarazko itzulpena? *"Cortes Generales" oietako Biltzar biek, naiz bietatik batek.* Textuan ez da aipatzen *bi biltzar* direnik, *ez eta bietako batek* ere. Han esaten dena ez da besterik: *Gorte Generalek edo Ganbaretako batek*, gainerakoa asmatua da. Gainera *biltzar* edozer gauza da baina ez derrigor *cámara*. Euskaraz ez daukagu ba hitz egoki askoa *ganbara?*

Deberá seguir dio erdarazkoak, ez *jarraitu beharko luke* eta bai *jarraitu beharko du.*

El convenio entrará en vigor: indar izaten asiko da ituna itzultzen da. Badirudi *indar bihurtzen dela.* Hori baino erabiliagoa eta argiagoa da *indarrean sartzen edo jartzen da ituna.*

22.2. PASARTEA

Gestión y prestación de servicios: hemen ere *serbitzuak egiteko* bakarrik, *gestión* itzuli gabe dago.

Batak besteari (serbitzuak egiteko): erdarazkoak ez dio *batak besteari. Prestación de servicios propios* besterik ez dago han. Hori sobra dago.

Itun edozertarako erabiltzen da: *tratatu* esateko (20,3), *convenio* (22,2), eta hemen *akordio* esateko. Gaurregun euskaraz badabiltza idea hoiek emateko hitz desberdinak, zergatik denak hitz bat berdinez adierazi? Hor dira *akordio, akordu = acuerdo, hitzarmen = convenio* eta *tratatu = tratado.* Batzutan berdintsu esan nahi badute ere gero familia desberdinak sortzen dira hitz bakoitz hoietatik. Zergatik euskara pobretu eta errukarritu, aberasteko bidea horren eskura eukirik? Gainera *itun edo itune* hitza benetan zertarako erabili behar dugun erabaki gabe dago. Azkuek: 1) tristea, 2) consejo. *Itundu:* 1) aconsejarse, 2) convenirse, arreglarse, 3) informarse, 4) descabezar el trigo. *Itune*: 1) consejo, 2) convenio, 3) información. Gainera hor dago *Itun Berri eta Itun Zaharra = testamentu* esateko eta oraindik *paktu, akordio, tratatu,* eta ez dakit beste zenbat gauza esanerazi nahi zaizkion. Hori da hitza zeharo alferrikaltzeko modurik egokiena.

Artículo 23

1. La Administración Civil del Estado en el territorio vasco se adecuará al ámbito geográfico de la Comunidad Autónoma.

2. De conformidad con el artículo 154 de la Constitución, un delegado nombrado por el Gobierno la dirigirá y la coordinará, cuando proceda, con la Administración propia de la Comunidad Autónoma.

23. ARTIKULUA

23.1 PASARTEA

Territorio Vasco ez da *Euskalerria* esanez itzultzen eta bai *Euskal Lurraldea* esanez.

Administración Civil del Estado ez da *Iritar-Lege Agintaritza* (= Autoridad edo Jefatura de leyes civiles (?) edo). *Lege Agintari* zer da? *Legeak agintzen (ematen) dituena?* Nolanahi ere ez *legezko Agintari* eta gutxiago *Administrazio*. Euskarazko hitzak badira hor baina euskaraonik ez, neretzat behintzat.

23.2. PASARTEA

(Un Delegado nombrado por el Gobierno) la dirigirá y la coordinará (La Administración civil), cuando proceda, con la Administración propia de la Comunidad Autónoma: ez da ondo euskarazten *Iritar-Lege Agintaritza (= la Administración Civil) orren buru... izango da* (= la dirigirá; *buru izan* eta *gidatu* ez dira berdin, hemen bigarrena da. Gainera Gobernuaren Ordezkaria ez - da Gobernu Autonomikoaren *buru, behar denean* Iritar Administrazioaren gidari eta koordenatzaile baino); *eta bere agintaritza Euskalerriko Agintaritzarekin elkartuko du* (= la coordinará; Agintaritza bat beste batenarekin elkartzea ez da koordinatzea eta bai *bi agintaritzak batzea, - pilatzea edo juntatzea.* Holakorik ez dio textuan). *Behar izatean* (= cuando proceda; Euskaraz nik ez dut sekula holakorik ez entzun, ez irakurri. Alde guztitan *behar bada, behar balitz* esaten da hori). Beraz:

La dirigirá ez da *orren buru izango da* eta bai *hori gidatuko du.*

La coordinará ez da *bere agintaritza (Euskalerriko) Agintaritzarekin elkartuko du* eta bai *Administrazio propioarekin koordinatuko du.*

Administración propia: propia ez da euskaratzen. Nik *propio* euskaratu dut, egunero esaten bait dugu: *lengusu propioa, propio etorri da zu ikustera eta zu falta; propio horren bila, joan naiz eta azkenean ahaztuta etorri...*

Comunidad Autonomaren ordez *Euskalerria* itzuli da. Ifarraldekoak ere Euskalerri dira, baina ez *Komunitate Autonomo.*

Título II

(De los poderes del País Vasco)

Capítulo preliminar

Artículo 24

1. Los poderes del País Vasco se ejercerán a través del Parlamento, del Gobierno y de su Presidente o Lendakari.

2. Los Territorios Históricos conservarán y organizarán sus instituciones forales de conformidad a lo dispuesto en el artículo tercero del presente Estatuto.

24. ARTIKULUA

24.1. PASARTEA

Los poderes... se ejercerán ez da *arteztuko dute. Arteztu* gehienaz ere *zuzendu, gidatu* besterik ez da *artez egin edo jarri,* baina ez *ejercer un poder.* Azken hau itzultzeko *boterea erabili* edo dago esan beharra, nahiz - eta *ejercer* esateko *erabili* nahiko motela izan; izan ere ez bait da berdin *usar el poder para...* (= erabili) eta *ejercer el poder* (=?, obratu?). Ea adibide hau: *Realmente tiene el título de médico, abogado... y lo usa cuando le viene bien para presentarse, pero no ejerce.* Bietan *erabili* itzuli behar al da?.

24.2. PASARTEA

Los Territorios Históricos conservarán... sus instituciones dio eta ez *Kondaira-lurralde bakoitzak* (= cada uno de los territorios). Gainera *sus* ez da itzuli. Ez da berdin *erakundeei eutsi* eta *bere erakundeei eutsi.* Gainera ez dago hor gaztelerazkoak ez dion gauzarik zertan sartzen ibili; ez da batere zaila esaten *Kondairazko Lurraldeek beren erakundeak gordeko dituzte.*

Organizarán sus instituciones: Erakundeei antolabidea emango diete itzultzen da. Zer da *antolabidea eman?* Esaten duena ez da *antolatzeko bidea eman* behar dutenik, baizik eta *antolatu* egin behar dutela.

Capítulo I

(Parlamento Vasco)

Artículo 25

1. El Parlamento Vasco ejerce la potestad legislativa, aprueba sus presupuestos e impulsa y controla la acción del Gobierno Vasco, todo ello sin perjuicio de las competencias de las instituciones a que se refiere el artículo 37 del presente Estatuto.

2. El Parlamento Vasco es inviolable.

Artículo 26

1. El Parlamento Vasco estará integrado por un número igual de representantes de cada Territorio Histórico elegidos por sufragio universal, libre, directo y secreto.

2. La circunscripción electoral es el Territorio Histórico.

3. La elección se verificará en cada Territorio Histórico atendiendo a criterios de representación proporcional.

4. El Parlamento Vasco será elegido por un período de cuatro años.

5. Una Ley Electoral del Parlamento Vasco regulará la elección de sus miembros y fijará las causas de su inelegibilidad e incompatibilidad que afecten a los puestos o cargos que se desempeñen en su ámbito territorial.

6. Los miembros del Parlamento Vasco serán inviolables por los votos y opiniones que emitan en el ejercicio de su cargo.

Durante su mandado, por los actos delictivos cometidos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, no podrán ser detenidos ni retenidos sino en caso de flagrante delito, correspondiendo decidir, en todo caso, sobre su inculpación, prisión, procesamiento y juicio al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Fuera del ámbito territorial del País Vasco la responsabilidad penal será exigible en los mismos términos ante la Sala de lo Penal del Tribunal Supremo.

25. ARTIKULUA

25.1. PASARTEA

El Parlamento Vasco ejerce *la potestad legislativa: ejerce la potestad legislativa* ez da euskaratu. Berriketa duk eta! Nola esan horko *ejercer? Legegintza boterea erabiltzen du* (?).

Presupuestos ez da *diru-erabilketak* eta bai *zerbaitetarako beharko den diruaren kalkulua,* xede bat lortzeko *aurrez ikusten diren sarrera eta gastuen kopurua.* Oraingoz *presupostu* hitza baino egokiagorik ez dago.

25.2. PASARTEA

(El Parlamento Vasco) será inviolable: ez da zehatz euskaratzen *ukiezina* esanaz. Beste batean esan beharko da *los Parlamentarios son inviolables* - eta hor ez dator batere ondo *ukiezina,* bestela laster egingo lukete delitua beroien andreek eta umeek... Beraz askoz egokiago iruditzen zait *bortxaezina, edo behartuezina,* ze hauek esanahiaren moral aldea adierazten bait dute eta *ukiezinak* lehenengo material aldea eta gero morala.

26. ARTIKULUA

26.3. PASARTEA

La elección se verificará ez da *...aulkiak... banatuko dira* eta bai *hauteskun-*

dea egingo da. Beste hori poesia egitea edo zailtasunei ihes egitea da.

Atendiendo a criterios de representación proporcional ez da *ordezkari-aulkiak boto-kopuruen arauz banatuko dira* (= los escaños de representante se distribuirán según el número de votos) eta bai *ordezkaritza proportzionalari begiratuz egingo da hauteskundea.* Horrela finkaturik gelditzen da hitz bakoitza eta beste edozein zuzenbide-textutarako baliagarri.

26.4. PASARTEA

El Parlamento Vasco será elegido por un período de cuatro años ez da *Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak lau urteko agintea izango du* (= La Asamblea Legislativa del País Vasco tendrá un mando de cuatro años) eta bai *Euskal Parlamentua lau urterako (edo lau urteko eperako) izango da hautatua.* -- Hitziz hitz euskaratu daitekeenean ez dago gauzak zertan aldrebesturik.

26.5. PASARTEA

Una Ley Electoral ... regulará la elección ez da *Auteskunde-Legez izango dira - autatuak* eta bai *Hauteskunde-Lege batek erregulatuko du hauteskundea (edo hautatzea).* Gainera frase hori horrela bihurritu delako hurrengoa ere dena aldatu behar izan da *lege honek berak* berriro jarriaz. Gauzaok eman daitezke erdarazko textua bihurritu gabe.

Las causas de su ineligibilidad ez da *autagai ezin izateko dauden arrazoiak* (= las causas que existen para no ser candidatos). Hitziz hitz hau - izango litzateke *beroien hautaezintasunaren arrazoiak,* herrikoiago *beroiek zergatik hauta ezin daitezkeen* edo *beroiek ezin hautatu izateko dauden arrazoiak.* Legeak ez dio ezin daitezkeela *hautagai* izan, baizik eta ezin daitezkeela *hautatuak* izan. Nahi badute aurkeztu daitezke *hautagai* bezala, baina ezin izango dira hautatuak, boturik gehienak eukita ere. *Hautagai = candidato* da. Textuak ez dio ezer *kandidatuez,* expreski behintzat, nahiz eta funtsean ukatzen dena hori bera izan.

Gainera zergatik aldatu da berriz ere textuko ideen ordena eta hau atzera bidali da eta ondoren datorrena aurrera ekarri? Gero - ahaztu egin da nunbait *causas de incompatibilidad* dela eta ez *incompatibilidad* soilik eta *causas* itzuli gabe gelditu da. Horra dena nahastu!

Puestos o cargos ez da *kargu eta eginkizun* eta bai *postu eta kargu.*

Las causas de incompatibilidad que afecten a los puestos o cargos que se desempeñen en su ámbito territorial: oso dotore euskaratua dago, baina horko zailtasunak sortzen dituen *las causas* hori itzuli gabe: *(Legeak erabakiko du) lurralde-barruko zein kargu ta zein eginkizun (zein postu eta zein kargu, behar luke) diran biltzarkide izatearekin elkargaitzak.* Eta behar luke *zein postu eta zein kargu desenpeinatzea* (eukitzea?, betetzea?, hori ere euskaratu beharrekoa bait zen) *diren biltzarkide izatea elkargaitz egiten duten arrazoiak.* Baina doiago eta zehatzago legoke oraindik, nahiz eta elkorrago ere bai: *finkatuko ditu... inkonpatibilitatearen (bateraezintasunaren) kausak, bere lurralde-barrutian betetzen (desenpeinatzen) diren postu eta karguak ukitzen dituztenak.*

Puestos o cargos que se desempeñan ez da euskaratzen *kargu ta eginkizun* bakarrik esanaz. *Desempeñar* hori esan beharra dago. Nik *bete* jarri dut baina ez nago oso gustora horrekin. Behar bada *desenpeinatu* bera da egokiena. Herriak asko esaten du *enpeinatu, enpeino haundikoa da mutil hori.* Egia da kasu hortarako badagoela *saiatu, ahalegindu* ere, baina hitza herriaren ahotan dabilena da eta besterik ezean *desenpeinatu*

hitzari oinarri emateko balio du. Izango dira bat baino gehiago hitz honegatik haserretuko direnak. Ni ere bai, baina beste berdinik ez dagoen bitartean, ni horrekin. Idea hori eman beharra dago, baina hitza falta da. Zer egin, erdarazko hitza ez hartzeagatik idea bera ere baztertu?.

26.6. PASARTEA

En el ejercicio de su cargo ez da *beren eginkizunean. En el ejercicio* falta da euskaratzeko. *Beren kargua betetzen ari direnean* edo dago hori itzuli beharra. *Ejercicio, ejercer el cargo* ere *desempeñar* bezalako hitza da. Irakurri goian esandakoak.

Mandado ez da *biltzarkide izatea* eta bai *mandatua.* Funtsean gauza berdintsua adierazten dute kasu hontan, baina bada *mandaturik, biltzarkide izan* gabe betetzen denik. Gauzak banakatu egin behar dira, ez nahastu.

Por los actos delictivos cometidos ez da *egindakoengatik* eta bai *delituzko egintzengatik* edo *delituz egindakoengatik. Delitutasunik* gabe ez bait dago inor preso hartzeko ziorik.

Epaigintza nagusi (= sentenciamiento mayor, principal) ez da *tribunal Superior de Justicia* eta bai *Justiziazko Hauzitegi Nagusi.*

La responsabilidad penal será exigible... ante la Sala del Tribunal Supremo ez da *Epaigintza Gorengoaren Gelari dagokio* (= corresponde, es competencie de) *zigor-erantzukizuna erabakitzea* (= decidir). *Será exigible* ez da *erabakitzea* eta bai *eskatzea, exigitzea dago* edo *eska daiteke;* eskatzen duena

Artículo 27

1. El Parlamento elegirá de entre sus miembros un Presidente, una Mesa y una Diputación Permanente funcionará en Pleno y Comisiones.

El Parlamento fijará su Reglamento interno que deberá ser aprobado por la mayoría absoluta de sus miembros.

El Parlamento aprobará su presupuesto y el Estatuto de su personal.

2. Los períodos ordinarios de sesiones durarán como mínimo ocho meses al año.

3. La Cámara podrá reunirse en sesión extraordinaria a petición del Gobierno, de la Diputación Permanente o de la tercera parte de sus miembros. Las sesiones extraordinarias deberán convocarse con un orden del día determinado y serán clausuradas una vez que éste haya sido agotado.

4. La iniciativa legislativa corresponde a los miembros del Parlamento, al Gobierno y a las Instituciones representativas a que se refiere el artículo 37 de este Estatuto, en los términos establecidos por la ley. Los miembros del Parlamento podrán, tanto en Pleno como en Comisiones, formular ruegos, preguntas, interpelaciones y mociones en los términos que reglamentariamente se establezcan. La iniciativa popular para la presentación de proposiciones de ley, que hayan de ser tramitadas por el Parlamento Vasco, se regulará por éste mediante ley, de acuerdo con lo que establezca la Ley Orgánica prevista en el artículo 83 de la Constitución.

5. Las Leyes del Parlamento serán promulgadas por el Presidente del Gobierno Vasco, el cual ordenará la publicación de las mismas en el «Boletín Oficial del País Vasco» en el plazo de quince días de su aprobación y en el «Boletín Oficial del Estado». A efectos de su vigencia regirá la fecha de publicación en el «Boletín Oficial del País Vasco».

ez bait da Hauzitegi Gorengoaren Gela eta bai *beste norbait*, hor zehazten ez dena. Beraz pertsonagabean dagoena utzi inpertsonalean. *Ante la Sala* ere ez da *Gelari dagokio*. Hor ere nun egin behar den esaten da, baina ez nork egin behar duen. Beraz *Gelaren aurrean* da eta ez *Gelari dagokio*. Hona itzulpen osoa *Hauzitegi Gorengoaren Gela aurrean eska daiteke (edo dago eskatzea) zigor-erantzukizuna.*

27. ARTIKULUA

27.1. PASARTEA

Erdarazko textua, DEIAk dakarrenez, zerbaiten faltan edo okerren batekin dago: *El Parlamento elegirá de entre sus miembros un Presidente, (1?) una Mesa y una Diputación Permanente (2?) funcionará en Pleno y Comisiones.* - *'(1?)'* dagoen lekuan (,) ez baina (;) bat falta daiteke. Edo bestela *'(2?)'* dagoen lekuan *que* erlatibo bat. Nik neuk bigarren hau dela uste dut.

Diputación Permanente ez da *Bitarte-Ordezkaritza* (= delegación interina?) - eta bai *Diputazio Iraunkorra*. Bestela edozertarako *ordezkaritza* besterik ez dugu izango.

(Una Diputación Permanente que) funcionará en Pleno y Comisiones ez da *Biltzarrak bere lana Biltzar oso eta Batzorde bidez egingo du*. Batetik *Plenuan eta Komisiotan* lan egingo duena ez da *Biltzarra* eta bai *Diputazio Iraunkorra*. Bigarren *Biltzar oso* ez da *pleno, toda la asamblea* baizik. *Pleno* - hitza ez dago horrela euskaratzerik. Antzutu egiten da horrela euskara. Gero *sesión, reunión, consejo plenario* eta datoz. Gainera hitz hori konsagratua edo dago hizkuntza guztietan.

Funcionará en *Pleno y Comisiones* ez da *Biltzar oso eta Batzorde bidez lan egin go du* eta bai *Plenuan eta Batzordeetan lan egingo du.* Nun lan egingo duen esaten da, eta ez zeren bidez lan egingo duen.

Que deberá ser aprobado ez da *baieztuta* (= aprobándolo, habiéndolo aprobado) eta bai *zeinak onartua izan beharko bait du* edo *onartua izan beharko duena.*

Mayoría absoluta ez da *geiengo osoa* (= toda la mayoría) eta bai *gehiengo absolutua.* Geheiengoa *erlatibua* denean ere izan daiteke *osoa* gehiengoko denak besarkatzen baditu. Hori da *euri-tantoari ihes egin nahi - eta errekara erortzea.*

Personal ez da *Erri-Langilleak* (= trabajadores populares) eta bai *pertsonala* edo *enplegatuak.* Nik ez dut oraindik euskaraz beste ordain egokirik ikusi *el personal* birremateko. Eta ikusten dudanez, zuek ere ez.

27.2. PASARTEA

Los períodos ordinarios de sesiones ez da *batzarraldi arruntak* (= sesiones ordinarias) eta bai *biltzarretarako garai arrunta.* Bestela egundoko astakeria sortzen da, hurrengo esakunetik ikusiko denez.

Los períodos ordinarios de sesiones durarán como mínimo ocho meses al año ez da *batzarraldi arruntak urtean gutxienez zortzi illabetekoak izango dira* (= las sesiones ordinarias durarán por lo menos ocho meses al año !!!) eta bai *biltzarretarako garai arrunta zortzi hilabetekoa izango da gutxienez urtean.*

27.3. PASARTEA

La Cámara ez da *Biltzarra* eta bai *ganbara* gorago explikatu dudanez.

Sesión extraordinaria oso motel gelditzen da *batzarraldi berezia* (=sesión aparte, separada, especial, distinguida, particular...) esanaz. Euskaraz askoz hobe *batzarraldi aparteko, ohi ez bezalako, ohiz besteko, ohiz kanpoko...* edo. *Berezi* horrek gauza gehiegi esan nahi ditu eta zehaztu behar denean ezer gutxitarako balio izaten du.

Las sesiones extraordinarias deberán convocarse ez da *batzarraldi berezi oieta rako deia egitean* (=al hacerse las llamadas para...) eta bai *batzarraldi apartekoak (edo ohiz kanpokoak) bileraziko dira* edo *bildu beharko dira.*

Con un orden del día determinado ez da *egitarau alda-ezina jakin araziko da* eta bai *egunerako ordena jakin (zehatz edo finko) batekin* edo *egunerako aztergai jakin batekin.*

27.4. PASARTEA

Las Instituciones representativas ez da *Erri-Erakundeak* (=instituciones populares edo) eta bai *Erakunde Ordezkariak edo ordezkatzaileak.*

Biltzarkide edozer gauza da baina ez *miembro del Parlamento = Parlamentuki de* da hori. Bestea edozein biltzarretako kide bat da.

Interpelar ez da *kontu-eskatzea* bakarrik, *lege-projektuei buruzko eztabaida*

batean, gai hortatik kanpora dagoen eztabaida bat sorreraztea ere bada. Oraingoz *interpelar* euskaratu gabe gelditzen da.

Zati haundi bat falta da:

La iniciativa popular para la presentación de proposiciones de ley, que hayan de ser tramitadas por el Parlamento Vasco, se regulará éste mediante ley, de acuerdo con lo que establezca la Ley Orgánica prevista en el artículo 83 de la Constitución.

Hori dena euskaratzeko dago.

27.5. PASARTEA

Boletín Oficial del País Vasco ez da *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa. Boletín Oficial* euskaraz *boletín ofiziala* da, ez *eguneroko* eta ez *asteroko. Boletín Oficial del Estado* ere esan beharra dago. *Boletín* hitza teknikoa da gauza hauetan eta ez dago nolanahi itzultzerik.

Ordenará zergatik itzultzen da behin *aginduko du* eta beste behin *behar ditu* erdarazko textuak bientzat hitz bakarra eta behin bakarrik erabiltzen bait du? Konpara gaztelerazkoa euskarazkoekin: *el cual ordenará la publicación de las mismas en el Boletín Oficial del País Vasco* (=beronek aginduko du erabakiak... argitaratzea) *y en el Boletín Oficial del Estado* (=gainera Estaduko "Boletín Oficial" delakoan ere argitarazi bear ditu). Ez dut ulertzen zergatik luzatzen, trakesten eta aldatzen den esaldia, sinple sinple esatea aski zuen eta: *aginduko du, argitarazi dadila Euskalerriko Boletin ofizialean eta Estatuaren Boletin Ofizialean.*

Artículo 28

Corresponde, además, al Parlamento Vasco:

a) Designar los Senadores que han de representar al País Vasco, según lo previsto en el artículo 69.5 de la Constitución, mediante el procedimiento que al efecto se señale en una Ley del propio Parlamento Vasco, que asegurará la adecuada representación proporcional.

b) Solicitar del Gobierno del Estado la adopción de un proyecto de ley o remitir a la Mesa del Congreso una proposición de ley, delegando ante dicha Cámara a los miembros del Parlamento Vasco encargados de su defensa.

c) Interponer el recurso de inconstitucionalidad.

28. ARTIKULUA

a) *Representar al País Vasco* ez da *Euskalerriko ordezkariak* (=representantes que están en el País Vasco, edo representantes que son originarios del País Vasco) eta bai *Euskal Herriaren ordezkariak* (Euskalerria ordezkatzen dutenak).

Mediante el procedimiento que se señale en una Ley beste indar batekin itzultzen da euskaraz *Legeak aginduko duan eran. Se señale* eta *agindu* ez dira esanahi berdineko. *Procedimiento* eta *era* ere ez dira kategoria berdineko, baina tira. Hobe honela *Lege batean adieraziko (esango) den prozedura bati jarraituz.*

Lege orretan esango dan eran ageri da gero. Orduan aurrekoa *legeak agin duko duan eran* sobra dago. Zertarako sartu da hori hor, *que asegurará* euskaratzeko? Ba ez bata eta ez bestea dira hor egoki.

Que asegurará la adecuada representación proporcional ez da inola ere *Lege orretan esango den eran, Senadore aulkiak boto-kopuruen arauz banatuko dira* (=como se dice en la dicha Ley los escaños senatoriales se repartirán según el número de votos) eta bai beste hau *ordezkaritza proportzional egokia seguratuko du Legeak.*

b) *Adoptar un proyecto de ley* ez da *legegai bat aurkeztu* eta bai *legegai bat hartu edo onartu.*

Remitir (a la Mesa del Congreso) ere *aurkeztu* itzultzen da. Hemen ez dago hain gaizki, baina ez dira berdin horratio *adoptar* eta *remitir*,

aurrenekoa *hartu* da eta bigarrena *bidali*.

Proyecto de ley eta *proposición de ley* ez dira biak berdin eta ez dago biak *legegai* esanaz itzultzerik. Betiko kontua da, erdarazko hitzik ez erabiltzea! Badirudi hori lortuz gero salbaturik dagoela euskara. Hiztegi zientifiko bat sortzeko askoz aberatsago da euskararentzat *lege-projektu edo legegai* lehenengoarentzat eta *lege-proposamen* bigarrenarentzat.

El Congreso esateko ere *Legegintza-Biltzar*; lehenago *Parlamentu* esateko ere bai. Hoien esanahia berdintsua izan arren kasu hortan deitura hoietatik sortzen diren hitz-familiak ez dira berdinak eta beraz ez dago hitz hoietatik bat ere galtzen uzterik. E.b., *Sistema parlamentario* eta *sistema congresista* ez dira berdin. *Congresista* berriz edozein *batzar, biltzar, bilera, edo bestelako kongreso* koskor baten kidea ere bada; baina ez da horregatik *parlamentukide*.

Delegando ante dicha Cámara ez da itzuli. Hala ere bada hor *izendatuz* bat beharba horren itzulpen izan nahi lukeena. Dena dela *ante dicha Cámara* hor dago oraindik itzulpen eske.

c) *Recurso de inconstitucionalidad* ez dut uste *Konstituzioak dionaren kontra artutako erabakietan gora jotzea* denik. Hori interpretazio bat izateaz gainera explikazioa besterik ez da. Hori erabaki beharra dago honela edo: *inkonstituzionalitateagatik gora-jotzea, inkonstituzionaltasunezko gora-jotzea, ezkonstituzional izateagatik gora-jotzea, konstituzioaren kontra egoteagatik gora-jotzea.* Hitz laburren bila dabilena alferrik dabil hontan.

Capítulo II

(Del Gobierno Vasco y del Presidente o Lendakari)

Artículo 29

El Gobierno Vasco es el órgano colegiado que ostenta las funciones ejecutivas y administrativas del País Vasco.

Artículo 30

Las atribuciones del Gobierno y su organización, basada en un Presidente y Consejeros, así como el Estatuto de sus miembros, serán regulados por el Parlamento.

29. ARTIKULUA

Erri-Aginteak ez dakit zer izan nahi duen *funciones ejecutivas* ala *administrativas*. Ez bata da eta ez bestea. *Mando popular edo mando del pueblo* besterik ez da. *Eginpidetza* ere ez dago argi zer izan daitekeen. Bigarren lekuan dagoenez badirudi *administrativas* litzatekeela, baina ez da ailegatzen hortaraino. *Beterazteko eta administratzeko funtzioak* izango litzateke euskaraz *funciones ejecutivas y administrativas*.

Organo Colegiado ez da *gizataldea* (=grupo de hombres, gentío) eta bai *organu kolegiatua*. Ez *organu* dago kentzerik Zuzenbidetik, eta ez *kolegiatu*. *Organu* ez,*funtzio jakin bat betetzeko gauza den unitate autonomo bat delako* eta hori adierazteko beste hitzik euskaraz ez dugulako. *Kolegiatu* ere ez, zeren *helburu publiko bat bilatzen duen talde ofizialki onartua* adierazten duelako eta adiera espezifiko horrekin beste euskal hitzik ez dagoelako.

30. ARTIKULUA

Parrafo hontan ia ez dago hitz bat sano.

Basada: osatuko dute itzultzen da. *Organización, basada en un Presidente y Consejeros = funtsean osatua* esan nahi du hor, hau da, ez da ukatzen hori baino gehiago ere izan ez daitekeenik. *Osatuko dute* esanaz, aldiz, zorrotzago mugatzen da Gobernuaren osaera.

Artículo 31

1. El Gobierno Vasco cesa tras la celebración de elecciones del Parlamento, en el caso de pérdida de la confianza parlamentaria o por dimisión o fallecimiento de su Presidente.

2. El Gobierno cesante continuará en funciones hasta la toma de posesión del nuevo Gobierno.

Atribuciones: aginpideak (=autoridad, mando) baino egokiago dago *esku, eskubideak, egozpenak.*

Organización ez da *Erakunde-Legeak* (=leyes institucionales) eta bai *antolaketa edo organizazio.*

Estatuto de sus miembros (del Gobierno) ez da *Gobernukoen eskubide-arauak. Estatutoa* eskubideak baino gehiago da, obligazioak ere bai noski, eta zer prozedura eraman behar diren eta gauzak nola funtzionatu behar duten esatea ere bai.

Serán regulados ez da *erabakiko ditu* (=decidirá). Ez dute indar berdina eta esanahia ere ez osoro. *Erregulatuko ditu.*

31. ARTIKULUA

31.1. PASARTEA

Pérdida de la confianza parlamentaria ez da *Legegintza-Biltzarrean geiengoaren uste ona* (=buena opinión, esperanza, confianza... de la mayoría de la asamblea legislativa). *Uste on* lausotuegia da *konfidantza* modu hori adierazteko. Gainera egunero erabiltzen den hitza da euskaraz *konfi(d)antza*, zergatik baztertu behar dugu horren lekuan *uste on* lai notsua jartzeko? Beraz, *konfidantza parlamentarioa galtzea* esatearekin dena eginda dago.

Artículo 32

1. El Gobierno responde políticamente de sus actos, de forma solidaria, ante el Parlamento Vasco, sin perjuicio de la responsabilidad directa de cada miembro por su gestión respectiva.

2. El Presidente del Gobierno y sus miembros, durante su mandato y por los actos delictivos cometidos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, no podrán ser detenidos ni retenidos sino en caso de flagrante delito, correspondiendo decidir, en todo caso, sobre su inculpación, prisión, procesamiento y juicio al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Fuera del ámbito territorial del País Vasco, la responsabilidad penal será exigible en los mismos términos ante la Sala de lo Penal del Tribunal Supremo.

Garaiz leen ez dut sekula ikusi ez irakurri *garaia baino lehen* esateko. *Ordua baino lehen, urtea baino lehen* esaten da, ez *orduz lehen, urtez lehen*, nik dakidala behintzat.

Por dimisión: *garaiz leen kargua uzten duenean* euskaratzen da, luzeago ere explika zitekeen *dimisioa* zer den.

31.2. PASARTEA

Toma de posesión (del Gobierno) ez da *(Gobernu berria) sortu* (=surgir, originarse) eta bai *Gobernu berria hartaz jabetu, haren jabe egin dadin arte* edo *Gobernu berriak haren jabetza hartu dezan arte.*

32. ARTIKULUA

32.1. PASARTEA

Responde políticamente ez da *erriarekiko erantzukizuna* (=responsabilidad para con el pueblo) eta bai *erantzunbehar politikoa, erantzukizun politikoa*, edo *politikoki erantzun beharra.*

De forma solidaria: *(Gobernuak) bere osoan* (=en su totalidad), ez nau betetzen. Erabat gaizki dagoenik ez nuke esango baina. Nahiago nuke *solidarioki*. Gainera honek badu bere hitz-familia sortzeko bidea, besteak ez. Bestea eder da baina antzu, hau itsusiago baina aberats. Hizkuntza gaietan aberastasunengatik ezkontzea oso aupagarria da, gizonen artean materialistatxo baldin bada ere.

Artículo 33

1. El Presidente del Gobierno será designado de entre sus miembros por el Parlamento Vasco y nombrado por el Rey.

2. El Presidente designa y separa los consejeros del Gobierno, dirige su acción, ostentando a la vez la más alta representación del País Vasco y la ordinaria del Estado en este territorio.

3. El Parlamento Vasco determinará por ley la forma de elección, del Presidente, y sus atribuciones, así como las relaciones del Gobierno con el Parlamento.

Hurrengo frasea, euskaraz esateko oso gogor litzatekeena, askoz ere errazago euskaratua dago eta mamirik galdu gabe. Bale!

32.2. PASARTEA

Actos delictivos ez da *egindakoengatik* (=por los hechos) eta bai *delituzko egintzengatik.*
Gainerakoan ikus 26.6an egin diren oharrak. Huts berberak egin dira hemengoan ere eta.

33. A R T I K U L U A

33.2. PASARTEA

Dirige su acción oso motel da *zainduko du auen ekintza*, hobe *gidatuko du.*
Bestea *cuidar* edo da.

A la vez ez da itzultzen; behar litzateke.

Representación del País Vasco ez da *Euskalerriko Erri-Agintea* (=Autoridad, mando popular del País Vasco). Errepublika popular bateko agintarien hizkera da hori. Hobe *Euskal Herriaren ordezkaritza, Euskalerriaren ordezkotza.*

Capítulo III

(De la Administración de Justicia en el País Vasco)

Artículo 34

1. La organización de la Administración de Justicia en el País Vasco, que culminará en un Tribunal Superior con competencia en todo el territorio de la Comunidad Autónoma y ante el que se agotarán las sucesivas instancias procesales, se estructurará de acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica del Poder Judicial.

La Comunidad Autónoma, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 152 de la Constitución, participará en la organización de las demarcaciones judiciales de ámbito inferior a la provincia y en la localización de su capitalidad, fijando, en todo caso, su delimitación.

2. El Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco será nombrado por el Rey.

3. En la Comunidad Autónoma se facilitará el ejercicio de la acción popular y la participación en la Administración de Justicia mediante la institución del Jurado, en la forma y con respecto a aquellos procesos penales que la ley procesal determine.

Representación ordinaria ez *ordezkaritza* bakarrik *ordinaria* ere itzuli be harrekoa da: *ordezkaritza arrunta.*

34. ARTIKULUA

34.1. PASARTEA

Administración de justicia ez da *epaigintza.* Itzulpen hontan *epai* erabiltzen da *juicio, proceso, sentencia, justicia...* esateko. Hori ezin daiteke. Hertsiki begiratuz *epaia = sentencia* da. Besteentzat ere badaude hitzak eta utzi bakoitzari berea esaten: *hauzi = pleito; judizio = juicio; prozesu = proceso; justizia, zuzentasuna = justicia...* Hitz egitekoan hitzak ez dira beti beren esanahi hertsian erabiltzen eta orduan hainbat adiera hartzen ditu hitz bakoitzak. E.b. *judizio* askotan = judizio, hauzi, epai, prozesu eta da. Baina hemen textu ofizial hontan hitzok beren esangura hertsitan erabiltzen dira eta ez dago esanahiok elkarrekin nahasterik. Beraz, *administración de justicia* ez da *epaigintza* eta bai *justizigintza*, ze hor ez bait zaio jendeari *epairik egiten* baina bai *justizia.*

La organización ez da *erakunde* (=institución) eta bai *antolaketa edo organizazio.*

Tribunal Supremo ez da *epaigintza nagusia* (=sentenciamiento mayor, grande principal) eta bai *Hauzitegi Gorena.*

Las sucesivas instancias procesales ez da *epaiketa-bideak aipatzen dituzten auzialdi guztiak* (=todas las sesiones de pleiteo que se citan en los caminos de sentenciamiento edo izango litzateke esan izatez gero tan) eta bai *batabestearen segidako prozesu-mailak* edo *elkarren segidako prozesu-instantziak*. Hau ez da azak eta porruak erostekoan erabiltzen den euskara, eta bai legegizonek eta magistratuek, toga luze dotoretan estalirik, bibote legunez eta mihi zuriz erabiltzen duten mintzaira erretolikatsua. Hor ez dago abarka eta buzorekin sartzerik.

Estructurar ez da *eratu* (=formar, gehienbat) eta bai *egituratu, estrukturatu*. Gaurregun hitz kontsagratuak dira hoiek.

De acuerdo con lo previsto en la Ley ez da *Legeak dion eran, lo previsto* ere hor dago zai. Hobe *legean aurrikusitakoaren arauera* edo *legean aurrikusitakoari jarraituz, moldatuz*, edo *legean aurrikusitakoarekin bat etorriz*.

Ley Orgánica del Poder Judicial ez da *Epaiketa-Agintaritzari dagokion Lege Nagusia* (=ley principal que corresponde a la autoridad de enjuiciamiento edo) eta bai *Botere Judizialaren Lege Organikua*. Hitz hauek beste lekutan ere esplikatuak ditut banan banan.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo ez da *atalaren arabera* (=según la parte) eta bai *artikuluan erabaki, ebatzi, ezarritakoaren arauera. Lo dispuesto* ere itzuli beharrekoa da.

Demarcaciones judiciales de ámbito inferior a la provincia ez da *probintzi bakoitzeko auzi-barrutiak* (=demarcaciones judiciales de cada provincia)

eta bai *probintziaz beheko hauzi-barrutiak.*

En todo caso berriz ere janda.

34.2. PASARTEA

Será nombrado por el Rey ez da *Erregek izendatuko du* eta bai *Erregek izendatua izango da.* Hitz egiteko moduari ere begiratu behar zaio. Eta euskaraz bi formak daudela ez dago derrigor desegokiena hauta beharrik.

Se facilitará el ejercicio de la acción popular y la participación en la Administración de Justicia ez da *epaigintzan esku artzeko aukera izango da. El ejercicio de la acción popular* jan da, eta *se facilitará* gaizki itzuli da *aukera izango da.* Honela behar luke: *erraztu egingo da herri-egintzaren iharduna eta partehartzea Justizigintzan.*

Ley procesal ez da *epaiketa-bide legea* (=ley del camino de sentenciamiento) eta bai *prozesu-legea, edo lege prozesala.*

Determinar ez da *eskatu* eta bai *zehaztu, finkatu.*

Proceso penal ez da *zigor-auzi* (=pleito penal) eta bai *zigor-prozesu.*

Artículo 35

1. El nombramiento de los Magistrados, Jueces y Secretarios se efectuará en la forma prevista en las Leyes Orgánicas del Poder Judicial y del Consejo General del Poder Judicial, siendo mérito preferente el conocimiento del Derecho Foral Vasco y el del euskera, sin que pueda establecerse excepción alguna por razón de naturaleza o de vecindad.

2. A instancias de la Comunidad Autónoma, el órgano competente deberá convocar los concursos y oposiciones para cubrir las plazas vacantes de Magistrados, Jueces y Secretarios del País Vasco, de acuerdo con lo que disponga la Ley Orgánica del Poder Judicial. Las plazas que quedasen vacantes en tales concursos y oposiciones, serán cubiertas por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, aplicando las normas que para este supuesto se contengan en la Ley Orgánica del Poder Judicial.

3. Corresponderá a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la provisión del personal al servicio de la Administración de Justicia y de los medios materiales y económicos necesarios para su funcionamiento, en los mismos términos en que se reserve tal facultad al Gobierno en la Ley Orgánica del Poder Judicial, valorándose preferentemente, en los sistemas de provisión del personal, el conocimiento, del Derecho Foral Vasco y del euskera.

4. La Comunidad Autónoma y el Ministerio de Justicia mantendrán la colaboración precisa para la ordenada gestión de la competencia asumida por el País Vasco.

35 ARTIKULUA

35.1. PASARTEA

Magistrado ez da *goi-epaikari* (=juez superior). Batetik *goi* hori sobra dago; gainera *epaikari* izan beharrik ere ez dago berez *magistratu* izateko. Beraz *magistratu* eta kito, historia gehiegi du hitz horrek berekin euskaraz hitz bakarrez berreman ahal izateko.

Consejo General del Poder Judicial ez da *Auzi-Agintaritzaren Goi-Batzarra* (= asamblea superior de la jefatura de pleitos) eta bai *Botere Judizialaren Kontseilu Generala*. 30. Artikuluan *Kontseilariak* erabili da, eta zergatik hemen ere ez erabili *kontseilu*? Familia berekoak dira.

Mérito ez da *baliabide* (=recurso, medios) eta bai *meritua*. Ez gara ba egunoro esaten ari: *ez du meritu makala, merezi, merezimendu, ez duzu merezi baina...?*

Sin que pueda establecerse excepción alguna ez da *ez da bereizterik izango* (= no se podrá distinguir, separar...) eta bai *salbuespenik ez da batere egiterik izango* edo *salbuespenik ez da batere egingo. Alguna* ere itzuli beharrekoa da.

Plazas vacantes de Secretarios ez da *Idazkari-utsuneak* (=vacíos, huecos secretariales o de secretario) eta bai *bete gabe dauden Idazkari-lekuak* edo *hutsik dauden Idazkari-postuak*.

Convocar los concursos y oposiciones ez da *leiaketak eta azterkizunak eratu behar ditu* (=deberá preparar, crear, concursos y exámenes). eta bai *leiaketak eta oposizioak hotsegin beharko ditu. Convocar* ez da *eratu* eta bai *hotsegin, deia egin. Azterkizunak* berriz *aztertzeko gaiak* dira eta ez *examinak* ere, gutxiago oraindik *oposizioak.*

Las plazas que quedasen vacantes en tales concursos ez da *leiaketa oien ondoren utsik dirauten karguak* (=los cargos que continúen vacantes después de esos concursos) eta bai *lehiaketa hoietan bete gabe (edo hutsik) geldítzen diren postuak. Plaza* ez da *kargu; hutsik iraun* ez da beti *quedar vacante*, baina *hutsik gelditu* bai.

Aplicando las normas que para este supuesto se contengan en la Ley ez da *Legeak orrelakoetarako agintzen duan eran* (=según lo manda la Ley para tales casos) eta bai *horrelakoetarako Legeak izango dituen arauak aplikatuz.* Itzultzea besteak esaten duena eta esaten duen eran, ahal den neurrian behintzat, esatea da.

35.3. PASARTEA

Provisión de personal ez da *langileak artzea* eta bai *pertsonalez hornitzea.*

Funcionamiento ez da *bere eginkizuna betetzea* (=cumplir su misión) eta bai *funtzionamendua, funtzionatzeko.* Gauza bat bait da *funtzionatzea* eta beste bat *bere egitekoa betetzea.* Diktaduratan ere funtzionatzen du *justiziak* baina ez du beti bere egitekoa betetzen.

Medios materiales y económicos ez da *ornigarriak eta dirutzak* (=provisiones

Artículo 36

La Policía Autónoma Vasca, en cuanto actúe como Policía Judicial, estará al servicio y bajo la dependencia de la Administración de Justicia en los términos que dispongan las leyes procesales.

y dineros en cantidad) eta bai *helpide materialak eta ekonomikoak.*

Provisión de medios económicos ez da *dirutza antolatzea* (=organizar, preparar dinero) eta bai *helpide ekonomikoz hornitzea.*

En los sistiemas de provisión de personal ez da *izendapenak egiterakoan* (=al hacerse los nombramientos) eta bai *personalez hornitzeko sistemetan* edo *pertsonala hautatzeko moduetan.*

Valorándose preferentemente ez da *baliapide bereziak izango dira* (=serán recursos especiales) eta bai *lehentasunezko balioa emango zaie, bereziki lehenetsiko dira, lehenespenez baloratuko dira, hobespenez baloratuko dira.*

35.4. PASARTEA

Ministerio de Justicia ez da *Estaduko Epaigintza Zaingoa* (=guardia de sentenciamiento del Estado) eta bai *Justiziako Ministraritza.*

Mantendrán la colaboración precisa ez da *elkar-lana egingo dute* (=realizarán un trabajo conjunto) eta bai *behar den lankidetza gordeko dute. Behar den lankidetzan arituko dira. Precisa* ere itzuli beharrekoa da.

36. A R T I K U L U A

La Policía Autónoma Vasca ez da *Euskalerriko Ertzaingoa* (=policía municipal

Capítulo IV

(De las Instituciones de los Territorios Históricos)

Artículo 37

1. Los órganos forales de los Territorios Históricos se regirán por el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos.

2. Lo dispuesto en el presente Estatuto no supondrá alteración de la naturaleza del régimen foral específico o de las competencias de los regímenes privativos de cada Territorio Histórico.

3. En todo caso tendrán competencias exclusivas, dentro de sus respectivos territorios, en las siguientes materias:

a) Organización, régimen y funcionamiento de sus propias Instituciones.

b) Elaboración y aprobación de sus presupuestos.

c) Demarcaciones territoriales de ámbito supramunicipal para que no excedan los límites provinciales.

d) Régimen de los bienes provinciales y municipales, tanto de dominio público como patrimoniales o de propios y comunales.

e) Régimen electoral municipal.

f) Todas aquellas que se especifiquen en el presente Estatuto o que le sean transferidas.

4. Les corresponderá, asimismo, el desarrollo normativo y la ejecución, dentro de su territorio, en las materias que el Parlamento Vasco señale.

5. Para la elección de los órganos representativos de los Territorios Históricos se atenderá a criterios de sufragio universal, libre, directo, secreto y de representación proporcional, con circunscripciones electorales que procuren una representación adecuada de todas las zonas de cada Territorio.

del País Vasco) eta bai *Euskal Polizia Autonomoa.*

Estará al servicio ez da *serbitzuan ari bearko du* (=deberá actuar al servicio) eta bai *serbitzuan egongo da.*

En los términos que dispongan ez da *arabera* eta bai *esaten, zehazten, ezartzen duten eran.*

37. ARTIKULUA

37.1. PASARTEA

Organos Forales ez da *Foru-Erakundeak* (=instituciones forales) eta bai *Foru-Organuak edo Organu Foralak.* Ez bait dira berdin *erakunde* eta *organu.*

Se regirán por el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos ez da *lurralde bakoitzeko jatorrizko legediaren esanera egongo dira* (=se atendrán a lo dicho en la legislación originaria de cada territorio) eta bai *lurralde bakoitzak berea duen erregimen juridikoari jarraituko diote* edo *lurralde bakoitzak berea duen erregimen juridikoari jarraituko diote* edo *lurralde bakoitzak berea duen legeri-moduari jarraituko diote.*

37.2. PASARTEA

Lo dispuesto en el presente Estatuto ez da *Araudi au betetzea* (=el cumpli-

miento de este estatuto) eta bai *Estatutu hontan jarritakoa.*

Inola ez ez da ageri erdarazkoan. Duena baino indar haundiagorik ez eman, gutxiagorik ere ez baina.

No supondrá alteración de la naturaleza del régimen foral específico ez da *ez du inola... jatorrizko Foru-Legearen izaera aldatuko* (=no cambiará en absoluto la naturaleza de las Leyes Forales originarias) eta bai *ez du suposatzen foru-erregimen espezifikoaren izaera aldatzen denik* edo *ez du suposatzen foru-erregimenaren espezifikotasuna aldatzen denik.*

(No supondrá alteración) de las competencias de los regímenes privativos de cada Territorio Histórico ez da *(ez du aldatuko)... oiturazko aginpiderik ere* (=no alterará... tampoco el mando, la autoridad, consuetudinaria) eta bai *(ez du suposatzen)... Lurralde Historiko bakoitzak bereziak dituen erregimenen konpetentziak aldatzen direnik.* Ez dira berdin horratio *oiturazko aginpideak* eta *Lurralde Historiko bakoitzak bereziak dituen erregimenen konpetentziak.*

37.3. PASARTEA

Dentro de sus respectivos territorios ez dago esan beharrik *Kondaira-Lurraldeetako Erakunde bakoitzaren muga-barruan*, aski zen *nork beren lurralde barruan* edo *bakoitzak bere lurralde barruan.*

a) *Organización, régimen y funcionamiento de sus propias Instituciones* ez da *beren Erakunde bereziak antolatzea, auen arauak eratzea eta ekinbidea zaintzea*

(=organizar sus instituciones especiales, formar o crear las normas de éstos y cuidar su iniciativa, actuación?; zaila da hori ondo itzultzen, esan ere edozer gauza esan nahi bait du) eta bai *bere Erakunde propioen antolamendua, erregimena eta funtzionamendua. Regir, régimen* kasu konkretu batzutan euskaratu daiteke, baina hontan asko lainotsua da eta zabalegia hitz hori esanahi-murriztu, -mugatu eta interpretaketan hasi gabe berremateko. Euskarazko *abelera* zer den ere nekez explika daiteke erdarazko hitz batez. *Propio* ere zehatza da, baina *berezi* oso prakalas eta esanahi ugariko. *Eratu* ere *formar(se)* da bera bakarrik entzuten dugunean nagusiki, gero beste edozer gauza: *nahi nuke hara joan, baina ezin naiz eratu* (=no alcanzo, no me da tiempo, no llego a sacer tiempo, no puedo librarme como para ir). *Nundik eratu duzu hori*? (=de dónde lo has agenciado?). *Eratuko naiz nolabait* (=ya me las arreglaré de algún modo para..). Etab...

b) *Elaborar un presupuesto* ez da *diru-erabilketa-asmoak aurrez gertutzea* eta bai *presupostu bat elaboratzea. Aurrez gertatuk elaboraturen* esanahi-zati bat besterik ez du ematen. *Elaboratuk* berekin darama beti bere *gaia lantzea eta landuz maneiatzea, gertatuk* ez.

c) *De ámbito supramunicipal* ez da *uria baino zabalagoko* (=más amplio que la ciudad). *Uria* ez da municipio. Hortarako *udal* dago betidanik. Beraz *udala baino zabalago diren.*

Para que no excedan de los límites provinciales ez da *probintzien muga-barruan* (=dentro de los límites provinciales) eta bai *probintzien mugetatik kanpora zabaldu ez daitezen.*

d) *Régimen de los bienes provinciales* ez da *erkien ondasunen araubideak jartzea*

eta bai *ondasun probintzialen erregimena. Régimen* itzultzen da: behin *arauak eratu*, behin *arauak ezarri*, hurrena *araubideak ezarri* ... Erdarazko explikazioa litzateke: *Conjunto de normas o leyes que rigen el desenvolvimiento o realización de alguna cosa.* Euskarak falta duena *regir* hitzaren ordaina da. Eta hor dago koska.

Tanto de dominio público como patrimoniales o de propios y comunales gehiegi zehazten eta interpretatzen da euskaratzeakoan *bai erri-ondasun eta bai erri-ondarezkoenak ere, azkeneko auek naiz udal-ondasunak naiz auzo-ondasunak izan.* Textuan ez da horrenbesteko xehapenik ematen, soil soil hau ematen da han: *bai herri-ondasunena eta bai ondarezkoena edo propioena eta komunalena* eta hobeto *hala Estatu-ondasunena nola ondarezkoena edo propioena eta herri-ondasunena.* Baina *udal, auzo* eta bigarren *herri* hoiek gehiegi dira eta ez daude zuzen gainera. *Auzo* ez da *komunal* eta *udal* ez da *propio.* Aurreneko *herri-ondasunak* baino hobeto dagoela uste du *Estatu-ondasunak*, zeren *herri-ondasun edo herriko ondasunak, comunales* adierazteko erabiltzen da herrian, e.b., *herriko basoa, herriko terrenoak, herriko lurrak...*

e) *Régimen* ez da *legegintza* (=legislación), utzi *erregimen.*

f) *Todas aquellas* (materias) ulertzen da, hasieran jarri dena; baina euskaraz *Araudi ontan izendaturik dauden guztiak* ez da ulertzen zer adierazi nahi duen *guztiak* horrek, hasieran ez bait da *ondorengo auetan* besterik jarri. Beraz *izendaturik dauden gai guztiak* behar du.

Bere eskuetan ipintzen zaizkienak: zerbait gaizki dago hor. *Bere* batena da eta *zaizki-E-nak* askoei da. Beraz *bere eskuetan ipintzen zaizkionak* ala *beren eskuetan ipintzen zaizkienak* . Bigarren hau dela dirudi textuak eskatzen duena.

Que se especifiquen ez da *izendatzen direnak* (=denominar, nombrar) haun diaurkinetan besterik. *Especificar* bada *izendatu* bai, baina xehapenak emanaz, konkretatuz. Beraz hobe *zehazten, xehatzen, espezifikatzen direnak.*

Transferir ez da *eskuetan ipini* (=ponerle en las manos). Hori hitzaldi batean edo elkarrizketa batean esan daiteke, baina hitz tekniko bezala horrek ez du balio. Edozein *eskutan ipintze* ez da *transferentzia* bat. Lehendik batek erabili dituen eskubideak edo a halmenak orain beste baten esku jartzea da. Baina batez ere *batetik bestera igarotze* hori da *transferentzia* horren bidez adierazten dena. Eta ez da hitz hori bakarrik, besteok ere berdin erabaki beharra dago: *transferir, transferencia de acciones, hacer una transferencia, transferible, transferible por endoso, títulos transferibles, transferir los negocios, transferir los derechos, transferir los poderes, etab...* Beraz nekez berreman daiteke hitz hori *eskuan jarri edo eskuetaratu* bakarrik emanaz. *Trans* aurrizkiaren lanak dira hoiek eta guk ez daukagu, oraindik behintzat, horren ordainezko aurrizkirik. Nik etsi etsian *transferitu* jartzea beste erremediorik ez dut ikusten. Gero dauzkat: transferentzia, transferigarri, transferigai, etab... Erdi belarri motx baina etorkizuna daukat, hara! Bestela berriz ez.

37.4. PASARTEA

Les corresponderá ez da itzuli: *egongo zaie, egokiko zaie edo egokituko zaie.* Oso bitxia da aditz hauxe, futuroan oso ere oso gutxi erabiltzen da eta. Esaten direnak dira: *dagokio, zegokion* baina ia sekula ez *egokiko zaio* edo *egoki zaio* (=le viene bien, baina ez *le corresponde* e sateko). Hortarako erabiltzen da, asko ez bada ere, *egokitu zait, zaio...* eta *egokituko zait, zaio. Egonen zaio* Axularrek dakar, baina *egon zaio* ez sekula entzun dut, ez ikusi. Ezaguna da *begira egon zaio* eta *begira egongo zaio* baina ez *Mikeli egon zaio gaur etortzea*, eta bai *Mikeli egokitu zaio gaur etortzea.* Beraz *egokituko zaie berebat* edo *egon-*

go zaie berebat itzuli behar litzateke hori.

El desarrollo normativo y la ejecución ez da *arauak ezartzea eta ekinbidea zaintzea* (=la imposición edo aplicación de normas y la custodia de la iniciativa edo actividad) eta bai *arauak desarroilatzea eta beteraztea.*

37.5. PASARTEA

Organos representativos ez da *erri-ordezkari erakundeak* (=instituciones de representantes populares) eta bai *organo ordezkariak edo ordezkatzaileak.*

Capítulo V

(Del control de los poderes del País Vasco)

Artículo 38

1. Las Leyes del Parlamento Vasco solamente se someteran al control de constitucionalidad por el Tribunal Constitucional.

2. Para los supuestos previstos en el artículo 150.1 de la Constitución se estará a lo que en el mismo se dispone.

3. Los actos y acuerdos y las normas reglamentarias emanadas de los órganos ejecutivos y administrativos del País Vasco serán recurribles ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

* *Control* ez da *zainketa* (=cuidado, custodia) eta bai *kontrola*. Beste toki batzutan *kontrolatu* esan behar zenean *arauak ezarri* esan da. Bitartean hor ari gara denok esaten eta entzuten, egunero eta gehiegitan *kontrolak jarri dituzte kaminoan; ezin du bere burua kontrolatu; kontrolean lan egiten du; olioaren, gasolinaren pasaizoa kontrolatzen duen aparatotxoa estropeatu zaio; direkzioa hautsi zaio eta ezin izan du kamioia kontrolatu eta bazterra jo du*, etab... Beste hizkuntzek ere berau darabilte, latinetikoek zer esanik ez, eta alemanak ere *Kontrol-Zentrum, kontrolieren, Kontrol-Lampe*, etab... Bada garaia hitzen jatorriari gehiegi begiratu gabe, esanahiari gehitxoago begiratzeko. Azken buruan hitzen esanahia da kontrolatu beharrekoa eta ez beren jatorria.

38. ARTIKULUA

38.1. PASARTEA

Solamente hori, nere ustez, ez dago ondo itzulia. Erdaraz desplazatua dagoela dirudi, eta jakinaren gainean desplazatua ere. Zer da beraz? *:Se someterán solamente al control de constitucionalidad* ala *solamente... por el Tribunal Constitucional*? Eta Textua idaztekoan ez da lotu ez batarekin eta ez bestearekin, gainera idazkera itsusituz: *Las Leyes del Parlamento Vasco solamente se someterán al control de constitucionalidad por el Tribunal Constitucional.* Euskarazkoak *se someterán solamente por el Tribunal Constitucional* bezala itzuli da *Konstituzio-Epai-Maiak... bakarrik erabakiko du.* Hori berriz ezer ez esatea dela uste dut, ba Konstituzio-hauzitegia da Konstituziotik sortu diren erakunde eta gaietan instantziarik gorena eta horren menpean gelditzen dira denak. Nere ustez hor esan nahi dena da, zein ikuspegitatik juzgatu behar dituen Hauzitegi horrek Euskal Parlamentuak emandako legeak, eta

ikuspegi hori da *konstituzionaltasunezkoa* eta ez besterik. Beraz itzuli beharrekoa da *solamente se someterán al control constitucional*, euskaraz: *konstituzionaltasunari dagokion kontrola bakarrik ezarriko die* edo *konstituzionaltasunaren aldetik bakarrik kontrolatuko ditu* edo *Konstituzioaren kontra dauden ala ez beste kontrolik ez die ezarriko.*

38.3. PASARTEA

Organos ejecutivos y administrativos ez da *Agintaritza eta Zaingoak* (=autoridad, jefatura y custodias) eta bai *organo exekutiboak eta administraziozkoak*. Tamala da horrenbeste erdal hitz erabili beharra, baina beste alternatiba egokiagorik ez dagoen bitartean, hoiek ere balio dute. Jakintzagintzan hobe kanpotar itsusi aberatsak, ez etxeko polit pobreak.

Los actos ez da *egintza* eta bai *egintzak*, banaka hartzen dira eta.

Acuerdos ez da *erabakiak* (= decisiones) eta bai *akordio, akorduak.*

Normas reglamentarias ez da *ezarritako arauak* eta bai *erregulamenduzko arauak.*

Jurisdicción Contencioso-Administrativa ez da *Estaduak ortarako duan Agintaritza-Aurkako Epaigintza*, gero parentesi artean ematen da *(Jurisdicción Contencioso-Administrativa delakoa)*. Euskaraz eman dena ez bait du inork ulertzen, gaztelerazkoa eman behar izan da. Ba beste hobeagorik asmatzen ez den bitartean eman *Jurisdikzio Kontentzioso-Administratiboa* edo beharba *Estabaidazko-Administraziozko Jurisdikzioa* edo *Estabaida eta Administrazioetako Jurisdikzioa.*

Artículo 39

Los conflictos de competencia que se puedan suscitar entre las instituciones de la Comunidad Autónoma y las de cada uno de sus Territorios Históricos se someterán a la decisión de una comisión arbitral, formada por un número igual de representantes designados libremente por el Gobierno Vasco y por la Diputación Foral del Territorio interesado y presidida por el Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, conforme al procedimiento que una Ley del Parlamento Vasco determine.

39. ARTIKULUA

Conforme al procedimiento que una Ley del Parlamento Vasco determine ez da *Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak legez ezarriko duan epaiketa bidez* (=por medio de sentenciamiento que impondrá por ley la Asamblea Legislativa del País Vasco) eta bai *Euskal Parlamentuaren Lege batek finkatuko duen prozedura bati jarraituz*; xehapen asko galtzen dira bestela. Ikusi: *Euskalerriko Legegintza-Biltzarra eta Euskal Parlamentua* ez dira erabat berdinak. *Legez ezarri = imponer por ley* da, erdarazkoak dio *que una Ley determine*, hau da, lege bat izango dela hortarako aproposa. Gainera ezarri ez du Euskal Parlamentuak egiten eta bai Legeak. Kasu hontan Parlamentuaren gainetik dagoen zerbait da Legea, indarrean dagoen bitartean. Bestalde, egiten dena ere ez da *ezarri* edo *agindu* edo *imposatu* eta bai *zehaztu, finkatu, banan banan esan. Epaiketa-bidea* ez dakit doi doi zer den, ze ez bait dut ikusten zer alde dagoen horren eta *epai-bidea*ren artean. Hau berriz *epaitzeko* prozedimentua da gehienaz ere, baina ez dago guztiz garbi. Orain dik garbi ez dagoena *epaitu* horren esanahia da. Zer da hori *judizio egitea* ala *sententzia ematea*? Badirudi berriz, hor aipatzen den prozedura hori *judizioa egiteko* dela *sententzia emateko* baino areago. Horra, bide hori antzua da.

Instituciones de la Comunidad Autónoma ez da *Euskalerri osorako erakundeak* eta bai *Komunitate Autonomoaren erakundeak*. Oraingoz *Komunitate Autonomoa* Euskal Herriko hiru probintzik bakarrik osatzen dute. *Euskal Herri osoa* Nafarroa ere bada, eta Iparraldeko beste hiru Probintziak ere bai euskaldun herriaren aldetik begiratuz.

Título III

(Hacienda y Patrimonio)

Artículo 40

Para el adecuado ejercicio y financiación de sus competencias, el País Vasco dispondrá de su propia Hacienda Autónoma.

Artículo 41

1. Las relaciones de orden tributario entre el Estado y el País Vasco vendrán reguladas mediante el sistema foral tradicional de Concierto económico o Convenios.

2. El contenido del régimen de concierto respetará y se acomodará a los siguientes principios y bases:

a) Las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su Territorio, el régimen tributario, atendiendo a la estructura general impositiva del Estado, a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado se contengan en el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para idénticas finalidades dentro de la Comunidad Autónoma. El Concierto se aprobará por Ley.

b) La exacción, gestión, liquidación, recaudación e inspección de todos los impuestos, salvo los que se integran en la Renta de Aduanas y los que actualmente se recaudan a través de Monopolios Fiscales, se efectuará dentro de cada Territorio Histórico, por las respectivas Diputaciones Forales, sin perjuicio de la colaboración con el Estado y su alta inspección.

c) Las instituciones competentes de los Territorios Históricos adoptarán los acuerdos pertinentes con objeto de aplicar en sus respectivos territorios las normas fiscales de carácter excepcional y coyuntural que el Estado decida aplicar al Territorio común, estableciéndose igual período de vigencia que el señalado para éstas.

d) La aportación del País Vasco al Estado consistirá en un cupo global, integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios, como contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma.

e) Para el señalamiento de los cupos correspondientes a cada Territorio Histórico que integran el cupo global antes señalado se constituirá una Comisión Mixta integrada, de una parte, por un representante de cada Diputación Foral y otros tantos del Gobierno Vasco, y de otra, por un número igual de representantes de la Administración del Estado. El cupo así acordado se aprobará por Ley con la periodicidad que se fije en el Concierto, sin perjuicio de su actualización anual por el procedimiento que se establezca igualmente en el Concierto.

f) El régimen de Concierto se aplicará de acuerdo con el principio de solidaridad a que se refieren los artículos 138 y 156 de la Constitución.

40. ARTIKULUA

Patrimonio ez da *ogasun-zeinketa* (=cuidado de bienes) eta bai *ondarea* lehenago erabili izan den bezala.

Adecuado ez da euskaratzen: *Para el adecuado ejercicio.*

Financiación de sus competencias ez da *bere aginpideak betetzeko beharko duan dirua sortzeko* (=para producir el dinero que necesitará para cumplir sus competencias?) eta bai *bere kompetentziak finantzatzeko, pagatzeko, ordaintzeko.*

Dispondrá de su propia Hacienda Autónoma ez da *Euskalerria ogasunjabe izango da* (=será dueña de bienes) eta bai *bere Hazienda Autonomo propioa izango du*, edo *bere Ondasun Autonomo propioak izango ditu.*

41. ARTIKULUA

41.1. PASARTEA

Entre el Estado y el País Vasco ez dago esaterik *Estadu eta Euskalerri arteko* (=entre Estados y Países Vascos) eta bai *Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko.* Estatua bakarra da eta Euskal Herria ere bai, beraz mugaturik behar dute. *Estatu-artean, herri-artean, etxe-artean, kale-ar-*

tean, etabarrek askoren artekoa adierazten dute: hau da, estatu bi edo gehiagoren artekoa. Banakako bi gauza desberdinen artekoa adierazi nahi denean singularrean jartzen dira biak genitibo banakin. E.b.: etxearen eta elizaren artean dagoen kalea; baina ez, etxe eta eliza artean (=entre casas y entre iglesias).

Tradicional ez da *antzinako* eta bai *tradizional edo tradiziozko*. Gauza asko dira *antzinako, tradiziozko* ez direnak.

Vendrán reguladas ez da *izango dira* eta bai *erregulatuak izango dira* edo *erregulatuko dira*.

Mediante el sistema foral tradicional de Concierto Económico o Convenios ez da *antziñako Foru-Erakundeetatik datozen Zerga-Itunben eta beste itun berezien arauera izango da* (=será según los pactos tributarios y otros pactos especiales que vienen de las antiguas instituciones forales) eta bai *Kontzertu Ekonomiko edo Hitzarmenezko foru-sistema tradizionalaren bidez*. Batetik ni ez nago oso seguru Kontzertu Ekonomikoa zerga-kontzertua besterik ez denik. *Zerga-Itunben* guztiz izen arrunta iruditzen zait, Kontzertu Ekonomikoa baino beheragoko mailatan ere erraz eta maiz eman daitekeena. Alde hontatik Kontzertu Ekonomikoa izen berezia da, gauza jakin bati ematen zaion izena. Gainera *ekonomikoa* dio erdarazkoak eta ez *zergazkoa*, zerbaitegatik izango da. Euskarazkoa bestearen itzulpen hutsa da, eta ongi itzultzen duen neurrian balio duena. Gainerakoa ere *explikazioak emanez bezala* dago euskaratua eta ez Estatutuaren textu ofizial bati dagokion zuzenbide-hizkera zehatzez eta neurtuz.

41.2. PASARTEA

El contenido de régimen de Concierto respetará y se acomodará a los siguientes *principios y bases* ez da *Zerga-Itunbena ondorengo arauen esanera ta muga auen arabera egingo da* (=el pacto tributario se hará según las normas siguientes y según estos límites) erdarazkoa nolabait, oso nolabait ere, berrematea da hori! *El contenido de régimen de (Concierto)* ez da itzuli. horra berriz ere *regimen* hori! Hona itzulpena: *Kontzertu-erregimenaren edukinak ondoko printzipio eta oinarriok errespetatuko ditu eta beroietara moldatuko da!* Itzulpena horren erraz eta doi eman daitekeela, ez dut ikusten zergatik ibili behar den itzulinguruka.

a) *Podrán mantener, establecer y regular...* *el régimen tributario* ez da *zerga-itunbenekin jarrai dezakete, eta galdu badituzte, birreraiki ta berauen arauak ezarri ere bai* (=podrán continuar con los pactos tributarios, y si los han perdido podrán también reestablecerlos y aplicar sus normas), eta bai *ahala izango dute zerga-erregimena gordetzeko, eraikitzeko eta erregulatzeko* edo *zerga-erregimena gorde, eraiki eta erregulatu ahal izango dute.* *Galdu badituzte* ez da erdarazkoan agertzen. Beste oharrak ikus jarraituan:

Zerga-itunben = *pacto tributario* da eta ez *régimen tributario.*

Establecer ez da *birreraiki* (=reestablecer) eta bai *eraiki.*

Regular ez da *berauen arauak ezarri* (=aplicar las normas de éstos) eta bai *erregulatu.*

Atendiendo ez da *muga auek kontuan artuz* (=teniendo en cuenta estas

limitaciones) eta bai *kontuan hartuz. Muga hauek* ez da ageri gaztelerazkoan.

En el propio Concierto ez da *Itunben berean* (=lehen aipatu den itunbeanean) eta bai *itunbenean bertan* (=itunbenaren barruan, hantxe bertan). Aurreneko kasuak *lehen aipatua izatea* adierazten du, bigarrenak ez du *lehen aipatu izaterik* ematen, *gauzaren baita* bera aideraz ten du baizik.

Para la coordinación ez da *arremanak izateko* (=tener relaciones) eta bai *koordinatzeko.*

Para la armonización fiscal ez da *zergak elkar-egokitzeko* (=adaptarse mú tuamente los tributos) eta bai *gai fiskaletan bat etortzeko* edo *fiskalki bat etortzeko.*

Y las que dicte el Parlamento Vasco para idénticas finalidades dentro de la Comunidad Autónoma oso motz itzultzen da: *eta Euskalerriko Legegintzabiltzarrak Euskalerriko asmo auetarako emango dituanak* (=y las que dará para estas finalidades del País Vasco la Asamblea Legislativa del País Vasco); zehatzago litzateke beste honela: *eta Euskal Parlamentuak xede berdinetarako emango dituenak Komunitate Autonomikuaren barruan.*

Idénticas finalidades ez da *asmo auek* eta bai *asmo berdinak.*

Dentro de la Comunidad Autónoma ez da *Euskalerriko* eta bai *Komunitate Autonomikuaren barruan.*

Renta de Aduanas ez da *Muga-Zerga* (=impuesto de aduana) eta bai *aduanatako errenta*, hau da, *muga-zerga-mota guztiek Estatuarentzat egiten duten irabazi-multzoa.*

Y los que actualmente se recaudan a través de Monopolios Fiscales ez da *Estaduaren monopolio bidez biltzen diran zergak* (=los impuestos que se recaudan a través de monopolios del Estado) eta bai *eta Monopolio Fiskalen bidez gaurregun biltzen direnak.*

Actualmente ez da euskaratu.

Estaduaren Monopolioak eta *Monopolio fiskalak* bi gauza desberdin dira hitz egiteko moduaren aldetik behintzat, eta bestela ere.

b) *Exacción* ez da *eskea*. Gutxienez adierazi beharra dago *zerga-eskatzea* dela. Bestela *eskea* edozein *eskatze* da, baina *exacción exigentziaz egindako eskea da* eta gehienik *zergekin harremandurik dagoena.*

Gestión askoz ere zabalagoa da *ordainketa antolatzea* (=organizar el pago, cobro) baino.

Liquidación ez da *garbiketa egitea* (=hacer una limpieza). *Impostu bat likidatzea* da *behar diren kalkuluak egitea, inpostu horregatik zenbat ordaindu behar den jakiteko, hortarako dauden tarifak eta arauak ezarriz*. Hori ez dut uste *garbiketa* deitu daitekeenik. Espezialistek besterik as matzen ez duten bitartean *likidatzea* edo *likidazioa* utziko nuke nik, jakintzaren amoreagatik berriz ere, baina beti ere itzulpen egoki bat sor dadin bitartean. Ni ez naiz mordoilozale, baina garbizale ere ez, doitasunzale izan nahi dut bakarrik. Gainera *likido, likidatu*

bai fisikan, bai bankan kendu ezinak dira.

Inspección de impuestos ez da *zergak zaintzea* (=cuidar, proteger impuestos) eta bai *zergak egiaztatzea* edo.

c) *Territorios Históricos* ez da *Euskalerria* eta bai *Lurralde Historikoak.*

Con objeto de aplicar en sus respectivos Territorios ez da *bakoitzak bere Lurraldeko* eta bai *bakoitzak bere Lurraldean ezartzeko edo beterazteko.*

Estableciéndose igual período de vigencia que el señalado para éstas (por el Estado) ez da *Estaduak ezarritako epe berdinetan* (=en los mismos plazos establecidos por el Estado) eta bai *Estaduak hoiei indarrean egoteko ematen dien iraupen berdina emango zaie.*

Normas fiscales de carácter excepcional y coyuntural ez da *giro berezi batean eta aldi baterako... (ezartzen dituan) zerga-arauak* (=normas de impuestos que impone en un ambiente especial y para cierto tiempo) eta bai *salbuespenezko eta konjunturazko izaera duten arau fiskalak.*

Carácter excepcional ez da *aldi baterako* bakarrik, *kojuntura deitzen den aldi baterakoa* baizik. Gaurregun berriz, *ekonomiaren egoera eta beronen joerarekin zerikusia duen une bat* edo da *kojuntura.* Hitz hau nekez eman daiteke, gaurkoz, beste euskal hitz batekin. *Kojunturazko izaera* utziko nuke nik.

d) *Cupo global* ez da *osoko zerga-sari.* Batek ez bait daki zer esan nahi

duen *zerga-sari* honek: *zergagatik ematen den saria*, lan-saria, bide-saria bezala? *Ordain* bezala da kasu hoietan. Idea berau aurreratxo ago eramanez *saria = premio* bezala dago. Baina ez batean eta ez bestean sartzen da *cupo* hori, zeinak esan nahi bait du *kantitate, kopuru, tamaina* bat. *Osoko* ere ez da *global, total* baino, edo bestela ez dakigu noiz den bata eta noiz bestea. Hor berriz *guztiagatik* esan nahi da, hau da, gauzak banan banan xehatu gabe, denak multzoan harturik. Beraz *kupo globala* ikusten dut nik euskarapenik doiena. Nola esan bestela: *juicio global, visión global, globalmente hablando, etab... Osoko* esaten denean *total* ez dago horren esanahietatik erauzterik.

Cargas (del Estado) ez da *diru-zama* (=cargas monetarias) eta bai *zama* soil soilik.

Comisión Mixta: bitariko batzordea itzultzen da. Eta nola esango litzateke *una comisión mixta, compuesta por un representante de cada uno de los partidos asistentes*? Orduan ere kontatzen aritu behar al dugu zenbat partidu agertu diren *mixto* hori zenbateko numerorekin euskaratu jakin ahal izateko? Jokaera hau ezertara ez garamatzan bide antzu bat besterik ez da. Horrela itzultzen duenak ez dauka txintik esaterik *batzorde mixtoa* esaten duenaren kontra. Bestea baino askoz aberatsago bait da hau, kasu guztietan erabili daitekeenez gero.

Representantes de la Administración del Estado ez da *Estaduko Agintaritzak izendatuak* (=los nombrados por la jefatura, autoridad del Estado) eta bai *Estatu-administrazioaren ordezkariak. Administración* esateko ez da oraindik hitz tajuzkorik eskaini; denak beste esanahi batzurekin nahasten direnak izan dira. *Representante* ere ez da *izendatua* eta bai *ordezkari*.

El cupo así acordado ez da *orrela erabakitako zerga-saria* (=el premio por el impuesto así decidido) eta bai *akordioz horrela erabakitako kupoa* edo *horrela itundutako kupoa* edo *horrela akordatutako kupoa* edo *horrela hitzartutako kupoa* ... Baina beti ere *akordio* idearik ez dadila falta.

Con la periodicidad que se fije en el Concierto ez da *Itunbenean esango den epeen barruan* (=dentro de los plazos que se digan en el Pacto) eta bai *Kontzertuan finkatuko den periodikotasunez.*

Periodicidad ez da *epe. Astebeteko epea dute bilera egiteko* = epea. *Asteoro biltzen dira* = periodikotasuna. *Zenbatero* ere esaten da: zenbatero etortzen zarete? *Hamabostero izatèn gara hemen.* Baina oraindik promozionatu gabe dago eta ez dut gauza ikusten, oraingoz, *periodizitate edo periodikotasunaren* lekuan jartzeko.

Esan oso motela da *fijar* adierazteko, *finkatu* behar du, badago eta.

Sin perjuicio de su actualización anual ez da *baina urtean beingo sari-egun eratzea ere egin aal izango da* (=pero también se podrá realizar una vez al año la aproximación al día del premio, erdarazko textua al boan ez duenak hori ulertzen du, *sari eguna = día de premios, sari-egun eratu = acercarse al día de premios.* Galdetu edonori bestela) eta bai *urteoro kupoa eguneratzeari kalterik egin gabe* edo *urteoro kupoa eguneratzearen kalte gabe.*

f) *Principio de Solidaridad* ez da *Elkar-laguntza Oinarri* (=fundamento de ayuda mutua) eta bai *solidaritatezko printzipio.*

Artículo 42

Los ingresos de la Hacienda General del País Vasco estarán constituidos por:

a) Las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales, como expresión de la contribución de los Territorios Históricos a los gastos presupuestarios del País Vasco. Una Ley del Parlamento Vasco establecerá los criterios de distribución equitativa y el procedimiento por el que, a tenor de aquéllos, se convendrá y harán efectivas las aportaciones de cada Territorio Histórico.

b) Los rendimientos de los impuestos propios de la Comunidad Autónoma que establezca el Parlamento Vasco, de acuerdo con lo establecido en el artículo 157 de la Constitución y en la Ley Orgánica sobre financiación de las Comunidades Autónomas.

c) Transferencias del Fondo de Compensación Interterritorial y otras asignaciones con cargo a los Presupuestos Generales del Estado.

d) Rendimientos procedentes de su patrimonio e ingresos de Derecho Privado.

e) El producto de las operaciones de crédito y emisiones de Deuda.

f) Por cualesquiera otros ingresos que puedan establecerse en virtud de lo dispuesto en la Constitución y en el presente Estatuto.

42. ARTIKULUA

Los ingresos de la Hacienda General ez da *Ogasuntza* (=cantidad de bienes) eta bai *Hazienda Generalaren sarrerak edo sarbideak.*

Como expresión de la contribución de los Territorios Históricos ez da *Kondaira-Lurraldeen izenean* (=en nombre de los Territorios Históricos) eta bai *Lurralde Historikoek (gastuetan) hartzen duten partea adieraziz* edo *Lurralde Historikoek (gastuetan) hartzen duten partearen adierazgarri bezala.*

Gastos presupuestarios ez da *diru-eralkizunak* (gainera *eralgikizunak* beharko luke eta ez *eralkizunak.* Hori dena = gastuak, besterik ez da) eta bai *presupostuko gastuak.*

Una Ley establecerá los criterios ez da *(Legegintza-Biltzarrak) Lege-bidez esan go du zer bide erabiliko dan* (=la Asamblea Legislativa por medio de Ley dirá qué medio, camino, se va a utilizar). Textuan ez da *Legegintza-Biltzarra* eta bai *Legea* gauzak nola egin behar diren esaten duena.

Una Ley establecerá ez da *Lege-bidez esan* eta bai *legeak finkatu edo erabakiko du. Esan* hori oso motela da.

Criterios ez da *zer bide erabiliko den* eta bai *erizpideak.* Konpara bi textuok eta argi ikusiko da nola biak zein beren bidetik dabiltzan. Ea inork somatzen duen bata bestearen itzulpen direnik.

Una Ley del Parlamento Vasco establecerá los criterios de distribución equitativa y el procedimiento por el que, a tenor de aquellos, se convendrá y harán efectivas las aportaciones de cada Territorio Histórico. Horra euskaraz berau:

Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak Lege-bidez esango du zer bide erabilliko dan, Lurralde bakoitzak eman behar duan zerga zenbatekoa izango dan erabakitzeko, eta zein eratan ordainduko duan, eta bakoitzari dagokion neurri zuzena nola erabilliko dan argituz (=la asamblea legislativa del País Vasco dirá por medio de ley qué medio se ha de usar para decidir cuánto ha de ser el impuesto que haya de pagar cada Territorio, y en qué forma lo ha de pagar, y aclarando cómo se usará la recta medida que corresponde a cada uno). Gauzak erabat desberdin esateaz gainera, batere arrazoirik gabe, ideen ordena aldatzen da, dena ulergaitzagotuz. Honela edo beharko luke textu horrek euskaraz:

Euskal Parlamentuaren Lege batek zehaztuko du zein diren ekitatezko banaketaren erizpideak eta, hoien arauera, zein izango den prozedura adostasunez finkatzeko, zenbatekoak izango diren Lurralde Historiko bakoitzaren aportazioak eta nola egingo diren. Edo beste honela:

Euskal Parlamentuaren Lege batek zehaztuko du, zein diren banaketa justizi-berdintasunez egiteko erizpideak eta, hoien arauera, zein izango den prozedura elkarrekin bat etorriz finkatzeko, zenbat eman beharko duen Lurralde Historiko bakoitzak eta emate hori nola egingo den.

Criterios de distribución equitativa ez da *bakoitzari dagokion neurri zuzena nola erabiliko den argituz* (=aclarando cómo se ha de utilizar la medida justa que conviene a cada uno) eta bai *ekitatezko banaketaren erizpideak* edo *banaketak justizi-berdintasunez egiteko erizpideak.*

Las aportaciones de cada Territorio Histórico ez da *Lurralde bakoitzak eman behar duan zerga zenbatekoa dan* (=cuánto es el impuesto que debe dar cada Territorio). Kasu hortan *aportación a los gastos presupuestarios del País Vasco* da eta ez *la cuantía de los impuestos.* Beraz hobe *aportazioak* edo *eman behar duena.*

Se convendrá: erabakitzeko (=se decidirá) itzultzen da, baina ez da adierazten denek *bat etorriz edo ados jarriz* egin behar dela erabakitze hori. Nolabaiteko doitasunez egina dago itzulpen osoa.

b) *El rendimiento de los impuestos* ez da *zergen etekina* (=provecho de los impuestos) eta bai *zergen errendimentua.*

Los impuestos propios de la Comunidad Autónoma que establezca el Parlamento Vasco ez da *Legegintza-biltzarrak Euskalerrirako ezarritako zergak* (=los impuestos establecidos para el País Vasco por la Asamblea Legislativa) eta bai *Komunitate Autonomoaren beraren zergak, Euskal Parlamentuak ezarri ditzanak.*

De acuerdo con lo establecido en el artículo 157 de la Constitución y en la Ley Orgánica sobre financiación de las comunidades Autónomas ez da *Konstituzioaren 157'gn atalean eta Autonomi-Lurraldeen diru-sortzeari buruzko Lege Nagusian agindutakoen arabera* (=según lo mandado en la parte 157 de la Constitución y en la Ley Mayor sobre la producción de dinero de los Territorios Autónomos). Itzulpen hortatik ateratzen denez, badirudi lege espezialen bat dagoela Komunitate Autonomikuen finantzaketaz *(Autonomi-Lurraldeen diru-sortzeari buruzko Lege Nagusia)* eta Konstituzioak ez duela hortaz hitzik egiten, edo behintzat hemen *zergen etekinei buruz* ari denean aipatzen da Konstituzioa. Erdarazko textuan ez da horrelakorik: *Konstituzioa eta bai Lege Organikua* biak dira han *Komunitate Autonomikuen finantzaketaz dihardutenak: de acuerdo con lo establecido en el artículo 157 de la Constitución y en la Ley Orgánica sobre la financiación de las Comunidades Autónomas.* Itzulpenak honela behar luke: *Komunitate Autonomikuen finantzaketa Konstituzioaren 157. artikuluan eta Lege Organikoan ezarri denaren arauera.*

Financiación ez da *diru-sortzea* (=sacar dinero) eta bai *finantzaketa*. *Finantzatuk ordaindu* esan nahi du gehienbat.

c) *Fondo de Compensación* ez dakit nork ulertzeko asmotan itzuli den *Berdintze-Dirutza* (=dinero de igualación). *Compensar = ordaindu* da, baina *ordaindu = pagar, restituir, etab...*denez, nekez eman daiteke ortarako ere. Ekonomi Hiztegian aritu direnek ere *ordaindu* zeukaten lehenengo eta hura borratu eta *konpentsatu* jarri dute. Beraz *Konpentsazioko fondoa* beste formularik ez dut aurkitzen nik horren askatzeko.

Transferencias ez da *jasotakoak* (=lo recibido) eta bai *transferentziak*. Gorago explikatu dut hitz hau.

Otras asignaciones ez da euskaratu, nola esan jakin ez delako seguruenik. *Asignazio* behintzat esan zitekeen. Baina ez kendu textutik. Inori ez zaio eskatzen euskarak dituen problema guztiak gai hauetan erabakitzea. Baina hoiei aurre emangabe ihes ez egin behintzat.

Con cargo a los Presupuestos Generales del Estado ere honela itzuli da bitxi bitxi *Estaduaren diru-erabilketa orokorrari ordainketak gutxitzetik datozkionak* (=las (asignaciones) que le provienen de disminuir la devolución a la utilización monetaria general del Estado). Honela legoke tajuz: *Estatuaren Presupostu Generalei kargatuz* edo *Estatuaren Presupostu Generalen kontura.*

d) *Ingresos de Derecho Privado* ez da *Lurraldea jabe duten ogasunetatik sortutakoak* (=los originados de los bienen que tienen por dueño al Territorio) eta bai *Zuzenbide Pribatuzko sarrerak edo sarbideak* edo *Zu-*

Artículo 43

1. Se integrarán en el patrimonio de la Comunidad Autónoma Vasca los derechos y bienes del Estado u otros organismos públicos afectos a servicios y competencias asumidas por dicha Comunidad.

2. El Parlamento Vasco resolverá sobre los órganos del País Vasco a quienes se transferirá la propiedad o uso de dichos bienes y derechos.

3. Una Ley del Parlamento Vasco regulará la administración, defensa y conservación del patrimonio del País Vasco.

zenbide Pribatututiko sarbideak.

e) *El producto de las operaciones de crédito* ez da *dirua zorrean artzetik* (=de recibir el dinero en deuda) eta bai *kreditu-operazioetako produktua edo ekoizpena* edo *kreditu-eragiketetako produktua. Kreditu* hitza ere erabili nahi ez izatea...!, ez dakit nola izendatu.

Emisiones de Deuda ez da *Erri-Zorrak egitea* (=hacer deudas populares) eta bai *Zorrezko emisioak edo jaulkipenak* edo *Zorretako jaulkipenak. Jaulki = emitir* esateko Banka Hiztegikoek jarri zuten. Hortik *jaulkipenak* atera zuten Ekonomi Hiztegikoek. *Zorrak egitea* arrunta da, *Zorretako jaulkipenak egitea* berriz *zorrak egiteko* modu oso fin eta zuhurra da. Ez dago biak nahasterik.

43. A R T I K U L U A

43.1. PASARTEA

Se integrarán en el patrimonio de la Comunidad Autónoma vasca ez da *Euskalerrian Erri-Ogasuna geituko dute* (=aumentarán la riqueza popular del País Vasco) eta bai *euskal Komunitate Autonomoaren ondarea osatuko dute* edo *ondarean sartuko dira.*

Derechos y bienes del Estado ez da *Estaduaren zerga eta ondasunak* (=los impuestos y bienes del Estado) eta bai *Estatuaren eskubide eta ondasunak.*

Y otros organismos públicos ez da *beste Erri-Erakundeak* (=otras instituciones populares) eta bai *beste organismo publikoak*. Ez dago elkarrekin nahasterik ez *organismo = institución* eta ez *erri = público*. Azkenekoak, ia beti desberdin direlako. Eta beste biak, zenbait aldiz berdintsu izan daitezkeen arren bakoitzak bere nortasuna duelako. Ikasi beharra daukagu bereizkuntzak egiten bai hitzen artean, bai estiloen artean, bai hitzek elkarrekiko duten kategoria sozialaren artean, etab...

43.2. PASARTEA

Organos ez da *zaingo* (=custodia) eta bai *organo*.

Transferir la propiedad ez da *jabe izan* eta bai *jabetza eman edo transferitu, jabetza eskuz-aldatu?*

Transferir el uso ez da *erabilliko dituan* eta bai *erabilera edo usarioa eman edo transferitu.*

Bienes y derechos ez da *beroiek*, ez bait da esaten zer adierazten duen *beroiek* horren bidez: *ondasun eta eskubideak*. Horra textu osoa: *El Parlamento Vasco resolverá sobre los órganos del País Vasco a quienes se transferirá la propiedad o uso de dichos bienes y derechos*. Orain euskaraz ematen dena: *Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak erabakiko du zein zaingo izango dan oien jabe eta beroiek zeinek erabiliko dituan* (=la asamblea legislativa del País Vasco decidirá qué custodia será la dueña de ellos y quién los va a usar. Orain, nere ustez, nola beharko lukeen: *Euskal Parlamentuak erabakiko du Euskal Herriko organoen artean zeini emango zaion aipatu ondasun eta eskubide hoien jabetza eta usarioa.*

Artículo 44

Los Presupuestos Generales del País Vasco contendrán los ingresos y gastos de la actividad pública general y serán elaborados por el Gobierno Vasco y aprobados por el Parlamento Vasco, de acuerdo con las normas que éste establezca.

43.3. PASARTEA

El patrimonio del País Vasco ez da *Euskalerriko ogasuna* (=los bienes que están en el País Vasco) eta bai *Euskal Herriaren ondarea.*

Regulará ez da *erabakiko du* (=decidirá) eta bai *erregulatuko du.*

Administrar ez da *zaindu* (=cuidar) eta bai *administratu.*

Defensa ez da *babestu* (=proteger) eta bai *gorde edo zaindu.* Hona textu osoa:

Una Ley... regulará la administración, defensa y conservación del patrimonio ez da *Ogasuna nola zaindu, babestu eta berorri nola iraun arazi... lege batek erabakiko du* (=una ley decidirá cómo cuidar, proteger y hacer durar a los bienes) eta bai *Lege batek erregulatuko du ondarearen organizazioa, defentsa eta kontserbazioa* edo *Lege batek zehaztuko du ondarea nola administratu, defenditu eta gorde behar den.*

44. A R T I K U L U A

Actividad pública ez da *Erri-ekintza* (=actividad popular) eta bai *ekintza publiko.*

Ingresos y gastos de la actividad pública general ez da *Erri-ekintza osoaren*

Artículo 45

1. La Comunidad Autónoma del País Vasco podrá emitir deuda pública para financiar gastos de inversión.

2. El volumen y características de las emisiones se establecerán de acuerdo con la ordenación general de la política crediticia y en coordinación con el Estado.

3. Los títulos emitidos tendrán la consideración de fondos públicos a todos los efectos.

zerga-biltze ta eralkizunak (=recaudación de impuestos y los gastos de la actividad popular total) eta bai *Ekintza publiko generalaren sarrerak (edo sarbideak) eta gastuak. Eralkizunak* gaizki asmatuta hitza da, *eralgikizunak* behar luke *eginkizunak* eta ez *ekizunak*. Baina ez da inun esaten eta alde guztietan *gastuak* erabiltzen da.

Contendrá ez da *agertuko dira* (=aparecerán) eta bai *eukiko ditu* edo *barnean izango ditu.*.

Los Presupuestos Generales del País Vasco... serán elaborados dio erdarazkoak eta euskarazkoak *zerga-biltze eta eralkizunak... Euzko Gobernuak eginak izango dira* (=la recogida de impuestos y los gastos serán hechos por el Gobierno Vasco). Esan behar luke *Euskal Herriaren presupostu generalak... Euskal Gobernuak eratuak izango dira.*

Elaborar ez da *egin* eta bai areago *eratu, prestatu* (presupostua) kasu hontan.

45. ARTIKULUA

45.1. PASARTEA

Financiar gastos de inversión ez da *eraikizun-dirua eskuratzeko* (=obtener dinero de construcción) eta bai *inbertsio-gastuak finantzatzeko.*

Título IV

(De la reforma del Estatuto)

Artículo 46

1. La reforma del Estatuto se ajustará al siguiente procedimiento:

a) La iniciativa corresponderá al Parlamento Vasco, a propuesta de una quinta parte de sus componentes, al Gobierno Vasco o a las Cortes Generales del Estado español.

b) La propuesta habrá de ser aprobada por el Parlamento Vasco por mayoría absoluta.

c) Requerirá, en todo caso, la aprobación de las Cortes Generales del Estado mediante Ley Orgánica.

d) Finalmente, precisará la aprobación de los electores, mediante referéndum.

2. El Gobierno Vasco podrá ser facultado, por delegación expresa del Estado, para convocar los referéndums a que se refiere el presente artículo.

45.2. PASARTEA

De acuerdo con la ordenación general de la política crediticia ez da *kreditu-legeen arau orokorrei begira* (=según las normas generales de las leyes crediticias) eta bai *kreditu-politikaren ordenamendu generalari jarraituz.*

En coordinación con el Estado ez da *Estaduarekin arremanetan* (=en relación con el Estado) eta bai *Estatuarekin koordinatuz.*

45.3. PASARTEA

Los títulos emitidos ez da *Euskalerriak saldutako zor-agiriak* (=los documentos de deuda vendidos por el País Vasco) eta bai *jaulkitako titulu ak edo titulu emitituak.* Egintzaren mamia *saldu* ren parekoa baldin ba da ere *emitir* esaten da, = *eman, jaulki.* Hitz egiteko moduak ere gorde behar direla!

Fondos públicos ez da *Erri-diru* (=dinero del pueblo) eta bai *fondo publikoak.*

46. A R T I K U L U A

46.1. PASARTEA

Se ajustará al siguiente procedimiento ez dago gaizki itzulia *bide oni ja-*

rraituz egingo da; baina hortik ez zaigu sekula hizkera teknikorik sortuko. Hor ez zaigu itzultzen berez, ez *se ajustará*, ez *al siguiente* eta ez *procedimiento*. Beraz itzulpen horrek ez digu balio textuinguru hontatik kanpora. Hortxe jaio eta hortxe hiltzen zaigu, etorkizunik gabe. Euskara biziko bada berriz, hizkera tekniko bat behar dugu, hemen eta beste edonun beti berdin erabiliko dena, beti esanahi berdina eta zehatze izango duena, nahaspiderik sortuko ez duena. Hona itzulpen doia: *ondoko prozedura honi moldatu, egokitu, tajutuko'zaio* edo *ondoko prozedura honi jarraituz egingo da*. Horrela *ondoko* beti litzateke *siguiente* eta *prozedura* beti *procedimiento*, baina ez *bide*.

a) *Iniciativa* ez da *asiera ematea* (=dar comienzo). Euskaraz *iniziatiba* eta *ekinbide* erabiltzen dira. Ez da berdin *gauza bati ekiteko bide ematea* (=ekinbide) eta *gauza bati hasiera ematea* (=hasiera). *Hasiera* obratze-mailan dago beti, *iniziatiba edo ekinbidea* gehienbat *hasiera* baino lehenagoko maila batean aurkitzen da, proposamenezko maila batean edo, gehienbat behintzat. Bien artean mugak jartzen zaila baldin bada ere, bakoitzaren joera argi dago. Textuko hontan ere, erreformari *hasiera eman* aurretik eman behar diren pausoez ari da.

Estado Español ez da *Estaduari* bakarrik, *Estatu Espainolari* baino.

b) *La propuesta* ez da *eraberritze lege-gaia* (=proyecto de ley de reforma) eta bai *proposamena*. Hor ez da inolako *lege-gaiez* hitzegiten.

d) *Aprobación* ez da *baieztea* (=afirmación) eta bai *onartzea*. Gainera aurreko frasean erabili da *onartzea = aprobar* esateko, orain zergatik erabiltzen da *baieztea* bai esanahia eta bai textuingurua osoro berdinak direlarik? Batean *aprobación de las Cortes* da eta beste-

an *aprobación de los electores*.

Referendum ez da *erri-galdeketa* (=encuesta popular) eta bai *errefe-rendu(m)a*. Hitz sagaratua da hau politikan. Gainera *encuesta* esan beharra dago. Zertan nahastu biak?

46.2. PASARTEA

Horra bi esateko modu zeharo diferenteak:

El Gobierno Vasco podrá ser facultado, por delegación expresa del Estado, para convocar los referendums a que se refiere el presente artículo ez da *Estaduak bereziki emandako baimenez, Euzko Gobernuak erri-galdeketak eratu ditzake* (=con permiso especialmente concedido por el Estado, el Gobierno Vasco puede organizar encuestas populares). Nere ustez egokiago honela: *Estatuak expreski delegaturik, eman ahal izango zaio eskua Euskal Gobernuari, artikulu hontan aipatzen diren erreferndetara hotsegin dezan* edo *Estatuak expreski delegaturik, ahalmena ematea egongo da Euskal Gobernuari, artikulu hontan aipatzen diren erreferendetara hotsegin dezan.* Erdarazko textuak hizkera modu bat dauka eta euskarazkoak beste bat. Itzultzekoan horri ere begiratu beharra dago. Gainera: Ez da berdin *el Gobierno Vasco podrá ser facultado para convocar* eta *Euzko Gobernuak... eratu ditzake* (=el Gobierno Vasco podrá convocar).

Delegación expresa ez da *bereziki emandako baimena* (=permiso concedido especialmente), eta bai *delegazio expresua* edo *expreski delegatua. Norberaren eskubideak edo ahalmenak inori uztea* da *delegatzea. Baimena*, berriz, egin den eskabideari *baietza ematea. Expresua* da *zerbait bere izenez eta esanahiez esatea*; isilbidez edo zeharka esatea da horren kontrakoa.

Artículo 47

1. No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, cuando la reforma tuviera por objeto una mera alteración de la organización de los poderes del País Vasco y no afectara a las relaciones de la Comunidad Autónoma con el Estado o a los regímenes forales privativos de los Territorios Históricos, se podrá proceder de la siguiente manera:

a) Elaboración del proyecto de reforma por el Parlamento Vasco.

b) Consultas a las Cortes Generales y a las Juntas Generales.

c) Si en el plazo de treinta días a partir de la recepción de la consulta ningún órgano consultado se declarase afectado por la reforma, se convocará, debidamente autorizado, un referéndum sobre el texto propuesto.

d) Finalmente se requerirá la aprobación de las Cortes Generales mediante Ley Orgánica.

e) Si en el plazo señalado en la letra c) alguno de los órganos consultados se declarase afectado por la reforma, ésta habrá de seguir el procedimiento previsto en el artículo 46, dándose por cumplidos los trámites de los apartados a) y b) del número 1 del mencionado artículo.

2. En el caso de que se produjera la hipótesis prevista en la disposición transitoria cuarta de la Constitución, el Congreso y el Senado, en sesión conjunta y siguiendo el procedimiento reglamentario que de común acuerdo determinen, establecerán por mayoría absoluta, qué requisitos de los establecidos en el artículo 46 se aplicarán para la reforma del Estatuto, que deberán, en todo caso, incluir la aprobación del órgano foral competente, la aprobación mediante ley órganica por las Cortes Generales y el referéndum del conjunto de los Territorios afectados.

3. El segundo inciso de la letra b) del número 6 del artículo 17 del Estatuto podrá ser suprimido por mayoría de tres quintos del Congreso y el Senado, y aprobación del Parlamento Vasco con posterior referéndum convocado al efecto, debidamente autorizado.

47. ARTIKULUA

47.1. PASARTEA

No obstante lo dispuesto en el artículo anterior ez da *aurreko atalean esandakoaz gainera* (=además de lo dicho en el artículo anterior) eta bai *aurreko artikuluan erabakitakoa gorabehera* edo *aurreko artikuluan erabakitakoaren kalterik gabe.*

Una mera alteración de la organización ez da *araupide soila* (=mera normativa?) eta bai *organizazioaren aldaketa soila* edo *antolakuntzaren aldaketa soila. Alteración* itzuli gabe dago.

Regímenes forales ez da *foru-legeak* (=leyes forales) eta bai *foru-erregimenak.*

Afektar ez da *aldatu* (=modificar, cambiar) eta bai *unkitu, ukitu, erasan.*

Privativos ere ez da itzultzen.

a) *Proyecto de reforma* ez da *eraberritze lege-gaia* (=proyecto de ley de reforma) eta bai *eraberritze-projektua.*

c) *Si... ningún órgano se declarase afectado por la reforma* ez da *erakunderik*

eraberritzearen aurka mintzatzen ez danean (=cuando ninguna institución habla en contra de la reforma) eta bai *ezein organok aitortzen ez badu bera nozitzen (unkitzen) duela eraberritzeak* edo *ezein organok ailegatzen ez badu kalte egiten diola hari eraberritzeak* edo *organorik ez bada, eraberritzeak kalte egiten diola aitortzen duenik. Afectar = kalte egin, nozitu, unkitu, erasan* da eta ez *inor kontra mintzatu edo mintzarazi.*

Sobre el texto propuesto ez da *lege-gaiari buruz* (=sobre el proyecto de ley) eta bai *textu proposatuari buruz.*

e) *letra c)* ez da *c) zatia* (=parte c)) eta bai *c) letra.*

Los trámites de los apartados a) y b) del número 1 del mencionado artículo: hitz guztiak dira hor itzultzekoak eta ez batzuk jan eta besteei ihes egin, itzulpenean egin den bezala: *atal hortako a) eta b) zatietan esanak* (=lo dicho en los apartados a) y b) de esa parte) eta bai *aipatu artikuluaren 1.zenbakiko a) eta b) apartatuko tramiteak (betebeharrak?).* Nola esan *tramite, tramitar, tramitación...* behin betiko eta beti berdin erabiltzeko moduan? Nik ez dut asmatu oraindik eta, ikusi dudanez, bestek ere ez. Ba bitartean *tramite, tramitatu* etabarrez baliatu beharko dugu. Baina esan egin behar da idea, ez ihes eginda utzi.

47.2. PASARTEA

Hipótesis prevista ez da *aipatutakoa* (=lo mencionado) eta bai *hipotesi aurrikusia* edo *aurrikusi den hipotesia.*

Siguiendo el procedimiento reglamentario ez da *arau-bidez* (=por norma) eta bai *erreglamentuzko prozedurari jarraituz.*

Requisito esateko *baldintza* (=condición) baino egokiago dago *betebehar.*

Se aplicarán para la reforma del Estatuto ez da itzuli *para la reforma del Estatuto.*

Que deberán, en todo caso, incluir: itzultzen da *Baldintza auen artean gutxienez onako eginkizun auek izango dira.* Zertara dator hor *eginkizun* hori? eta zer esan nahi du hor?

El referendum del conjunto de los Territorios afectados: del conjunto ez da itzuli.

47.3. PASARTEA

Del Estatuto ez da *Autonomi-Araudi ontako* (=de esta normativa autonómica) eta bai *Estatutuko edo Estatutuaren.* Zergatik sartu behar da textuak ez dakarrenik, eta horrek dakarrenik ez da itzultzen behar bezala?

Inciso ez da *zatia* (=parte) eta bai *eraskin, pasarte* edo holakoren bat, doi doi esateko *sartukin* bat, hau da, esaldi bati erasten edo tartean sartzen zaion zerbait.

Con posterior Referendum convocado al efecto ez da *egindako erri-galdeketan onartu ezkero* (=una vez aprobado en una encuesta popular realizada) eta bai *geroago hortarako hotsegingo den Erreferendum batez.*

El régimen de autonomía que se establece en el presente Estatuto ez da *Autonomi-Araudi ontako araubidea* (=la norma? de esta normativa autonómica) eta bai *Estatutu hontan ezartzen den autonomi-erregimena.* Itzulpen hontan ez daki batek zertarako erabiltzen diren hitzak eta hitz hoiekin zer adierazi nahi den. Orain arte *Autonomi-Araudi* Esatatutua zen, orain *Régimen Autonómico* eta Estatutuaren ordez *araubide* jartzen da. Beajundaizuela!

De acuerdo con el ordenamiento jurídico ez da *Estaduko Legediaren arauera* (=de acuerdo con la Legislación del Estado), eta bai *ordenamendu juridikoaren arauera.*

Disposición adicional

La aceptación del régimen de autonomía que se establece en el presente Estatuto no implica renuncia del Pueblo Vasco a los derechos que como tal le hubieran podido corresponder en virtud de su historia, que podrán ser actualizados de acuerdo con lo que establezca el ordenamiento jurídico.

Disposiciones transitorias

PRIMERA. A partir de la aprobación definitiva de este Estatuto el Consejo General Vasco convocará, en un plazo máximo de 60 días, elecciones para el Parlamento Vasco, que habrán de celebrarse dentro de los cuatro meses siguientes a la fecha de su convocatoria.

A estos efectos, cada Territorio Histórico de los que integren la Comunidad Autónoma, constituirá una circunscripción electoral. Los partidos políticos, coaliciones de los mismos y agrupaciones electorales podrán presentar candidaturas en cada circunscripción electoral en listas cerradas y bloqueadas. El reparto de escaños se realizará mediante el sistema proporcional. El número de Parlamentarios por cada circunscripción será de veinte.

Una vez celebradas las elecciones, el Consejo General del País Vasco convocará al Parlamento electo en el plazo de 30 días para que proceda al nombramiento del Presidente del Gobierno Vasco.

La elección del Presidente necesitará en primera votación la mayoría absoluta de la Cámara, y, caso de no obtenerla, la mayoría simple, en sucesiva o sucesivas votaciones.

Si en el plazo de 60 días desde la constitución del Parlamento no se hubiera elegido Presidente del Gobierno, se procederá a la disolución de la Cámara y a la convocatoria de nuevas elecciones.

Con carácter supletorio serán aplicables las normas dictadas para regular las elecciones generales del 15 de junio de 1977, así como el vigente Reglamento del Congreso de los Diputados.

I. ERABAKI IRAGANKORRA

A partir de la aprobación definitiva de este Estatuto ez da *Araudi oni azken-onartzea eman zaionetik* eta bai *ematen zaionetik*, etorkizuneko zerbait adierazten du horrek eta.

En un plazo máximo de sesenta días ez da *irurogei egun baino leen* (=antes de sesenta días) eta bai *gehienik hirurogei eguneko epe barruan* edo *gehienik hirurogei egun barru*. Antzekoa dirudien arren ez bait da osoro berdina. *60 egun baino lehen* = 59 egun barru da. Egun oso baten aldea dago bi formula hoien artean. Gainera *plazo máximo*ri formula bat eman beharra dago euskaraz: *gehienik... epea* edo *gehienik... barru* edo *eperik haundiena... 60 egunekoa dela*. Baserritar eta arrantzaleen hizkuntzari legegizonen doitasuna dago eman beharra.

Cada Territorio Histórico de los que integren la Comunidad Autónoma ez da *Euskalerriko Kondaira-Lurraldeetako bakoitza* eta bai *Komunitate Autonomikoa osatzen duten Lurralde Historikoetako bakoitza.*

Podrán presentar candidaturas... en listas cerradas ez da *beren autagai-zerrenda beteak aurkeztu ditzakete* eta bai *beren autagaien zerrendak beteak aurkeztu ditzakete* edo *beren autagai-zerrendak beteak aurkeztu ditzakete*. Bestela ez dago ondo euskaraz. Kontua ez da *zer aurkeztu dezaketen (candidaturas = autagai-zerrendak)* eta bai hautagaiok *nola aurkeztu ditzaketen (en listas cerradas = beteak)*. Gramatikazko explikazio teknikoetan sartu gabe egin bedi proba bat eta argi ikusiko da, esaldiaren esanahirik batere aldatu gabe, nola behar duen izan. Bilatzen dena *beteak* denez, ipini dezagun hori aditz konjugatuaren aurretik eta gainerakoa bota aditzaren atzekaldera: *beteak aurkeztu ditzakete autagai-zerrenda...* eta berehala ohartuko gara zerbait falta dela hor. Jarri orain nik eman dudan euskarapena: *beteak aurkeztu ditzakete autagai-zerrendak*. Hori osorik dago.Beraz hau da zuzena eta bestea o-

kerra: *hautagai-zerrendak beteak aurkeztu ditzateke* dago zuzen.

Parlamentario ez da *biltzarkide* (=miembro de una asamblea cualquiera) eta bai *Parlamentari*.

Parlamento electo ez da *Legegintza-biltzar berria* (=asamblea legislativa nueva) eta bai *Parlamentu hautatua*.

Cámara ez da *Legegintza-biltzar* (=asamblea legislativa) eta bai *Ganbara*. *Cámara* guztiak ez dira *Legegintza-biltzar*. E.b.: Cámara Alta, Cámara Baja, Cámara de los Lores, Cámara de Comercio, Cámara de los Comunes, Cámara de los Diputados, Cámara de los Pares, eta beste ganbara modu asko dago. Gainera *Legegintza-biltzar = Parlamentu* esateko ere erabili da, eta Parlamentu batzu *monokameral* dira eta beste batzu *bikameral*. Nola deitu behar dira hoiek *Bi Legegintza-biltzarreko Legegintza-Biltzarra*?...!

Se procederá a la disolución de la Cámara ez da *Legegintza-Biltzarraren agin-te-aldia amaitutzat emango da* (=se dará por terminado el mandato de la Asamblea Legislativa) eta bai *Ganbara desegiteari ekingo zaio* edo *Ganbara desegiteko bideak egingo dira* edo *Ganbara desegiteko prozedurari e-kingo zaio*. Funtsean bi itzulpenak berdinak direla dirudi, baina ez da hola. Textuak dioena da *prozedura bat hasiko dela, behar diren pausoak emanez, Ganbara desegiteraino ailegatzeko*. Euskarazkoak aldiz adierazten du: prozedura guzti horren azkena eta buru dena, alegia, *amaitutzat ematen dela*. Zuzenbideko estiloa ez da horren zorrotza izaten; ondorioak izaten dira zorrotzak, baina esanak leun leun eta zuri zuri.

SEGUNDA. Una comisión mixta, integrada por igual número de representantes del Gobierno Vasco y del Gobierno del Estado, reunida en el plazo máximo de un mes a partir de la constitución de aquél, establecerá las normas conforme a las que se transferirán a la Comunidad Autónoma las competencias que le corresponden en virtud del presente Estatuto y los medios personales y materiales necesarios para el pleno ejercicio de las mismas, llevando a cabo las oportunas transferencias.

A la entrada en vigor del presente Estatuto, se entenderán transferidas, con carácter definitivo, las competencias y recursos ya traspasados para esa fecha al Consejo General Vasco.

Serán respetados todos los derechos adquiridos de cualquier orden y naturaleza que en el momento de la transferencia tengan los funcionarios y personal adscritos a los servicios estatales o de otras instituciones públicas objeto de dichas transferencias.

(Se procederá) a la convocatoria de nuevas elecciones ere ez da *beste auteskun de-deia egingo da* (=se hará otra convocatoria de elecciones) eta bai *hauteskundetara beste dei bat egiteko bideak egingo dira* edo *berriro hauteskundetara hotsegiteko bideak egingo dira.*

Ekainilla ez da inun esaten, *ekaina.*

Normas dictadas ez da *atera ziran* eta bai *eman ziren* edo *dictatu ziren arauak.*

El vigente reglamento del Congreso de los Diputados ez da euskaraz *Estaduko "Congreso de los Diputados" delakoak dituan auteskunde arauak* eta bai *Diputatuen Kongresuko erreglamentu indarrean dagoena* edo *indarrean dagoen erreglamentua, Diputatuen Kongresukoa* edo...

II. ERABAKI IRAGANKORRA

En el plazo máximo de un mes ez da *andik illabete baiño leen* (=antes de un mes) eta bai *gehienik ere hilabeteko epe barruan.*

Comisión mixta ez da *bitariko batzorde* (=comisión de dos) eta bai *Batzorde mixtua.*

Lehendik aski konplikatua zen esaldi hau, mila bider konplikatuago eta ilunago egin da euskaraz jartzekoan. Gainera oker dago.

Una Comisión mixta... establecerá las normas conforme a las que se transferirán a la Comunidad Autónoma las competencias que le corresponden ez da *Euzko*

Gobernuak Autonomi-Araudi onen aginduz Euskalerriari dagozkion aginpideak eskuratzeko... araubidea erabakiko du (=El Gobierno Vasco por mandato de esta normativa autonómica decidirá la normativa para obtener las facultades que corresponden al País Vasco) eta bai *Batzorde mixtu batek ezarriko ditu arauak, zeintzuen arauera transferituko bait zaizkio Komunitate Autonomuari beroni dagozkion konpetentziak* edo *Batzorde mixtu batek arau batzu ezarriko ditu eta hoien arauera transferituko zaizkio Komunitate Autonomuari beroni dagozkion konpetentziak.* Beraz ez da *Euskal Gobernua* konpetentziok tranaferitzen dizkiona, baizik eta *arau batzuren arauera* ematen zaizkio. Nolanahi ere *Euskal Gobernu* ez den beste norbaitek.

Eskuratu hemen ez da *se transferirá* eta bai *hartu, beretu* edo antzeko zerbait, ba *Euzko Gobernuak eskuratu* azpiulertzen bait da. Hori berriz *Euskal Gobernuak beretzen edo hartzen duela* esatera dator.

En virtud del presente Estatuto ez da *Autonomi-araudi onen aginduz* (=por mandato de esta normativa autonómica) eta bai *Autonomi honen indarrez.* Autonomiak ez du agintzen, eskubide ematen du bakarrik.

Para el pleno ejercicio de las mismas (competencias) ez da *aginpide oietaz bete-betean baliatzeko* (=para servirse plenamente de esas autoridades, mandatos, facultades) eta bai *konpetentzi hoiek bete-betean erabiltzeko.* Hala ere *ejercer* hitzaren itzulpen egokirik ez dago oraingoz euskaraz: *ejercer algo* ez da *zerbaitetan aritu* (=ocuparse en algo), ez *zerbaitez baliatu* (=servirse de algo), ez *zerbait erabili* (=usar algo), etab... *zerbaiti eragin, zerbait martxan jarri, zerbait indarrean jarri, ihardunean erabili* edo holako zerbait litzateke esan beharrekoa, baina praktikan arrotz egiten dira hoiek denak.

Los medios personales y materiales necesarios (para...) ez da *erri-langileak eta diru ta ornigarriak* (=trabajadores del pueblo y dinero y provisiones?) eta bai *behar diren helpide pertsonal eta materialak* edo *pertsonal eta materialetan behar diren helpideak.*

Llevando a cabo las oportunas transferencias ez da *Era berean, bidezko diren aginpide-eskuratzeak ere erabakiko ditu* (=así mismo, decidirá las tomas de autoridad que fueran justas) eta bai *eta egoki diren transferentziak burutuko ditu* edo *eta behar diren transferentziak burutuko ditu.*

A la entrada en vigor del presente Estatuto ez da *Autonomi-Araudi au indar izaten asi aurretik* (=antes de empezar a ser fuerza eta normativa autonómica) eta bai *Estatutu hau indarrean jartzerakoan. Indar izan zerbait = zerbaitek indarra izan edo euki* esateko, nik ez dut inun entzun ez irakurri. *Elektrizitatea indarra da edo indar bat da* eta *elektrizitateak indarra du, indar bat du* ez dira inola ere berdinak.

Se entenderán ya transferidas,... las competencias y recursos ya transpasados... al Consejo General Vasco ez da *Euskal Kontseillu Nagusiari eskuratu zaizkion eskubide ta baliabideak, Euskalerriari... eskuratutzat joko dira.* Textuan ez da esaten Euskal Kontseiluari ematen edo kentzen zaiona Euskalerriari egiten zaionik. Euskal Herririk ez da hor ezertarako aipatzen. Beraz honela *Euskal Kontseilu Generalaren eskutan jarri diren konpetentzia eta baliabideak transferitutzat joko dira, edo eskuz aldatutzat joko dira.*

Derecho adquirido ez da *Lanetiko eskubide* (=derecho que viene del trabajo) eta bai *eskubide lortua, ardietsia, iritxia...* edo.

TERCERA. 1. Las transferencias que hayan de realizarse en materia de enseñanza, tanto de los medios patrimoniales como personales, con lo que el Estado atiende actualmente sus servicios en el País Vasco, se realizarán conforme a los programas y calendarios que establezca la Comisión mixta de Transferencias que se crea en la Disposición Transitoria segunda.

2. El traspaso de los servicios de enseñanza se hará a la Comunidad Autónoma o, en su caso, a las Diputaciones Forales.

Derechos... de cualquier orden y naturaleza que sean ez da *eskubideak... diran mailakoak dirala* (=de la categoría que sean) eta bai *edozein mota edo izaeratakoak direla eskubideok* edo *edozein maila eta motatakoak direla eskubideok*. Badirudi *orden y naturaleza* hoiek osotasun bakarra osatzen dutela bion artean eta *tipo, mota, klase* esan nahi dutela. Argitu beharra egongo litzateke hori. Dena dela itzulpenak eman duena ez dago ondo.

En el momento de la transferencia eta *aginpide-eskuratzean* (=al apoderarse o entregar la autoridad, el mando) ez dira berdinak esanahiez, eta esateko moduan ere ez dute indar berdina. *Transferentzia, edo eskuzaldatzea?, egiteko unean* legoke ondo.

Institución pública ez da *erri-erakunde* eta bai *erakunde publiko*.

Funcionario ez da *Erri-langille* (=trabajador popular, o del pueblo). Oso ere oso dudatan jartzekoa bait da hori!, eta bai *funtzionari*.

Personal ez da *Kargudun* (=encargado, dignatario) eta bai *pertsonal*.

III. ERABAKI IRAGAINKORRA

III.1. PASARTEA

Oso arraro eta ilun dago textu honen itzulpena. Ikusi:

Las transferencias que hayan de realizarse en materia de enseñanza, tanto de los medios patrimoniales como personales, con los que el Estado atiende actualmente sus servicios en el País Vasco, se realizarán... eta hona euskaraz ematen dena: *Irakaskintza-alorrean egin bearreko aginpide-eskuratzeak, au da, Estaduak orain Euskalerriko serbitzuei eusteko bere esku dituan ondasun eta langilleak... egingo dira* (=las obtenciones de autoridad que se hayan de realizar en el campo de la enseñanza, esto es, los bienes y trabajadores que el Estado tiene ahora a su cargo para el sostenimiento de los servicios del País Vasco). Nun gelditzen dira hor *transferencia de los medios patrimoniales y personales*? Hobe hola: *Irakaskintza-gaietan egin beharko diren transferentziak, hala helpide ondarezkoenak nola pertsonalenak, zeintzuez baliatzen bait da Estatua gaurregun Euskal Herriko serbitzuak betetzeko,... egingo dira* edo *Irakaskintza-gaietan egin beharko diren transferentziak, dela ondarezko dela pertsonalezko helpideenak, gaurregun Estatuak Euskal Herriko serbitzuak betetzeko (jagoteko) erabiltzen dituen helpideenak alegia, ... egingo dira.*

Medios patrimoniales y personales ez da *ondasun eta langileak*, hori itzuli nahi izan bada ere, eta bai *helpide ondarezko eta pertsonalak* edo *ondarezko eta pertsonalezko helpideak*. Gero adierazi behar da *hoien transferentziak* egiten direla.

Conforme a programas y calendarios ez da *egitarau eta epeen arabera* (=según programas y plazos) eta bai *egitarau eta kalendario edo egutegien arauera*. Kontuan hartzekoa da ba, zergatik jarri duten erdaraz *calendarios* eta ez *plazos*? Izan ere ez bait dira berdin. *Epea* da, *zerbait egiteko jartzen den denbora-muga: Urtebeteko epea eman diote lana burutu dezan*, hau da, urtebete barru bukatu beharra dauka lana. Ez zaio esaten noiz egin behar duen, zenbat denbora sartu behar duen lanean, noiz hasi behar duen, noizko leurdena eginda euki, noizko erdia, noizko hurrengo zatia. Aski du urtea bukatzerako lana buruturik eukitzea, baita dena azkeneko bi hillabetetan egingo badu ere.

Kalendarioa edo egutegia alabaina beste gauza bat da. *Lan baten kalendarioa* egiten denean, lanaren beraren abiada finkatzen da nolabait: lana urtebetean bukatuko da, baina hilbeltzaren bian hasiko da, otsailerako halako puntutaraino gutxienez eginda egondo da; otsailaren zazpirako halako puntuarekin hasita egongo da,... maiatzerako hau eta hura bukaturik, bestea erdiraino; dena zehaz turik jartzen da lanaren ibilgua. Beraz ez dira berdin *epea* eta *kalendarioa edo egutegia.*

III.2 PASARTEA

El traspaso de los servicios de enseñanza ez da *Irakaskintza-serbitzuetako aginpide-eskuratzea* (=el apoderamiento de la autoridad de los servicios de enseñanza) eta bai *irakaskintza-serbitzuen eskuz-aldatzea edo traspasoa.*

Comunidad Autónoma ez da *Euskalerriko Agintaritza* (=jefatura, autoridad del País Vasco) eta bai *Komunitate Autonomoa.* Zenbat eratara itzuli behar da deitura hori?: *Autonomi-lurralde, Euskalerria, eta orain Euskalerriko Agintaritza.* Oso erizpide eskaxa dirudi honek hiztegi tekniko bat egiteko.

En su caso ez da *ala bear izan ezkero* (=en caso de que sea necesario) eta bai *ere bai, edo eta.* Honela da kasua: *El traspaso de los servicios de enseñanza se hará a la Comunidad Autónoma o, en su caso, a las Diputaciones Forales*, euskaraz: *Irakaskintza-serbitzuen traspasoa Komunitate Autonomikoari egingo zaio edo eta Foru-Diputazioei ere bai* baina ez *naiz Foru-Aldundiei, ala bear izan ezkero.* Nere ustez hor ez da besterik esaten: Komunitate Autonomoari egiten ez zaionean Diputazioari egingo zaiola.

CUARTA. La Junta de Seguridad que se crea en virtud de lo prevenido en el artículo 17 determinará el Estatuto, Reglamento, dotaciones, composición numérica, estructura y reclutamiento de los Cuerpos de Policía Autónoma, cuyos mandos se designarán entre Jefes y Oficiales de las Fuerzas Armadas y Cuerpos de Seguridad del Estado que, mientras presten servicios en estos Cuerpos, pasarán a la situación administrativa que prevea la Ley de Policía de las Comunidades Autónomas o a la que determinen los Ministerios de Defensa e Interior, quedando excluidos en esta situación del fuero castrense. Las licencias de armas corresponden en todo caso al Estado.

IV. ERABAI IRAGANKORRA

Junta: batzutan *batza*, orain *batzorde*. *Batzorde* orain arte *comisión*. Nola finkatu behar ditugu hitzak?

Estatuto ez da *erakunde-araudia* (=normativa institucional) eta bai *Estatutua*.

Composición numérica (de un grupo) ez dut uste *taldе bakoitzaren zenbanakoa* denik, areago *taldea osatzen duten hainbat motetatik bakoitzak zenbat unitate izango dituen*, hau da: *dotazio bakoitza nola eratua egongo den, zenbat kapitain, zenbat teniente, zenbat kabo eta bestelako izango dituen*. Hori da nere ustez *konposizio numerikoa*. Ba daiteke ni oker egotea, kasu hontan baina.

Cuerpos de Policía ez da *Ertzaingoa* (=policía municipal) eta bai *Polizi Gorputzak*. *Cuerpos* dioenean, seinale da hainbat eratakoak direla eta ez direla denak berdin. Beraz, ezin daiteke *ertzaingoa* esanez itzuli.

"Fuerzas Armadas" direlakoak esan ordez ere esan zitekeen *Indar Harmatuak*.

Oficiales ez da *Ofizialgo* (=oficialidad) eta bai *Ofizialak*.

QUINTA. La Comisión mixta de Transferencias que se crea para la aplicación de este Estatuto establecerá los oportunos convenios mediante los cuales la Comunidad Autónoma asumirá la gestión del regimen económico de la Seguridad Social, dentro de su carácter unitario y del respeto al principio de solidaridad, según procedimientos, plazos y compromisos que, para una ordenada gestión, se contengan en tales convenios.

V. ERABAKI IRAGANKORRA

Que se crea ez da *dan* eta bai *sortzen den.*

Los oportunos convenios ez da *bidezko itunak* (=convenios justos) eta bai *beharrezko diren hitzarmenak* edo *komeni diren hitzarmenak* edo *egoki diren hitzarmenak.*

La gestión del régimen económico de la Seguridad Social ez da *Gizarte-Segurantza-diru-erabilketaren ardura* eta bai *aseguro sozialaren erregimen ekonomikoaren gestioa* edo *aseguro sozialeko erregimen ekonomikoaren gestioa* edo *gizarte-segurantziko ekonomi-erregimenaren gestioa.* Herriarentzat egindako itzulpena baldin bada hau, herriak ez du horrelako hitz-lukainkarik egiten, edo oraindik ez behintzat. Gainera:

Gestión ez da *ardura* (=cuidado)

Régimen económico ez da *diru-erabilketa* (=uso del dinero) eta bai *ekonomi-erregimen, ekonomiazko erregimen edo erregimen ekonomiko.*

Asumirá ez da *artu dezan* eta bai *hartuko du.*

Dentro de su carácter unitario y del respeto al principio de solidaridad ez da euskaratu.

SEXTA. La coordinación en la ejecución prevista en el artículo 19.2 será de aplicación en el supuesto de que el Estado atribuya, en régimen de concesión, a la Comunidad Autónoma Vasca la utilización de algún nuevo canal de televisión, de titularidad estatal, que se cree específicamente para su emisión en el ámbito territorial del País Vasco, en los términos que prevea la citada concesión.

Según procedimientos, plazos y compromisos, que para una ordenada gestión, se contengan en tales convenios ez da osorik euskaratzen: *Itun auek, ber tan aipatzen diran bide, epe ta betebearren arauera egingo dira* (=estos pactos, convenios, se realizarán conforme a los caminos, (medios?), plazos y obligaciones). Ez da euskaratu *que para una ordenada gestión*. Gainera *procedimiento bide* baino zehatzago da = *prozedura*. *Compromiso* ere oso haundiaurkiro da *betebehar* (=obligación); zeren edozein *betebehar* ez bait da *konpromixo* eta bai *promesa edo hitz-emate baten bidez loturik dagoena bakarrik*. Beraz itzulpen osoa litzateke: *gestioa ordenatua izan dadin, hitzarmenetan beretan aipatuko diren prozedura, epe eta konpromixoen arauera.*

VI. ERABAKI IRAGANKORRA

Canal de televisión ez da *ikusirrati-erakunde* (=institución de radio para ver???) eta bai *telebistako kanalea*. Egia esan, komentario guztiak alde eginda gelditu naiz *ikusirrati* hori ikusi dudanean. Fisikaren aldetik, edo elektronikaren aldetik badaiteke funtsean gauza beraren jarraipen diferenteak izatea irratiaren eremua eta telebistaren eremua. Praktikan eta hizketaren aldetik zeharo mundu autonomo bana dira: radio, radiografia, radioteknia, radioastronomia, etab...; televisión, televisivo, circuito televisivo, transmisión televisiva, etab... Bata *radiumi* lotua dago; bestea *tele-visión* (=urrun-ikuste, alemanez *Fern-sehen*).

Canal ez da *erakunde* eta bai *kanale edo tele-bide* bat. Izan ere telebistazko emanaldi bat *telebistazko bide* batzutatik bidaltzen da jendeak ikus dezan, eta jendeak ere bere aparatuaren bidez bide hori bilatu eta aurkitu beharra dauka emanaldia hatzeman eta ikusiko badu. Nik neuk nahiago nuke *kanale*, Europa guztian erabiltzen den

SEPTIMA. 1. Mientras las Cortes Generales no elaboren las leyes básicas o generales a las que este Estatuto se refiere y/o el Parlamento Vasco no legisle sobre las materias de su competencia, continuarán en vigor las actuales leyes del Estado que se refieren a dichas materias, sin perjuicio de que su ejecución se lleve a cabo por la Comunidad Autónoma en los casos así previstos en este Estatuto.

2. Lo previsto en el artículo 23.1 de este Estatuto se entenderá sin perjuicio de las peculiaridades que por su propia naturaleza puedan requerir, respecto al ámbito territorial de prestación, determinados servicios de la Administración Civil del Estado.

bezala, euskaraz ere hitza badugunez gero.

Específicamente para su emisión en el ámbito territorial del País Vasco ez da *saioak bereziki Euskalerrirako egingo dituena* (=que emitirá especialmente para el País Vasco) eta bai *espezifikoki Euskalerriaren lurralde-barrutian emititzekoa*. Bigarren onek badirudi esaten duela, Euskalerrirako bakarrik izango dela. Baina, *Bereziki Euskalerrian emateko* harek adieraziko luke *Euskalerrirako bakarriz ez, besteentzat ere bai*. Onak gaude formula honekin telebista euskara zabaltzeko era biltzea nahi genukeenok! Gainera *en el ámbito territorial* ere jan egin da.

Atribuya, en régimen de concesión,... la utilización de ez da *(Euskalerriaren) eskuetan erabiltze-baimenez ipini ezkero* (=de poner en manos (del País Vasco) con permiso de utilización) eta bai hobeto *usatzea, kontzesio moduan, Euskalerriaren eskutan utziko balu.*

La coordinación en la ejecución... será de aplicación ez da *arremanak kontuan izatekoak dira* (=las relaciones se deberán tener en cuenta) eta bai *exekuziokoan koordinaturik ibiltzea... bete beharrekoa izango da.*

Concesión ez da *erabiltze-baimena* (=permiso de uso) eta bai *kontzesioa. Uztea* baino gehiago da, *ematea* baino gutxiago; *baimenaren* antzeko mamian, baina kategoriaz askoz ere gehiago.

Hona euskaratzeko izugarri zaila den textu hau eta bere itzulpena. Ondoren nik egindako euskarapena:

Saioak bereziki Euskalerrirako egingo dituan ikusirrati-erakunde berri bat Es

taduak sortu ta bere esku eukirik, Euskalerriaren eskuetan erabiltze-baimenez ipiñi ezkero, Autonomi-Araudi onen 19.2 atalean aipatzen diran arremanak kontuan izatekoak dira, erabiltze-baimenak berak esango duan eran.
Eta nik proposatzen dudan itzulpena:
Exekuziokoan koordinaturik ibili behar delako hura, 19.2. artikuluan aipatzen dena, honako supostu hontan bete beharrekoa izango da, alegia, baldin Estatuak Euskal Komunitate Autonomoaren eskutan jarriko balu, eta jarri ere kontzesio-moduan, titularitate estatalezko telebista-kanale berriren baten baliakuntza, zeina izango bait da Euskal Herriaren lur-barrutian emititzeko apropos (espezifikoki) sortutako kanale bat, aipatu kontzesioak aurrikusiko duenaren arauera. Edo:
Exekuziokoan koordinaturik ibiltze hura, artikulu 19.2.ean aipatzen dena, honako supostu hontan bete beharrekoa izango da, alegia, baldin Estatuak Euskal Komunitate Autonomoaren eskutan jarriko balu, eta jarri ere kontzesio-moduan, titularitate estatalezko telebista-kanale berriren batez baliatzea, zeina izango bait da kanale bat Euskal Herriaren lur-barrutian emititzeko apropos (espezifikoki) sortua, aipatu kontzesioak aurrikusten dituen baldintzen arauera.

VII. ERABAKI IRAGANKORRAK

VII.1 PASARTEA

Leyes básicas ez da *lege mugagarriak* (=leyes limitativas) eta bai *oinarrizko legeak* edo *oinarri-legeak.*

Elaborar las leyes ez da *legeak eratu* (=formar, realizar, hacer leyes)

eta bai *legeak elaboratu. Landuz egitea* edo da *elaborar.*

Y/o ez da *edo-ta* (=edo) eta bai *eta/edo.*

Continuarán en vigor ez da *aginduko dute* (=mandarán) eta bai *indarrean jarraituko dute.*

Sin perjuicio ez da *naiz-ta* (=a pesar de que) eta bai *kalte gabe* edo *ez da eragozpen izango* edo *eragozpenik gabe.*

Casos previstos en este Estatuto ez da *Autonomi-araudi onek erabakitzen dituen arazoetan* (=en los asuntos que decide esta normativa autonómica), eta bai *Estatutu hontan aurrikusten diren kasuak* edo *Estatutu hontan aurrikusitako kasuak.*

Casos ez da *arazoak* (= asuntos) eta bai *kasuak. Kasuak* hemen esan nahi du: *gertakari, gertatzeko modu bat, ebentualitate bat, situazio modu bat, egoera bat* eta noiz edo behin *arazo jakin bat.* Beraz ez dago *arazo* itzultzerik.

Sin perjuicio de que su ejecución se lleve a cabo por la Comunicad Autónoma en los casos así previstos en este Estatuto ez da *Naiz-ta Autonomi-Araudi onek erabakitzen dituan arazoetan Euskalerria bera izan legeak betetzera eramango dituana* (= a pesar de que, en los asuntos que decida esta normativa autonómica, sea el mismo País Vasco quien lleve a cumplimiento las leyes) eta bai *eta ez da eragozpenik izango beroien exekuzioa Komunitate Autonomoak burutu dezan, Estatutu hontan horrela aurrikusten diren kasuetan.*

OCTAVA. El primer Concierto Económico que se celebre con posterioridad a la aprobación del presente Estatuto se inspirará en el contenido material del vigente Concierto Económico con la provincia de Alava, sin que suponga detrimento alguno para la provincia, y en él no se concertará la imposición del Estado sobre alcoholes.

VII.2 PASARTEA

Lo previsto en el artículo 23.1 de este Estatuto se entenderá sin perjuicio de...
ez da *Autonomi-Araudi onek 23.1 atalean diona osorik ezin beteko da* (=no se podrá cumplir plenamente lo que dice esta normativa autonómica en la parte 23.1) eta bai *Estatutu honen artikulu 23.1.ean aurrikusten dena...ren kalterik gabe ulertuko da.*

Peculiaridades que por su propia naturaleza puedan requerir, respecto al ámbito territorial de prestación determinados servicios de la Administración Civil del Estado: zati bat ez da itzuli eta bestea honela: *Estaduko Iritar-Lege Agintaritzapean jarraituko duten zenbait serbitzuk duten lurralde-mugen berezitasunagatik* (=por la particularidad de los límites territoriales, que tienen determinados servicios que continuarán bajo la Autoridad, jefatura, de ley civil del Estado). Hori gaizki dago, honela behar luke: *Estatuaren Administrazio Zibileko zenbait serbitzuk, berauek egiten direneko lur-barrutiari dagokionez, beren izaeragatik eska ditzaketen berezitasunen (kalterik gabe).*

VIII. ERABAKI IRAGANKORRA

Se inspirará ez da *oinarrituko da* (=se basará) eta bai *inspiratu, argihartu?.*

Contenido material ez da itzuli.

NOVENA. Una vez promulgada la Ley Orgánica que apruebe este Estatuto, el Consejo General Vasco podrá acordar el asumir la denominación de Gobierno Provisional del País Vasco, conservando en todo caso sus actuales funciones y régimen jurídico hasta que se dé cumplimiento a lo previsto en la Disposición Transitoria primera del mismo.

(El primer Concierto Económico)... se inspirará en el contenido material del vigente Concierto Económico de la Provincia de Alava ez da *Estadua eta Araba'ko Aldundiaren artean indarrean dagon Zerga-Itunbenaren diru-arauketan oinarrituko da* (=se basará en la normalización monetaria del pacto impositivo vigente entre el Estado y la Diputación de Alava) eta bai *indarrean dagoan Arabako Probintziaren Kontzertu Ekonomikoaren edukin materialean inspiratuko da.*

Contenido material ez da euskaratu.

Diru-arauketa ez da ezer, gehienez ere *normalización monetaria*, hemen ezertarako behar ez dena.

Estadua eta Arabako Aldundiaren artean (= entre el Estado y la Diputación de Alava). Nundik asmatu da hori? Textuan *Arabako Probintziaren* dio, besterik gabe.

No se concertará ez da *ez da aipatuko* (=no se mencionará) eta bai *ez da kontzertatuko.*

IX. ERABAKI IRAGANKORRA

Promulgar la Ley Orgánica ez da *Lege Nagusia indarrean ezarri* (=poner en vigor la Ley Principal) eta bai *Lege Organikua jakinerazi edo hotsegin.*

Acordar ez da *erabaki* (=decidir) eta bai *akordatu, akordioa hartu. Akordio* rik gabe ere *erabaki* asko hartzen da. Kasu hontan *akordiozko erabakia hartzea* da. Beraz hobe *akordatu.*

Conservando ez da *jarraituz* eta bai *gordeaz.*

En todo caso ez da itzuli.

Régimen jurídico (actual) ez da *leenagoko lege-araubidea* (=normativa legal anterior) eta bai *oraingo erregimen juridikoa.*

Hasta que se dé cumplimiento a lo previsto ez da *diona gertatu arte* (=hasta que ocurra lo que dice) eta bai *aurrikusitakoa (dioena) bete arte.*

Del mismo (Estatuto) jan egin da.

ITZULPEN OFIZIALAREN AZTERKETA

ITZULPEN OFIZIALA

Zenbait ohar

Euskerazaintzakoek Estatutuari buruz eman duten euskarapenarekiko oharrak amaitu ondoren, esan didate, komeniko litzatekeela ofizial --izatekoa den itzulpenari ere begiratu bat ematea. Hala egin dut. Baina - ez euskarapen osoa aztertuz, luzeegi eta xede praktikorik gabe litzatekeela hori eta. Beraz itzulpen hortatik bi mostra hartu ditut, nere ustez, beren baitan nahiko problemarik badutenak, eta itzulpenaren kategoria aski ondo erakus dezaketenak. Mostra hauek izan dira:

II. Tituluko III. Kapitulua, bere artikulu 34,35, 36ekin eta.

Erabaki Iragankorretatik VI.a eta VII.a (azkeneko biok nahiko zailak itzultzen).

Aurrena Textua zatika zatika hartu eta bere kritika egiten ihardun naiz, Euskerazaintzako euskarapenari egin diodan bezalaxe. Ondoren, gorago aipatu textu-zati hoien itzulpena neuk eginik eman dut, nolabait aditzera emateko nolaezpada bururatzen ditudan nik Estatutuaren zatiok doi doi euskaraturik. Gainera aukera dago horrela hiru itzulpenak elkarren parean hartu eta konparatzeko.

Eritzi orokor bat

Euskerazaintzakoen euskarapena baino asko ere hobeto dago itzulpen hau: jatorrizko textua leialago, doiago, teknikoago emanaz. Honek ez dauka aurreritzirik, harek bezala, textua itzultzekoan. Beti egoki erabakitzen ez badira ere, afrentatu egiten dira behintzat problemak, beroiei itzulinguruka ihesik egin gabe, han egiten zen bezala. Euskerazaintzakoen euskarak, herritar nahi zuen izan, eta erraztasuna gordetzearren, intzisu eta xehapen asko jan egiten zuen, horrela jatorrizko textuari leialtasuna ukatuz. Gero ordea erraztasun-asmo guzti hoiek alferrik galtzen zituen -- hizperri gaizki asmatuekin, kontzeptu desberdinak adierazteko hitz berak erabiliz, mila jira eta bira eginaz erdarazko usaia zuen hitzik somatzen zen bakoitzean, etab. Euskarapen hontan ez dago horrelako herritar izateko asmorik. Hontan textuari jarraitu zaio eta hura itzuli nahi izan da, ez herri xeheari begiratuz eta bai hau eskuartean erabiliko duten legegi zonei. Doitasuna bilatu da eta originala hanka eta buru itzultzea. Erdarazko hitzak teknikoegiak zirenean, edo euskaraz esateko modu egokirik aurkitu ez denean, gorde egin dira. Estiloa bera gaiaren parekoa da eta beraz aski teknikoa eta elkorra. Beraz itzulpena egitekoan hartu den jarrera eta erabili nahi izan den bidea zuzena da.

Nik erabili dudan itzulpen-textua ez da beharbada definitiboa. Ohar hori egin ondoren esan beharrean aurkitzen naiz, euskarapena ez dela originalarekin osoro leial: hitz eta esaldi asko direla gaizki itzulita daudenak; zenbait hitz eta xehapen, kendu ezin zitezkeenak, jan - egin direla; originalean agertzen ez diren zenbait hitz-punta erantsi -

egin direla, doitasunaren kaltetan; beste zenbait ideia ez direla zuzen ulertu, eta gero ezin zuzen itzuli noski; gramatikazko zenbait akats ere badira, beren gramatika-eremutik kanpora, gaiari berari ere beren kutsu negatiboa erantsi diotenak, doitasunaren kaltetan. Labur esateko, Euskerazaintzakoen itzulpenak baino akats gutxiago baditu ere, euskarapen - ofizial izateko gehiegi ditu zalantzarik gabe. Textu hori ofizial edo - ofizialkide bezala agertu aurretik, poliki poliki, dena berriro ikusi - beharra dago, nere ustez.

Horra nik ikusi uste izan ditudanak eta itzulpen horri buruz neri esatea bururatu zaidana. Agur.

Fernando Mendizabalek

DE LA ADMINISTRACION DE JUSTICIA EN EL P.V.

34. ARTIKULUA

34.1. PASARTEA

En todo el territorio de la Comunidad Autónoma: Ez da *Komunitate Autonomo osoan* (= en toda la Comunidad Autónoma); *territorio* ez da itzuli eta behar da. Ez bait da berdin *lurraldez mugatutako komunitate bat* eta *lurraldez mugatu gabe dagoena*. Bigarren kasu honetan, -Komunitate hortako kide batek delitu bat egiten baldin badu, edozein lurraldetan egiten duela ere, beti legoke Justizi Administrazio horren konpetentzian subjektu hori juzgatzea, konpetentzia hori ez bait du inungo lurraldek mugatzen eta pertsonei zuzenki atxikia bait dago. Baina aurreneko kasuan ez, han *Komunitate Autonomoaren lurralde osoan,* bai, baina haren barruan bakarrik, izango luke eskurik kide hori juzgatzeko. Beraz, lurralde hortatik kanpora egindako deliturik ezingo luke juzgatu. Itzulpena beraz, *Komunitate Autonomoaren lurralde osoan.*

Se agotarán (las instancias): agortuko (bukatuko, burutuko) itzultzen du. Nik neuk *agortuko* utziko nuke. *Burutu = zertu, egin, gertatze batek azkena hartu, prozesu bati azkena eman* edo da gehienbat. Beraz ez du balio. *Bukatuk* badirudi adierazten duela, beste nunbaiten hasi dena hor amaitzen dela. Hor esan nahi dena, berriz, da: gorago jotzerik ez dagoela.

Instancias procesales: itzultzeko *prozeso eskabideak (instantzia prozesalak)* eskaintzen da. *Prozeso eskabideak = petición de proceso* da eta hemen adierazi nahi dena *jurisdikzio-maila prozesalak* da. Beraz *instantzia prozesalak* hobe.

Según lo previsto: itzultzeko *datorrenaren arabera* (= según lo que viene) ematen da. Ez dago gaizki nahi bada, baina hizkera teknikoaldetik oso eskas. Hobe eta doiago *aurrikusitakoaren arauera. Prever, previsto,* oso hitz inportantea da Zuzenbidean eta betiberdin itzultzea komeni da. Esanahiaren aldetik ere bere indarra du *zehaztu edo finkatu*ren antzekoa gutxienez, baina *datorrenak* baino askoz ere haundiagoa edozeinetara ere.

Organización (de demarcaciones judiciales) motz edo gelditzen da *(barruti ofizialak) eratu* (= formar demarcaciones judiciales) esanda. *Eratu*ren esanahi nagusiena *formar, hacer formando, realizar formando* da eta gero hortik aurrerakoak: *conseguir, agenciar, proporcionar, etab.* Horren funtsean *era* hitza dago. *Organizar* berriz *ordenatu* da gehienbat, gure kasu hontan *sortu eta ordenatu, martxan jarri.* Idea hori emateko berriz hobeto dago *antolatu,* gaur zentzu hortan espezializatzen ari dena, *eratu* baino.

34.2. PASARTEA

El presidente será nombrado por el Rey itzultzeko *Presidentea Erregeak izendatuko du* (= al Presidente lo nombrará el Rey) ematen da. Erdarazko bi textuak konparatu besterik ez dago bien arteko diferentziatxoa ikusteko. Esanahia berdina da, noski, mamiz; baina bada hor hitz egiteko modu bat ere ahaztu behar ez dena. Alde hortatik neutralago da lehenengo formula bigarrena baino. Euskaraz ere bada xehapen hori berremateko modurik eta ematea komeni da: *Presidentea Erregeak izendatua izango da.*

34.3. PASARTEA

En la Comunidad Autónoma itzultzeko *Komunitate Autonomoaren barrutian* - (= en el ámbito, jurisdicción, de la Comunidad Autónoma) esaten da. *Barruti* hori ez da ageri erdarazko textuan, eta ez dago zertan jarri.

El ejercicio de la acción popular itzultzeko *ekintza herritarren ihardunaldiak* (= los ejercicios de las actividades populares). Zergatik jarri da hori pluralean? Gainera *acción* esateko gehitxo dirudi *ekintza* (= actividad areago). *Egintza* aski litzateke hor.

Ihardunaldia ere ez dago hor ondo. *Iharduneraren une* bat *ihardun-saio* bat besterik ez da hori. Hemen behar dena berriz *ihardute muga gabe edo etengabe bat* adierazten duen hitza da: beraz *iharduera, ihardutea.* Hona nola behar lukeen: *herri-egintzaren iharduera.*

Y: ez da *bai... ere* (= también), baizik *eta.*

Facilitará... la participación ez da *parte hartzen utzi* (= dejar participar) eta bai *parte hartzea erraztuko du.*

Mediante la institución del Jurado ez da *Epaimahaia eraikiz* (= creando un tribunal) eta bai *zinegotzi erakundearen bidez.* Kasu hontako - *Juratua* ez da *epaimahai bat* eta bai *herri-organismo bat, lurralde demokratikoetako justizi administrazioan kolaboratzen duena.* Horri berriz *zin-egotzi* esaten zaio euskaraz.

En la forma y con respecto a aquellos procesos penales que la ley procesal determine ez dago euskaratzerik *prozeso legeak erabakitzen duen prozeso penalen erara eta arabera* (= según la forma y la norma de los procesos penales que establece la ley procesal) eta bai *prozesu-legeak zehazten duen eran eta berorrek zehazten dituen prozesu penalei buruz.* Erdarazko *que* erlatibu horrek bi antezedente osoro des-

berdinak ditu, euskaraz inola ere erlatibo bakarrarekin berre man ezin direnak: 1) *en la forma que* eta 2) *con respecto a aquellos procesos penales que*. Euskaraz *-n* besterik ez da erlatibua, baina lehenengoan paziente-singular-duna *due-n*, eta bigarrenean paziente-plural-duna *ditue-n*. Erdaraz ere gutxitan erabiltzen den *balio biko erlatibo trinko* horrentzat euskarak ez du oraindik ordainik. Beraz bi esakun dago hor egin beharra, nik egin gudan bezala; izan ere holaxe dira eta.

Con respecto a aquellos procesos penales ez da *prozeso penalen erara* (= a la forma de los procesos penales) eta bai *prozesu penalei buruz*.

35. A R T I K U L U A

35.1. PASARTEA

Consejo General esateko *Kontseilu Nagusi* esateari ez diot inolako arrazoirik ikusten, erdara-hotsezko hitz bati ihes egitea besterik. Hori berriz ez da ezelako arrazoi. Euskaldunen erakunde bat balitz, lehendik horrelako deitura duena, tira. Baina erdal Gobernuak berriki eman digun erakundea eta deitura izaki, ez dut arrazoirik ikusten *Kontseilu Generalaren* ordez *Kontseilu Nagusi* esateko. Ez dezagun ahaztu horrezaz gainera ere izango direla bestelako hainbat kontseilu ere *general, partikular, partzial, etab...* izango direnak. Zer egin behar dugu, *general* datorren bakoitzean *nagusi* ipini? Hori ez da hizkuntza teknikoari dagokion bidea.

Siendo mérito preferente el conocimiento (del Derecho Foral Vasco y el del euskera) ez da *(Euskal Deretxo Forala eta euskara) ezagutzen dutenei lehentasuna emanez* (= dando prioridad a los que conocen el Derecho Foral Vasco y el euskara) eta bai *lehenesteko meritua izango da (Euskal Foru-Zuzenbidea eta euskara ezagutzea)* edo *lehenespenezko meritua izango da...* edo *hobesteko meritua izango da...* Neutroan eta inpertsonalki hitz egiten da hor erdarazkoan, eta ez pertsonei egokituz, euskarazkoan esaten den bezala.

Excepción alguna ez da *salbuespen, alguna* itzultzeke dago. Doi doi - *salbuespen bat ere gabe* edo *salbuespen bakarrik ere gabe* da. Askoz - ere indar haundiagoa du erdarazkoak euskarapenekoak baino. - Eta ederki zegoen hemen behingoz!

Por razón de naturaleza o de vecindad ez da *izatasuna eta auzotasuna dela eta. Izatasun* horrek *izatea edo zer-izatea* esan nahi du, baina ez *rango-izatea, jatorria.* Hemen berriz azkeneko hau da. Beran hone la edo itzuli beharko litzateke: *sorlekua edo bizitokia dela eta.*

35.2. PASARTEA

A instancias de la Comunidad Autónoma: Komunitate Autonomoaren instantziei (eskakizunei) jarraiki itzultzen da. *Instantzia = eskakizun* ez dago hemen egiterik. *Eskakizuna = eskatzen den zerbait* da, baina ez *eskatzea* bera. Hemen berriz *eskea, eskatzea* besterik ez da; beraz, *eskakizun* gaizki dago. Erdarazko *instantziaren* beharrik ez dago hemen, *eske, eskatze, eskaera* badago euskaraz eta. Nere ustez, *jurisdikzio-mailak* adierazteko bakarrik daukagu erdarazko *instantzia* hitzaren beharrik.

Deberá convocar los concursos y oposiciones ez da *deia zabalduko du lehiaketa eta oposizioetara* (= extenderá la proclama a los concursos y oposiciones) eta bai *lehiaketa eta oposizioak hotsegin beharko ditu* edo *lehiaketa eta oposiziotara dei egin beharko du. Deia zabaldu,* - hori ez da *convocar* eta bai *enviar avisos, distribuir o extender - llamadas. Convocar* esateko askoz jatorrago eta ezagunagoak dira *hotsegin, dei egin.*

Las plazas que quedasen vacantes... serán cubiertas euskaratzeko oso urrutira jo da: *hutsik geratuko liratekeen postu hutsak... beteko lituzke* - (= los puestos vacios que quedasen vacantes... los llenaría). Euskarazkoak hipotesi oso hipotetikoa bezala ematen du pentsamendua. Textuak dioena ez da besterik: *posturik hutsik gelditzen bada, eta geldituko dira noski, orduan beteak izango dira.* Oraindik gertatu ez bada ere noiznahi gerta daitekeen hipotesia da erdarazko textuak adierazten duena, horregatik kasu hortarako ematen den erabakia ere denbora errealean doa *beteak izango dira* eta ez denbora hipotetikoan *beteak izango lirateke.* Itzulpena beraz, *hutsik gelditzen diren postuak,... beteko ditu.* Bigarren *hutsak* sobran dago.

Las normas que para este supuesto se contengan en la Ley...: euskaraz *honelako kasuetarako Legean aipatzen diren arauak* ematen da. Gaizki itzulita dagoenik ez dago esaterik, mamiari begiratuz gero, baina formari dagokionez ez da erdarazkoaren guztiz parekoa. Hizkera tekniko bat sortzekoan, berriz, badu horrek bere balioa, - eta gorde egin behar litzateke beste arrazoi nagusiagorik, bestela kontseilatuz, ez dagoen bitartean. Nere ustez, ezer galdu gabe honela itzuli zitekeen hori: *supostu hontarako Legean izango diren arauak* edo *supostu hontarako Legeak izango dituen arauak.*

35.3. PASARTEA

Dentro de su territorio: bere eremuan baino egokiago litzateke *bere eremu barruan* edo hobe oraindik *bere lur-barrutian, bere lur-barruan. Territorrio, territorialidad* itzultzeko egokiago da *lur, lurralde, eremu* baino.

Corresponderá ez da *dagokio* (= le corresponde) eta bai *egokituko zaio* edo *egongo zaio* edo *dagokioke*. Inundik ere ihes egin nahi izan zaio aditz horrek eskaintzen duen zailtasunari. *Dagokio*, eta -ia bera bakarrik, erabiltzen da. Oso gutxi edo ia batere ez da erabiltzen *egokituko zaio* edo *egongo zaio = le corresponderá* esateko. *Egonen zaika* Axularrek dakar. *Egokituko zaio* berriz oraindik ere herrian bizirik dagoen forma da. *Neri behin baino gehiagotan egokitu zait eta zuri ere, hor baldin bazabiltza, egokituko zaizu* gure amari entzuna diot. Gainera, kasu hauxe zela eta, lehengo batean bota nien nere lagun batzuri galdera hau: nola esango zenukete euskaraz *os corresponderá?* eta biziro pentsatzen egon gabe erantzun zidan batek: *egokituko zaizue*. Gero pentsatzen hasi ziren beren artean eta esaten zuten: *eta ondo al zegok hori?, baina beste formularik ba al zegok ba hori esateko?*. Horren ordez gaur gehienbat erabiltzen dena *tokatuko zaio* da.

La provisión del personal al servicio de la Administración ez da *Administrazio zerbitzuko pertsonala... hornitzea* (= el proveer al personal del servicio de Administración) eta bai *Administrazioaren serbitzua -pertsonalez hornitzea*. Aditz honen erregimena *zerbaitez norbait hornitu* da, edo *zerbaitez beste zerbait hornitu*. Zerez hornitzen den *zerezko* kasuan dago jarri beharra, eta ez *zer*-kasuan edo *pazientе* hutsean. Beste horrenbeste esan hurrengoei buruz ere.

La provisión... de los medios materiales y económicos necesarios ez da *medio materialak eta ekonomikoak hornitzea*. Zerez hornitu behar dira hoiek? *Helpide edo medio materialez eta ekonomikoz hornitzea* dago zuzen.

Reservar ez da *eskutan utzi* bakarrik. Erdarazkoak halako exklusibitate bat adierazten du, euskarazkoak berrematen ez duena. -- *Erreserbatu* nahi ez bada jar bedi *jorde, bakarrik utzi, esku bakarrik utzi* edo. Ikus hurrengoan textua osoago:

Se reserve tal facultad al Gobierno en la Ley Orgánica ez da *Lege Organikoak eskubide hori Gobernuaren eskutan uzten du* (= La Ley Orgánica deja en manos del Gobierno tal facultad) eta bai *eskubide hori Lege Organikoan Gobernuarentzat gordetzen da*. Inpertsonalki esana dagoena ez dago zertan aldatu. Ez ahaztu textu ofizial bat itzultzen ari garela hemen. Mami berdina badu ere, hor esaten dena ez da *Lege Organikoak gordetzen duela* eta bai *Lege Organikoan gordetzen dela*. Esateko bi modu diferente dira.

En los sistemas de provisión del personal gorago esan dudanez ez da *pertsonala hornitzeko sistemetan* (= en los sistemas de proveer al personal) eta bai *pertsonalez hornitzeko sistemetan*.

Valorándose preferentemente el conocimiento del Derecho Foral Vasco y del euskera ez da *Euskal Deretxo Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehentasuna emango zaie* (= se dará preferencia a los que conozcan el Derecho Foral Vasco y el euskara) eta bai *lehenespenez baloratuko da Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzea*. Balorazioa, erdarazko textuan esaten den bezala, ez zaie pertsonei egiten eta bai *jakiteari*. Gaztelerazko textua euskarazkoa baino askoz ere inpertsonalago da.

35.4. PASARTEA

La Comunidad Autónoma y el Ministerio de Justicia mantendrán la colaboración precisa: forma pertsonalean dagoena zergatik jartzen da pertsonagabean?: *Komunitate Autonomo eta Ministeritzaren artean behar besteko kolaborazioa izango da!* Hobe: *Komunitate Autonomoak eta Justizi Ministraritzak behar bezalako kolaborazioa izango dute.*

Para la ordenada gestión de la competencia asumida por el País Vasco ez da *Euskal Herriak hartu duen konpetentzia guztiz gestio egokiz betetzeko* - (= para cumplir con gestión del todo adecuada la competencia que ha tomado el País Vasco) eta bai *Euskal Herriak jaso duen konpetentziari gestio ordenatu bat emateko* edo. Batetik *guztiz* hori sobra dago. *Ordenada = ordenatua* da areago eta ez *egoki* (= conveniente, adecuado). Nere ustez, konpetentzia ez da *betetzen* eta bai *erabiltzen*. Erabiltzen diren gauzei berriz *erabilera, usario ona -- ematea,* edo *gestioa ematea* ere bai, *erabiltzeko modu bat* da *gestioa* eta.

36. A R T-I K U L U A

En cuanto actúe como Policía Judicial ez da *Polizia Judizial gisa ari denean* (= cuando actúe como Policía Judicial). *En cuanto* itzuli gabe dago. Hobe hola: *Polizia Judicial bezala ari den neurrian.*

Al servicio y bajo la dependencia de la Administración ez dago ondo itzulia *Administrazioaren zerbitzu(ko) eta dependentziaren barruan egongo da* (= estará dentro del servicio y la dependencia de la Administración). Ez dakit zertarako atera den *barruan* hori *bajo* esateko. *Al servicio* ere ez da *zerbitzu* edo *zerbitzuko* eta bai *zerbitzura*. Hona textua dena berriro euskaraturik: *Administrazioaren serbitzura eta dependentzipean egongo da.*

En los términos que dispongan las Leyes procesales ez da doi doi *prozesu legeetan agintzen den arabera* (= según se mande en las leyes procesales). Ez da esaten *legeetan* agintzen denik eta bai *legeek* agintzen dutela. Gainera *disponer* eta *agindu* ere ez dira indar berdineko hitzak. Hobe honela: *prozesu-legeek erabakitzen duten bezala* edo *Lege prozesalek erabaki dezaten terminuetan.*

VI. ERABAKI IRAGANKORRA

La coordinación en la ejecución prevista en el artículo 19.2 será de aplicación en... ez da euskaraz *19.2 artikuluan aurrikusten dena burutzeko, koordinaketa bat egingo da* (= para realizar lo que se prevee en el artículo 19.2, se hará una coordinación). Hor esan nahi dena da, *artikulu 19.2an koordinazio modu bat aurrikusi dela eta kasu hontan bete beharrekoa izango dela* eta ez euskarazko textuak eman duena. Hona itzulpena behar den bezala: *Exekuziokoan koordinaturik ibiltze hura, artikulu 19.2.ean aipatzen dena, honako... hontan bete beharrekoa izango da* edo *Exekuzioko koordinazioa, artikulu 19.2.ean aurrikusten dena, honako... hontan aplikatzekoa izango da.*

De titularidad estatal ez dago ondo *tituluz estatala izango litzatekeen* (= que por el título sería estatal). Badirudi *tituluz* horrek esan nahi duela, *izenez bakarrik* izango litzatekeela Estatuarena. Bai zera *izenez bakarrik, izenez eta izatez* izango da Estatuaren. Ez bait da berdin *tituluz* eta *titularitatez* (= jabetasun-titulua). Beraz hobe: *titularitate estatalezko* edo *estatuar titularitatezko.* Gainera erdarazkoan ez da esaten *izango litzatekeenik* eta bai *izango dela;* beraz, hori kendu.

Atribuya... la utilización de algún nuevo canal de televisión euskaraz ematekoan, hainbat xehapen kentzen edo aldatzen dira; *telebistako kanale berri bat erabiltzeko ahalmena emango balio* (= si le diera la facultad de utilizar un canal nuevo de telivisión). Erdarazkoak ez dio *kanale berri bat* eta bai *kanale berriren bat*. Erdarazkoak ez dio *erabiltzeko ahalmena eman* eta bai *erabiltzea, baliatzea eman* edo nere ustez hobeto *erabiltzea, baliatzea eskutan jarri*.

Canal..., que se cree específicamente para su emisión en el ámbito territorial del País Vasco ez da ondo itzultzen *Kanale horrek Euskal Herriaren esparrura mugatu beharko luke* (= ese canal debería limitarse al ámbito del País Vasco). Oso *secundum sensum* itzulia dago --hori. Konpara erdarazko bi textuak, nik emandakoa eta jatorrizkoa, eta gainerako komentarioak sobra. Hona itzulpena behar bezala: *zeina izango bait litzateke kanale bat Euskal Herriaren lur-barrutian emititzeko espezifikoki sortua* edo *kanale..., Euskal Herriaren lur-barrutian espezifikoki emititzeko sortua izango litzatekeena*.

Gainerarik ez da erdarazkoan ageri.

VII. ERABAKI IRAGANKORRA

VII. 1. PASARTEA

Y/ö ez da edo eta (= o) eta bai *eta/edo*.

Parlamento ez dago ondo itzulia *Biltzarra* esanez bakarrik. *Biltzarra = asamblea, reunión, congreso, junta...* edo beste edonola itzuli daiteke. *Parlamentu* hitz sagaratua da hizkuntza guztietan. Nola esango litzateke *Asamblea parlamentaria?*.

Continuarán en vigor las actuales leyes del Estado ez dago ondo euskaraz *oraindaino indarrean dirauten Estatuaren legeek jarraituko dute aurrerantzean ere* (= las leyes del Estado que aún están en vigor continuarán también en adelante). Doiago *indarrean jarraituko dute Estatuak gaur dituen legeek* edo *indarrean jarraituko dute Estatuaren gaurko legeek. Indarrean* hori ez da *dirautenena* eta bai *jarraituko duterena*.

Sin perjuicio de que ez da euskaratu eta behar litzateke.

Su ejecución se lleve a cabo ez da *guzti horien burutzea* (= la realización, la terminación, de todo eso). Ondo legoke hori *llevar a cabo* esateko, baina *su ejecución* falta da oraindik. Hona euskaraz: *hoien exekuzioa... burutu dezan.*

Su ejecución se lleve a cabo por la Comunidad Autónoma: euskaraz ematen da *guzti horien burutzea Komunitate Autonomoaren esku egongo delarik* - (= quedando en manos de la Comunidad Autónoma la realización de todo eso). Erdarazko *por* hori ez dut uste egoki itzulia dagoenik *-ren esku egongo da*. Hobe eta doiago euskaraz: *hoien exekuzioa Komunitate Autonomoak burutu dezan.*

En los casos así previstos ez da euskaraz *aurrikusten diren kasuetan bederen* (= al menos en los casos previstos). Nundik ateratzen da *bederen* hori?, erdarazkoak ez dakar.

Se entenderá sin perjuicio de ez da euskaraz *ez du trabarik suposatuko* - (= no supondrá traba) oso *secundum sensum* baizik. Doiago legoke *-ren kalterik gabe ulertuko da.*

Las peculiaridades que por su propia naturaleza puedan requerir ez dago - ondo euskaraz *beren jite propioarengatik... (zenbait zerbitzuk)... es ka ditzakeen berezitasunak. Zenbait zerbitzu* singularrean jartzen baldin bada, ezin daiteke *beren* pluralean jarri. Bestalde argi eta garbi jarri beharra dago hemen *zerbitzu* hoiek plural direla. Orduan bietan bat, edo eta *zenbait* plural bezala erabiltzen da, eta erabilera honi ezin diezaioke inork erreparorik jarri; edo eta bestela, beste hitz bat hauta beharra dago *zen bait* horren ordez. *Jite* horri ez dakit zer esanahi eman, dituen askoren artetik: *temperamento, aptitud, índole, talante, carácter.* Horixe da hitz bat gure lan tekniko hontarako ezer gutxi balio diguna, *izaera* jator jatorra daukagularik gainera! Nik neuk - honela itzuliko nuke: *(zenbait zerbitzuk) beren izaera propioagatik... eska ditzaketen berezitasunak.*

Lo previsto... se entenderá sin perjuicio de las peculiaridades que por su - propia naturaleza puedan requerir, respecto al ámbito territorial de pres tación, determinados servicios konpara euskarapen honekin: *aurrikus ten denak, ez du trabarik suposatuko beren jite propioarengatik, eta lu rralde esparruari dagokionez, ... zenbait zerbitzuk bere prestamenerako - eska ditzakeen berezitasunentzako* (= lo previsto..., por su índole propia, y respecto al ámbito territorial, no supondrá traba - para las peculiaridades que pueda requerir determinado servicio para su prestación). Hori ez dago ondo itzulia. Zerbitzu hauek ez dute berezitasunik eskatzen beren prestamenerako beren izaeragatik. Berezitasunak sortzen dira, zerbitzu hoiek - diren bezalakoak izateaz gainera, *prestatu behar direneko lur-barru tiarekin* lotzen direnean *(respecto al ámbito territorial de prestación).* Beraz, azkeneko intziso hau ez dago desegiterik, alde batetik *lurralde esparrua* jarriz, eta *prestamenerako* beste sail batera bida liz. *De prestación* da *ámbito territorial* zehazten eta markatzen duena; gero *ámbito territorial de prestación* honek determinatzen ditu, bere aldetik, *zenbait zerbitzuk... eska ditzaketen berezitasunak.* Hona nere itzulpena: *aurrikusten dena,... zenbait zerbitzuk, berauek nun pres tatzen direneko lur-barrutiari dagokionez, beren izaera propioagatik eska - ditzaketen berezitasunen kalterik gabe ulertuko da.*

Sin perjuicio de ere oso eskas da *ez du trabarik suposatuko* (= no supondrá trabas). Hobe *-ren kalterik gabe*. Gainera expresio hau mi la bider erabiltzen da Estatutu hontan eta oso ere oso kontuz itzuli beharrekoa da.

HIRU ITZULPENAK PAREKATURIK

EUSKERAZAINTZA

EUSKALERRIKO EPAIGINTZA

34'GN ATALA

1. Euskalerriko Epaigintza-Erakundeak. Epaigintza Nagusia izango du buru. Euskalerri osoan izango du aginpidea. Epaiketa-bideak aipatzen dituzten auzi-aldi guztiek beregan izango dute amaia, eta Epaiketa Agintaritzari dagokion Lege Nagusiak dion eran eratuko da.

Euskalerriak, Konstituzioaren 152'gn atalaren arabera, erki edo probintzi bakoitzeko auzi-barrutiak antolatzen eta epaiketarako uriburuak aukeratzen esku artuko du, eta bakoitzari mugak ezarriko dizkio.

ITZULPEN OFIZIALA

JUSTIZI ADMINISTRAZIOA EUSKAL HERRIAN

34. artikulua

1. Euskal Herriko Justizi Administrazioaren antolaketa, zeinak gailurrean Hauzitegi Nagusi bat izango baitu Komunitate Autonomo osoan konpetentzia izango duena, berorren aurrean agortuko direlarik bata bestearen ondoko prozeso eskabideak. Botere Judizialaren Lege Organikoan datorrenaren arauera egituratuko da.

Konstituzioko 152. artikuluan erabakitzen denari jarraiki Komunitate Autonomoak probintziak baino ingurune txikiagoa duten barruti judizialak eratzen parte hartuko du, bai beroien hiriburua seinalatzen ere, dena-den horren muga finkatuz.

F. MENDIZABAL

JUSTIZI ADMINISTRAZIOA EUSKAL HERRIAN

34. Artikulua

1. Euskal Herriko Justizi Administrazioa, zeinaren gorena Hauzitegi Nagusi bat izango bait da Komunitate Autonomikoaren Lurralde osoan konpetentzia izango duena, eta zeinaren aurrean agortuko bait dira batabestearen segidan dauden instantzia prozesal guztiak, Botere Judizialaren Lege Organikoan aurrikusten denaren arauera estrukturatuko da.

Komunitate Autonomoak, Konstituzioaren 152. artikuluan erabakitakoari jarraituz, parte hartuko du, eremuz probintzia baino gutxiago diren barruti judizialak antolatzen eta beroietako hiriburua nun izango den sinalatzen; eta, dena dela, berorren mugak finkatuko ditu.

2. Euskalerriko Epaigintza Nagusiko Lendakaria, Erregek izendatuko du.

3. Euskalerrian, Ziñegotzi-Erakundearen bidez, erriak epaigintzan esku artzeko aukera izango du, Epaiketa-bide Legeak dion era eta onek orrela eskatzen duan zigorauzietan.

2. *Euskal Herriko Justizi Hauzitegi Goreneko Presidentea Erregeak izendatuko du.*

3. *Komunitate Autonomoaren barrutian ekintza herritarren ihardunaldiei erraztasunak emango zaizkie bai Justizi Administrazioan parte hartzen utzi ere Epaimahaia eraikiz, prozeso legeak erabakitzen duen prozeso penalen erara eta arauera.*

2. Euskal Herriko Justizi Hauzitegi Gorenaren Presidentea Erregeak izendatua izango da.

3. Komunitate Autonomoan erraztu egingo da herri-egintzaren iharduera eta Justizi Administrazioan parte hartzea Zinegotzi-erakundearen bitartez, prozesu-legeak zehazten duen eran eta berorrek zehazten dituen prozesu penalei buruz.

35'GN ATALA

1. Goi-Epaikari, Epaikari eta Idazkariak, Auzi-Agintaritzari eta Auzi-Agintaritzaren Goi-Batzarrari buruzko Lege Nagusietan esaten dan eran izendatuak izango dira, eta ortarako Euskalerriko Foru-Legedia ezagutzea, eta euskeraz jakitea, baliapide bereziak izango dira, baiña ez da bereizterik izango sorleku eta bizi-lekuagatik.

35. *artikulua*

1. *Magistratu, Epaikari eta Idazkarien izendapena Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lege Organikoetan aurrikusten den bezalaxe, egingo da, Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehentasuna emanez, izatasuna eta auzotasuna dela eta, salbuespenik egin gabe.*

35. Artikulua

1. Magistratu, Epaile eta Idazkarien izendatzea, Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Generaleko Lege Organikoetan aurrikusten den eran egingo da, eta lehenesteko meritua izango da Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzea, eta ez da salbuespen bakarrik ere egingo inoren sorterria edo biziterria dela eta.

2. Euskalerriak eskaturik, dagokio bere lurralde-barruan. Epaigintza serbitzurako bear ditu, Auzi-Agintaritzari buruzko Lege Nagusiak agintzen duan eran. Leiaketa ta azterkizun oien ondoren utsik dirauten karguak Euskalerriko Epaigintza Nagusiak beteko ditu, Epaiketa Agintaritzaren Lege Nagusiak orrelakoetarako agintzen duan eran.

2. *Komunitate Autonomoaren eskakizunei jarraiki, organo konpetenteak deia zabalduko du lehiaketa eta oposizioetara Euskal Herriko Magistratu, Epaikari eta Idazkarien postu hutsak betetzeko, Botere Judizialaren Lege Organikoak agintzen duen bezala. Lehiaketa eta oposizio horietan hutsik geratuko liratekeen postu hutsak Euskal Herriko Justizi Hauzitegi Gorenak beteko lituzke, honelako kasuetarako Botere Judizialaren Lege Organikoan aipatzen diren arauek aplikatuz.*

2. Komunitate Autonomoak eskaturik, lehiaketa eta oposizioak hotsegin beharko ditu organo konpetenteak, Euskal Herriko Magistratu-, Epaile- eta Idazkari-postu hutsik daudenak betetzeko, Botere Judizialaren Lege Organikoak erabakitzen duenari jarraituz. Lehiaketa eta oposizio hoietan hutsik gelditzen diren postuak Euskal Herriko Justizi Hauzitegi Gorenak - beteko ditu, supostu hontarako Botere Judizialaren Lege Organikoan izango diren arauak aplikatuz.

3. Euskalerriari dagokio bere lurralde-barruan, Epaigintza - serbitzurako bear diran langilleak artzea, eta bere eginkizuna betetzeko bear dituan ornigarriak eta dirutza antolatzea, aalmen ori Auzi-Agintaritza Lege Nagusian Gobernuaren esku gelditzen dan bezela; izendapenak egiterakoan, Euskalerriko Foru-Lagedia ezagutzea ta euskaraz jakitea, baliapide bereziak izango dira.

3. *Bere eremuan Komunitate Autonomoari dagokio Justizi Administrazio zerbitzuko pertsonala eta bere funtzionamendurako behar diren medio materialak eta ekonomikoak hornitzea, Botere Judizialaren Lege Organikoak eskubide hori Gobernuaren eskutan uzten duen hitz beretan, pertsonala hornitzeko sistemetan Euskal Zuzenbide Forala eta Euskara ezagutzen du tenei lehentasuna emango zaielarik.*

3. Komunitate Autonomoari egokituko zaio, bere lur-barrutian, Justizi Administrazioaren zerbitzua pertsonalez eta bere - funtzionamendurako beharrezko diren helpide material eta -- ekonomikoz hornitzea, Botere Judizialaren Lege Organikoan ahalmen hori Gobernuari erreserbatzen zaion terminuetan . beretan; eta, pertsonalez hornitzeko sistemetan, lehenespenez baloratuko da Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzea.

4. Euskalerriak eta Estaduko Epaigintza Zaingoak, Euskalerriak bere gain artuta ko aginpidea egoki burutu dezan, elkar-lana egingo dute.

36'GN ATALA

Euskalerriko Ertzaingoak Epaiketa-Ertzaingo lanean diardunean, Epaigintza-Erakundearen serbitzuan eta menpean ari - bearko du, Auziketa-Legeen arabera.

ERABAKI IRAGANKORRAK

Seigarrena

Saioak bereziki Euskalerrirako egingo dituan ikusirrati-erakunde berri bat Estaduak sortuta bere esku eukirik, Euskalerriaren eskuetan erabiltze-baimenez ipiñi ezkero, Autonomi--Araudi onen 19.2 atalean aipatzen diran arremanak kontuan izatekoak dira, erabiltze-baimenak berak esango duan eran.

4. Komunitate Autonomo eta Justizi Ministeritzaren artean behar besteko kolaborazioa izango da Euskal -- Herriak hartu duen konpetentzia guztiz gestio egokiz betetzeko.

36. artikulua

Euskal Polizia autonomoa, Polizi Judizial gisa ari denean, Justizi Administrazioaren zerbitzuko eta dependentziaren barruan egongo da, prozesu legeetan agintzen den arauera.

AGINDU IRAGANKORRAK

Seigarrena

19.2 artikuluan aurrikusten dena burutzeko, koordinaketa bat egingo da, baldin eta Estatuak, kontzesio gisa, Euskal Komunitate Autonomoari tituluz estatala izango litzatekeen telebistako kanale berri bat erabiltzeko ahalmena emango balio. Kanale horrek Euskal - Herriaren hesparrura mugatu beharko - luke, eta aipatu kontzesioak aurrikusten duen eran gainera.

4. Komunitate Autonomoak eta Justizi Ministraritzak behar bezalako kolaborazioa gordeko dute,Euskal Herriak jaso duen konpetentziari gestio ordenatu bat emateko.

36. Artikulua

Euskal Polizia Autonomoa, Polizia Judizial bezala ari den neurrian, Justizi Administrazioaren zerbitzura eta dependentzipean egongo da, Lege prozesalek ezar ditzaten terminuetan.

ERABAKI IRAGANKORRA

Seigarrena

Exekuziokoan koordinaturik ibiltzea, artikulu 19.2an aipatzen dena, honako supostu hontan izango litzateke bete beharrekoa, - alegia, baldin Estatuak Euskal Komunitate Autonomoaren eskutan jarriko balu, eta jarri ere kontzesio-moduan, titularitate estatalezko telebista-kanale berriren batez baliatzea, zeina izango bait da kanale bat Euskal Herriaren lur-barrutian emititzeko espezifikoki sortua, aipatu kontzesioak aurrikusten dituen terminuen arauera.

Zazpigarrena

1. Autonomi-Araudi onek aipatzen dituan lege mugagarriak edo lege orokorrak "Cortes Generales" diralakoek eratzen ez dituzten bitartean, edo-ta Euskalerriko Legegintza-Biltzarrak berari dagozkionetan Legerik ematen ez duan bitartean, arazo oieri buruz gaur Estaduak dauzkan legeek aginduko dute, naiz-ta Autonomi-Araudi onek erabakitzen dituan arazoetan Euskalerria bera izan legeak betetzera eramango dituana.

2. Estaduko Iritar Lege-Agintaritzapean jarraituko duten zenbait serbitzuk duten lurralde--mugen berezitasunagatik, Autonomi-Araudi onek 23.1 atalean diona osorik ezin beteko da.

Zazpigarrena

1. Estatuto honek aipatzen dituen - oinarrizko legeak edo lege orokorrak Gorte Jeneralek elaboratzen ez dituzten bitartean, edo eta Euskal Biltzarreak bere konpetentziako gaiei buruz legerik ematen ez duen bitartean, oraindaino indarrean dirauen Estatuaren legeek jarraituko dute aurrerantzean ere gai horiei buruz, guztiorien burutzea Komunitate Autonomoaren eskuegongo delarik Estatuto honetan aurrikusten diren kasuetan bederen.

2. Estatuto honen 23.2 artikuluan - aurrikusten denak, ez du trabarik suposatuko beren jite propioarengatik, eta lurralde hesparruari dagokionez, Estatuko Administrazio Zibilaren zenbait zerbitzuk bere prestamenerako eska ditzakeen berezitasunentzako.

Zazpigarrena

1. Estatutu honek aipatzen dituen lege oinarrizko edo generalak Gorte Generalek elaboratzen ez dituzten bitartean eta/edo Euskal Parlamentuak bere konpetentziazko gaietan legerik egiten ez - duen bitartean, indarrean jarraituko dute gai beroiei buruz Estatuak gaur dituen legeek, eta ez da eragozpenik izango beroien exekuzioa Komunitate Autonomoak burutu dezan, Estatutu hontan horrela aurrikusten diren kasuetan.

2. Estatutu honen artikulu 23.1ean aurrikusten dena, Estatuaren Administrazio Zibileko zenbait zerbitzuk, berauek nun prestatzen direneko lur-barrutiari dagokionez, beren izaera propioagatik eska ditzaketen berezitasunen kalterik gabe ulertuko da.